

# ebazpenak

2000ko Apirilaren 7 eta 8an. Donostia

g e r o a r i   a u r r e a   h a r t u z



B i l t z a r   n a g u s i a

Zbkia

ZA  
BAI  
TZEN

TXT 20160

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

I L A B

25 urte lanean

# Zuzenketak - Correcciones

Zuzenketak: euskaraz 167. - 168. orrialdeetan eta gazteleraz 174. - 175. orrialdeetan.

## U. BILTZAR NAGUSIAK HAUTATURIKO KOMITE NAZIONALEKO KIDEAK

### **Komite exekutiboa**

IDAZKARI NAGUSIA: Rafa Diez Usabiaga

EKINTZA SINDIKALA ETA POLITIKA SOZIALERAKO IDAZKARIA: Txomin Lorca Alcala

NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO IDAZKARIA: Jose Luis Rezabal Zurutuza

KOMUNIKAZIO IDAZKARIA: Jesus M. Ariznabarreta Zubero

FINANTZAK, AZPIEGITURAK, GIZABALIABIDEETAKO IDAZKARIA: Felix Lopez Torres

GAI EKONOMIKOETARAKO IDAZKARIA: Rafa Izquierdo Sanchez

GAI JURIDIKOETARAKO IDAZKARIA: Mari Paz Garcia Ortega

EMAKUME ARLOKO IDAZKARIA: Itziar Lopategi Basterretxea

GAZTE ARLOKO IDAZKARIA: Ainhoa Etxaide Amorrortu

NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO IDAZKARIA: Jesus Gete Olarra

HEZKUNTZA IDAZKARIA: Juan Angel Arrea Zorrilla

BARNE KOORDINAZIORAKO IDAZKARIA: Jabi Garnika Andueza

ANTOLAKUNTZA IDAZKARIA: Santos Indakoetxea Arangoa

## **Sektoreetako idazkari nazionalak**

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK (UDALEKOA, AUTONOMIKOA, ESTATUKOA, POSTAK):

Juanjo Aranburu Rojas

ERAIKUNTZA, ZURGINTZA, BEIRA eta ZERAMIKA: Juantxo Latasa Getaria

FINANTZAK (BANKA, AURREZKI KUTXAK eta ASEGURUAK): Josean Urkiola Cuni

GARRAIOA, TELEKOMUNIKAZIOAK: Carlos Ginea Plaza

IRAKASKUNTZA (PUBLIKOA, PRIBATUA, IKASTOLAK): Iñaki Gonzalez Murua

ITSASOA (ARRANTZA ETA MERKATARITZA).

KIMIKA, ENERGIA, OIHALGINTZA, PAPERGINTZA eta ARTE GRAF: Marijo Romero Martinez

MERKATARITZA, OSTALARITZA eta GARBIKETA: Olatz Arozena Isasa

METALGINTZA: Angel Mateos Parra

OSASUNGINTZA (PUBLIKOA, PRIBATUA, GIZARTE ASISTENTZIA): Nekane Erauskin Otegi

## **Eskualdeetako idazkariak**

### **ARABA**

AIARA: Irene Isusi Odiaga

ERRIOXA-BAILARAK-MENDIALDEA: Jose Antonio Garrido Garrido

GASTEIZ-LAUTADA: Jabi Elorriaga Preciado

### **BIZKAIA**

BILBO: Lola Gomez Perez

BUSTURIALDEA-LEA ARTIBAI: Jon Iñaki Alkorta Gandiaga

DURANGALDEA: Aitziber Zallo Kamara

ESKUMALDEA: Fernando Saenz Ruiz

EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK: Felipe Henales Madrazo

HEGO URIBE-ARRATIA: Josu Bilbao Beotegi

EBAZPENAK



## EUSKAL HERRIA GUZTION NAZIOA, GUZTIONTZAKO NAZIOA .....4

1. NAZIOARTEKOA
2. EUSKAL HERRIA
3. INDEPENDENTZIA: DEMOKRAZIA POLITIKO ETA SOZIALAREN ALTERNATIBA
4. MARKO JURIDIKO-POLITIKO BERRIA. DEMOKRAZIA ETA SUBIRANOTASUNA

## ESTRATEGIA SINDIKALA: BURUJABETZA OSOKO GIZARTE BERRIRANTZ .. 59

- 1.- EUSKAL HERRIAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA
2. EUSKAL LANGILE-MUGIMENDUAREN EGOERA
3. EKINTZA SINDIKALA, SUBIRANOTASUNEZKO MARKOA GORPUZTEKO
4. EKINTZA SINDIKALA, EUSKAL GIZARTE BERRIA ERAIKITZEKO
5. EKINTZA SINDIKALAREN EREDUA
6. EKINTZA SINDIKALAREN BATASUNA

## PARTE-HARTZEA BULTZATUZ ERAGINKORTASUN BIDEAN .....131

### SARRERA

1. GAURKO EGOERA. ANTOLAKUNTZAREN AGERPENA
2. ANTOLAMENDUA: BALANTZEA
3. HELBURUAK ETA ERRONKAK
4. EREDUAK, EGITURAK
5. ZUZENDARITZA-ORGANO KONFEDERALAK
6. EGITURAK, EGINKIZUNAK ETA OSAKETA
7. IDAZKARITZAK ETA KABINETAK: GOGOETA
8. KONTU OROKORRAK

EUSKAL HERRIA  
GUZTION NAZIOA  
GUZTIONTZAKO NAZIOA

## 1. NAZIOARTEKOA

Sarrera

- 1.1.-Ultraliberalismoak aurrera etengabe
- 1.2.-Sozialdemokraziak, alternatiba eskaintzerik ez
- 1.3.-Europar Batasuna
- 1.4.-Europar sindikalismoa
- 1.5.-LAB eta Europaren eraikuntza
- 1.6.-Internazional Sindikalak
- 1.7.-LABen jarrera

## 2. EUSKAL HERRIA

Sarrera

### 2.1. BALANTZEA ETA KOKAPEN POLITIKOA

- 2.1.1. Ziklo baten amaiera
- 2.1.2. Lizarra-Garazi
- 2.1.3. ETaren su-etena
- 2.1.4. Prozesu eratzaille baten bidean: subiranotasuna praktikan jarritz
- 2.1.5. Euskal sindikalismoa eta zikloaren amaiera

### 2.2. PROZESUKO FASE HONEN EZAUGARRIAK

- 2.2.1. Fase politiko hau kontzeptualizatuz
- 2.2.2. Klabeak igarotze honetan

### 2.3. PROZESUA ETA EUSKAL LURRALDEITASUNA ERANSKINA

## 3. INDEPENDENTZIA: DEMOKRAZIA POLITIKO ETA SOZIALAREN ALTERNATIBA

Sarrera

### 3.2. INDEPENDENTZIA, INTERDEPENDENTZIAZKO BARRUTI POLITIKO-EKONOMIKOAN

### 3.3. EUSKAL ESTATUA: EUSKAL HERRIAREN ZAKO ALTERNATIBA

- 3.3.1. Oinarrizko ezaugarriak
- 3.3.2. Euskal Estatua eta gizarte-aldakuntza
- 3.3.3. Independentzia eta klase-elkartasuna
- 3.3.4. Euskal Estatua: demokrazia eta unibertsaltasuna
- 3.3.5. Euskal Estatuaren fluxu sozio-ekonomikoak

### 3.4. EUSKAL HERRIAREN INDEPENDENTZIA: demokratikoki antolatuta eta irabazi beharreko alternatiba

## 4. MARKO JURIDIKO-POLITIKO BERRIA, DEMOKRAZIA ETA SUBIRANOTASUNA

### 4.1. GOGOETA OROKORRA

### 4.2. DEMOKRAZIAZKO AGERTOKIA

### 4.3. MARKO JURIDIKO-POLITIKO BERRIRAKO BIDEAN

- 4.3.1. Lurraldetasuna
- 4.3.2. Eduki sozio-ekonomikoak
- 4.3.3. Prozesuaren ezaugarriak
- 4.3.4. Erritmoak. Borroka-bideak
- 4.3.5. Marko berria eta Estatu-ereduak
- 4.3.6. Prozesu eratzaillea. Presoak kalera atzeratzea
- 4.3.7. Euskal sindikalismoa eta marko berria

# 1.- NAZIOARTEKOA

## Sarrera

Nazioartekoan, egoera politiko eta ekonomikoaren bilakaerak ez du funtsezko aldaketarik izan azken hiru urte hauetan: geure IV. Biltzar Nagusian adierazi genituen joerak areagotu egin dira.

"Egiazko sozialismoaren" herrialdeetan antolatutako eredia eraitsi ondoren, egoera politiko eta ekonomiko hondatzen ari zaie etengabe mundu osoan herri xeheari eta langileriarri: zanpatua, zatikatua dago hau, sekulako zailtasun latzak dituelarik ekonomiaren garapen harmonikoa eta justizia sozialaz hornituriko alternatibak bultzatzeko.

Ultraliberalismoak esplotazioa, pobrezia, ingurugiroaren hondamena, nazioarteko segurtasunik eza eta gainontzekoak areagotu ez ezik, mundu osoko herritarrok gainean ditugun lau arazo larriak sortu eta bultzatu ditu: energia nuklearra, demografiaren hazkuntza, pobrezia eta - planetak egunero jasan behar izaten duen hondamenaren ondorioz - ezbehar naturalak.

Iraultza teknologikoa - klase-borrokaren bereizgarri asko aldatu dituen - gizarte-klaseen arteko desmailak murrizteko gauza ez da izan eta, gainera, botere ekonomiko-finantziariek gaiztakeriaz erabili dute, hauek egiazko diktadura politiko-ekonomikoa bihurtu direlako, gizateria osoa menpean harturik.

Hirugarren milurtekoa hastear, Nazioarteko Langile Mugimenduak kontzeptu eta balore ugari gaurkotu behar ditu, ideologia ultraliberalak horietako asko kutsatuta utzi baititu. Klase-borroka indarrean dagoela aldarrikatuz, gordinkeriazko esplotazioa eta sistema honen ardura politiko eta ekonomikoak salatuz, ideologikoki geure burua jantzi eta, horrekin batera, Langile Mugimendu osoak erantzuteko eta elkartasunez jarduteko eran-tzuna eman behar dugu.

Europaren eraikuntzak diru-konbergentzian sekulako aurrerapausuak egin baditu ere, hortxe bakarrik garatu da, lehiakortasun eta eragin ekonomiko-politikoaren alorrean, EEBB eta Japoniako multinazionalen ekaitzaren beldur.

Korrante politiko-ekonomiko horiek baldintzaturik, Europar Batasuna eskuhartze eta sinesgarritasun urri-urritz diseinatzen ari dira; aldi berean, mundu osoan bestelako

errealitate erregional batzuentzat esperantzatsua izan litekeen konbergentzia sozialari bizkarra eman dio.

Eszenatoki kezkarri eta baldintzapeko horretan, bere askatasunak berreskuratzeko bidean Euskal Herriak bizi duen prozesuak - pertsona merkatuaren gaintik ipiniko duen sozialismoa lortzeko borroka eta guzti - aldaketa itxaropentsuak ekarri ditu.

Aldaketa horiek, LABek orain dauzkan kezka berak edo beretsuak objektiboki dituzten nazioarteko erakunde sindikalekin elkarlanean aritzera eta informazioa trukatzera bultzatu gaituzte.

IV. Biltzar Nagusian asmo bi bete nahi ditu LABek: nazioarteko alor sindikalera ateak zabalduz, horren eskutik hurrengo milurteko erronka amankomunetan esku hartu eta, nola ez, Euskal Herriaren etorkizun politiko eta sozialaren alde euskal langileriak aurrera daraman borroka umil bezain irmo kokatzea.

### **1.1. "Ultraliberalismoak" aurrera eten gabe**

Korronte "neoliberalak" - eufemismo dialektiko honen bitartez, kapitalismo gordin antidemokratikoa adierazten dute - aurrera segitzen dute, beren eragin politiko-ekonomikoa zabalduz eta, gainera, desmaila ekonomiko eta sozialak areagotzen dituen globalizazioa azkartuz.

Panorama horretan sortu da Inbertsioen Itun Multilateralala (IIM): multinazional eta Estaturik boteretsuenen kontrolpeko nazioarteko erabakiunea litzateke hori, bi helbururekin: kompetenzi arazoak konpontzea eta, korporazio transnazionalak zabaltzeari era guztietako eragozpen sozial eta politikoak kentzea.

IIM (nahiz eta, 1998ko urrian Estatu frantsesak utzi zuelarik, itxuraz behintzat, alboratua egon den) suspertu egin da ostera bestelako justifikazio eta babestokietan, baina bereari eutsita. Merkataritzako Mundu Erakundeak (MME) 1999ko azaroan Seattle-n (Estatu Batuak) egindako bileran izan liteke IIMen aldekoek lortu nahi duten akordioa zehazteko azken bultzada.

Jabetza intelektualari buruzko akordioari eta zerbitzuen merkataritzari buruzko akordio orokorrari esker, MMEren bitartez multinazionalak ezartzen dituzten arauen arabera kontrolatu ahal izango dira 160 azpisektore eta jarduera.

Osasunaren pribatizazioak, elikagaien manipulazio genetikoak, baliabide naturalen esplotazio generalizatuak, nekazaritza-produktuen merkataritzaren desregulazioak eta beste batzuek, dagozkien herrialdeen eskukoak izan beharko luketen funtsezko erabaki

sozio-ekonomikoen menpekoak direla erakusten dute.

Beste elementu kezkarri bat: nazioarteko finantza-kapitalaren jarduerak geroz eta kontrol gabezia gorriagoan ari dira. Egunetik egunera produktioetik urrutiago dabil, enpresa osoak itxi eta zeinahi Estatu edo herrialdeetako dirua bazterrean uzteko moduko espekulazio-mugimenduak eraginez. Ordainketa-Kompentsaziorako Nazioarteko Bankuak emaniko datuen arabera, astegun arrunt batean 1,5 bilioi dolar jabez aldatzen dira: banketxe handiak sekulako etekinak irabazten ari dira, "deribatuen negozio" izenekoan eginko eragiketa eskusiboei esker.

Bolada honetan ikusten dugunez, multinazionalak bat egiten ari dira bizi-bizi: aurki gauzatuko omen diren akordioen aurrean, jarrera hobea zeinek hartuko, korporazio horien arteko borrokaren agerpena da hori. Enpresa eta finantzen bilketa-fase hori finantza-kapitalaren aurrerako ihesaldia da, merkatuak monopolio gisa harrapatzeko eta, era horretan, bere barne-krisialdiei irtenbideak bilatzeko (deslokalizazioa eta lan - zein langile - kostuen murrizketa aplikatzearen bitartez, batik bat).

Joera horiek erabat baldintzapean jarri dute egungo Estatuaren eginkizuna: globalizazioa babesteko tresna hutsa da Estatu eta, beraz, estrategia horiei aurre egiten dieten erresistentzia sozial, ekonomiko eta kulturalen kontra agertzen da. Egungo Estatu eta ultranazionalismo imperialista arteko identifikazioa, hain zuzen ere, gero eta estuagoa da.

Multinazionalak eragindako txikizioen eta, hortaz, handi horien esanetarako txotxongilo besterik ez diren gobernuen biktima izaki, Afrika, Asia eta Amerikako herrialde askotan pobrezia, analfabetismoa eta antzekoak masifikatzen ari diren bitartean, txirotasuna eta bazterkuntza gizarte "garatuetan" ere ugaltzen ari dira, luxu eta xahukeriaren ondoondoan.

Komunitate eta herri osoetan pobrezia masifikatzeak, kontrolatzeko geroz eta zailago den migrazio-prozesua indartu du; horren ondorioz, gizarte "garatuetan" jarrera xenofoboak sortu dira baina hauei ez zaie behar bezala aurre egiten. Hau da, txiro izatera eta, aldi berean, bestelako etorkizun ekonomiko eta sozialik ez ezagutzera kondenatu ditugu beste horiek. Milioika lagun gosez hiltzea, bazterkuntza soziala garapenaren ondorio logikotzat izatea - geroz eta hobeto bizi diren gutxiengoak eta pobrezian irauten duen gehiengo zabalaren arteko aldeak egunean baino egunean larriagoak izaki -, neoliberalismoak ez du jotzen giza eskubideen kontrako atentatutzat: naturaltasun iraingarriaz asumitu du.

Milioika lagun gozez hiltzeak, edota gozez hiltzera zigortzeak, eta bazterkeria garapenaren ondorio logikotzat hartzeak -gero eta hobekiago bizi den gutxiengo sektoreen eta ahal den bezala bizirik dirauten edota txirotasunean bizi direnen arteko: gehiengo

handia dena, aldeak handitzeak, alegia- neoliberalismoak ez du hartzen giza-eskubideei egiten zaien atentatu gisa. Aitzitik, naturaltasun iraingarri batez onesten du.

Beste izkinatik, EEBB eta NATO bera ere iritzi publikoaren aurrean "giza eskubideen defentsarako" gotorleku gisa agertu dira (horretan, komunikabideen botere hegemonikoa alde izan dute beti), gehienetan beren eragin geopolitikoa areagotzeko aitzakia hutsak baino ez diren sasi-istiluetan. Planteamendu horien zinismoak zer pentsa eman behar dio bere burua aurreraletzat jotzen duenari.

EEBBen hegemonia politiko-militarrak hartu duen bultzada (Iraken edo Balkanetan agertua, adibidez) eta nazioartean NBEk eginkizun subsidiarioa betetzea, adibidez, izan dira globalizazio ekonomiko horren ezaugarriak.

Europar Batasunaren nortasun politiko ahulak eta Errusiak - SESBen oinorde nagusia - eta Txinak - EEBBen aurka bakarrik egotetik neutraltasunera doana - erakutsitako jarrerak, ultraliberalismoaren (alegia, XXI. mendeko benetako faxismoaren) faktore bihurtu dute EEBBen hegemonia politiko-militarra.

Sistema politikoak - itxura demokratikokoak barne -, globalizazioak eta ultraliberalismoak zorrotz baldintzatuta daude; joera horiek, beren interesen aldeko tresna hutsa bihurtu dute Estatu edo Estatuaren botere politikoa.

Kapitalaren jarduera - merkatuaren baliokide, teoria ultraliberalaren arabera - eragotz dezaketen interferentzia eta interbentzio sozioekonomikoa eragiteko ahalmena botere politikoari ukatzea, indarrean dagoen demokrazia eredia goitik behera lehenagora ekartzea da. Era horretan, kapitalaren garapen "erosoa" segurantziaz (polizia eta informazioaren kontrola, garapen militarra, desregulazio laboralak, etab.) hornitzeko dago antolatua Estatu-aparatua.

Horrela bada, produkzio-ereduaren aldaketa (nazioartekotzetik eta mundializaziotik, globalizaziora) ekartzen lagundu duten eraldakuntza teknologikoaren arabera menpekotza-pleguen birmoldaketa ezaugarri duen mundu honetan, erakunde alternatiboak bildu eta eztabaidan aritzea sekula baino premiazkoagoa dugu, egoera berrian eran-tzun eta borroka-era egokienak zein diren aztertzeko.

Halaz ere, erantzunetan gaurregun koordinaziorik ez dagoenez, ultraliberalismoa aurreraka ari da, faxismo politiko-ekonomiko berriaren euskarri ideologikoa bihurtuz, ehunka milioi pertsonarentzat.

## 1.2. Sozialdemokraziak, alternatibarik ez

Kapitalismoa eta komunismoaren arteko "hirugarren bide" gisa sorturik, formula eraginkortzat agertzen ari da sozialdemokrazia, gizarte garatuetan ultraliberalismoa eta globalizazioaren eragin gaiztoak xuabe baina sakon sar daitezzen.

Ultraliberalismoaren estrategia (kapitalaren ahalmen eta eragina zabaltzeko, "segurantzia" garantizatu eta desregulazioa eragiteko tresna huts bilakaturik, Estatu anorexikoak bultzatzea) gainean zutela, langileriaren eta sektore aurrerakoen eskakizun taktiko-estrategikoak jasoko lituzkeen alternatiba nabaria antolatzeko gauza ez da izan (eta ez da) sozialdemokrazia.

Blair eta Schröder-ek eginiko proposamena ("hirugarren bidea", hain zuzen) dela eta, Internazional Sozialistaren baitan planteatu den eztabaida berriak garbi agertzen du sozialdemokraziaren posizio klasikoetan finkatu den poluzio ultraliberal hori; Estatua nimitz eta ahul bihurtzeko joera indartu egin da, talde finantziari-ekonomikoen mesedetan.

Hein handi batean asmatu duela iruditzen zaigun arren, eredu ekonomiko eta sozialean botere politikoaren funtzionaltasuna defendatuz eta sustatuz, "hirugarren bide" horren aurka doazen "Osoko Aurrerakuntza" txosteneko tesiek (Lafontaine, Jospin eta antzekoak aitzindari dituztela) mesfidantza latza sortu dute guregan, pertsona horiek azken urteotan izan duten eginkizun eta norabideak ezagunak baititugu.

Europar ezezik, mundu osoan, sozialdemokraziak porrot egin du eta azkenean, eskuindarren politika bera egiten du bai alor sozialean bai alor ekonomikoan.

Gerren ondoko banaketan edo zampaketen ondorioz, Estatu gabeko herrien esku-bide demokratikoen aurrean sozialdemokraziak hartu duen jarrerak, tesi neoliberalen jarraiera eta, (globalizazioaren ondorioei emaniko erantzuneko aktibo gisa) alor kultural zein sozialean kohesionaturiko kolektibitate horien borrokak ulertzeko desgaitasun nabarmena erakutsi du.

Ultraliberalismoak nazio-borroka guztiak (bere hedapen-tesien mesedetakoak izan ezik) gaitzetsi ditu, talde ekonomiko-finantziarien (eta hauen eragin politikoaren) hedapena baldintzatzeko oztopo politiko-instituzional bilaka daitezkeen neurrian; salbuespenak salbuespen, antzeko jarrera hartua du sozialdemokraziak, bere etorkizunaren subjektu politiko izatea exigitzen duten herrien eskakizun legitimoen aurrean.

Gogoeta honen helburua, gaurregun ezker politiko eta sozialak nazioartean jasaten duen erantzun eta alternatibarik gabezia itzelak objetiboago kokatzea da. Badakigu zeri egin nahi diogun aurre, baina -taktikan eta estrategian - alternatibazko planteamendu ikusgarri eta operatiborik ez dugu.

Gure III. Biltzar Nagusian adierazi genuen "geldialdi historiko" haren sentsazioa airean dago oraindik. Teorian eta antolamenduan ahalegin handiak egin behar dira, injustizia, esplotazio eta zapalkuntzazko espiralari erantzuna emango dioten balore eta ereduak defendatzera eraman dezagun gizartea.

Dogmatismo analitikoak gainditu eta sozialismoaren aldeko borrokaren ekarpen teoriko eta praktikoari etengabeko erreferentziak eginez, esparru sozialistetatik, esparru sozialdemokrata batzuekin batera eta, orohar, neoliberalismoaren aurka jarduten duten esparru guztiekin batera, milurte berrirako alternatiba sozialista bat izan behar duen proposamen ekonomiko eta soziala egituratzearen bidean urratsak eman behar dira.

Alternatiba honek, beste aldagaien artean, autodeterminazioaren eskubidea oinarritzko puntutzat izan behar du. Kultura zein gizarte kohesioaren baitan eta klaseko elkartasuna landuaz, esparru politiko, ekonomiko eta sozialak egituratu behar ditu askatasuna, demokrazia eta sozialismoaren aldeko borroka kolektiboan eragina eta elkarganatze gaitasuna areagotzeko.

### **1.3. Europar Batasuna**

Europar Batasunak ezaugarri duen konbergentzia ekonomiko-monetarioak (erreferentzia nagusi bat, 2002ko urtarrilean "euroa" zirkulazioan abiatzea izaki), globalizazioaren baldintzapean, eskuhartze politiko demokratikoa eta kohesio soziala jaso ditzakeen zeinahi alternatibatatik Europar Batasuna urruntzen duten oinarri eta irizpideei helduta jarraitzen du.

1999ko ekainaren 13an egin ziren Europar Parlamenturako hauteskondeek, hiritaurrengan "proiektu europar" horren sinesgaitasuna eta deserrotzea sortzeaz gainera, bere legitimitate demokratikoa astindu egin zuten: astinketa hori, gainera, denbora pasa ahala larritu egin daiteke.

Euroa eta Europar Banku Zentrala (EBZ) (Europar Batasunaren egiazko botereune "autonomoa") martxan jartzea, eragina eta botere-kotak irabazi nahi dituzten sektore ekonomiko-finantzarien ikuspegi eta interesetatik sustaturiko konbergentzia bihurtu da, globalizazioaren markoan.

EEBBen estrategia politiko-militarraren aurrean benetako kohesio soziala lortzerik ez egoteak eta Europar Batasunak nortasun politikorik ez izateak (areago, benetako izaira subsidiario nabarmena agertzeak) batasun horren ahulezia estrukturala berresten dute.

Pobrezian bizi diren 50 milioi lagun horiek, dotrina ultraliberalari jarraiki, kohesio

soziala lagunduko luketen aurrekontu-politikarik asumitzeke segitzen duen Europar Batasun horren ispilu dira.

Babes sozialari dagokionez, Europar Batasunean bertan iparralde eta hegoaldearen arteko dikotomia egotea, botere faktiko ekonomiko-finantziari handiek egokitzen jotzen dituzten gaietako konbergentzi politikaren ondorio da. Horien ikuspegitik, etekinik gabeko gastua da kohesio soziala.

Horren aurrean, Sindikatu Europarren Konfederazioak (SEK), Helsinkin egin duen IX. Biltzarrean, errealitate horri teoriarik behintzat erantzuna eman nahi dien adierazpena egin du: "Garapena, integrazioa eta kohesio soziala sustatzen dituen indar sozial eta ekonomiko mesedegarria dira babespen sozialeko politikak".

Autodeterminazio-eskubidea praktikan jarritako europar prozesuen aurrean Europar Batasunak era askotako jarrerak izan ditu, elkarren kontrakoak batzuetan. Areago, globalizazio-prozesuaren baitako interes politiko-ekonomikoez eginiko balorazioak baldintzaturik egon izan da, funtsez.

Aurrean dugun Europar Batasunak autodeterminazio - eta independentzia-prozesuak - Alemanian (bateratzea), Lituanian, Estonian, Txekian, Eslovakian, Eslovenian, Kroazian, Bosnian sustatu ditu, eskubide hori praktikan jartzearen ondoriozko errealitate berriak (Ukrania, Bielorrusia, egungo EIK) onartu ditu, baina Europako Mendebaldeko Estatuetan dauden nazio-arazoei intransigentziaz erantzuten die beti.

Egun Euskal Herrian, Irlandan (bateratze-prozesua), Katalunian, Galizian, Flandrian, Valonian, etab. europar proiektuan berezko nortasun politiko eta instituzionalarekin esku hartu nahi duten kolektibitateen eskakizun demokratiko nagusia da autodeterminazio-eskubidea halakotzat hartu eta praktikan jartzea.

Eskubide demokratikoen onarpenean Europar Batasunak erakutsi duen arbitrarietateak behartu gaitu erakunde hori har dezagun Estatu (Estatu batzuetako) nazionalismoa eta bere makineria hedatzaile eta desregulatzailari eragozpen politiko-instituzionalik ezartzerik nahi ez duen ultraliberalismoaren interesen aliantza moduko zerbait dela pentsatzera.

#### **1.4. Europako sindikalismoa**

Horrelako Europar Batasunean bertako sindikalismoak jarrera ahula du, inizatibarik gabea, hurrengo urteotan suspertu beharko dena.

Jarduera ultraliberalari leial, europar konbergentzia horrek sindikalismoari aitortu dion

eginkizun zeharo subsidiario eta sinbolikoa gainditu beharra dago, erreibindikazio-ardatz amankomunen gaintik, espazio sozio-politiko bakoitzean dagokion erantzun soziala piztuz.

Estatuetako edo Estatu gabeko herrietako sindikalismoak SEKen eskuetan (EBaren aurrean gestioa egin dezan, CCOO eta beste sindikatu batzuek proposatu bezala) "eskuduntzak" uzte hori, korronte neoliberalen eta Europar Batasunaren eredu honen aurrean sindikalismoak nozitzen duen ahulezia eta burokratizazioa areagotzeko bilakatuko da etorkizunean.

Tokian tokiko borroka sozialak indartzea eta SEKetik planteatzen daitezkeen norabide eta jarraibideekin lotzea ezinbestekoa iruditzen zaigu guri.

Helsinki SEKek eginiko azken Biltzarra, europar sindikalismoaren berpizkundean Konfederazio horrek egiazko protagonismoa eta zuzendaritza eraginkorra gorpuzteko unean dituen kontraesan eta zailtasunen agerpen garbia izan da.

### **1.5. LAB eta Europaren eraikuntza**

Ekonomikoki eta politikoki halakotzat hartuak izatea zor zaie Europako herriei; beraiek izan behar dutelako egiazko eragileak Europaren eraikuntza-prozesuan. Europa eraikitzeke - integrazio-helburutzat -, herriek osaturiko Europa bakarrik izan daiteke egokia.

Europa Europa izango da, baldin eta modernotasunaren emantzipatzaile diren elkartasuna eta sozialismoa aske utziko dituen gizarte-eredu berri bat moldatzeko gauza bada. Elkartasun sozialarekin eta kontzientziario ekologistarekin konpromiso harturiko europar proiektua da hori, bestelakotasun etniko eta kulturekin tolerantia eta demokratikoa, patriarkala ez den eredu soziala bultzatzen duena,...

Aberastasunen osterako banakuntza ahalbideratuko duen mundu-garapenaren proiektu batekin estu-estu lotu behar dugu europar integrazioa, honi esker herrien garapen endogenoa eta, horrenbestez, hurrengo belaunaldien iraupena posible izan daitezen.

Europaren eraikuntza prozesu eratzaillea izango da, nahitaez, erakunde demokrati-koetan oinarritua, botere finantziari edo politikoen guneen uztarpean arituko ez dena. Prozesu eratzaille horrek, gizakien eta herrien eskubideak eta amankomunean jarduteko mekanismoak arautuko dituen Europar Konstituzioaren premia izango du.

Europa hori eraikitzeak, batetik, finantza-eremuan ere demokrazia sakontzea eta, bestetik, espekulazio-mugimenduak suntsitzeko eta Batasunaren baitako kapitalen mugierak kontrolatzeko tresna eraginkorrak sortzea agintzen digu. Planteatzen dugun demokraziaren sakontzeak, sindikatuek eta eragile sozialek erakunde-ehun osoan esku hartzea esan nahi du.

Adiera horretan eta herrien arteko elkarlan, elkartasun eta subiranotasunean oin harturiko nazioarteko harreman-eredua eratu behar dugula berretsiz, egungo kapitalen bilketa eta metaketak bere horretan jarrai ez dezan neurri guztiak har daitezen exigi-tzen dugu. Era berean, kapital-mugiera espekulatzailleak eta praktika monopolistak zorrozki kontrolatuko dituzten politikak aurrera eramatearen aldeko gara.

"Tobin Tasa" bezalako ekimenen alde gaudela esan nahi dugu berriz, kapitalaren mugiera espekulatzailleak zamatzen eta, horretatik erdietsitako fondoak, dagozkien herrietako hiritarren bizimodua hobetzeko baliatzen ahalegintzen direlako horien bitartez. Dena den, ekimen horren ezinbesteko osagarria, garapen bidean datozen herrialdeei kanporra barkatzea izango da.

## 1.6. Internazional Sindikalak

Internazional sindikalek azken urteotan sakoneko aldakuntzak izan dituzte, mundu osoko egoera politiko-ekonomikoarekin batera.

"Blokeen arteko gerrak" iraun zuen bitartean, bere jarrera ideologikoak ez ezik, harreman - eskuhartze - eta erantzun-estrategia osoa ere argi eta garbi adierazi nahi izan zuten Internazional Sindikal guzti-guztiek.

Gaurregun, "bloke sozialista" desagertu, ultraliberalismoak arrakasta hartu eta nazioartean mugimendu sindikala ahuldu ondoren, egoera biziki aldatu da: sortu den tuinguruan alde ideologikoa murriztuz doa eta elkarrekin lanean aritzeko eta elkarrenganatzeko politikak geroz eta ugariago dira.

Une honetako panorama, zirriborroka, hauxe litzateke:

Sindikatu Mundu-Federazioa (SMF, FSM)

Sindikatu Askeen Nazioarteko Konfederazioa (SANK, CIOSL)

Lanaren Mundu-Konfederazioa (LMK, CMT)

## 1.7. LABen jarrera

Nazioartekoan, botere ekonomiko-militarraren nukleo hegemonikoek ezarritakoaz zeharo bestelako harreman-proiektuaren alde lanean jarduteko beharra ikusten du LABek.

Gure ustez, ahalmen teknologikoek eta herrien garapen demokratiko eta solidarioak agintzen dute subiranotasun politiko eta ekonomikorik ez uztea korporazio transnazionalen edo nazioarteko botereuneen eskuetan; alderantziz, nork bere garapen-eredua jorratu behar

du, nazioartekoan harmoniaz, elkartasunez eta elkarlanean aritzeko irizpidearekin.

Mundu-ikuspegitik eragiten gaituzten arazoei erantzuna emateko premia dugu, ederki dakigunez: garapen ekonomikoa eta enplegua bultzatu, ingurugiroa zaindu, elkartasunean sakondu, ezbehar naturalak prebenitzeko politikak; herri eta Estatuaren arteko istilu armatuak, banakuntza, garraio eta merkataritzari dagozkion arazoak, sexu, arraza eta besteengatiko bazterkuntza gainditzea...

Harreman hauen diseinuan eta herrien zein herritarren eskubideak errespetatuko dituen mundu osoko gizartea moldatzean subjektu eragile izan nahi dugu. Gaur bertan, zoritxarrez, indarrean dauden bestelako teoria eta praktiken aurka, segurtasun-politikarik hoberena, ingurunearekin harmoniaz gizakia garatzea bultzatzen duena dela iruditzen zaigu, herriari zor zaien autodeterminazio-eskubidean oinarrituta.

Horrela bada, segurtasun eta bake-alorrean egin daitekeen inbertsiorik egokiena, herrien garapenean egiten denari deritzogu.

Bide horretatik, Euskal Herria eta munduko gainontzeko herrien arteko lotura geroz eta estuagoa, geroz eta aberatsagoa bultzatuko dugu, geure borroka eta helburuak ezagutaraziz eta konpromiso kolektibo handiagoak geureganatuz.

Euskal Herrian azkeneko hamarkada hauetan, nazio - eta gizarte -askapenaren alde gauzatu dugun borroka marko honetan hartzen duen nazioartekotasuna indar eta baliabide egokiez sustatu behar dugu.

Adiera horretan, Sindikatuen Mundu-Federazioan (SMF, FSM), Sindikatu Askeen Nazioarteko Konfederazioan (SANK, CIOSL) eta Lanaren Mundu-Konfederazioan (LMK, CMT) geure agerpena eta partehartzea gauzatu ahal izateko gestioei ekin behar zaie, LABen ustez. Edonolako nazioarteko erakunde sindikalean sartzeko erabakia Biltzar Nazionalean landuko da, bere izaera, osakera eta erakunde horietan balizko partehartzearen ondorioen inguruko alde aurretiko txosten zehatzarekin.

Era berean, goian aipaturiko gogoetatik, LABentzat garrantzi handia du Sindikatu Europarren Konferentzia eragiten hastea, alternatibak eskainiz eta eztabaidatzeko gaitasunaz, kide gaituen europar sindikalismo osoa sustatu dezan.

Bukatzeko, Estatu gabeko nazioetako (Galizia, Eskoziak, Korsika, Kanariak, Kataluina...) europar erakunde sindikalen arteko harremanak egonkortzea ahalbideratuko ditu LABek, balizko CONSEO bat gorpuzteko bidean.

## 2. EUSKAL HERRIA

### Sarrera

Euskal Herriak bizi duen panorama sozio-politikoaren inguruan V. Biltzar Nazional honetarako planteatzen den gogoetak, une honen garrantzi historikoaren eragina dauka: asmoak, konpromisoak eta ahaleginak batzeko premia dugu, Herri honek - berezko nor-tasun instituzional, ekonomiko, sozial eta kulturalaz jantzirik - bizirik iraungo duela ziurtatzeko.

Ezker Abertzale osoak erresistentzian urte luzetan eman ondorengo bidegurutze politiko honetan gogoratu behar dugu aurreko Biltzarrean egin genituen gogoetaz betebetan asmatu genuela: ziklo politiko baten amaieraz, PNV-EA alderdien hausnarketa estrategian eragiteko premia eta, aspalditik "heltzen" ari zen egoera hura katalizatzeko, Ezker Abertzaleak egin beharreko ofentsibaren ezinbestekoaz egin genituen gogoetek, kualitatiboki berria den egoera zehaztu dute: egoera historiko hori behar bezala gestio-natzea dugu orain eginkizuna.

Orain dela 22 urte, frankismotik ateratzean, sektore abertzale eta aurrerakoiok, (gure Subiranotasuna ukatu eta borrokak bere horretan irautea ondorioztatuko zuten irten-bide "light" haiez kanpotik) oinarri demokratiko sendoak finkatzeko aukera ederra galdu genuen. Milurtearen hasiera honetan, edukin estrukturalaz konbergentea izango den planteamendu politikoa antolatu ahal izango dugu, Euskal Herriko hiritarren nahia askatasunez adierazteko moduko euskarri sendoak ipiniz.

LABen ustez, horrelako koiunturetan gizarteko sektore guztiek esku hartu behar dute aktiboki, bi Estatuak beren jarrera antidemokratiko eta behartzaileak bazter ditzaten.

Bidegurutze historiko honetan, hiru faktore eragileen (Lizarra-Garazi, Euskal Herriaren egituraketa eta marko juridiko-politiko berria) inguruan protagonismoa eta konpromisoak hartu behar ditu sindikalismoak, bi elementu egokiro konbinatuz: a) autonomia sindikala: langileen eskakizun sozio-ekonomikoei dagokienak, maiz, indarreko markoaren eboluzioarekin lotura estua dutenak; b) zabaldutako prozesu politikoan sakontzearen, adorez egin behar dugun lana eta eskaini behar dugun sostengua.

## **2.1. Balantzea eta kokapen politikoa**

### **2.1.1. Ziklo baten amaiera**

Francoren diktaduraren ondoren sorturiko eredu konstituzional espainiarraren kontra Ezker Abertzaleak erakutsitako erresistentzia luzearen ondorio da oraingo koiuntura politikoa. Hego Euskal Herria zatitu, euskal erakundeak Estatu espainiarraren kontrolpean jarri eta bere etorkizun instituzional, ekonomiko edo sozialean eragina izan lezaketen erabakiak demokratikoki hartzea Hegoaldeko herritarrei galarazten dien eredu juridiko-politiko egituratu zuen euskal herritarrek arbuiatutako Konstituzio espainol hark.

Nazio eraikuntzan aurrerapausuak emateko behin-behineko tresnatzat erabili nahi izaki, eszenario hartan jokatzeko sektore politiko eta ekonomiko batzuek (PNV, EE, PSOE, PCE, ELA, etab.) egin zuten apustuak, abertzaleen mugimendua hautsi eta Euskal Herriarentzat benetako eszenario demokratikoa lortzeko borroka Ezker Abertzalearen gainean utzirik

Urte askotan zehar, Ezker Abertzaleak berebiziko pultsua egin du bai Estatuaren kontra, baita Euskal Herriarekiko, Estatu horrek eraman duen estrategia asumitu zutenen kontra. "Autonomia" gaietan Estatu espainiarrak jokaera inboluzionista praktikan jarri izanak eta, batera, Ezker Abertzaleak etengabe egin duen borroka politikoak, Espainiako Konstituzioak eta euskal Estatutuak mugatutako markoa geroz eta baliogabeago, alferrikoago utzi dute gehiengo politiko, sindikal eta sozialaren begi-bistan

Azken bost urteotan agortze hori azkartu egin da, era askotako gertakari eta ekimenei esker. Horra:

### **Bi estrategia aurrez aurre**

Borrokaren alderdi biolentoa (ETAren borroka armatua, bi Estaturen zapalkun-tzazko erantzunak) areagotzeari esker, kontrako eragin eta guzti, estrategiak elkarren kontrakoago ageri eta anbigutasunak edo hirugarren bide politikoak gainditu ziren.

Batetik, Hego Euskal Herria uztarpe konstituzional-autonomikoan eduki nahi duten nazionalista espainolen estrategia dugu: uztarpe horixe "jokatzeko zelai" edo - beren izaera antidemokratikoa makilatzeko, beraiek diotenez - nazionalista eta ez-nazionalisten arteko "topatzeko gune" gisa onar dezan eskatzen diote euskal nazionalismoari. Bestetik, herritarrek askatasun osoz erabakitako mugak baizik izango ez lituzkeen Euskal Herria eraiki nahi dugun abertzale eta aurrerakoiok.

Espazio abertzale eta aurrerakoiaren gogoeta politikoa azkartu egin du norgehiagoka horrek, Madrilgo gobernuak ikusirik: egoera politikoa bestelako klabeetan interpreta-

tzeko gauza ez izanik, euskal nazionalismo osoari eraso egitea erabaki du.

"Hirugarren bide" izen okerreko hori, biolentzia politikoa eta zapalkuntza areagotzeak ekartzen duen bake - eta normaltasun - nahiaren agerpenetako bat izateaz gain, apustu konstituzional-autonomikoaren balio estrategikoaren hondamen eta galeraren ondorio da, batik bat.

### **ELArekin elkarlanean jardun eta ekimenak aurrera eramatea**

Bi sindikatuok elkarrekin gorpuztutako ekimenek emaitza mesedegarria izan dute, bai maila analitikoan, bai oraintsu arte elkarren aurkakoak ziren espazio abertzaleak elkarlanean aritzeko mekanismoei dagokienez.

ELArekin elkarlanean jardute horrek hainbat fase gainditu ditu (eduki eta konpromisoez ari gara) eta agertoki sozio-politikoan erreferentzialtasun eta eragin handiagoa irabazten ari da egunez egun.

Estatutuak ezarritako "sabaia" gaindi zedin eskatzeko, 1994ko otsailean egin zen "Lan-harremanen euskal markoaren" aldeko manifestaziotik 1998ko Aberri Eguneako agiria (ziklo politiko baten amaiera egiaztatuz, euskal subiranotasuna onartuta marko juridiko-politiko berria eratzearen aldeko deialdia egin zen bertan) argitara eman arte, garrantzi handiko kontu sindikal eta politikoetan hainbat ekimen bultzatzeko balio izan du ELArekin batera jarduteak.

1995eko Aberri Eguneako agiriak abertzaleen artean astinketa eragin bazuen ere, Gernikako ekitaldia (1997ko urrian, sektore politiko, sindikal eta sozial abertzaleak bertara bildurik) une egokia izan zen marko juridiko-politiko berria elkarlanean eratzen hasteko.

### **Alternatiba Demokratikoa**

Arazoari konponbide demokratikoa emateari dagokionez, ETAren osterako eskaintza politikoa inflexio-gune garrantzitsua izan zen.

Euskal errealitatea aintzat hartzean eta Herri honetako hiritarren nahia errespetatzean oinarriturik, Alternatiba Demokratikoak euskal gizarteak erraz ulertzeko moduko parametroetan agertu zuen arazoaren konponbidea: era hartan, Ezker Abertzalearen jarra eta diskurtsoa indartu egin zen.

Alternatibaren ahalmen demokratikoak erakutsi zuenez, planteamendu hark indarra hartuko zuen, agorpenaren seinale nabarmenak agertzen hasia zen ziklo politiko hartan.

### **Irlandako akordioak Euskal Herrian izan duen proiektzioa**

Irlandako bake-prozesuak, horrelatsuko negoziazio-prozesua antolatzeke aukera eta premia piztu zuen euskal gizartean ere.

Downing Street-eko adierazpenetik (bertan, gobernu britainiarrak aitortu zuen irlandar herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea zeukala) sorturiko Stormont-eko Akordioaren itzalak, era berean, euskal arazoa konpontzeko funtsezko klabe politikoa erakutsi zuen.

Euskal Herriko gizartean eta eragile politikoengan eragin mesedegarria duen konponbide politikoa osatzen dute bi kontuek: elkarrizketa eta negoziazio bideak jartzeko premia eta autodeterminazio-eskubidea onartzea, alegia.

### **Elkarlan instituzionala**

Hainbat gaitan (presoak, Trebiño, Kirolaren Legea, etab) PNV, HB, EA eta IUren artean 1998an hasitako elkarlan instituzionalak, Euskal Herria fase berri batean sartzen ari zela edo horretarako baldintza egokiak sortzen ari zirela sinesten zutenei arrazoia eman zien. Aldi berean, antzeko ezaugarriak zituen prozesua ari zen indar eta proiektzioa hartzen Ipar Euskal Herrian: Euskal Departamenduaren eskakizuna.

"Gertakari" politiko garrantzitsuen segida horretan, euskal gizarte osoa astin-tzen duten biolentzi egoeren gainetik, bi elementu nagusi finkatu dira: batetik, ziklo konstituzional-autonomikoa agortu izanaren ebidentzia; bestetik, fase politiko berrirako bidean motore bihurtzeko, Ezker Abertzalea hartzen ari den ardura politiko handiagoa. Bestelako hitzetan, Ezker Abertzaleak ekimen sakonagoak jarri behar ditu martxan, prozesu hori azkarago joan dadin.

Testuinguru horretantxe kokatu behar dugu Estatu espainiarrak Ezker Abertzalearen aurka etengabe eragiten duen zapalkuntza eta probokazioa areagotzea. Ezker Abertzaleari "maniobra-tarte" politikoa moztu nahi dio PPK, gerora PNV-EA neutralizatzeko; eginkizun horretan lanabes juridiko-zanpatzaile eta polizial guztiak baliatuko ditu: HBko Mahai Nazionala kartzelan sartzea, antolakuntzari erasotzea, EGIN ixtea, Herri Batasunaren ilegalizazioa prestatzea, etab.

Ezker Abertzalearen kontrako "azken erasoaldi" horren helburua garbi ze-goien: agorturiko ziklo politikoan gure indarrek ekimen politikorik ez gauzatzea eta, zapalkuntzalde horren ondorioz, gure Herriak bizi duen bidegurutze honetan indar politiko, sozial eta sindikalen metaketa eragozte

Bi ahoko ezpata da PPK hasitako estrategia: batetik, Ezker Abertzalea desgastatu

eta erasotzea; bestetik, euskal nazionalismo osoa "denok onarturiko proiektura" eraman eta bertatik abertzaleen proiektzio estrategikoa indargabetzea. Hauxe zen - hauxe da, oraindik - alderdi horrek indarrez egin nahi duen apustu antidemokratikoa.

Nazionalismo espainiarraren erasoaldi horren aurrean abertzaletasunak, oro har, 1998ko udan erakutsi zuen akordioak eta konpromisoak hartzeko gaitasunak, Madrilen eta bere sektore mediatiko guztien jarreraren tinkotasuna hautsi du, ziklo agortuaren markoan.

Lizarra-Garazi akordioa, Bartzelonako adierazpena, Euskal Herritarroken sorrera, Udalbiltzaren sorrera, presoan aldeko elkarlana, Bai Euskarari, Aberri Egun bateratua, PNV-EA-EHren arteko elkarlan instituzionala eta PP-PSOErekin izaniko haustura... jasan beharreko errealitate latzak izan ditu Estatu espainiarreko gobernuak, iraganaldian iltzaturik eta "Ermuako izpirituak" eta horren "azken oldarraldiak" zamaturik. Azkenean, "Ermuako izpiritu" hori tranpa bihurtu zaio nazionalismo espainiarrari, pentsamolde horren interpretazio "zapaltzaile-militar" gisa ulertu baitu, ordainetan borroka politikoan posizioak galdua.

Su-etena eta egoera politiko berri hau "Poliziak edo Zuzenbidezko Estatuak eragirik presioarekin" lotuz PPK egin duen diskurtso hutsalaren atzetik, estrategia hori Estatu espainiarrarentzat boomerang politikoa izan dela aitortzeko ezintasuna, laineza eta harrokeria galanta dago.

### **2.1.2. Lizarra- Garazi akordioa**

Lizarrako Akordioa da prozesu konstituzional-autonomikoaren hasieratik, euskal arazoan izaniko lehen inflexiogunea.

Lizarra-Garaziko Akordioak arazoaren izaera politikoa berretsi, konpontzeko bideak taxutu eta konponbidea argi eta garbi adierazten du: euskal herritarren nahia errespetatzea, hau da, Autodeterminazio-Eskubidea benetan aitortzea da kontua.

"Txibertako izpiritua" 22 urteren buruan berriro ernaldu da, Lizarra-Garaziko akordioan. Oraingo hau, gizarte honetan bake eta demokrazian elkarrekin bizi-tzeko gutxieneko baldintzak sor daitezzen oinarritzat eta, era berean, euskal indar politikoen artean gehiengoak topatu eta finkatzeko faktore nagusitzat agertzen da.

### **2.1.3. ETAren Su-etena**

Lizarra-Garaziko akordioak eta ETAk - baldintza eta epe-mugarik gabeko su-etena praktikan jarrita - planteatu zuen ekimenak, fase politiko berriari ateak zabaldu dizkiote.

ETAren ekimen politiko horren karakterizazioak elementu berriez osatu du Ezker Abertzaleak "betidanik" zeukan negoziazio-eskema klasikoa: prozesu politikoan eta horren

bilakaera negoziatuan protagonista euskal gizarte osoa - bere erakunde politiko, sindikal eta sozialekin - izango zela zioen erakunde armatuak.

Lehenago negoziazio-prozesu bertikala - goitik beherakoa, gizarteak ezin ebalua zitzakeen mugimenduen araberrako erritmoak zituena, gizartearen eta eragile sozial eta politikoen protagonismoa alboraturik - planteatzen bazen ere, une honetan bul-tzatzen dena gizartearen eta honen erakundeen ekimena da, negoziazio prozesu integrala antolatzeke: bertan, ETAk eragile politiko gisa ere, garrantzi handiko eginkizuna bete beharko du, horren bilakaeran eta norabidean.

Arazoa konpontzeko prozesua, batetik, eta euskal hiritarrok geure etorkizun politiko, ekonomiko eta soziala zehaztuko dugun eszenatokian egin beharreko indarren metaketa, bestetik, indartzen du ETAk planteamendu hori egitean. Hortik bi gogoeta osagarri aterako ditugu:

Alde batetik, eskubide demokratiko nazionalak defendatzeko eta marko juridiko-politiko berria eratzeko konpromiso politiko sendoak hartzera iristeko erabilitako baliabideak - borroka armatua - eragozpena izan dela aldarrikatu dutenek, borroka armaturik gabe (bi Estatuek diseina ditzaketan oztupo eta estrategiei aurre egiteko) norgehiagoka politikoa eta mobilizazio soziala eragiteko nahia eta konpromisoa badagoela frogatu behar dute.

Beste aldetik, ETAk erabiltzen dituen bitartekoak onetsi edo ezetsita, bistan da erakunde horrek ez duela proiekturik edo jarrera politikorik indarrez ezarri nahi: borroka armatua, gure Herriarentzako demokrazia statusa lortzearen baldintzapean egon da (eta halaxe dago).

#### **2.1.4. Prozesu eratzailera bidean, subiranotasuna praktikan jarriz**

Fase politiko berriari hasiera emateak ezin zezakeen Ezker Abertzalea "bake-prozesu" hutsal eta manipulagarriaren kaiolan itxi, Madrilgo gobernua tentsioa sortzen duten trintxera probokatzailaetan - inongo asmo politikorik agertu gabe, gainera - irmoturik dagoela.

Euskal Herriaren marko juridiko-politiko berria zehaztea dela eta, gehiengo politiko, sindikal eta sozialaren ekimenez, egiazko bake-prozesurantz (arazo politikoa ain-tzat hartzea, mugarik gabeko elkarriketa egitea, konponbide demokratikoa bilatzea) gerturatzeko urratsen artean lotura zuzena egon zedin eskatzen zuen Aljerrek eta beste hainbat prozesutako eskarmentuak.

Hau da, prozesu demokratikoaren - "bake-prozesua", batzuen hiztegian - eta Euskal

Herri subiranoaren eraikuntza politiko-instituzionalaren arteko lotura ezarri beharra zegoen, ezinbestean.

Udalbiltza martxan jartzea, Gasteizko gestioan PNV-EAk PSOErekin haustea eta elkarlan politiko-instituzionalean aritzeko bide berriak irekitzea izan dira prozesua finkatzeko funtsezko elementuak eta, aldi berean, PP eta PSOEren jarreraren aldaketa behar-tzeko tresnak.

Kontu hauek dira Madrilen eta Parisen benetako kezka sortu dutenak, Euskal Herrian ziklo berria hasi dela eta, - konstituzio-aurreko faseari dagokion bezalaxe - beraiei baimenik eskatu gabe, ziklo hori edukiz betetzen hasi garela nabarmentzen dutelako.

Prozesuaren sakonerak eta atzera itzultzeko ezintasunak agindu dute Estatu horien jarreretan aldaketak egitea: prozesua lehertzen saiatzeko fasea ahitu zaielarik, baldintzak eta trabak jartzeko urratsa izango dute hurrengoa.

Fase hau funtsezkoa izango da, berriro ere, Madrilek eta Parisek hemengo oreka desegiteko egin ditzaketen proposamenak direla eta. Indar politiko eta sindikalek zehaztu beharko dituzte marko juridiko-politiko berriaren edukiak eta hauek garatu eta legitimatzeko mekanismoak, 1977-79 urteetako prozesuaren tankerakorik izan ez dezagun.

LABen ustez, subiranotasunezko estrategiaren klabea hauxe da: nazio-eraikuntzan subiranotasunezko egintzak gauzatzea; hasiera-hasieratik, gainera.

### **2.1.5. Euskal sindikalismoa ziklo-amaiera honetan**

Euskal Herriari zor zaizkion eskubide demokratikoak lortu eta errespetatzeko borrokan eginkizun handia bete du euskal sindikalismoak

IV. Biltzar Nagusiak agindu zuenez, askatasun demokratikoak lortzeko eta marko juridiko-politiko berriaren inguruan indarrak metatzeko gure Herriak aurrera daraman borrokan euskal sindikalismoak betekizun handia du: LABeko militantzia osoaren jardueran eta konpromisoan, agindu hura goitik behera bete da.

Presoen eskubideen defentsan, Lizarra-Garaziko akordioa sustatzean eta bi Estatuaren zapalkuntzari erantzuna ematean, LAB, ELA, EHNE, ELB, ESK, STEE, eta HIRUK garatu duten ekinbide bateratuak, Euskal Herriarentzako bake eta demokraziazko etorkizuna ekartzeko euskal sindikalismoak harturiko konpromisoa agerian utzi du. Langile gehientsuak bat datoz helburu horrekin, nahienetako bat baita hori denentzat

Horrez beste aldera, zeharo, PPreneko estrategiaren eta hedabideen esparru mediatikotan morrontzazko jarrera erreakzionariora heldu diote CCOO eta UGTk. Alde batetik, beste sindikatuek hartutako konpromisoa usteltzat joaz, eskuinaren eskema analitiko atze-

rakoien bidez: gai "politikoetan" sindikalismoak esku hartu behar ez duela eta autodeterminazio-eskubideak langileria zatitzen duela argudiatuz, alegia. Beste aldetik, euskal arazoan sorturiko egoera berriari dagokionez, PP-UPN-PSOEnen strategiaren uztarpeko diskurtsoa garatuz.

Oraingo marko juridiko-politikoak gainditzeari eta Euskal Herriaren eraikuntza ekonomiko eta sozialean oinarrituriko edukia zehazteari dagokionez, euskal sindikalismoak emaniko urratsak ere aitzindarizat har ditzakegu.

1994ko otsailean planteatu zelarik, Lan Harremanetarako Euskal Gunea eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoaren eskakizuna etengabe aurkeztu dute LABek eta ELAk: eskakizuna indartu egin da, 1999ko Aberri Egunean bi sindikatuok, EHNE eta ELBrekin batera, jendaurrean agerturiko konpromisoan. Bertan, egungo ziklo konstituzional-autonomikoa amaitutzat emateaz gainera, subiranotasunezko klabeen marko juridiko-politiko berria osatzeko deialdia egin genuen, euskal langileen eskakizunak bideratzeko egoki eta eraginkorra izango zelako tresna hori. Hau da, Euskal Herria sozial eta politikoki eraikitzeko lanabesa izango genuen.

1998ko apirilaren lanuzte partziala izan ondoren, 1999ko maiatzaren 21ean izaniko greba orokorrak argi eta garbi erakutsi zuen euskal sindikalismoaren nahia: eskakizun ekonomiko eta sozialean (35 lanorduko astea eta soldata soziala) sujetu aktiboa izatea, alegia. Helburua: bi alor horietan CCOO eta UGTren eredu sindikalak (bere burua sistemen eskuetan utzita, Euskal Herria eta beste herri batzuetako eskakizun demokratikoen kontra jardutea) agerian jartzen zuen mendekotasuna gainditzea.

Huraxe izan zen Hego Euskal Herrian, euskal sindikalismoaren ekimenez eta protagonismoarekin, egin zen eduki sozio-ekonomikoko lehendabiziko Greba Orokorra.

Greba hark, lan-jardunaldia murrizteko eta soldata soziala kobratzea lortzeko euskal sindikalismoak Patronalaren eta Administrazioen aurka aurrera daraman lehiatzeko strategiaren osagai bat izateaz gainera, garrantzi handiko beste zerbait ere erakutsi zuen: euskal langileen borroka - eta erreibindikazio - espazio berariazkoa Euskal Herria dela onarturik, klaseen arteko elkartasuna praktikan jartzeko prest gaudela.

## **2.2. Prozesu fase honen ezaugarriak**

### **2.2.1. Fase politiko hau kontzeptualizatuz**

Bizi dugun prozesu honetan, ideologia, kultura politiko, osakera eta klase-interes desberdinak dituzten indarrek harturiko konpromisoek, izaera taktikoz elkarlanean aritze-

ko klase anitzeko esparrua osatzen dute; hortik sortuko da eraikuntza nazional eta sozialaren estrategiaren euskarri izango den subiranotasun eta askatasunezko zelaia.

Bestela esateko, bizi dugun prozesu edo aldakuntza politiko honetan elementu eragile batzuk - Estatu espainiar eta frantsesarekin dugun norgehiagoka horretako osagai estrukturalak, hain zuzen - eta elkarlan taktikoa ditugu: denen artean bideratuko da, arian-arian, euskal nazioaren eraikuntza, alderdi sozial eta politikoetan.

Ezker Abertzaleak bizi duen une politikoan eskaintza politiko eta organizatiboa eratu behar du: ekimen hori, indar abertzale eta ezkertiarrek metatuz, eraikuntza nazional eta sozialeko ondare nagusietako bat izango da.

### **2.2.2. Aldakuntza honetarako klabeak**

Aurrean dugun aldakuntza politikoan sekula baino premiazkoak ditugu euskal indar politiko eta sindikalak, prozesu eratzaille berriak izango dituen eduki eta mekanismoak taxutu eta praktikan jartzeko.

Estatu espainiar eta frantsesak, prozesuaren sendotasuna antzematen duten neurrian, abertzale eta aurrerakoien mugimenduaren parte bat gutxienez "elkargune" berri batean ipintzeko helburuz, proposamen edo interferentziak egingo dituzte; horri esker, indarrean dugun status hauxe pittin bat makilaturik, berariazko euskal errealitate honen alienazio politiko, kultural eta soziala sakonduz segitu ahal izango dute.

Frankismotik irtetean, Estatu espainiarrak eskaini zuen erreforma pozoitsuan sartu ziren hainbat indar politiko. Oraingo bidegurutzean, aldiz, indar abertzale, demokratiko eta aurrerakoi guztiek hartu behar dute aurrea, bi Estatuak indarrez ezarritako baldintzak gainditzea lagunduko duen subiranotasunezko estrategia demokratikoan aurrera egiteko.

Bi Estatu horiek Euskal Herrian duten demokrazi gabezia gizarte osoaren aurrean erakutsiko duen gehiengo politiko, sindikal eta soziala osatu behar dugu, proposamenak egin eta lehian aritzeko gauza izan gaitezen.

Osaketa hori antolatu behar dugu printzipio politikoak sendo edukita, konpromisoz, jarduera instituzionaletik eta mobilizazio sozialetik, desobedientzia eta intsumisioa bultzatuz. Esan beharrik ez: gehiengoa antolatzea bezain garrantzitsua da helburu jakinen inguruan gehiengoa eragitea.

Nahiz eta konpromiso praktiko horietatik antolatu behar ditugu militantziazko geure jarduera eta ahalegin guztiak, bi Estatuak igortzen dizkiguten probokazioei erantzun demokratiko sendoa eman diezaiegun. Aurrerantzean, borroka politikoaren metodoak agertoki berriari eta euskal gizartean sortuko diren konpromiso kolektiboen nolakotasu-

nei egokitu beharko zaizkie.

Euskal herritar gehienon kontra agertzea izango dute bi Estatu horiek nazioarteko panoraman eta alor sozialean legitimitatea galtzeko bidea; era berean, borroka politikoa zeinahi bide erabiltzea legitimatu ahal izango du horrek.

Prozesu horretan LABen autonomia sindikala zuzen ulertu beharra dago. Aldakuntza politiko honen ondorez gehiengo instituzional berriak sortzeak ez du sindikalismoaren jarrera auzitan jarri behar; bestetik, ez dugu zertan pentsatu gehiengo horiek egoera politiko normalizatu bateko errealitate direnik.

LABek gogotik hartuko du esku Lizarra-Garaziko alderdi politiko, sindikatu eta erakunde sozialek osaturiko fronte demokratiko horretan, Euskal Herri osoarentzat marko juridiko-politiko berria sortuko duen prozesu eratzailera indar biziz bultzatuko du eta, esan beharrik ez, euskal langileen gaurko eta biharko eskakizunei erantzun emango die.

### **2.3. Prozesua eta Euskal lurraldetasuna**

Estatu espainiar eta frantsesak bitan banaturik, euskal sujetu nazionalaren bakan-keta areagotu egin du Hego Euskal Herriaren zatiketa administratibo-instituzionalak.

Països Catalans-etan bezalaxe, Euskal Herriaren hegoaldea zatitzearen helburu nagusia euskal sujetu nazionala - subiranotasuna eta autodeterminazio-eskubidea beteazteko funtsezko elementua - baliogabetzea zen.

Bere burua botere faktikoen aurrean legitimatzeko premia, printzipioak atzean utzita zegoen PSOE hura alde zutela, Estatu espainiarreko estrategak ederki jabetuta zeuden Hego Euskal Herriko lau herrialdeen zatiketa administratiboak zuen garrantziaz.

Nafarroari dagokionez, Hegoaldeko lurraldeak urtetan zehar eskema anexionistaz jorratu dugu: Nafarroa Euskadi da, baina horrek ez du balio izan Estatu espainiarraren estrategiari aurre egiteko. Alderantziz.

Estatu eta bere izaeraren inguruko zenbait ikuskerak, 70 hamarkadan kokaturikoak, Ezker Abertzalea bultzatu zuten, Nafarroa Euskadi da horretxan mesedetan. Desberdinak ziren barne-errealitate sozio-politikoak higituz, botere politiko eta ekonomikoa euskal Parlamentu eta Gobernuaren zentralizazioa planteatzeak erregionalista antieuskaldunen diskurtsoari bidea erraztu dio edo, gutxien-gu-txienez, ahuldu ez du egin.

Gure eskubide nazionalak bi fasetan (Iparraldea, Hegoaldea) errekuiperatu behar direla pentsatzeak, euskal sujetu nazionala zatitzeaz gainera, estrategia nazionalik ez dagoela uzten du agerian eta gure subiranotasuna praktikan jartzea eragozten du.

Hegoaldeko zatiketa eta Iparralde eta Hegoaldeko prozesuen ulertze gradualista, beraz, indar politiko abertzale eta aurrerakoi guztiok irmo gainditu behar ditugu, koiuntura historiko honetan erantzuna emateko gai garela erakutsiz.

Errealitate diferente eta indar-koerlazio desberdinak ditugu abiagune, egia da; baina, Herri garen aldetik, zor zaizkigun eskubideak berriro eskuratu eta praktikan jartzeko estrategia nazionala taxutu behar dugu, argi eta garbi.

Euskal sujetu nazionala izaki, gure etxea zein eta nolakoa den zehaztu eta halakotzat aitortzea hil edo biziko kontua dugu: honek jantziko du zentzuaz Euskal Herriko hiritarren nahia praktikan jartzea.

Udalbiltza sortzea, Euskal Herri osorako prozesu eratzaille berria bultzatzeko estrategian aurrerapausu galanta izan da. Bestetik, erakunde sindikal eta sozialek aportazio gisa eskaintzen dituzten norabide eta diagnostikoak jorratu eta bideratzeko marko aproposa izan behar du Udalbiltzak.

Erakunde instituzional horrek, irekita dagoen prozesu politiko osoa bultzatu behar du eta, era berean, etorkizunean sor litezkeen erakunde nazionalen sustatzailez agertu.

Proiektuan jarritako ilusioak eta egindako ahaleginak gora-behera, Ipar Euskal Herrian LAB ez da oraindik errealitate. Iparraldeko bizitza sozial eta ekonomikoari erantzuna emateko, industria eta zerbitzuen inguruan antolatu behar den egitura sindikal abertzale baten premiak hamaikatxo mesfidantza, beldur eta zailtasun topatu ditu bidean. Lanean segituko du LABek Iparraldean Sindikatua zabaltzeko, aipatutako helburua bete dezaketen bestelako antolamendu-aukerak baztertu gabe, nolana ere.

# EUSKAL HERRIARENTZAKO ESZENATOKI DEMOKRATIKOA- RENGANAKO PROZESUA. SU-ETENAREN HAUSTURA

## 1.- Prozesuaren bilakaera

### 1.1.- Gogoeta nagusia

98ko irailean zabaldu zen egoerak eszenatoki demokratiko baten aldeko prozesu politikoa sustatzeko eta garatzeko oinarrizko konpromezuak eta akordioak zehaztu ditu. Honela, Euskal Herriaren hitzarekiko onespenean eta errespetuan oinarritutako prozesu honek utz diezaion gure herriari beste marku juridiko-politiko batera heltzen: Lizarra-Garazi, Udaltzita eta erakundeen arteko akordioak.

LABek garrantzizkotzat jotzen ditu euskal gizartean bitarte honetan emandako urrats objektibo eta subjektiboak, baina ez nahikoak gobernu frantses eta espaniarrak martxan jarritako tresna mediatiko eta errepresiboen aurrean.

Gizartean sortu ziren itxaropenei ez zaie era egoki batez eragin prozesuan murgildurik gauden politika, sindikatuko eta gizarte-sektore guztien protagonismoa eta dinamismoa garatzeko. Hori dela eta, gizartean baikortasun, nahasmen, delegazionismo eta pasibitate sentipen nahasiak txertatu dira.

Esparru anitzetan piztu den laguntzari eta gizarte konpromizuari onuragarria deritzogun arren, epe motza igaro dela, eta lehengo aldien norgehiagoken ondorioak kontuan hartuz, begibistakoa da hauek ez-nahikoak direla Madrileko eta Pariseko jarrera eta estrategia gainbehera dadin.

Elkarrizketari eta negoziatioari egiten zaion probokazio eta sabotai estrategiak indar abertzale eta aurrerakoiak, bi Estatuaren jarrera alde batera utziz, prozesuan sakontzera behartzen ditu.

Lizarra-Garaziren eta espetxeratuen eskubideen aldeko gizarte-erantzunaren akti-

batzean sakontze ezak eta lankidetzaren etorkizuna adierazten duten politika proposamenak zehaztuak eta mugatuak ez egoteak "krisialdi" bati eragin diote: honen adierazpen biribilena 1999ko azaroan ETAk bere su-etena bertan behera utzi zuenean eman zen.

PP eta PSOEk zuzendaritzek azaldu dituzten konstituzio-lubakiez gain, Estatu ereduak azken hilabetetako eztabaida politikoan bere biziko garrantzia hartu du. Eta horrek, estrategikoki, ezegonkorra dela eta nazioen errealitateei erantzuteko porrot egin duela adierazten du.

Hedabideen artean, zati garrantzitsu batek, euskal errealitatearen desitxuratze interesatuarekin, gatazkaren mantentzean beharrezko lankide eta Madril zein Pariseko gobernuen estrategiaren lan tresnak bilakatzen ari dira.

### **1.2.- Euskal gehiengo sindikala**

Alderdi politikoek prozesua egituratzen eta garatzen hartu duten garrantziak euskal gehiengo sindikalaren solasaldia eta protagonismoa galtzea eragin du eta LABen baitan -zuzendaritzatik sail sindikaleraino- bideratu behar dugun prozesuaren ikusleak izatearen mentalitatearen eragina izan da.

Euskal gehiengo sindikalak ez du behar bezala baloratu eta erantzun solaskidetasunaren galera, eta era berean, ezgauza izan da azken urtetan sustatu den kapitala eta aktiboa nahiz 99ko maiatzaren 21eko greba orokorraren emaitza arrakastatsua klabe politiko eta sozialean kudeatzeko; horri sekulako akatsa deritzogu.

LABek egoera hau bidera dadin egin dituen ahaleginak ez du ordainik aurkitu ELAren jarreraren: Euskal Herriak eusten dion norgehiagoka historikoaren tamainarekiko jarrera geldo eta kontraesankorrak baitarabil.

Euskal presoek eskubideen aldeko mobilizazioei geureak edo autonomoak diren irizpideekin ekiteko ezgaitasuna; marko juridiko-politiko berri baten inguruan proposamen mailaren gelditzea; eta era berean, 35 orduaz politikoki eta sindikalki egiten den kudeaketa urriak, euskal gehiengo sindikalak elkarrekin egiten duen lanari erreferentzialtasunez eta proiektioz hornitzen iraun dakion bideratu behar diren errealitateak dira.

### **1.3.- EAJ**

1999ko uztailaren 13an egin ziren hauteskundeak EAJren baitan zetzaten zalantzak eta galderak areagotu ziren, eta prozesuan eta bere parte hartze mailan gelditze bat gertatu zen. Lizarra-Garaziko sozializazioari, presoek aldeko gizarte-bizkortzeari, eta Udaltzako erritmoari eragin die EAJren moteltze edo gelditze horrek.

EAJ diskurtso batean gelditu da, non bere jarrera bake prozesu batekiko inbertsio gisa hartzen du; une honetan, ezgauza ikusten du bere burua erabakikortasunez eta uste osoz Euskal Herria beste eszenatoki politiko batera eramango duen eskaintza zehatza planteatzeko.

PPk eztabaidatzeari eta negoziatzeari eman dion ezetzak, eta erronka estrategiko berria Ezker Abertzaleari zehazteko eta planteatzeko barne kohesio ezarekin batera, EAJ defentsarako jarrera hartzera eraman dute, eta prozesua, gelditzera.

Biltzar Nagusirako barne eztabaidak, Lizarra-Garazi eta abertzaleen arteko lankidetzaren aurkako zenbait sektorek publikoki eta barne mailan egin duten erasoa gainditzean adierazten dena, Euskal Herriaren eraikuntzaren estrategian gogoz sakon dadin nola-baiteko jarrera politiko eta antolamendukoa sustatzen du.

Pairatu duen gelditze honetaz gain, EAJ nabarmenki aurrera egin du bere jarreretan, eta askok pentsaezina zeritzoten bidea burutu dute, eta kokatu diren koordinadeetan kokatu direla, Madrilekiko eskeko autonomismora itzultzea gero eta zailagoa suertatzen da.

#### **1.4.- Ezker Abertzalea**

Azken hil hauetan, Ezker Abertzaleak bi Estatuetik bide demokratikoak erabiliz norgehiagoka politikoa artikulatzeko asmoz, azaldu du gehiengo politiko, sindikala eta soziala egituratzeko duen estrategia-irra. Konpromezu hau LABek eragiten du eta bere osotasunean dirauenari deritzo.

Bi Gobernuek planteatzen duten etengabeko sabotaia eta zirikatze estrategia; EAJren zalantzak eta konpromezu ezak; edota, su-etena bertan behera uzteak eragin duen egoera ez du baldintzatu eta ez dakarkio aldaketarik bere erronka politikoari.

Kale borroka deritzonaren zenbait ekintza eta egitate irauteak eragin distortsionatzailea sortu du. Eta horrek ez dio gizarteari EAJk eta beste sektoreek prozesuarekiko duten erantzukizun eta gogo eza susmatzen eta hari erantzuten utzi.

Ezker Abertzalea aldi politiko honen zabaltzean bere biziko garrantzia izanik, ez dago elkarrekikotasunik inizatibean tamainen, antolatze garapenaren eta bere militanteen esku hartzearen eta zabaldu den prozesuaren gizarte-aitzindaritzaren artean.

"Goi" mailako akordio edo mugimendu politikoenganako menpekotasuna "tirakadaz" ibili den giza-multzo batean, eta era berean, eragin den estrategiarekiko konbentzimendu eta segurtasun maila ezberdinetan oinarritu da. Egoera hau antolatze eta gizarte guneetan nahasmena sortu duten erabakiekin areagotu da.

Lankidetzaren politikoko klasearte esparruaren sustapena eta garapena ez da sektore

abertzale eta ezkerrekoen antolatze eta gizarte iharduerarekin itzuli; EAJrekin lortu den akordio politikoaren mailarekiko oso menpekoa den dinamikari eutsiz.

EHk ordezkatzeko duen hautesle esparru eta beste sektoreak, herrietan, auzoetan... abertzalea eta ezkerrekoa den egitura politikoa osatzearen aldekoak diren eta zain dauden beste sektoreek izaten dituzten 100,000 botuak, antolakuntzari dagokionez, ez dira kokatu; eta gizarteari dagokionez, ez daude aktibatuak. Gai hau funtsezkoa da EAJ bera baldintzatzeko; honela, borroka armatua suerta ez dadin faktore baldintzagarri eta funtsezko gisa.

## **2.- Su-etenaren prozesua eta haustura**

### **2.1.- Irakurketa nagusia**

ETAk su-etena bertan behera uzteak euskal gizartea aztindu zuen. Bi Estatuak prozesuari egiten zioten probokazio eta sabotai dinamiketarik kanpo, ez zuen sumatzen horren goiz gerta zitekeenik.

ETAk azaltzen zituen arrazoi nagusiak: EAJ-EAren konpromezu eta erabaki politiko eza, ez zetozen bat gizartearen sektore garrantzitsuren ikusmoldearekin, ezta Ezker Abertzalearen baitan zeudenekin ere. Erreferentzi autokritikoak eta prozesuaren bilakae-raz egin diren kritikak baieztapen honen azalpena ematen digu.

ETAren erabakiak, indar abertzaleek konpromezu politiko itzulezinak beraien gain hartzen dituzten heinean: bide demokratikoen bitartez norgehiagoka zabaltzen utziko duten edukietan eta gizarte-eragitean alegia, erakunde honek gatazka armatua gainditze-ko adierazi duen nahairekin bat egiten du.

EAJk prozesuaren edukiak eta aldiak bere nahieran kudeatzeko azaldu duen jarre-  
ra, konpromizu berriak sahistuz eta ETA horren lekuko hutsa bihurtu nahi izatean, gure aburuz, erakunde armatuak hartu zuen erabakiaren oinarrian dago.

LABen ustez, ETAren erabakiak 98ko irailean zabaldu zen lankidetzaren eta konpro-  
mezuaren estrategia bultzatzea du helburu. Hala ere, erabaki honek eragin ditzakeen ondorioak kezkatzen gaituztela adierazten dugu, eta bertan dauden politika, sindikatuko eta gizarteko agente guztiei ardurarik handiena eskatzen diegu.

### **2.2.- Erabakiak eta ondorioak**

Su-etenaren hausturak astinaldi nabarmena eragin du prozesuan murgilduta zeu-  
den sektoreen artean, eta horrek prozesua sakontzea ahalbidetuko duten hausnarketak eta

konpromisoak bizkortzea eragin du batetik, eta galerak eragin ditu, bestetik, honek zenbait gizarte sektoreren parte ez hartzea dakar.

99ko abenduan eman ziren mugimenduek eta 2000ko urtarrilaren 15 eta 22ko manifestaldiek nabarmen utzi dute prozesuak 99ko uztailetik aurrera jasan zuen geldialdia sahies zitekeela eta sahiestu behar zela.

Espainoltasunak "krisialdi" honetaz baliatu da bere eraso gaizatzeko: Ezker Abertzalearen aurka errepresioari ekinez, eta dialektikoki abertzaletasunaren aurka (batik bat EAJren aurka zuzendua izan dena). Eraso honen xedea prozesuaren oinarritzko faktorea haustea zen: hots, abertzaleen arteko lankidetzeta eta konpromizua haustea.

PP, PSOEek eta Espainiako beste sektore baldintzagarriek Espainiako gizartean "Ermuako espiritua" berpizteko nahiak abertzaletasunaren aurkako kriminalizazio eta jazarpen politikoaren estrategia sendotzea du xede. Hau da, bere helburua ez da bakea, Euskal Herriaren porrota baizik.

Testuinguru politiko honek proiektu espainiarraren, Espainia konstituzionalaren defentsan buru belarri ari dena, eta euskal proiektuaren, Euskal Herriaren onespenean eta prozesu demokratiko bat zabaltzean oinarritzen dena, arteko norgehiagoka areagotzen du.

ETAk berriro borroka armatuari ekiteak biolentziari buruzko eztabaida pil-pilean jarri du. LABen aburuz, izugarrizko kopeta behar da Euskal Herriarengan instituzioen, poli-ziaren, lege, gizartearengan eta lan munduan, eta kultura bortizkeria erabili duten eta darabilten indar politikoek interpela dezaten Ezker Abertzalea interpelatzea ETAren jarduera dela eta, bat egiten ez dugun salaketa antzuak eskatuaz.

PP eta PSOEek, Euskal Herria izateko eta erabakitzeko duen hitza etengabe hipotekatzen dituzten erakundeek izanik, ez dute inolako zilegitasunik hura eskatzeko; beren helburu nagusia gatazka politikoa dagoenik ukatzea eta borroka armatua hortik kanpo dagoen zerbait bailitzan kokatzea da-eta.

LABek honakoa azpimarratu nahi du: ETAren iharduera armatua ematen den testuingurua azpimarratuz, eta sindikatu autonomo eta demokratikoa izanik, bere zeregina ez da borroka armatuari estaldura ematea; gure helburua, bortxazko gertakari guztiak desagertuko diren demokrazia eta bakeazko eszenatoki politikoa erdiestea baino.

### **3.- Etorkizun-gakoak**

#### **3.1.- Prozesuaren aldeko apostua**

Fase politiko honetan agertutako aldagai berriek ez dute LABek, Euskal Herrian

bakea, demokrazia eta burujabetza lortzeko prozesua sendotu eta bultzatzeko, eta horretarako, helburu horren alde tinko borrokatuko den gehiengo politiko, sozial eta sindikala proiektu politiko zehatz baten inguruan egituratzeko konpromiso sendoa ezertan aldatzen.

LABek, denona den xede hori lortzearen, indar abertzale eta aurrerakoien artean elkarren menpekotasuneko ekinbide politikoa bultzatzearen aldeko apustua egiten du. Hau ez datza amankomunak ez diren proiektuez prozesu bat eraikitzean; baizik eta denok Euskal Herria herri gisa onartua izan dadin eta status politiko, instituzionala, ekonomikoa eta soziala erabakitzeko eskubidearen beharraz elkarren menpekotasun batzuk sortzean.

LABek garrantzitsua deritza ELAren eta beste sindikatuakiko ekintzen batasunak datozen hiletan erreferentzialtasuna eta eraginkortasuna hartzeari eta prozesuan benetako eta eraginkorra izango den aktibo bihurtzeari. Politika eta sindikatu mailan ekintza batasunaren berreskuratzea, honek eraikitze nazionala eta sozialaren estrategiari egiten dion ekarpenean sindikatuaren lehentasun gisa kokatzen da.

Presoen eskubideen aldeko borroka eta prozesuan izan behar duten parte hartzea hari atxikituriko faktore gisa eratzen da, honek euskal gizartearen etengabeko eta mailakako erantzun gaia izan beharko duelarik.

LABek eta Ezker Abertzaleak, urtarrilaren 27an deitu zuen grebaldia eta mobilizazio egunak: erantzun bateratu sakonak artikulatzeko zegoen ezintasunaren aurrean egin zuen jauzi kualitatibo gisa egin zelarik, balio izan du gainontzeko sektore politiko, sindikalak eta sozialak zenbaterainoko konpromizu mailak hartzeko eta benetakoak eta eraginkorrak diren presioak jasateko prest dauden jakiteko.

Greba orokorraren irteera eta karakterizazioa jorratzeko erak, borroka politikako baliabide anitzen kontzeptualizazio egokiarekin batera, baloratu eta berbideratu behar da, eta gizarte mobilizazioan eraginkorrak eta irudimenezkoak diren talde-jauziak egiten lagundu behar dute.

Greba, lan-uzteak, gose-grebak eta itxialdi jendetsuak bezalako tresnak eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko gogoeta-gai izan behar dute, oinarrizko abiapuntu batetik beti ere: unean uneko mobilizatzeko eta gizarte-presioa egiteko premiei erantzutea.

### **3.2.- Prozesuan jauzi berria**

Prozesuarekiko zehaztasuna eta konpromizua handituz gaintu behar da egun bizi dugun su-etenaren haustura egoera.

Ezker Abertzaleak gatazka politikoari bide demokratikoen bitartez ekiteko, nor-gehiagoka demokratikoari birtualtasuna emateko egin duen berrespenak beste sektore

abertzale eta aurrerakoien proposamen politiko argi batekin ordaindua izan behar du. Honela, honen bitartez, gizartearen gehiengoak demokrazia, bakea eta subirotasun eszenatoki batera abiatzen utz dezan.

Euskal Herriak bizi duen bidegurutze historikoak Madrileko eta Pariseko ukazioa edo estrategia apurtuko dituzten mekanismo zehatzak eta proposamenak planteatzeko garaian euskal gizartearengan konfiantza eta ausardia eskatzen du.

LABek arbuiatzen ditu eta borrokatuko da izan daitezkeen "hirugarren bideen" aurka, batez ere, hauek egun indarrean dagoen marko juridiko-politikoaren iraupenean edota garapenean oinarriturik daudenean.

Euskal abertzale eta aurrerakoien, euskal demokraten funtsezko bateratasun gunea Euskal Herria errealitate politiko gisa onartzean eta prozesu eragilea martxan jartzean oinarritu behar da, non honetan sektore abertzale eta aurrerakoiek alternatiba zehatza adieraziko duten. Hots, euskal lurralde guztien gizon eta emakumeen gehiengoaren hitzarekiko begirunean oinarrituz.

LABen ustez, premiazkoa egiten da indar abertzale eta aurrerakoien bizkortzea. Honela sahiestuko genuke esparru guztietan ematen ari den espainartasunaren erasoak abertzaletasuna defentsiban jar dezan.

Ilido honetan, igaro diren hilabeteek ematen diguten esperientziak prozesuaren eboluziorako bi gako adierazten digu: Ezker Abertzaleak prozesua bultzatzeko eta zehazteko duen ahalmena; eta gizartearen sektore guztiek norgehiagoka demokratiko horretan izan behar duten ezinbesteko parte hartzea.

### 3. INDEPENDENTZIA: DEMOKRAZIA POLITIKO ETA SOZIALAREN ALTERNATIBA

#### Sarrera

Euskal Herria eraikitzen ari gara, eraikuntza-prozesuan dagoen nazioa da gurea. Halaxe da, nortasun hori aitortzen dioten oinarri objektiboen (hizkuntza, kultura-bereizgarriak, prozesu historikoa, erresistentzia-borrokak, etab) gainetik, hegemonia frantses eta espainiarraren aurkako oposizio latza egiteko ez ezik, bere burua politikoki naziotzat eratzeko nahia ere garatu delako bertan.

Eragile politiko eta sozialen eta testuinguru historikoaren arabera, erabateko subiranotasunera iristeko kontzientzia eta erreibindikazio nazional horrek oraindik ere hainbat eduki eta adierazpen politiko desberdin dituen arren, askapen nazionalaren helburua Independentzia dela eta askapen sozialaren helburua Sozialismoa dela finkatu ditu LABek ere.

Bizi garen testuinguru sozial, politiko eta ekonomiko honetan, askatasunez autodeterminatzeko eta independentzia nazionala eskatzeko eskubideak indar-indarrean daude. Herri honetako gizon-emakumeen nahi aske eta demokratikoan oin harturik, Lizarra-Garaziko akordioak Euskal Estatu sortzea helburu duen gehiengo politiko, sindikal eta sozialaren garapenari ateak zabaldu dizkio.

Hori guztia oraintxe gertatzen ari da: frankismoaren ondoren porrot eginiko Estatu-ereduak Hego Euskal Herrian krisia bizi duenean, Ipar Euskal Herrian frantziar jakobinismoa auzitan jartzen ari denean eta, batez ere, Estatu klasikoaren karakterizazioa galarazten ari den Europar Batasunean integrazio ekonomikoa eta supraestruktura politikoa sortzen ari den une honetantxe. Erreibindikazio horrek ere garrantzi handia hartzen du, nazioartean autodeterminazio-eskubidea praktikan jartzea demokrazia politikoa gara-tzeko oinarri eta egonkortasunaren berme bihurtu duen testuinguruan.

Bide horretatik, LABen iritiz independentzia nazionala da alternatibarik hoberena, Euskal Herriko gizon eta emakumeak Estatu espainiar eta frantziarraren aurka mantentzen

dituen borroka historiko luzeari behin betikoz amaiera emango bazaio. Horrenbestez, Europar Batasunaren baitan, langileriaren defentsa, justizia soziala eta demokrazia garantiatzeko Euskal Estatua osatuko duten erakunde subiranoak sortzeari ezinbestekoa deritza LABek.

Gauza bera bestelako hitzekin esatearren, Euskal Estatua sortzea aldarrikatzen dugu: horren eraketan, nortasun linguistiko eta kulturalaren garapenaz gainera, askatasuna, demokrazia eta elkartasun soziala izango ditugu oinarriak; bestetik, unibertsaltasun zuzenaren euskarri direlako, herri eta kulturen arteko berdintasun eta elkartasunezko harremanak sustatuko ditugu.

Euskal Herriaren independentzia ez dugu inoren kontra eraiki nahi, elkartasunaz kontrako muga ekonomiko eta sozialak altxatuz; alderantziz ordea, Euskal Estatua - bertako hiritarren nahia errespetaturik - ipar eta hegoaldeko, eki eta mendebaldeko gure auzoekin (Iberiar penintsula eta Estatu frantziarreko gertueneko herrieekin, bereziki) harreman ekonomiko sozial eta kulturalak.

Beharturiko asimilazioaren uztarpean mende eta erdia eman ondoren, federalismoak (asimetriko zein simetrikoa) edo konfederazioak (Estatu espainiar plurinazionalaren proiektuaren barnean) ez dute erabat bermatzen gure eraikuntza sozial eta nazionala eta gure herriaren iraupen historikoa. Independentzia da subiranotasuna bermatzen dizkigun aukera bakarra, herrien arteko klase-elkartasunaren printzipio sendoak finkatzen dituen.

### **3.1. Egungo Estatuak**

#### **3.1.1. Apunte historikoak**

Burgesia hegemonia politikoa 18. eta 19. mendeetan finkatzen da, feudalismoa eta erregimen politiko absolutistak eraitsitako Estatu europar bakoitzean nazio-estatu berri bat sortuz.

Monarkia inperialistek gobernaturiko Estatu europarretan aldaketa hauek (iraultza burgesak) tokian tokiko monarkia eta inperioen armen bidez aurretiaz menpean hartutako nazioak jasotzen zituen nazio berri menperatzailearen boterepean biltzen zuen Estatu nazional plegu berria sortu zuten. Horren adibideak dira Ingalaterra, Frantzia, Espainia eta Alemania.

Monarkia eta inperioek zapalduta egonak ziren Europar nazio askotxok lortu zuten Estatu subiranoak berpiztea (Holanda, Portugal, Norvegia, Finlandia, Irlanda, Islandia eta Polonia); Estatu menperatzaile hariatako batzu nazio-estatu bilakatu ziren, hala nola,

Austria, Hungaria, Danimarka eta Suedia. Beste aldetik, Nafarroa eta Eskozia Estatu enkasua dugu, oraindik ere mendebaldeko Europako hiru Estatu haundien (Espainia, Frantzia eta Ingalaterra) azpian segitzen dutenak.

Prozesu horretan barrena, - Nafarroa, nazio politikotzat eta Euskal Herria nazio kulturaltzat - gure Estatu europar historikoari independentzia irautzi zioten XVI. mendean eta, administrazio okupatzaileek hainbat lurraldetan zatikaturik, bere estatu-subiranotasuna berreskuratzetik izan ez zuen. Burgesia komertzial eta industrialaren eginkizuna, bertako estatuzkotasunaren ondakinak administratzea besterik ez zen izan, Espainiako Estatu pan-nazionalaren tutoretzapean: horrek euskaldunen nazio-estatu askatzeko saiakera guztiak zapuztu ditu.

Euskal kapitalistentzat - Ybarra, Gandarias eta gainontzekoak - Karlistadetan liberalek irabaztea, Batzar Nagusien eskuduntzak indargabetzea eta hego Euskal Herria Estatu espainiarrean integratzea, beren klase-interesak errealitate bihurtzea zen, era guztietako euskal proiektu nazionalak baino egokiagoa, dudarik gabe.

Burgesiaren hegemoniari esker eta agintean zegoen kasuan kasuko talde etnikoa-ren sostenguarekin eraiki zirelarik, Europako nazio-estatu handien sorrerak nortasun kolektiboa moldatu eta uniformetasun nazionala indarrez ezartzea ondorioztatu zuen maiz, horretarako Estatuaren baliabide administratibo eta betearazleez baliatu bazen ere. Garapen kapitalistak premiazkoa duen uniformetasuna Frantzia eta Britainia Handian ezarri zen, hainbat nazio-adierazpen zanpatu eta beharturik (gurean, konparazio baterako, Ipar Euskal Herrian). Bismark kantzilerraren Alemania indartsuak poloniar, lituaniar, dani-markar eta beste askoren bortxakeriazko germanizazioa aurrera eramaten ahaleginak egin zituen. Tsarren Estatu Finlandia errusiar bihurtzen saiatu zen eta ahalegin berean jardun zuen Baltikoko gainerako herrialdeetan, Ukrainian eta Kaukasoon. Beste horrenbeste gertatu zen Turkiako inperioan: Armenia eta Balkanetako lurak indarraren indarrez turkiar bilakatu nahi izan zuen botere zentralak.

Geroago, inperialismoaren sorrera eta mundua elkarbanatzeko karrera etorri ziren. Menperaldian zehar Erresuma Batua, Frantzia, Errusia eta antzeko potentziak nabarmendu baziren ere, Estatu Batuak, Alemania eta Japonia ez zitzaizkien urrutitik etorri: horrela eman zitzaion hasiera, mende honetako bigarren hamarkadan, Hirugarren Munduko askapen-borrokei, Urriko Iraultzak eta Hirugarren Internazionalak suspertu edo sustaturik. Orduaz geroztik eta laurogeigarrenak arte, Estatu bilakatzen diren nazioen garaia izan zen, Hirugarren Munduko herri ugartan auzitan jarri baitziren egoera kolonial edo neokolonialak.

Dena den, SESBen "egiazko sozialismoa" eraitsi zenetik (90.etatik) aurrera hasi zen Europako Estaturen barnean nazioen jaiotze ugaria, Ekialdeko eta Balkanetako herrialdeetan: horri esker, I. eta II. Mundu Gerretan konpondu ez ziren nazio-arazo asko berriro ekarri dira azalera

Baltikoko herrialdeen (Letonia, Estonia, Lituania) independentzia; aspaldiko SESBen integratutako beste nazio batzuen (Ukrainia, Bielorrusia, Georgia, Armenia...) independentzia; Txekoslovariaren zatiketa (Txekia, Eslovakia); Jugoslaviaren zatiketa (Eslovenia, Kroazia, Bosnia, Mazedonia, Kosovoko arazoa, Montenegroren aldentzea...)

Nazionalismo askatzailea eta nazio berriak indarrez sortu izanak frogatzen duenez "benetako sozialismoak", autodeterminazioa itxuraz juridikoki aitortua zuen arren, aspaldiko arazo nazionalak konpontzeke utzi zituen eta, praktikan, agerian utzi zuen postulatu haien ahulezia (batez ere, Estatu plurinazionalak sortzeak ondorioztatu zuen hondamendia). Egoera hura, zenbaitetan, barne-kolonialismoen eta bazterkuntza kultural eta politikoren iturri izan zen.

Menpekotza kulturala eta ezarpen politiko-militarra dira batzuetan istilu biolentoak lehertarazten dituztenak; ez da egia, dudarik gabe (Mendebaldeko Estatu handietako propagandistek oihuka aldarrikatzen badute ere, beren nazionalismo chauvinistaz), mugimendu nazionalista askatzaileak zentzumenaz kontrakoak, fanatikoak direnik edo, gizartea aztoratzeko, elementu etnikoen amorrarazleak direnik ere.

### **3.1.2. Estatuez gaineko markoak eta nazioen jaiotza**

Mende honen erdialdera arte merkatu kapitalistak Estatuan egin zituen eragiketarak hartan, balioaren legea eta lanaren banaketa, eduki hori zuten. Bigarren Mundu Gerraren ostean, ordea, produkzio-sistema nazionalak hautsita, sistema mundializatuaren osagai bezala birsortzen hasi ziren, nazioz gaisetiko merkatuak (supranazionalak) eratuz eta marko horien baitako integrazio ekonomikoa sustatuz.

Komunikazioen iraultzari eta teknologia informatikoaren hedapenari hertsiki loturik doala, mundializazioak ez du esan nahi - ekonomilari batzuek ausarkeriaz horrela ulertzen badute ere - ekonomia nazionalak eta gestio ekonomikoaren estrategia nazionalak hutsaren hurrengotzat hartzea. Nahiz eta lotura ekonomikoak mundu osoan zehar zabaldurik dauden, merkataritza gehientsua erregio-mailakoa da oraindik ere. Europar Batasuneko Estatuak beraien artean egiten dute merkataritza, batik bat, integrazio ekonomikoa areagotuz. Europar Batasunak mundu zabalera eginiko esportazioa ia-ia ez da gehitu azken hogeita hamar urteotan.

Globalizazioaren ondorioa bi ahoko ezpata da: alderdi ekonomikotik bateraegile den bitartean, nazio-estatu zentralisten nortasuna ahuldu egiten du: Estatu horien izaera auzitan dagoenez, sakoneko berregituraketaren premia du.

Estatuez gaineko erakunde ekonomikoak (Europar Batasuna da hemen irudi hori gorpuzten duena batipat) indarrean egoteak, Estatu zentralisten barne-kontraesanak ugaltu eta areagotzen ditu, Estatu horien eginkizun eta argumentazio ideologikoa indargabetzen ari baita. Prozesu horri esker, Estatu plurinazionaletan sartuta dauden arren berez Estatu gabeko nazioenak diren erakunde eta gobernuen garapena gertatzen ari da, logika osoz. Nazio horiek bortxatu dituzte nazio-estatu boteretsu handiek "merkatu nazionalaren" eta "uniformetasun nazionalaren" sorrera-prozesuan: era horretantxe hartu dute berriro beren nortasuna europar erakundeen markoan.

Burokrazia zibil eta militar sendoaz "ederturiko" lege zaharreko Estatu zentralistak ostera sortzerik nahi ez badugu ere, marko nazionalen gestionatzen diren euskarri ekonomiko eta produktiboen bitartez nortasun nazionala, elkartasun soziala, kulturaren eta hizkuntzaren garapena eta herritarren bizimodu hobea lortzen lagunduko duen Estatu-plegu berria egokitzeko aukera ikusten dugu.

Era horretako prozesuak ikusten ari gara orain bertan, Europako herrialde askotan ez ezik, mundu osoan ere:

Quebec: nazioaren erreibindikazioa eta autodeterminazio-eskubidea praktikan jartzea, Kanada herrialde kapitalista handian gertatu dira.

Erresuma Batuen birsorkuntza, Eskozia eta Galesen naziotasuna berpizten, Parlamentuak birsortzen hasi dira, jakina denez; era berean, Londresek Ipar Irlandako arazo aintzat hartu izana gertakari nabarmena izan da.

Belgikan konfederazioa argi eta garbi planteatu dute waloier eta flandriarrek: Belgikako Estatuaren disoluzioaren aurrekina den horrek, Flandria eta Walonia bereiz (bakoitza bere aldetik) Europar Batasunean sartzea ekarriko du.

Italiak bizi duen Estatu zentralaren krisi larri-larriaren irtenbidea Estatu osoaren federalizazioa omen da: zuzendaritza politikoa Iparraldeko Liga eta antzeko erakundeek eramango lukete.

Zentralizazio politikorako joera nabarmena duten beste Estatu batzuetan (frantsean, adibidez), izaera nazionalerako mugimenduak ikusi digutu aspaldi honetan: Korsika eta Britainian, adibidez.

Europa monetarista eta ekonomizale horrek, oraingoz behintzat, ez du agerpenik izan alor sozial eta politikoan (funtsezko erakundeak Estatu kideen koordinatzaileak dira)

eta indarrean dauden egitura nazionalak aldatzeko erabakirik ez da hartu bertan. Merkatu amankomunaren eraikuntzan bakarrik aurrerapausuak ematen diren bitartean, Europaren eraikuntzaren alor politikoko neurriak hartzeari saihesten zaio.

Horrek esan nahi du, noski, Estatu gabeko nazioen independentzi nahia betetzeari Estatu zentralistek behin eta birritan emaniko ezetza aurrerantzean ere biribila izango dela eta, horrenbestez, egundoko mugimendu sozial eta politikoak eragin beharko direla. "Erregioen Europa" promesa hutsala besterik ez da, eta ez txiripaz.

XIX. mendean, Euskal Herria, Eskozia, Katalunia, Gales eta abarren gainera pasatzeko "handiek" erabili zuten argudioa Estatuko nazionalismoen hedapena izan zelarik -beraien esanetan, nazio subirano gisa eratzeko "Historiara berandu iritsiak baitziren" -, orain beste muturreko teoriarekin ari zaizkigu, behin eta berriz: nazionalismoek ez dute zentzurik Europar Batasunean eta antzeko marko supranazionalan eta, nola ez, autodeterminazioak jada ez duela bere funtzio historikoa betetzen.

LABekoek, aitzitik, uste dugu teoria horien atzean daudenak Estatu-arrazoia eta ideologia nazionalista menperatzailea daudela, eta espainiarra bezalako Estatu zentralistak direla herriak eta nazioak zanpatuz historikoki hazi direnak: beraz, haiexek zabaldu behar dizkiete ateak barne-errealitate nazionalari.

Europar kapitalen metaketa-prozesuan, amaigabeko periferia azpigaratuek inguraturik - geroz eta langabezia eta miseria gorriagoaren mesedetan - garapen-poloak sustatzea gaitzesten dugun indar berarekin, izari (dimentsio) politiko eta soziala funtsez Estatu zentralista zaharretan oinarritzearen aurka eta erdigune politiko supranazionalak herrien errealitateak gertu eta langileen interesen arabera ez antolatzearen kontra agertuko da LAB, beti.

### **3.2. Independentzia, interdependentziako barruti politiko-ekonomikoan**

Europa horretan eta helburu estrategiko bezala, Euskal Herriaren independentzia egiazko demokraziatik eta justizia sozialetik aberastu nahi dugun europar proiektu baten osagai gisa ikusten dugu.

Horrek esan nahi du Euskal Herriak, zor zaizkion erabateko subiranotasuna eta botere instituzionalak aitorturik, egitura politiko supranazionalan berdintasunez sartuko dela eta, erakunde horiek, Europako herri eta nazioen federazioan edo konfederazioan bildurik, langileen zerbitzutan egongo direla.

Europar Batasuneko kapital industrial eta finantziariak bultzatu eta PSOeko gobernuek lehenik eta PPkoek geroago obediencia zorrotzez aplikatu duten berregituraketa-politikak, Euskal Herrian XX. mendearen hasieratik garaturiko eredu sendo baldintzatu du, gizartean sekulako ondorioak eraginez.

Siderurgian eta untzigintzan oinarrituta zegoela, euskal eredu ekonomikoaren bizkarrezurra izan zenaren aldakuntza teknologiko eta produktiboek, 80.etan eta 90.en hasieran ehun mila enplegu industrialen galera ekarri zuten.

Europar Batasunaren premia ekonomikoek ezarritako aldakuntza gordin horren ondorioz, euskal ekonomiak aurrera egin du europar integrazio ekonomikoan, korporazio transnazional enpresarial handien mesedetan.

Euskal finantza eta industriaren oligarkiak - botere faktiko eta erabatekoa, Estatu espainiarrarekiko harremanen beste fase batzuetan - joera globalizatzaileetan dihardu bete-betean eta euskal enpresario askok Europar Batasunean interes objektiboak dituztenez, bertan ordezkari zuzen eta eraginkorra martxan jartzeko mekanismo politikoen premia dute. Hau da, mundializazioaren zenbait bilakaera eta ondorioren aurrean, erakuntza nazionalak defentsazko baliabideak eskaintzen dizkie edo eskain diezazkieke.

Faktore politiko horrek, PNVren proiektu politiko-ekonomikoa Estatu espainiarantz zabaltzeko "betidanik" egina zuen apustuan bide berriak urratu ditu. Euskal Herria antolatu eta garatzeko funtsezko elementu den neurrian, euskal gune sozio-ekonomikoaren balioaz eta ahalmenaz eginiko hausnarketek - Olloraren eskutik, batik bat - garrantzi kualitatiboa dute eta, aurrera begira, kontzientzia nazionalaren arrastorik ez duten sektore ekonomikoek alderdi horri eragin dizkioten menpekotza eta zamei bestelako helmugak adierazteko balio izan dezakete.

Horrenbestez, Europar Batasunean ekonomikoki integratzeko prozesuan gaude, bete-betean, baina ez dugu joan nahi Europako botere ekonomiko handien joera ekonomiko eta politikoen uztarpean. Horretarako eduki behar ditugu geure bitarteko politiko eta ekonomikoak, hau da, Euskal Herrian demokrazia politikoa eta soziala eratzeko moduko baliabideak.

Adiera horretan eta inongo asmo autorkiko edo isolatzaileez zeharo beste aldera, geure ekonomia eta produkzio-bitartekoez baliatuz, Europako gainerako nazio eta herriekin elkarlanean jardun behar dugula onarturik, Euskal Herriaren independentzia lorpen handia izango da gestio kolektibo demokratikoa antolatzeko eta geure eredu sozial alternatiboan aurrerapausuak emateko.

Ekonomia bildu eta zentralizatzeko joeren aurka eta, era berean, harreman ekonomi-

ko eta sozialetako dinamika desregulatzailen gorakadaren kontra, independentziaren errei-  
bindikazioa funtsezko balioa da, gizarateak bat eginik eta elkartasunez aurrera egingo badu.

### **3.3. Euskal Estatua: Euskal Herriarentzako alternatiba**

#### **3.3.1. Oinarrizko ezaugarriak**

Independentziaren aldekoa eta, beraz, europar proiektu komunean beste zeinahi nazio-estaturik bezala esku hartuko duen euskal Estatua sortzearen aldekoa da LAB. Euskal erakunde subiranoek europar ente supranazionalaren eskuetan subiranotasun horren parte bat utziko dute edo horrekin batera konpartituko dute, baina ez utziko dute Estatu frantses eta espainiarraren eskuetan eta ez horiekin konpartituko dute. Euskal Herria beste nazio-estatu bat izango da, beraz, eta Europar Batasunaren aurrean egungo beste edozein nazio-estaturik duen status berbera izango du.

Beste aldetik, LAB ez dago XIX. mendeko nazio-estatuak orain berriro sortzearen alde: haiek, lurralde eta merkatu-integratziora begira, berebiziko burokrazia zibil eta militar zentralizatzailea ezarri zuten eta. Pirinioez bi aldeetako sei euskal herrialdeak bilduko dituen erakunde-marko subiranoa (eta honek ondorioztatzen duen guztia: hizkuntza, kultura, eta erakunde aniztasuna) sortzearen alde dago LAB.

Euskal Herriaren lurraldez lurraldeko egituraketan LABen iritziz beharrezkoa da herrialde-egitura historikoak baloratu eta sustatzea. Era berean, udalerrriak duen garrantzia handia da, euskal herrialde bakoitzaren berariazkotasuna (berezitasuna) aintzat hartzeko eta herritar guztien eskuhartze demokratikoan positiboki eragiteko.

Euskal Estatuak integratzailea behar du izan baina, aldi berean, euskal herrialde bakoitzaren berariazkotasuna onuragarritzat hartzea ere ezinbestekoa da. Beraz, bakoitzari bere nortasun instituzionala eta bere burua gestionatzeko gaitasuna aitortu behar zaio.

#### **3.3.2. Euskal Estatua eta gizarte-aldakuntza**

Euskal Herriaren Estatua sortzearen aldeko garaia esatean ez dugu Estatu horren eredu sozialaz geure jarrera azaltzen: une horretan, Euskal Herrian eta Europan dauden indar-koerlazioen arabera eratuko da alderdi hori, noski.

Estatua desegiteko garaia dugula dio orain ultraliberalismoak, argudio soil bat ezarrita: Estatuak garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna eragozten die oso ongi erregulatuak ez dauden ekonomiei. Asmo horren atzean, kapitalak interesak aurrera ateratzeko espazio ekonomiko eta politikoak lortzeko duen neurrigabeko nahikeria gordina ezkutat-

zen da: espazio ekonomiko aske eta erregulatu gabe horietatik zuzenduko du kapitalak bere buruaren eta bere eragin ekonomiko-politikoaren hedapena. LABen ustez, mantendu ez ezik, zabaldu eta hobetu behar dugu Estatuaren, demokrazia sakontzeko estrategia nagusiaren funtsezko elementua baita.

Merkatuak, bere kasa uzten badugu, sekulako desoreka eta desmailak eragingo ditu. Merkatu kapitalistaren okerreko ondorioak zuzentzeko eta aberastasuna ahalik eta berdintasun handienaz banatzeko, funtsezkoa izan behar du Estatuaren eraginak.

Bai lehen sektorean, bai garrantzi estrategikoko industri eta merkatal espazioetan ekonomiaren eta ekonomia sozialaren eragile izango den neurrian, sektore publikoa indartzearen aldekoa da LAB.

Baliabide ekonomiko eta mediatiko mugatu-mugatuak edukitzea oztopo dugun arren, gure ustez proiektu abertzalea berebiziko balorea da egituraketa eta elkartasun sozialari dagokionez: politikoki arras erakargarria da - halaxe zor baitzaio gizartearen euskarri diren indar sozial, politiko, kultural eta sindikalen eraginari, langileriaz osaturiko gehiengo horren interesei erantzuna emango dien aldakuntza-alternatiba antolatuko bada - eta, nola ez, inguruetan eragin onuragarria sortzen du.

### 3.3.3. Independentzia eta klase-elkartasuna

Independentzia erreibindikatzeko eta nazioa eraikitzeke asmoa izateak ez du inondik ere esan nahi, klase-sindikatura garen aldetik, intsolidario izango garenik edo Europar eta mundu osoko beste nazionalitate eta herrietako zanpatu eta zapalduen ahan-tziko garenik.

LABen aburuz, nazionalismo askatzailea eta internazionalismoa ez dira elkarren kontrako kontzeptuak, bata bestearen osagarriak baizik. Gogora dezagun geure nazioa eraikitzea eta beste herrialdeekin -langileekin eta sektore zapalduenekin - elkartasunez jardutea Ezker Abertzalearen elementu tradizionalak direla eta izango direla.

Sindikatu abertzale garen neurrian, sortu ginenez geroztik ezker espainiar politiko eta sindikalak, langileria kontzepzio ekonomizista adierazten duten balizko jarrera uni-bertsalistetatik egin dizkiguten kritikak gaitzesten ditugu, sarri askotan nazionalismo espainiar chauvinista estaltzen baitute kritika horiek: nazionalismoak merkatu estatalean klase-kontzientzia hartzea mugatzen duela, sozialismoa eraikitzeke espazio ekonomiko zabalak egokiagoak direla edo, Europar Batasuna hor dela, nazio txiki bat sortzeko gogoia anakronikoa dela, adibidez.

LABen iritziz, harreman laboralen desregulazioa eta gizartearen indibidualizazioa goren dituzten joeren aurka, nazionalismoaren kohesio sozialak klaseen arteko elkarta-

suna eta borroka hobeto antola daiteke nazionalismoaren kohesio sozialetik. Euskal Herrian sindikalismo abertzale indartsu eta borrokalaria bizirik irautea dugu horren adibiderik argiena.

Langile-kontzientzia moldatzean unibertso nazional osoak (sinbolikoa, mitikoa, afektiboa, kulturala, linguistikoa, politikoa, etab) mespretxatu, gaitzetsi edo gutxiestea da, gure ustez, erabat jarrera erreakzionario eta kaltegarria, errealitateak maiz frogatu izan duenez: espazio ekonomiko zabalek ez dute erraztu langileriaren batasun, kontzientzia eta antolakuntza handiagorik edo hoberik erdiestea.

Nazionalismo iraultzailea Europako sindikalismoak ere kritikatzeko du: honek, korrante sozialdemokratek zamaturik eta agintean dauden ideologia nazionalistez kutsatuta, Estatu gabeko nazioek egiten dituzten mugimenduak mesfidantzaz ikusten ditu.

LABen ustez, loturak egiten saiatu eta, bai Europan bai mundu osoan ere, eginkizun komunak planteatu behar dira. Pedagogia politiko eta sindikaletik, sindikalismo abertzaleak zerbait ulertarazten ahalegindu beharko du: naziotasuna bidezko kontu demokratikoa izateaz gainera, kapitalismo ultraliberalaren jokaeraren (zentralizazio politiko eta ekonomikoa) kontra, Europar Batasunaren eta gizarte-ereduaren egituraketa politikoan ikuspegi iraultzaile eta aurrerakoa eskaintzen duela, alegia.

### **3.3.4. Euskal Estatua: demokrazia eta unibertsaltasuna**

Jarduera demokratikoa, elkartasuna eta unibertsalismoa balioz hornitzen duen erreibindikazioa da independentzia.

Egungo Europar Batasuneko beste Estatuena ezaugarrien antzekoek hornituriko euskal Estatua sortzeak ez du inola ere esan nahi joera arkaizistak indartuko direnik edo, are gutxiago, alor politiko eta kulturalako balio unibertsalak gaitsetsiko direnik. Aitzitik zeharo, euskal nortasun nazional eta kulturalaren garapenetik unibertsaltasunera egin dezakegun (eta alderantziz, hark egin diezagukeen) ekarpena askozaz aberatsagoa da.

Bide horretan barrena, modernotasun eta unibertsalismoaren kontzeptu "jakinetan" instalaturik dauden - eta, askotan, sasi-ezkerreko ikuspuntutik, nazio zapalduen esku-bideak eta ekarpen sozio-kulturalak gutxiesten dituzten - sektore batzuen diskurtsoa gaitsetzen dugu.

Adiera horretan, Euskal Herriko gizon eta emakumeen nahia askatasunez eta demokraziaz jartzea errespetatuz, euskal instituzioek erabateko subiranotasuna edukitzeak areagotu egiten du hiritarrek beren erabaki politiko eta ekonomikoak hartzean demokrazia eta partaidetza.

Autodeterminatzeko Eskubidea demokraziaren funtsetako bat dela jakinik, eskubide hori sustatu eta praktikan jartzeari esker, kolektibitate nazional kohesionatuek gizateria osoaren garapen demokratikoan parte hartu eta ekarpenak egin ditzakete.

Horregatik, espazio supranazional ekonomiko-politikoak egituratzearekin batera, nazio-errealitateen garapena bultzatzea kohesio eta elkartasun soziala bermatzeko eta egonkortasuna demokrazia areagotzeko faktore garrantzizkoa dugu.

### **3.3.5. Euskal Estatuaren fluxu sozio-ekonomikoak**

Iberiar penintsula eta Estatu frantseseko gertueneko herri guztiekin, batez ere gure harreman ekonomiko eta kulturalak areagotzeko balio beharko du.

Arazoari konponbide politikoa emateari, prozesu eratzaille berria zabaltzeari eta, bidezkoa balitz, euskal Estatua sortzeari esker, urte eta mende askotako borroka, eraso eta mesfidantzak gainditu ahal izango ditugu, nahiz gehien-gehienetan eraso, borroka eta mesfidantza horiek Estatu espainiar eta frantsesaren gobernuetako buruzagiek sustatu izan dituzten.

Euskal hizkuntza, kultura eta ekonomia bultzatzearekin batera, (Herri honen ondare historiko diren) kultur errealitateak errespetatzea eta, bereziki, elkarlan ekonomiko eta kulturaleko ekimen berrien garapena indartu beharko dira.

Argi baino argiago utzi behar dugu euskal subiranotasuna - balizko euskal Estatua - ez dela inoren edo ezeren kontra eraikiko; alderantziz, desberdinak izanik, elkarbanatzeko gauza asko dituzten komunitateen arteko harremanen normaltasuna eta demokrazia areagotzen duen alternatiba da.

### **3.3.6. Euskal Estatueta hizkuntza subiranotasuna**

Hizkuntza herri identitatearen sentimendu sinboliko eta errearen faktore nagusienetakoa da, nagusiena ez esateagatik. Herri baten askatasun prozesua ez da inoiz osoa izango bere hizkuntza askatzen ez bada, bere hizkuntzaren jabe bihurtzen ez bada. Hitz batez, hizkuntza alorrean ere subiranoa ez bada.

Hori argiagoa da Euskal Herria bezalako herri batetan. Bere hizkuntza propioa izanda eta bi hizkuntza ezberdin dituzten bi estaturen menpe egonda, ez dago ulertzerik Euskal Herriaren nazio subiranotasuna bere hizkuntza subiranotasunarekin batera ez bada.

Ezin dugu ahaztu, gainera, errebindikazio nazionala eta autodeterminazio eskubidea garatzen ari diren herrietan (Quebec, Belgika,...) hizkuntza faktorea determinantea izaten ari dela.

Herri baten nazio eraikuntza prozesu batetan, Hizkuntzak herriari kultur identitatea damaio, identitateak herriaren izatea egituratzen du, herri izateak burujabetasunaren nahia dakar, burujabetasunak praktika eta instituzio subiranoak eraikitzea bultzatzen du, praktika eta instituzio subiranoek hizkuntza nazionala garatzen dute eta hizkuntza nazionalak herri identitatea berrindartzen du.

LABek defendatzen duen proiektu politikoan, Euskal Herria independenteak bere hizkuntza nazionala izango du eta hori euskara izango da.

### **3.4. Euskal Herriaren independentzia: demokratikoki antolatu eta irabazi beharreko alternatiba**

Independentziaren aldeko mugimenduak, Euskal Herriko gizartearen gehiengoak proiektu horrekin bat egin dezala lortu behar du. Baldintza demokratiko horixe bete behar da, Euskal Herriaren independentzia eta askapen sozialeko proiektua legitimatzeko.

Metodo demokratikoen aldeko apustu horrek ezinbestekoa du ideia eta proiektu politikoak agertu eta eztabaidan jartzeko espazio demokratikoa. Eta espazio hori, euskal herritarren nahia errespetatuz eratu behar da, Estatu espainiar edo frantsesak inongo hipotekarik ezarri gabe eta inolako injerentziarik eragin gabe. Kontu hau erabatekoa da, Euskal Herriak oraindik ere nozitzen duen arazo politiko biolentoa gainditu ahal izateko.

Lizarra-Garaziko oinarri demokratikoak eta ondoriozko marko juridiko-politiko berria onartuta antola daitekeen eszenario politikoa, gestio politiko eta borroka demokratikoko espaziotzat jo beharra dago: bertan, gure tesiei jarraiki, independentziaren aldeko-tasunak aurrera egin beharko du.

Guk aldarrikatzen dugun independentzia-proiektua oinarri demokratikoetatik abiatzen da, bai autodeterminazioaren subjektu politikoa ulertzeari dagokionez, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten pertsona guztiak, okupazio polizial-militarreko gorpuz eta indarreko kideak izan ezik, bai biztanleriako beste zenbait sektoreren hizkuntz eta kultur berezitasunei dagokienez ere. Horrek esan nahi du gure nazio izate hau ez dugula hartzen ideologia baztertzaile eta xenofobotzat, pentsamolde integratzaile eta kultura anitzek osatutzat baizik, Euskal Herriaren subiranotasun politikoaren proiektuan.

Independentziak eraikuntza nazionalaren ondorio izan behar du. Prozesu horretan, erabateko demokrazia politikoan eta subiranotasuna praktikan jarriz, independentziaren aldeko aukera hori gorpuztuz joango da Euskal Herriko gizon eta emakumeek osaturiko gehiengoa.

# 4. MARKO JURIDIKO-POLITIKO BERRIA. DEMOKRAZIA ETA SUBIRANOTASUNA

## 4.1. Gogoeta orokorra

Euskal Herriak bizi duen une historiko garrantzitsu hau denok egokiro barneratu eta proiektatu behar dugu, Estatu espainiar eta frantsesak azken bost mendeotan planteatu izan dituzten eraso - eta txikizio-faseak - gainditurik, alor politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen, Herri honetako hiritarrek beren burua antolatu eta erabakiak hartzeko gaitasuna berriro eskura dezaten lortzeko.

Autodeterminazio-eskubidea aintzat hartu eta praktikan jartzeko, euskal subiranotasuna irabazteko borrokak, batetik, eta geure harremanetan demokrazia eta egonkotasuna lortzeko, eta beste herri edo marko supranazionalekin elkartasunez aritu ahal izateko borrokak, bestetik, esanahi ber-bera dute biek.

Hortik ikusita, Euskal Herria demokratikoki eraikitzeko eta Estatu frantses eta espainiarrarekin harremanak eratzeke funtsezko euskarri bihurtu da Lizarra-Garazi.

Euskal Herriko hiritarren aniztasunetik gure Herriaren etorkizun politiko, ekonomiko eta soziala denon artean eraiki behar dugula aipatzen denean, gure baiezeko erantzuna soila da, eta hala behar du izan, gainera: horixe baietz, Euskal Herrian bizi eta lanean ari garen guztion artean, herritarren nahiaz kanpoko injerentziarik eta hipotekarik gabe.

Adiera horretan eta euskal idazle baten esaldia geureganatuz, LABen iritziz, "euskal erabakiunea ez da bere aurka daudenek kontsentsuatu beharreko kontua; aurretiazko baldintza da, geroago lortuko den kontsentsua - zeinahi eratakoa dela ere - euskal gizar-tearen aurrean baldintza berdinetan gauza dadin".

Egiazko jarduera demokratikoaren funtsezkoa den planteamendu honek, lehen instantzian, Madril eta Pariseko gobernuen ezetza topatuko du eta, seguru baino seguruago, itunduriko adostasun berri batean, egungo marko politikoa aldatzeko estrategia bat aurkituko du bidean hurrena, sektore abertzalaren baten atxikimendua (PNV) lortu nahi izango duena.

Estatuen interferentzia politikorako gaitasuna eta eskeintza politikoa egin eta honen inguruan gizartearen gehiengo batuz, gure soberania egikaratzeko gaitasuna proportzionalak izango dira. Euskal Herriaren lurraldetasuna eta euskal subiranotasunaren errespetutik, kanporantz zein barruan eduki nahi dugun erlazio eta botere politikoaren eredua zehaztuko duen eskeintza politikoa.

Hau da, Lizarra-Garazin kokatzen den oinarrizko kontsentsuak operatibizazioa, gauzapean zehatza izan behar du: zatiketa eta menpekotza estrukturaleko zikloa gainditurik, euskal herritarrei - beren nortasun politiko eta instituzionala - europar proiektuan sujetu eta partehartzaile izateko aukera eman behar die.

Marko juridiko-politiko berri baten operatibizazioaren mekanismo eta edukietan kointziditzeko beharrak baldintzatu edo zehaztuko du alderdi politiko, sindikatu eta erakunde sozialen benetako konpromisoa: adostasun horixe izango da Euskal Herriaren prozesu eratzailea egituratzeko abiagunea.

Bertako erakundeak noski aitzindari izaki, euskal gizarte osoa da prozesu hori blindatu behar duena, frustrazio eta liskarren iturri izan litezkeen alferbatibei saihestu egiteko.

Bistan denez, prozesua konplexua izango (izaten ari) da eta probokaziozko jarrerak eta prozesua bera baldintzapean jartzea gero eta indar gehiago hartzen ari dira. Horri denari buru egiteko, gehiengo soziala egituratu eta mobilizatzea izango dugu erabateko erantzuna.

Hegemonia politiko eta sindikalén bila jardun behar dugu lortu arte, eta noski, gehiengo sozial horrek, dinamismo eta jarduera biziagoz erantzun beharko du. Gehiengo horrek planteatzen dituen edukien alde gizartea eramateko hamaikatxo ekimenez josi behar da jarduera politiko-instituzionala.

Gobernu espainiar eta frantsesaren aurrean gehiengo aritmetikoak lortzea ezinbestekoa izango da, baina ez aski, tamalez: gehiengo horiek eragin egin beharko ditugu, beldur eta aurreiritzien gainetik, bi Estatu horiei jasanezin bihurtuko zaion estrategia aurrera eramanez.

Bidegurutze honetan, beraz, gure ahaleginak arazo historikoa konpontzera, egiazko demokraziako eszenarioa lortzera eta Euskal Herriaren etorkizuna instituzional, sozial eta ekonomikoki egituratzera zuzendu behar ditugu.

Euskal Herriko gizon-emakumeok ezin utz dezakegu gure seme-alabentzako askatasun eta demokraziaren trena pasatzen utzi.

## 4.2. Demokraziako agertokia

Euskal Herria eta Estatu espainiar eta frantsesaren arteko arazoa gainditzea eta egonkortasun politiko, ekonomiko eta soziala lortzea posible izango da baldin eta euskal nazioaren errealitatea aitortzen badute eta euskal herritarren nahia - inongo eskua sartzerik edo hipoteka jartzerik gabe - aintzat hartzen badute. Bestela, ez.

Euskal Herriari indarrez ezarritako zatiketa edo banaketa administratiboa gainditu beharra dago, euskal nazioaren kolektibitatea aintzat hartuta, hasteko. Oinarrizko abiagune horretatik hasita, lurraldetasunak aurrera egin dezan dagoen bide bakarra, Euskal Herriko lurralde historikoetan, eskua ez sartzeko printzipioa indarrean edukitzea da: horrela, prozesu politikoa herritarren nahiak bakarrik baldintzatu eta zehaztuko du.

Bake prozesuan, arazoaren konponketa-prozesuan, alderdi politiko guztiek eta bi Estatuak esku hartu behar dutela etsi-etsian sinesten dugularik, arazoari irtenbidea eman-go dion azken markorantz abiatzeko elkargune dugu Lizarra-Garazi.

Lizarra-Garazik ez du alternatibarik, ez suzedaneorik ere: bere edukia guztiz demokratikoa da, euskal herritarren nahia (autodeterminazioa) errespetatzeak ez baitu esan nahi halako edo bestelako proiektu politikoari atxikiko zaionik; aitzitik, ideia eta programa politikoak alderatzeko gune demokratikoa egituratzeko gutxieneko oinarria da hori.

Zeinahi erabakiune sortzekotan, horrenbestez, Lizarra-Garazin xedatutako ardatzetatik sortu beharko da: bestela, bi Estatuaren estrategiarentzat "jostailu" bihurtuko li-tzateke balizko foro hori.

Erabakiune bat egituratzea, indar politiko eta sozialen artean izaniko elkarrizketa-prozesu sakonaren emaitza izan behar du, Lizarra-Garaziko adierazpenaren fun-tsezko hiru edukiak onartutik:

- a) Izaera politikoko arazo historikoa da hau.
- b) Elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa bakarrik izan daitezke arazoaren konponbideak.
- d) Behin betirako akordioa guztiz bide demokratikotik eman behar zaio: Euskal herritarren nahia errespetatzea, Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzea.

## 4.3. Marko juridiko-politiko berrirako bidean

### 4.3.1. Lurraldetasuna

Euskal Herriko sei herrialdeentzako eskaintza politikoa izango delarik, marko juridiko-politiko berriak bere baitan botere instituzionalaren barne-egituraketaren eredu

zehatz bat eduki beharko du.

Euskal Herriaren egungo egoeratik (zatiketa administratiboa, indarren koerlazioak etab.) haratago, izaera nazionalako proiektu politikoa jaso behar du euskal gizarteak. Proiektu horrek, gehiengo sozialaren atxikipenez, Herriaren egituraketa ahalbideratu beharko du.

Alor politiko, sozial eta kulturalean errealitate anitza da Euskal Herria. Beraz, barneberariazkotasun edo espezifizitate horiek errespetatuz, garatuz eta integratuz antolatu beharko du bere buruaren jarduera instituzionala.

Horrenbestez, erakunde nazionalak egituratzearekin batera herrialdeetan ere gorputzu behar dira tokian tokikoak: hauek, errealitate sozio-politikoak agertuz, lurralde hori gestionatu eta bultzatzeko moduko lanabes eta eskuduntzak izan beharko dituzte.

Barne-egitura "federal" horrek ez ditu urritu edo kaltetuko euskal herrialdeen eskuduntzak; areago, erakunde nazionalen elkarkide eta osakide izaki, botere politikoaren demokratizazio handiagoaren eragile izango da.

Bizi dugun aldakuntza-fase honetan, alor ekonomiko, sozial, kultural eta instituzionalako espazioak maila guztietan gogotik jardun behar dugu lanean.

Ikuspegi horretatik, Udalbiltzak prozesu eratzaille hau egituratzean sekulako eginkizuna bete eta, horrekin batera, bere buruaren hedapen eta finkapena sustatu ahal izango du.

Udalbiltzak geroz eta garatzeko ahalmen eta operatibitate handiagoa hartu behar du, marko berria eta erakunde-arkitektura eraiki aurreko instituzioa den aldetik. Lehen euskal erakunde hori finka dadin ere ekarpenak egingo ditu LABek

#### **4.3.2. Eduki sozio-ekonomikoak**

Marko juridiko-politiko berri hori osatuko duten eduki eta behin-behineko mekanismoak ez ditu LABek zehaztuko, baina hori zuzen betetzea alderdi politikoek eginkizuna dute.

Euskal erakunde sindikal eta sozialek, hori bai, protagonismo berezia agertu behar dute beren eskuhartzeari dagozkion kontuei buruzko erabakiak hartzeko garaian

Euskal subiranotasunak (subiranotasun bidetik marko juridiko-politiko berria egituratzeak, alegia) gure gizartea kohesioz eta orekaz antolatzeko eskuduntzez hornitu behar ditu euskal instituzioak, alor ekonomiko eta sozialean

Mugimendu sindikalak eraginik, euskal langile-gehiengoaren eskakizunak gauzatzeko borroka lehenbailehen lanabes eta eskuduntza politikoez jantzi beharra dago, operatibo bilakatuko bada.

Europar proiektuan agertu eta parte hartuz, garapen ekonomiko eta sozial zuzen eta solidarioa posible bilakatuko duten lanabes eta eskuduntzak bereganatu behar ditu Euskal Herriak premia handiz, lanabes eta eskuduntza horiek, gizarte-eredu alternatiboa egituratzea ahalbideratuko dutelako.

LABek aspaldiko partez eskakizun horiek marko juridiko-politiko berriaren funtsezko elementutzat jo izan ditu: Lan Harremanen eta Gizarte-Babespenaren Euskal Esparrua eta Euskal Gune Sozioekonomikoa.

#### a) Lan-Harremanen eta Gizarte-Babespenaren Euskal Esparrua

Lan-Harremanen eta Gizarte-Babespenaren Euskal Esparruak (LHEE), eskakizun orokor izatetik eduki, lanabes eta eskuduntzez beteriko elementu bilakatu behar da, hemengo sindikalismoari eta euskal langileriarri bidea berdintzeko, Euskal Herriko aurrerako aldaketa sozialaren protagonista izan daitezen.

Gure Herrian klase-borrokak (kontzientzia eta indar-koerlazioei dagokienez) dituen berariazko ezaugarriei Euskal Herrian egokiro erantzutea galarazten digu Paris eta Madrilekin dugun menpekotasun ekonomikoak.

LHEE ez da botere-taula huts edo eskakizun abstrakturik. Enplegu - eta gizarte - alorretan subiranotasun eta botere politikoz beteriko espazioa errebindikatzen dugu, euskal langileen oraingo eta geroagoko arazo eta eskakizunei (langabezia, prekarietatea, soldata soziala, etab.) erantzunik eman ahal izateko.

LHEE ez da, berez, euskal langileen arazoak konpontzeko garantiarik, baina esparru horri esker geure indar soziala bideratu eta euskal esparruan gauzatu ahal izango dugu.

Adiera horretan, exigitzen dugun LHEEren oinarriak hauek dira: babes sozial eta enplegu-gaietan berak izan dezakeen lege-ahalmen edo gaitasuna, Enplegu-Zerbitzu Publikoa sortzea eta Euskal Gizarte-Segurantza martxan jartzea.

#### b) Euskal Gune Sozioekonomikoa

Egungo nazioarteko harremanen markoan, Euskal Gune Sozio-Ekonomikoa (EGSE) egituratzea dugu geure ahalmen eta baliabideen arabera garapen-eredua finantzatzeko era bakarra; beste aldetik, garapen-eredu horrek euskal gizarte osoaren eskakizunak asebetetzeko balio izan behar du.

EGSE artikulatuaz ari gara, politika ekonomiko eta sozialez erabakiak hartzeko eskuduntza duenaz, herriek osaturiko Europaren eraikuntzan elkarkidetzeta eta elkartasunean oinarrituriko harreman-ereduaren arabera. Eraikitzen ari den Europa insolidario horren zeharo kontrakoa, hitz batez.

Gaurregun Europar Batasuneko Estatuak duten eskuduntzen goieneko muga bera EGSEk eduki behar du, ezinbestez.

Ikuspegi horretatik, EGSEaren sorrera (eta bera finkatu dezaketen politika sektorialak: finantza-sektorea, besteak beste) premiaz jorrazteko funtsezko elementuak eta estrategia egokiak, geure ekinbide sindikalaren alderdi programatikoan planteatu ditugu.

### **4.3.3. Prozesuaren ezaugarriak**

Espainia edo Frantziako euskal herritarron borondatea aintzakotzat hartzeak ala ez hartzeak ez du zertan baldintzatu (eta ez du baldintzatu behar, gainera) marko juridiko-politiko berria operatibizatzerik.

Bistan denez, Estatuak prozesu demokratikoa aintzat hartzea horren egonkortasunarentzat mesedegarri izango litzateke; horrela, kohesio soziala eragotziko luketen astinketa edo liskarrak saihestuko lirateke.

LABek eginiko gogoetaren arabera, euskal subiranotasuna praktikan jartzea ezin egitura daiteke plebiszitu bakar batean; aitzitik, gutxiengoenganako errespetuz eta kohesio soziala bermaturik egituratu behar du gizarteak bere burua, piskanaka, euskal Estatuaren aldeko apustua adierazten duten gehiengo tinkoak alde daudela.

Independentziari buruzko plebiszituak - ekitaldi bakarra balitz - galdera era zuzenean planteatuko luke, hau da, prozesu taktiko edo aldakuntzetatik gabetuta; beraz, independentziaren aldeko tesien kalterako polarizazio politikoa eragingo luke, une honetan.

Aukera anitzeko plebiszituak (autonomia, marko berria subiranotasunaren bidetik, independentzia, etab.) ere zatiketa eragingo luke eta, horrenbestez, independentziaren aldeko aukerarentzat inola ere mesedegarriak ez liratekeen eragin desorekatzaileak ondorioztatuko lituzke.

LABek hobesten duen alternatiba hau da: subiranotasunaren bidetik eta gehiengo politiko, sindikal eta sozialak eraginik, Euskal Herriko sei herrialdeentzako marko juridiko-politiko baten legitimaziozko ekitaldi batera edo plebiszitura biltzea.

Plebiszitu-ekitaldi hori proiektatuko lukeen sujetu politikoa aurretiaz finkatzeko premia ere, sakondu beharreko klabeetako bat izango da. Helburu horretara begira, marko juridiko-politiko berriaren legitimazio-prozesua Udalbiltzak eta bere ekimenek xedatu behar dute.

Marko juridiko-politiko berriaren funtsak, beraz, ez du izan behar oraingoa Madril eta Parisekin birnegoziatzea; marko berri hori prozesu eratzaile berri batetik sortuko da, euskal gizartearen ekimenez eta protagonismoz.

Marko juridiko-politiko horren edukia Euskal Herriko erakunde politiko, sindikal eta sozialen artean adostu beharra dago, bi Estatuakiko negoziazioaren uztarpean jarri gabe. Estatuakiko negoziatu beharko dira - markoa onartuz gero - harreman instituzional edo ekonomikoetan Euskal Herriak bi Estatuak duena gertatuko diren ondorioak.

Euskal erakundeek itunduriko edukien "negoziatio" prozesuak enfrontamendura eramango gintuzke, aurreikustekoa baita bi Estatuak estrategia: abertzale eta aurrerakoien mugimendua zatikatzea. Bestela esateko, baliteke 77-79 urteetako prozesua berriro gertatzea, bere arrisku eta ondorio kaltegarriekin.

#### **4.3.4. Erritmoak. Borroka-bideak**

Prozesu eratzaille horren erritmoei dagokienez, LAB erakunde sindikaletik ideia orokorrak eskaini behar ditugu (ez, ordea, definizio edo zehaztapenak, hauek alderdi politikoen kontuak baitira, logika osoan).

Prozesu eratzaille horren garapenean aldi edo fase zehatzak adieraztea zaila (baita hutsala ere, agian) gertatzen den arren, elementuetako beste bat izango da "denbora faktorea" eta hala jo behar dugu: ez da funtsezkoena, ez garrantzi handienekoa ere, baldin eta prozesuaren oinarriak garatuz badoaz.

Estatuak interferentzia eta jarrerak, gehiengo sozial berriek lehia demokratikoan aritzeko izango duten gaitasunak, indarren koerlazioaren bilakaerak eta bestek izango dute eragina prozesuaren erritmoan.

Prozesua gelditzen, baldintzatzen edo galarazten hamaika modutan ahaleginduko dira Estatuak: beraz, indar abertzale eta aurrerakoiek prest egon behar dugu, borroka instituzional eta sozialean aritzeko mekanismoez baliatzeko (indarrez ezarritakoaren aurrean desobedientzia eta intsumisioa, besteak beste), estrategia hori mendean har dezagun.

Hortik abiatuta, borroka instituzional eta sozialean aritzeko tresna baketsu eta demokratikoak - kemen sozial guztiak, hitz batez - eragitea erabateko faktorea izango da prozesua aurrera bultzatzeko, eskema delegazionistei ihes egiteko, eta ikusle huts izateko tentazioari alde egiteko: horrelako jarrerrek gehiengo politiko eta sozial horren benetako indarra arrunt murriztuko lukete.

Baldintzarik eta epe-mugarik gabeko su-etena eginez, ETAk harturiko erabakiari (zabaltzen hasi berriak garen ziklo historiko honetan, protagonismoa euskal gizartearen eskuetan uztea, alegia) euskal gizarteak erantzuna eman behar dio, prozesu hau bake, demokrazia eta subiranotasun atzerazineko espaziorantz zuzenduz, eramanez.

#### **4.3.5. Marko berria eta Estatu-ereduak**

Marko juridiko-politiko berri hori, subiranotasunez, Estatu frantziar eta espainiarreko ordenamendu juridikoetan nola egokituko den, bigarren mailako kontua da eta, hor-taz, ez du gure estrategia baldintzatu behar.

Estatu espainiarraren eredia agortu dela eta Estatu frantseseko nazio-errealitateek (Korsika, Euskal Herria, Britainia) ehun juridikoan aldaketak egitea exigitzen dutela egia nabarmena bada ere, horrelako egokitzapen juridiko-politikoaren araberrako harmonizazio-prozesu homogenez alde egin behar diegu.

Estatu espainiarrari dagokionez, "eskubide historikoek" halako nahiz bestelako egokitzapena egiteko eskubidea ematen diguten; Estatu espainiarraren egituraketa fede-ral simetriko edo asimetrikoak marko juridiko-politiko berria Estatu-ereduan txertatzea ahalbideratuko lukeen; Estatu Konfederala eratzea posible litzatekeen... eta antzeko kon-tuei buruzko eztabaidetan aritzeak ez du gure jarrera eta erritmoak baldintzatu edo alda-razi behar.

Dudarik gabe, Euskal Herriak beste herriek aurrera daramatzaten prozesuetan efektu mesedegarriak eragin nahi ditugu. Seguruenik ere, katalan, gailego eta beste herri batzuekin elkarlanean aritzeko dinamikak sustatu daitezke. Baina euskal abertzale eta aurrerazaleen mugimenduak autonomo jardun behar du bere estrategian, gehiengoaren nahia praktikan jartzean nolako eduki eta lanabesak baliatu behar diren zehazteko unean.

#### **4.3.6. Prozesu eratzalea. Presoak kalera atzeratzea**

Alderdi politiko eta sindikatu abertzale eta aurrerakoiek irekitako prozesuak maki-nabat probokazio eta baldintza topatuko ditu bidean.

Estatu espainiarrak eta frantsesak bertan eragin nahi izango dute, noski, prozesua desegonkortu edo hondatzeko, preso eta errefuxiatuen kolektiboa bahi gisa baliatuz.

Estrategia horretantxe kokatu behar dugu "Euskal presoak Euskal Herrira" erre-i-bindikazioa dela eta, bi Estatuetakoa gobernuek agertzen duten itxikeria. Ezkertasuna, etsi-pena eta itxaropenik eza sortu nahi dute guregan baina, batez ere, irekitako prozesua dela eta, euskal zigortuen kolektiboaren jarrera politikoan eragina izan nahi dute.

Gobernuen jarrera horri, prozesua protagonizatzen dugun indar politiko eta sindi-kalok elkarrekin eman behar diogu erantzuna; kontuan izan behar dugu, preso eta errefu-xiatuen kontuan Madrilan eta Parisen strategiari eman behar diogun erantzuna prozesua-ren parte dela.

Azken hilabete hauetan presoan aldeko gizartearen mobilizazio unitarioak aurre-  
rapausu handiak egin dituen arren, bada garaia erantzun sozialean eta instituzionalean  
jauzi egin dezagun. Horretarako, erakunde politiko, sozial eta sindikalek munta handiago-  
ko konpromisoak eta inplikazioa asumitu behar ditugu.

Mugimendu sozial hori auzo eta herrietan zehar sustraitu eta zabaldu beharra  
dago, dinamika politiko orokorrarekin elkartuz eta aurrera eginez, "Presoak Euskal  
Herrira" erreibindikaziotik "Presoak kalera!" ezagunera igaro gaitezen.

#### **4.3.7. Euskal sindikalismoa eta marko berria**

Euskal sindikalismoak oro har eta LABek bereziki, prozesu politiko horren sujetu  
izan eta, horrenbestez, protagonismo eragilea hartu beharko dute: prozesuaren alderdi  
orokorretan eta, berezi-bereziki, Euskal Herriaren eraikuntza sozialaren euskarri izango  
diren edukietan agertu duten ekimenak eskaintzeko gaitasunean oinarriturikoa.

Azken urteotan eta ELAekin batera erreferentzialtasun handia geureganatu dugu,  
arazo politikoa gainditzeko eta fase eratzaille berria irekitzeko Euskal Herriak aurrera dara-  
man borroka kolektiboan.

Langileria eta abertzaleen gehiengoaren nahiak gauzatzea dela eta, berebiziko  
garrantzia duen fasea bizi dugu: orain, langileen eskakizun laboral eta sozialen (35 lanor-  
duko astea eta soldata soziala, bereziki) alde diharduen bitartean, LABeko militantziak  
beste sektore politiko, sindikal eta sozialekin batera, konpromiso aktiboa hartu behar du,  
Euskal Herriarentzat bakea, demokrazia eta subiranotasuna erdiesteko.

Ildo honetatik, LABek langileen eskakizun laboral eta sozial zein bakea, demokra-  
zia eta subirotasuna erdiesteko marko lokaletan (herri eta auzoetan) eratuta dauden eta  
eratuko diren plataforma eta foroetan (Lizarra txikiak, ILPs, presoan aldeko plataformak,...)  
bere afiliatuen eskuartzea era egituratuan bultzatuko du.

ESTRATEGIA SINDIKALA:  
BURUJABETZA OSOKO  
GIZARTE BERRIRANTZ

## AURKIBIDEA

1. - EUSKAL HERRIAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA
  - 1.1. Balorazio orokorra
  - 1.2. Bilakaera makroekonomikoa
  - 1.3. Lan-merkatuaren egoera
  - 1.4. Langabeziagatiko prestazioaren bilakaera eta aberastasun banaketa
  - 1.5. Politika sozio-ekonomikoak eta hauen ondorioak
  
2. EUSKAL LANGILE-MUGIMENDUAREN EGOERA
  - 2.1. Gogoeta orokorra
  - 2.2. Euskal sindikalismoaren bilakaera
  - 2.3. Negoziazio Kolektiboa: Biltzarren arteko balantzea
  
3. EKINTZA SINDIKALA, SUBIRANOTASUNEZKO MARKOA GORPUZTEKO
  - 3.1. Sarrera
  - 3.2. Gizarte-Babespen eta Lan-Harremanetarako Euskal Esparrua
    - 3.2.1. Gogoeta orokorrak
    - 3.2.2. Lan-alorreko legeria
    - 3.2.3. Babes soziala
    - 3.2.4. Negoziazio Kolektiboa eta LHEE.
  - 3.3. Euskal Gune Sozio-Ekonomikoa
    - 3.3.1. Euskal sektore publikoa
    - 3.3.2. Zerga - eta aurrekontu - politika
    - 3.3.3. Lurralde - eta gizarte - egituraketa
    - 3.3.4. Politika sektorialak
  - 3.4. Elkartasuna Euskal Gune Sozio-Ekonomikoan
  - 3.5. Euskal osasun-sistema
  - 3.6. Euskal hezkuntza-sistema
  
4. EKINTZA SINDIKALA, EUSKAL GIZARTE BERRIA ERAIKITZEKO
  - 4.1. Sarrera
  - 4.2. Enplegu osoko gizartea
    - 4.2.1. Lana eta enplegua
    - 4.2.2. Lanaldia banatu eta enplegua sortzeko politikak
    - 4.2.3. Enplegu-batzorde lokalak
  - 4.3. Enplegu egonkor eta kalitateredua -
    - 4.3.1. Lanbide heziketa
    - 4.3.2. Laneko osasuna
  - 4.4. Euskal gizartearen elkartasunezko eredia
    - 4.4.1. Aberastasunen banaketa. Soldata soziala
    - 4.4.2. Prestazio eta zerbitzu sozialak
    - 4.4.3. Giza bazterketa eta Ekintza Sindikala
  
5. EKINTZA SINDIKALAREN EREDUA
  - 5.1. Ezaugarri orokorrak
  - 5.2. Euskal Langile Mugimendua egituratzeko ekintza sindikala
  - 5.3. Negoziazio Kolektiboa, estrategia
  - 5.4. Ekintza sindikala genero ikuspuntutik
    - 5.4.1. Gizarte eredu ez patriarkala lortzeko ekintza sindikala
    - 5.4.2. Sindikalgintzaren zeregina
    - 5.4.3. Sexu-genero zapalketa egoeraren azterketa lan mundua. Ezaugarri nagusiak
    - 5.4.4. Sexu-genero diskriminazioari aurre egiteko Ekintza Sindikala
  - 5.5. Gazteria eta ekintza sindikala
  - 5.6. Ekonomia soziala
  - 5.7. Ekintza sindikala eta euskararen normalizazioa
  
6. EKINTZA SINDIKALAREN BATASUNA

# 1.- Euskal Herriaren egoera sozioekonomikoa

## 1.1. Balorazio orokorra

Euskal Herriaren egoera sozioekonomikoa euskal ekonomiaren menpekotasun estrukturalak baldintzatzen du, Estatu espainiar eta frantsesaren jardueren arabera: marko horiexetan erabakitzen dira euskal gizarte - eta produkzio - ehunean eragina duten funtsezko politikak. Gure azkeneko bi Biltzar Nagusien arteko epean euskal Administrazioek jarraitu egin diete estatu espainiarraren politikei, hau da, ez dira gauza izan politika ekonomiko eta sozialaren funtsezko elementuetatik bakar bat ere ikuspegi nazionaletik jorratzeko.

Gure produkzio-ehunaren garapen bidezkoa egitea, lan-indarraren egonkortasuna eta kualifikazioa gauzatzea edo eskakizun sozialak asetzea posible bihur dezaketen aldaketa estrukturalak eragiteko ez dira aprobetxatzen ari, hazkunde ekonomikoa bete-betean bizi dugun arren.

Enpresa-etekinaren gehikuntza ikaragarria finantza-kapitalaren eta banku handien eskuetan utzi da; horrek, finantza-politika espekulatzailerik eta monetaristak eta produkzio-ehunaren bilakaeraren arteko desmaila ekarri du, egunetik egunera larrituz doan desmaila, izan ere.

Euskal gizarte - eta ekonomia - ehuna kohesionatzea dela eta, Gasteiz eta Iruñeko Gobernuen lagakeria dute nabarmentzekoa. Erakunde horien jarduerak motzak izan dira, urriak: baliabideen asignazioa merkatuaren eskuetan uztea eta lanpostuak sortzeko edo produkzio-ehuna garatzeko balizko ekimenak enpresa-etekintzat baloratzea baino ez.

Ostrukaren politika praktikatzen dute oraindik: funtsezko alorretan (energia, industria, finantza, azpiegitura eta antzekoetan) geure politika eragileak martxan jartzeko ardurak asumitu gabe.

Plangintza edo egokitzapen estrategikorik egiteke, etekinak hobetzeko unean Hego Euskal Herriko gobernuen erabateko sostengua izan du euskal enpresarioak, kostu sozial, ekologiko eta laboralen ardurari saihestu eginda, gainera.

Prezioa lehenetsita - produktuaren kalitatea atzera utzirik - lehiatzeko joera gene-

realizatu dago, lan-indarra devaluatzeari esker kostu laboralak jaitsiz, egonkortasunaren, prestakuntzaren eta kualifikazio laboralaren bizkarretik.

Horrelako jarduera publiko eta pribatuen kostua langileek eta euskal gizarte osoak ordaintzen dute, esplotazioa, prekarietate laborala eta bazterkuntza soziala gehitzearen truk.

## 1.2. Bilakaera makroekonomikoa

Azken hamarkada honetan ekonomiak Hego Euskal Herrian izan duen bilakaeran bi etapa bereizten dira, zehatz-mehatz: aurrenekoan, ziklo espantsiboaren amaiera eta berregokitzapen ekonomiko edo sistemaren krisi ziklikoaren fase berria dugu; bigarrenaren bereizgarria, 1998 arteko hazkuntza ekonomikoa da.

	1991-1993	1994-1998
BPGaren %	-0,5	4,1
Enpleguaren %	-1,3	2,7
Produktibitatearen %	0,8	1,2

Iturria: geronek kalkulatu, "Serie Enlazada del Producto y la Renta"-tik abiatuta (FUNCAS).

1991 Barne Produktu Gordina %2,3 gehitu zen arren, gehikuntzaren eragina ez zen nabaritu enpleguaren sorreran. Alderantziz, 1992-93 krisiaren ondorioz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ia 65.000 lanpostu eta Nafarroan 12.000 inguru galdu ziren bi urtean bakarrik, Eustat-ek eta INEk emaniko datuen arabera.

Joeraren aldaketa horren emaitza garbia honela labur daiteke: egiazko BPGaren beherakada gertatu zen, bataz besteko 0,5eko tasara, 1990aren ondorengo hiru urteetan. Baina gainbeheraren ondorioak nabarmenago azaldu ziren enpleguaren suntsiketean: bataz beste, urteko %1,3ko erritmoan jaitsi zen eta.

Bi elementu horien eragin konbinatuari esker, balio erantsiari dagokionez, lana faktorearen azaleko produktibitatea (hau da, langile bakoitzak sorturiko aberastasuna) bataz beste urtean %0,8an igo zen, garai horretan.

1994az geroztik, krisiari buelta emanik, behetik gorako fasea hasi zen: hurrengo bost urteetan ekonomia hazi egingo zen. Egiazko BPGk gora egin zuen 1994-1998 urtean bitartean, urteko %4,1ean. Enplegua ere suspertzen ari zen, baina motelago. Era horretan produktibitatea batez beste %1,2an igo zen urtero.

Horrenbestez, atzera-garaietan enpleguaren suntsiketa itzela den bitartean, ekono-

miak hobera egitean jarduera ekonomikoaren eta aberastasunen gorakadaren zati bat besterik ez da enplegu bilakatzen, baina prekarietatez eta baldintza okerragoetan. 1991tik 1998ra bitartean behin-behinekotasuna %26tik %31,5era igo zen (EPA) eta, soldatapeko herritarrak gehiago ziren arren, kontratu finkoa zutenak urritu ziren.

Horregatik, langabezi tasa goraka ari da historikoki eta -orain bezala - hazkuntza ekonomikoa gertatzean, jaitsi egiten den arren, gainbeherakoetan geroz eta okerragora joan ohi da.

Hazkuntza ekonomikoaren onuradun nagusiak enplegua eta soldatak izan ez badira, bistan da aberastasunen gehikuntza enpresa-errentetara joan direla. Horrelaxe frogatzen da errenta erantsien azterketa egin ondoren:

1992-93 urtebiko krisiarekin batera sistema kapitalistaren azken birmoldakuntza handia iritsi zen Euskal Herrira, kapitalaren mozkin-tasa areagotzeko helburuz. Langileria ahultzeko eta indar-koerlazioa patronalaren aldera bultzatzeko, lan-harremanen eta gizarte-babesaren alorrean hainbat aldaketa egin ziren.

(Langabeziarekin amenazu egitea, langabeziagatiko prestazioak jaitea eta geroz eta prekarietatezko kontratu gehiago egitea dira sistemak erabiltzen dituen tresnak soldaten kontrako politika praktikan jartzeko (soldatak produktibitate-gehikuntzaren azpitik mantenduz). Horrela lortu dute soldaten kontrako aberastasun-banaketa: 1993tik gaur arte, sorturiko aberastasuren jornalaren portzentaia jaitsi egin da, enpresa-errenten mesedetan.

Oraintxe dabilta enpresen etekinak mailarik altuenetan, aspaldiko partez. Banco de Españak berak aitortu duenez, erakunde horri kontabilitateaz informazioa ematen dioten enpresen errentagarritasunak goraka segitzen du oraindik.

Enpresen eskandaluzko mozkinen (hortxe daude, 1999ko apiriletik ekainera bitartean IbeX-eko enpresek irabazi zituzten 560.000 milioi pezeta horiek, aurreko urtean baino %34,6 gehiago, hain zuzen) beste aldera ditugu langabezi eta prekarietate gorriak, Euskal Herriaren arazo sozioekonomiko nagusia, alegia.

### 1.3. Lan-merkatuaren egoera

Lanean dabilen jendea sekula baino gehiago dela aldarrikatzen ari zaigu aspaldian, handi-mandiro. Langabetuen kopurua ere inoiz baino altuagoa denik, ordea, ez dute esaten: azken urte hauetako ekonomiaren gehikuntza ez da gauza izan hazkuntza demografikoaren ondorioz lan-merkatuan sartu nahi izan duen jendeari lanpostua emateko. Izan ere, jardueratasak bere horretan irauten du, 1991az geroztik aldatzeke.

	E.A.E.		NAFARROA	
	1991	1998	1991	1998
Hiruhilab. batuz bestekoa	1991	1998	1991	1998
Enplegua	755.900	779.800	183.900	203.900
Langabezia	158.000	168.400	21.900	22.700
Langabez tasa	17,3%	17,8%	10,6%	10%

Iturria: PRA eta EPA.

EPA delako inkestaren arabera, 1998 urtearen kondarrean Hego Euskal Herrian, 162.200 pertsona eta, Ipar Euskal Herrian 13.400 pertsona zeuden langabetuta. Kontuan har dezagun, dena den, Eustatek eginiko inkestaren arabera, EAEko langabetuak 17.800 gehiago ziren EPAko datuetan agertutakoak baino. Hortaz, langabeziak 1998 urtearen amaieran eta Euskal Herri osoan, 190.000 pertsona zigortzen zituela esan dezakegu.

HEGOALDE	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GAZTEAK	GIZONEZKOAK
Lanean	936.000	341.400	94.200	594.600
Langabezia	162.200	99.900	42.100	62.400
Langabezi tasa	14,8	22,6	30,9	9,5
Enplegu tasa	42,5	29,6	26,5	56,7
Jarduera tasa	49,9	38,3	38,3	62,7
Behinbehinekotasun tasa	30,0	32,9	75,2	28,2

Iturria: EPA, 4 trimestre 1998ko

Bost urtetan zehar ekonomia goraka doala eta enpresa-mozkinak astronomikoak izaki, Hego Euskal Herriko langabezi tasa Europakoa baino bost puntu altuagoa izaterik ezin da onartu.

Egungo eredu ekonomikoaren ondorio latzak ez dituzte kolektibo guztiek berdin nozitzen. Emakumeena, lan-merkatutik kanporatutako kolektiboa izanik eta gizonezkoak baino jarduera-tasa txikiagoa duela, langabezian dauden emakumeak herritarren %61ak dira. Emakumearen hemengo langabezi tasa EBkoaren bi halakoa da.

Gazteriaren langabezi tasa Hego Euskal Herriko orokorraren bi halakoa da eta EBko gazteena baino 12 puntu altuagoa. Badago, ordea, merkatuaren beste alderdi bat, larri-larria eta nabarmendu beharrekoa: behin-behinekotasuna. 1998ko laugarren hiruhilekoan Hego Euskal Herriko soldatapekoen %30a eta gazteen %75a egoera horretan zeuden.

### **Prekarietatea kontratazioan**

Patronalak erabilitako kontratazio-moduak eta lan-merkatua malgutzeko helburuz egin diren lan-erreformak dira laneko baldintzak gaiztotzearen eta prekarietatea areagotzearen errudunak.

1998an, mugagabeko kontratuak guztiaren %8a bakarrik ziren. Bestetik, azken lan-erreformak sartutako kontratu egonkor plegu berriaren arabera egiten ari dira mugagabeko kontratuen %70a; horrek ondorioztatu du mugagabeko kontratu arrunta desagertzea. Kontratu-modu berriari langilea kanporatzeagatik dagokion indemnizazio txikiagoak laneko segurtasunik eza areagotzen du. INEMek berak aitortu duenez, horrelako bost kontratutik bat hautsi egin da, enpresarioari gizarte-segurantzaren kuotan beherapen galantak egiten zaizkion arren.

Kontratu mugagabeen kopuru txikiak eta zatikako denborako kontratazioaren zabalkuntzak (gaurregun, sinatutako kontratuen %25era iritsi da) argi eta garbi erakusten du enpresariak bere etekinak gehitzeko erabiltzen duela prekarietatea: ehun kontratutik, 93 prekario dira.

Kontratu berrituko bazaio, langileak nozitzen duen prekarietate eta esplotazioan eragina duen beste faktore bat, lan-errotazioaren areagotzea da.

Mugagabeko kontratazioaren printzipioari dagokionez, orain dagoen desregulazioak eta behin-behineko kontratuak iruzurrez erabiltzeak, iraupen labur-laburreko kontratuak bata bestearen atzetik (eta justifikaziorik gabe) egitea ekarri du. Iraunaldi mugatuko behin-behineko kontratuen %79,3ak, izan ere, hiru hilabete baino gutxiago irauten du.

Emakumeak eta gazteak jasaten duen egoera bereziki latza da. Langabetuta dagoen biztanleriaren gehiengoa emakumezkoa bada ere, 1998 urtean kontratu guztien %42 baino gutxiago sinatu zuten emazteek. Emakumea da, aldi berean, behin-behineko eta zatikako kontratu gehien (ezinbestean) sinatzen dituen. Areago, lanean sartzen diren emakume gehienak bi kontratu horietako batean zein bestean aritzen dira. Emakumeei eginko kontratu guztien %6,8a bakarrik izan ziren mugagabeak; gizonezkoen kasuan, portzentai hori 8,8an zegoen eta gazteenean, azkenik, 5,2an. Atal honetan berariazko arreta merezi dute etxeko enplegatuek eta etxez etxeko asistentziazkoak, lana ezkutupean egiten duten guztiez gainera.

Gazteriak nozitzen duen langabezi tasa altuak eta laneko egongaitzasun gorri-gorriak agindurik, ikasteko urteak luzatu behar ditu edo ABLE enpresetara jo behar izaten du.

Lan-artekaritzan aldi baterako lan-enpresak sartu izanari esker, horrela kontratatuen esplotazioa eta egongaitzasuna goraka ari dira etengabe, gazteen artean, batik bat.

1998an INEMen erregistraturiko lau kontratutik batean esku hartu zuten ABLEek, hau da, 1997an baino %25 gehiago. ABLEak, legeztatu berri zirela, 1995ean Hego Euskal Herrian egin zen behin-behineko kontratazioaren %10a harrapatu zuten; 1998an kopurua %27raino igo zen.

Behin-behineko kontratu guztien aldean ABLE enpresek eginiko kontratuen portz.

1995	1996	1997	1998
10%	18%	23%	27%

Iturria: INEM eta Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa.

ABLEen kontrako borroka beti helburua izaki, lan ber-berak egitearren baldintza eskasagoak eskaintzen dituzten azpikontraten eskutik datozen prekarietate - eta esplotazio - modu berrien aurrean ere erne egon beharra dago, zer gerta ere.

Behin-behineko kontratuen hamaika moduak abusuz erabiltzeak, ABLEak baliatzeak eta egunean baino egunean gora doan azpikontrataziora jotzeak, lanean errotazioa azkarregi egin behar izatea ondorioztatzen dute: horrek langileari eskarmentuaz eta trebakuntzaz jabetzea galarazten dio. Arrisku-faktore erantsi horrek ezbeharren kopuru altuan ere badu eraginik: laneko istripua izateko aukera lanpostu finkoan batekoa izaki, biko da behin-behinekoan.

Laneko istripu-kopurua 1000 langileko

HEGOALDE	Kontratu-motaren arabera		
	Mugagabeak	Behin-behinekoa	Erlazioa
1993	59,5	81,1	1,4
1994	59,5	84,0	1,4
1995	60,6	93,0	1,5
1996	56,9	101,6	1,8
1997	53,3	108,9	2,0
1998	55,0	125,3	2,3

ABLEak legeztatu zirenetik (1994), behin-behineko kontratuekin lanean ari diren pertsonen siniestralitate-tasa igo egin zen. Harrezkero, aldi baterako lanpostuan istripua izateko probabilitateak ugaltu egin dira etengabe.

#### **1.4. Langabeziagatiko prestazioaren bilakaera eta aberastasun banaketa**

PSOeko Gobernuak, 1992ko Decretazo haren bitartez aldaketa latzak eragin zituen langabezia babesteko sisteman: prestazioak jasotzeko betebeharrak gogortu eta laguntzaren kopuruak eta iraupenak laburtu ziren. 1993 urteaz geroztik eta behin-behineko kontratu-motak ugaltzearen, aldi baterako kontratuak izugarri biderkatu ziren; hauen iraupena, berriz, ikaragarri jaitsi. Langileriaren eskubideak hondatzea helburu zutela, bi neurri horien eraginez langabeziaren babesa geroz eta eskasago izan da gaur arte.

Langabeziagatiko babespenaren etengabeko gainbehera horretan 1998ra iritsi ginen: orduan, langabeturik zeuden pertsonen %30ak bakarrik jasotzen zuen INEMeko prestaziorik, Hego Euskal Herrian.

Langabe daudenei kalitatezko bizimodu duina bermatzeko bezainbesteko diru-sarrerak emango lizkiekeen langabeziagatiko babespenik ez egotearen, langabezia geroz eta lotuago dago pobrezia eta bazterkuntza sozialarekin. Izan ere, langabetuta dauden hiru pertsonatik bat pobrezia gorrian bizi da.

Dualizazio sozial horri aurre egiteko, ezinbestekoa da enpleguaren eta garapen sozialeko politika garatzea bideratuko diguten tresna politikoak eta legegintzarako eskuduntzak guk edukitzea, batetik, eta lana eta aberastasuna banatzeko neurriak hartzea, bestetik.

#### **1.5. Politika sozio-ekonomikoak eta hauen ondorioak**

Neoliberalismoak bederatzigarren hamarkadan eragin zuen eraso ideologikoaren bitartez - ekonomiaren globalizazioa eta nazioartean lehiakortasuna areagotzeko premia aitzakia harturik - politikarik antisozialenak jarri ditu martxan. Kapitalaren onurak handitzeko, era guztietako politikak gauzatu dituzte, hurrengo helburuekin:

- Soldaten kontra eta kapitalaren alde, errentaren bestelako banakuntza lortzea;
- Ekonomian alor publikoaren garrantzia arindu eta baliabide publikoak alor pribatura ekartzea, metatze-prozesua azkartzeko;
- Gastu publikoa murriztea, gastu eta zerbitzu sozialak urrituz;
- Enpresei eta kapital-errentei zergak arintzea eta karga astunak, oster, ekonomikoki ahulenak diren sektore sozialen bizkarrean jarri.

Azken urteotan indarrean ipinitako politika-multzo horrek langileriaren egoera larritu egin du: langileak langabeziaren mehatxua zuzenago nozitzen du, lan-baldintzen prekarizazioak eta prestazio sozialen etengabeko murrizketek ekarri baitute gizarte-des-

mailen eta bazterkuntza areagotzea.

### **Lan erreformak eta lan-merkatua malgutzea**

Lan-merkatuaren malgutzea 1984an (Langilearen Estatutua aldatu eta kontratazioan kausalitate-printzipioa ezabatzearen ondorioz) hasi bazen ere, prozesu horren eraginak zenbait urte geroago hasi ziren gordinkeriaz nabarmentzen. Denborari lotuak ez zeuden lanak egiteko iraupen zehatzeko kontratuetatik hasita, behin-behinekotasunak ziztu bizian egin zuen gora.

Soldatapeko langileen herena prekarietatera kondenatuz, behin-behineko enpleguak finkoa piskanaka ordezkatzearen ondorioz sorturiko lan-merkatu bikoaren indarrez egin zen 1994ko lan erreforma. ABLEak legeztatzeke, zabor-kontratuak indarrean jartzeko, kanporaketaren zergatiak ugaltzeko, mugikortasun geografiko eta funtzionala edota ordutegi-aldaketak errazteko... kontratazioaren eta lan-sorreraren mesedetakoak izango zirela aitzakiatu zuten. Hitz batez, langilearen lan-baldintza eskasak okertzeko neurri guztiak hartu ziren sasi-argudioak erabiliz.

Azken erreforma (1997) ere enpresarioen eskakizun tradizionalen arabera egin zen. Langileen Estatutuko 52 c) artikulua idazketa berriaren bidez, langilea kaleratzeke ez zuen zertan motiborik izan eta, gainera, merkeago izango zen, kanporaketa gehientsuak bidezkotzat hartuak izango zirelako aurrerantzean. Behin-behineko kontratu guztiak mantendu ziren eta, noski, horrelakoak egiteko arrazoirik agertzea ez zen nahitaezkoa izango.

Ereduzko neurria ere hartu zen: kanporatzeagatik indemnezazio txikiagoa xedatzen zuen mugagabeko kontratazioa sustatzeko kontratua jarri zuten indarrean. Horrek eragiten dituen kontratu-deuseztapen ugariak kontuan izaki, alferrikakoa gertatu da (behin-behinekotasun larria konpontzeari dagokionez) baina, beste aldetik, Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotari aplikatu ohi zaizkion beherapen handiei esker, honelako kontratuak erabiltzean soldataz kanpoko kostuak murriztea lortu da.

### **Sektore publikoaren kontrako erasoa**

Sistema kapitalistaren birmoldaketa horrekin lortu nahi zen beste helburuetakobat, gastu publikoaren zabalkuntza eta erabateko enplegu politiken ondorioz, ekonomia estataletan Estatuaren garrantzia arintzea da.

Kapital pribatuaren ikuspegitik, - diru publikoaren bidez saneatu ondoren - errentagarri diren enpresa eta zerbitzu publikoen privatizazioa eta antzeko neurriak sartzen dira antolamendu horretan. Aldi berean, enpresa publiko "defizitarioen" itxiera dekretatzen da, nolako premia sozialak betetzen dituzten jorratu gabe.

Era horretan, industria eta zerbitzuen sektore publikoa desmantelatzen da, berorek

ekonomiaren suspertzaile - eta sektore estrategikoen berme - eginkizuna bazterrean utzita.

### **Gastu sozialen murrizketa**

1992 urte inguruan beste krisialdi ekonomiko bat agertu zen. Harrigarria bada ere, lanik eza sekula baino indartsuago zen unean, langabeziagatiko babes-sistema birmoldatzea egokitu zen. Egunez egun larriagotuz zihoan babespen gabeziak sakonetik urratu zituen langileria eskubideak; era berean, babes-tasa geroz eta urriagoa izateak gizartean pobrezia eta bazterkuntza ugaltu zuen.

Geroago, Toledoko Ituna aplikatzearen ondorioz, Ley de Consolidación y Racionalización del Sistema de Seguridad Social izeneko onetsi zen. Lege berria indarrean sartzeak (1997) pentsio-sisteman murrizketa gaitza eragin zuen: horren bitartez, Gizarte Segurantzaren 25 urte baino gutxiago kotizatu duten langileen pentsioak urritu egiten direnez, pentsionista-kolektibo jendetsuak nozituko ditu eraginak. Beste aldetik, erregulazio-oinarriak kalkulatzeko urteak orain arte 8 baziren, aurrerantzean 15 izango dira; diru-kopuruak, espero bezala, eskasagoak.

Pentsio-murrizketarekin batera eta aurrezkoa finantza-sektore pribatura bideratzeko helburuz, prebisio sozialeko sistema pribatuentzat mesedegarri diren neurri fiskalak ere hartu ziren.

### **Kontrarreforma fiskala**

Zerga-sistemak, dirua biltzeko helburua izaki, berdintasun- eta progresibitate-irizpideetan oinarritua behar luke, gehien daukana gehien ordain dezan moduz, errentaren birbanaketa egiazkoa gertatuko bada. Estatu espainiarreko egungo politika fiskalak, ordea, ez omen du konpromisorik gizarte zuzen eta solidarioago baten eraikuntzarekin.

Egungo zerga-egitura eta beronen bilakaera aztertuz gero ondoriozta dezakegu Elkartearen gaineko Zergak bilketa osoarekiko geroz eta garrantzi gutxiago daukala, BPGan enpresa-errentek duten karga geroz eta handiagoa den arren. Egungo iruzurraren maila altuari eta zerga-kenketa, "oporraldi fiskalak", ezarpen-tasa nominalaren murrizketa eta antzekoak biltzen dituen sareari esker, zerga hori diru-iturri urria bilakatu da.

PFEZ eta BEZ bihurtu dira zerga-sistemako bilketa-iturri oparoenak. Zerga-bilketa-aren oinarri sendo bat BEZ izateak sistema fiskalaren progresibitatearen printzipioa hautsi dela esan nahi du, balio erantsiaren gaineko horrek kontsumoa zamatzen duelako, errenta apalenen kaltetan.

PFEZ, praktikan, lan-errenten gaineko zerga da: PFEZgatiko diru-sarreraren %82 baino gehiago errenta horietatik datoz (gainera, zergen guztirako bilketan geroz eta karga handiagoa hartzen ari da). Datu argigarria: lanetik aitorturiko batez besteko errenta baino %23-%36

(herrialdeen arabera) apalagoa da jarduera enpresarial eta profesionalengatik aitorturikoa.

PFEZren arestiko erreforma zela eta, presio fiskala arintzea agindu zitzaigun arren, beste zerbait gertatu da: errenta-maila zenbat eta altuago izan, orduan eta zerga-beherapen handiagoa egiten zaio. Era berean, jarduera profesional eta enpresarialen eta kapitalerrenten aldekatasuna finkatu egin da.

Erreforma hori dela eta PFEZrengatiko diru-bilketaren murrizketa, euskal presio fiskala eta Europako batz bestekoa berdintzeko norabidez kontra doa. Horrek eta iruzur-maila handia galarazi nahi ez izateak berretsi egin dute zergengatiko diru-sarrereren munta handitzeko bezainbesteko margena badagoela. Gastu sozialeko politikak finantzatzera eta lana banatzeko neurriak aplikatzera ederki asko bidera litezke diru-sarrera horiek.

Baskongadetako Hitzarmen Ekonomikoak eta Nafarroako Itunak dituzten eskuduntza eskasak, enpresen fiskalitatea murriztu eta lan-errentek nozitzen duten diskriminazioa areagotzeko erabili izan dira beti, denetan.

Horrelako egoeran eta EAE eta Nafarroako zerga-arauen kontra PPk etengabe egiten dituen erasoak horrelakoak izaki, zerga-gaietan erabateko eskuduntza geureganatu beharra dago: gizarte zuzenago eta solidarioago sortzeko helburua betetzeko balioko duen zerga-sistema indarrean jartzea ezinbestekoa dugu, herri honen gehiengoaren interesek aginduta.

## 2. Euskal Langile Mugimenduaren egoera

### 2.1. Gogoeta orokorra

Klase-sujetuaren desegituraketan neoliberalismoak eta globalizazioak izan duten eraginak - langileriak bizi dituen errealitate desberdinak integra ditzakeen osotasunezko erantzuna egituratzea erakunde sindikalei zailago bihurtzeaz gainera - markatu ditu euskal sindikalismoaren kezka eta jarduera.

Langileriaren baitan dauden korporatibismo eta indibidualismo-jokaerak gainditzeko eta egoera osoari erantzuna emango liokeen eskuhartzeari ekiteko premia izan dira LABen jardura sindikal eta sozialaren ardatzak.

Enpresetaraino zabalduz zegoen desegituraketari erantzuteko tresna den aldetik, Negoziazio Kolektiboak fase honetan erakutsi duen gaitasun eza eta honen ondorioz korporatibismoa areagotzeko arriskua bera ere izan dira gogoeta egiteko eta bestelako norabideak jorratzeko tresnak. Negoziazio Kolektiboa dela eta, azpimarra dezagun Administrazio publikoek erakutsi duten jarrera boikotatzailea, erakunde sindikalen eginkizun eta jardura eragozteko.

IV. Biltzar Nagusian, sindikalismoan eskuhartze - eta aztertze-alorretan - astinketa egiteko premia egin genituen adierazpenak gauzatu egin dira lana eta aberastasuna banatzeko erreibindikazioak suspertzean: hauei esker, Euskal Langile Mugimendu osoaren erantzuna globalizatu ahal izan da.

Soldata sozialak, 35 lanorduko asteak, aparteko lanorduen ezabaketak, ABLEen kontrako erantzunak eta bestek harturiko erreferentzialtasuna irabazi du euskal sindikalismoak; sisteman magalduz eta eskuin politiko-ekonomikoarekin etengabe itunak eginez bizi diren CCOO-UGT erakundeekiko loturak hautsita, sindikatu abertzaleak gauza izan dira langileak eta beste gizarte-sektore batzuk altxatzeko eta, beraz, klase-borrokako defentsan, lehenaldiko geldiuena gainditzeko.

LAB, ELA, ESK, STEE, EHNE eta HIRU erakundeek etengabe elkarlanean jardunez, euskal sindikalismoak erreibindikatze - eta eskuhartze - alorretan lortu duen autonomia, sekulako jauzia izan da euskal mugimendu sindikalaren etorkizunera begira.

1998ko Ordubeteko Greba eta 1999ko maiatzeko 24 orduko Greba izan dira mobilizatorik adierazgarrienak; hauen osagarri izan da nazio, herrialde, eskualde eta sektore-mailako mobilizazio-dinamika bizkortzea. Hauei esker, 35 lanorduko astea eta soldata soziala bilakatu dira euskal langileria eta gazteria bategiteko erreibindikazioak.

Mobilizazio - eta eskuhartze - dinamika horri esker, beste kolektibo batzuei ere erantzun sindikalik eman zaie eta indar handiko fronte soziala egituratzen hasiak gara dagoeneko. Euskal gazteria mugitzen den alorretako jarduerari, langile emakumea baztertzearen kontrako jardura sindikalean integratzeari eta bazterketa sozialaren aurkako borrokan dabilzan erakunde sozialekiko elkarlanari esker, baikorrago ikus dezakegu euskal sindikatu eta langileen mugimenduaren bilakaera.

Klase-borrokan aurrera doala, bere burua suspertu eta ugaltzeko sektore estrategikoekin (gazteria, emakumea, baztertuak, etab) harremanetan diharduen eta, horrenbes-

tez, fase ofentsiboago batera pasa den euskal sindikalismo horren bereizgarriak dira klase-erantzuna elkartzen duten erreibindikazioak garatzea, mobilizazio-dinamika sustatzea eta CCOO-UGT erakundeekiko orain arteko murrizketa haustea.

Gogoeta honek ez du alferrikako ametsen sortzaile izan behar. Eskuhartzeko unean aski antzua zen sindikalismoaren defentsazko etapa gainditu dugu eta norabide egokian goaz orain. Halaz ere, enpresan, eguneroko ekintza sindikalean, gainditu beharreko jokaerak topatzen ditugu oraindik. Aparteko lanorduei, prekarietateari, laneko osasunari eta besteri lantokian lantokiko erantzun egokiaz osatu gabeko jarduera konfederalak galarazi egingo digu klase-borrokan koherentziaz eta eraginkortasunez aurrera egitea.

Azken urte hauetan gaztea lan-merkatuan sartzeak -prekarietatez eta gehiegikeriazko baldintzetan bada ere - ekintza sindikala suspertzeko balio behar du.

## **2.2. Euskal sindikalismoaren bilakaera**

Goien esandako guztiari esker, Euskal Herriko klase-borrokak egundoko astinketa nozitu du eta indar sindikalen arteko gorabeherak azken urteotako joerak finkatzen dute.

Hego Euskal Herriko sindikalismo abertzalearen ordezkariak %58ra iritsi delarik, CCOO-UGT sindikatuena %42an dago.

UGTren beherakada eta LAB, ELA eta CCOOen gehikuntza xumeak izan dira azken hauteskundearen ezaugarri nagusiak. Nafarroan LABek gora egitea eta Baskongadetan -UGTren gainetik - hirugarren indar sindikal izatea dira bereizgarri nabarmenenak. Baina Araba eta Bizkaian jasotako emaitzak kezkarriak ditugu, espero bezainbeste igo ez dugulako.

## **2.3. Negoziazio kolektiboa: Biltzarren arteko balantzea**

Biltzar Nagusien arteko negoziazio kolektiboaren balantzeak gora-beherak agertzen ditu: ekimen interesgarri eta emaitza onuragarrien ondoan, inertzia zaharrek bere horretan segitzen dute.

Negoziazio kolektiboaren barne-antolamenduan urratsak eman ditugu, negoziazioen hasiera aurreratuta eta estrategia sindikalaren arabera eritmo egokiagoak ezarri ta; askotan, patronalak prozesua geroratzeko erabiltzen dituen maniobrak galarazi egin ditugu, baina alor honetako dinamika bizkortu behar dugu. Geure erreibindikazio-propo-

samenak homogeneizatzen ahalegindu gara, eskuhartze-ildoak koordinaturik mantendu nahian (metal-sektorean, batik bat). LABen, beraz, negoziazio kolektiboaren prestaketan lanak hobera egin du, oro har.

Delegatuen, afiliatuen eta langileen eskuhartzeari dagokionez, ordea, ezin dugu esan balantzea mesedegarria denik. Honetan, langile-mugimenduaren desegituraketak eta indarren erlazioak (patronalaren aldekoa, bete-betean) sekulako eragina izan dute. Parte hartzeko espazioak zabaldu egin behar ditugu: hauxe dugu negoziazio kolektiboa ez indargabetzeko helburu nagusi eta iraunkorra. Alor honetan ere aurrera goazela ahantzi gabe, azpimarra dezagun gure liberatuen delegazionismoa, benetako fenomeno kezka-garria delako: delegatuek daramate askotan negoziazioaren zama eta, joera hau ez bada zuzentzen, burokratizazioaren arrisku gorria gainean dugu.

Negoiazio kolektiboko emaitzak direla eta, hurrengo puntuak nabarmendu behar ditugu:

a) Negoiazio kolektiboaren euskal markoa garatzeko helburuari dagokionez, epe-lak izan dira emaitzak, baina ez alferrikakoak. LAB aitzindari dela, sektoreko hitzarmen kolektibo estatal batzuen negoziazioa euskal esparrura ekartzea dela eta, erretorika hutsetik errealitatera etorri gara. Badakigu, ordea, honakoa epe ertain eta luzerako borroka dugula.

b) Lanaldiaren murrizketa eskakizun sindikalaren funtsezko puntuetako bat izan den arren, sail honetako aurrerakada eskasa izan da, inondik inora. Itundutako lanaldiaren murrizketa 2,45 ordukoa izan da 1997-96 eperako, 2,57 ordu 98-97rako eta 3,38 ordukoa 99-98rako. Kontuan izan dezagun, sektoreko konbenio handietan (metal eta eraikuntzan, batez ere) hitzartutakoak eragin duela murrizketa globalean, neurri handi batean.

1999 urterako hitzarmen kolektiboetan 1.730 orduko lanaldia hitzartu da, hau da, 38 ordu asteko, gutxi gora-behera. Enplegua sortzea dela eta, lanaldia murrizteko unean ohiko negoziazio kolektiboak daukan ahalmenaren - ahalmen eskas-eskasaren - berri zehatza ematen digu datu adierazgarri horrek. Ez hori bakarrik: kontuan izan dezagun zenbat eta zenbat ordu estra sartu diren: horien murrizketa zorrotza da mugimendu sindikalak pendiente daukan gai nagusietako bat.

c) Soldatei dagokienez, Biltzar Nagusien arteko epean negoziatu diren hitzarmen kolektiboek gutxienez mantendu egin dute eros-ahalmena, soldatak apal mantentzea tak-tika nagusia izaki. Halaz ere, sektore batzuetan eros-ahalmen horren galera gertatu da. Nolanahi ere, produktibitatearen gehikuntza soldaten igoera baino askozaz ere handiagoa izan dela nabarmendu behar dugu; beraz, langileak sorturiko aberastasunean jornalak duen portzentaia beheraka doa etengabe.

Azkenik, "soldata-eskala bikoitza" ugaltzen ari dela esan behar da: langile kontratatu berriari soldata apalagoa ematea ere bazterketa-mota bat da eta, horrenbestez, aurre egin behar diogu guk. Horra hor adibide gordinak, Volkswagen eta E.Orbegozo enpresetan.

Administrazio Publikoetan, Nafarroan izan ezik, langile publikoen soldata bere horretan mantentzeko erabaki unilateralak galarazi du negoziazioa. Horrelako politikak praktikatu, negoziazio kolektiboa bera ere baliorik gabe geratzen da.

d) Kontratuen prekaritatea fuintsez murriztea dela eta, negoziazio kolektiboak dituen muga zorrotzak izan behar ditugu gogoan: horien gora-beherak legearen bitartez daudelako araututa. Hortaz, urte hauetan hitzarmenek jasotako emaitzak apalak izan dira. Ikasketa-kontratuen kasuan gutxienez harturiko ordainketen gainekoak finkatzea eta lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuak nolabait lotzea izan dira aurrerapen bakarrak praktikan; areago, behin-behineko kontratuak desnaturalizazioa nozitu du, bere izaera kausala ezabatuz doalarik, eta soldata -zein kotizazio- alorretako iruzurraren mesedetan jardunez.

Azpimarratzeko moduko aurrerakada egin dugu Aldi Baterako Lan Enpresei (ABLE) dagokienean. ABLEak ez erabiltzeko konpromisoa salbuespenezko zerbait bada ere (egiaz eredugarria da EAEko Ikastolen Hitzarmena), horiez baliatzeko kasuak mugatzeko joera antzematen da. Bestetik, sektoreko hitzarmen askotan maila berdinean utzi dira ABLEek igorritako langileen eta enpresakoen lan-baldintzak.

e) Nabarmen dezagun, era berean, 1999ko urtarrilaren 15eko LHKan sinatu diren akordioen bilakaera. Aparteko lanorduak desagertzeari buruzko akordioa onuraz geratzen ari da sektoreko hitzarmen batzuetan (Gipuzkoako metalean eta hainbat enpresa handitan, adibidez). Plantilak berri eta ordezkatzeko akordioa aplikatzen ari da: adierazgarria da, ikuspegi horretatik, Irakaskuntza eta Ikastoletako itun kolektiboetan aintzat hartu eta sartu izana.

f) Hauteman dezagun, beste aldetik, emakumeak lanean izan beharko lituzkeen baldintzen berdintasunaz edo negoziazio kolektiboen ildoez (langile emakumeak berariaz nozitzen duen diskriminazioa gainditzeko neurri eta guzti) LHKak eginiko adierazpenak gora-behera, oso hitzarmen gutxitan jasotzen da alor horretako punturik.

g) Azkenik, negoziazio kolektiboaren ondoriozko BGAEen (EPSVen) finkapen eta zabalpena: Geroan zeramika, beira, okindegiak eta trantsitorioak sartu dira, esate baterako. Bestetik, Elkarkidetzan izan dugun eskuhartzeari esker, inbertsio-estrategia norabidez aldatzen, sindikatuen partehartzea bultzatzen eta prestazioak egokitzen ari dira. EAEko gainerako Administrazioetara hedatzeak nolako helburuak izango dituen, zehazteko dago

oraindik. Bi erakundeetan LABek dituen eskuhartze-ardatzak, 1998ko otsaileko Konferentzia Nazionalan onetsitakoaren arabera garatzen ari dira, orduan erabakitakoa indar-indarrean baitago orain ere. Hala ere, konfederal mailako zein administrazio publiko-  
etako Biltzar Nagusietan, Elkarkidetzan jarduera eta honek, etorkizuneko Gizarte-Segurantzaren Euskal Institutoan izan dezakeen uztarketari buruzko LABen plan estrategi-  
koa eztabaidatu behar dugu.

## 3. Ekintza Sindikala, subirano- tasunezko markoa gorpuzteko

### 3.1. Sarrera

Egoera politikoari buruzko azterketak eta ondorioz Euskal Herriaren eraikuntza-proiektuaren alde egin dugun apustuak aginduta ekintza sindikalaren estrategia eratu behar dugu, elementu nagusi bat bereizgarri duena: euskal gizarte zuzen eta solidarioaren euskarri izango den politika sozio-laborala egituratzeko beharrezkoak diren tresna eta eskuduntza guzti-guztiak lortzea, hain zuzen.

Koiuntura politiko berri honek eta nazio-eraikuntzan ematen ari diren urratsei jarraiki, LHEE (Lan-Harremanetarako Euskal Esparrua) eta EGSE (Euskal Gune Sozio-Ekonomikoa) erreibindikatzeari jarrera ofentsiboa hartu behar dugu. Bada garaia Euskal Herritik eraiki dezagun geure egitura sozio-laborala, euskal gizarteak harturiko erabakiek eta euskal sindikatu, enpresa eta erakundeen akordioek bakarrik baldintzatua.

Adiera horretan, LHEE eta EGSE eraikitzeke interes objetiboak euskal enpresarioak ere baditu, nazioartean ongi kokaturik egongo den ekonomiaren euskal eredia sortu eta egonkor bilatzeko tresnak baitira bi esparru edo guneak. Bide horretan enpresarioek emaniko urrats epelak - onuragarri badira ere - interes berehalakoiak gainditu ahal izateko, sakondu egin behar dira.

Subiranotasuneko markoa egituratzean gure estrategia sindikalaren funtsezko elementuak - LHEE eta EGSE - gauzatzeko ahalegin sindikal guztiak eta bi egin beharko ditugu: beraz, sindikalismoaren funtsezko egnkizuna berriro eskuratu behar dugu, ezinbestez.

## **3.2. Gizarte Babespen eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua**

### **3.2.1. Gogoeta orokorrak**

Gizarte Babespen eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua (aurrerantzean, LHEE) eskakizun estrategikoa da, LABen programan aspaldi-aspaldian sartu zena. Gure sindikatuak 1992 eta 1996 urteetan egin zituen Biltzar Nagusietan, LHEE osatzen duten funtsezko elementuak eta oinarri teorikoak finkatu ziren.

Guri dagokigu LHEE gorpuzteko beharrezkoak diren osagariak aportatzea, marko politiko-juridiko berria eratzeko eskuduntzak xedatuz eta, kanpotiko interferentzien arriskua gainean, geure garantia juridikoak zehaztea.

Aldarrikatzen dugun gizarte-aldaketa hori egingo badugu, LHEE ezinbesteko eskakizuna dugu, euskal langileen mugimenduaren egiazko kezka eta premiei lotua. LHEE lortzeko, gehiengo sindikal eta sozial sendoak bildu behar ditugunez, funtsezkoa da norabide horretan indarrak metatzea. Erreibindikazio demokratikoa da LHEE, alor soziolaborean euskal erabakiunearen parekoa delako. Euskal Herriko erakundeen eta bertako eragileen erabaki eta akordioak errespetatzean datza horren garrantzia: erakunde eta eragile horiek ezin urratu edo ignoratu ditzakete hemendik kanpoko instantziek, Espainiako Epaitegi Konstituzionalaren ebazpen judizialak izan edo Estatu osorako itunak izan. Erreibindikazio integratzailea da, era berean, fronte - edo bazterketa - konnotaziorik gabea. Prozesuan langileriaren gehiengoa integratu nahi dugu: bere klase-interesak erarik hoberenean defendatzeko eta Euskal Herriko gizartea kohesionatzeko modurik hoberena LHEE dela sinetsita hartu behar du esku langileak.

### **3.2.2. Lan-alorreko legeria**

Biltzar Nagusien arteko aldi honetan laneko legeriak aldaketa garrantzitsuak izan ditu: denetan nabarmenenak, 1997ko lan-erreformari buruzko Akordio Interkonfederalen ondoriozkoak, dudarik gabe. Lan-merkatuan legezko erreforma horrek izan dituen eraginak ponentzia honetako lehen kapituluan adierazi dira. Gogora dezagun langilearen kanporaketa objetiboa erraztu eta merkatu egin dela, eta negoziazio kolektiboa zentralizatzeko asmo zurruna duela: hori aldatzeaz ohartarazten du Langileen Estatutuko 84. artikulua.

Lanaldi partzialeko kontratua ere aldatu dute, lanaldiaren malgutzeko-prozesuan beste urrats bat emanik: CEOEk horrelako denak arbuiazen omen zituen arren, enpresarioak laneskua (femeninoa, batik bat) erabilgarri behar du. Familiako eta laneko bizitza elkargarri bihurtzeko Lege-proiektua tramitatzen ari dira orain: legea onesten bada, langile emakumearen egoera okertu egingo da, inondik inora.

Aldakuntza horiek guztiak Estatuak emaniko lan-alorreko legeria zabalari dagozko eta lan-harremanen elementu funtsezkoen eta adierazgarrienak arautzen dituzte. Esan gabe doa, indarrean dauden botere-erlazioen arabera, Estatuko legeria eta aldaketa horiek indarrez aplikatzen direla Euskal Herrian, bertako eragile sozial eta botere publikoek dituzten iritzietatik at. Subsidiarioritasun hau gainditzeko asmoz, LHEEaren aldekoek urte hauetan hainbat hipotesi eta proposamen jorratu dituzte. Horra horietako batzuk:

a) Lan legeriari buruz, Estatuak bakarrik dauzkan eskuduntzak transferitzeko aurreikuspen konstituzionalak aplikatzea. Jarrera honek egiazko arazoari saihesten egiten dio, LHEE oraingo antolamendu juridikoan kabitzeko egokitzapenak bakarrik egin nahi dituelako; helburu hori ez da bideratzeko modukoa, jakina. Gure proiektu sindikalak aldaketa politikoa exigitzen du: botere-arazoa denez, aferaren izaera juridiko-konstituzionala dezente erlatibizatu behar dugu. Halaz ere, amets eta sasi-konponbideak ebitatzearen, iragar dezagun: Marko-Legeek eta Espainiako Konstituzioko 159 artikuluko 1 eta 2 ataletan aurreikusiriko Eskuordetze-Legeek, lege-gaiak Euskal Herriko egungo autonomi erakundearen eskuetan uztea galarazi, debekatu egiten dute. Horren adibide garbia: azken 20 urteotan ez da horrelako transferentziarik izan; beraz, behinola espektatibarik piztu bazen ere, piskanaka edo bat-batean itzali egingo zen, honezkerok. Bestetik, Konstituzioaren xedapenetatik abiatuta, saiakera egiteak ez luke eskainiko marko soziolaboral berriaren egonkortasuna mantentzeko beharrezkoak diren garantiarik: transferentziak, horrela, Estatu espainiarrak eginiko kontzesioak lirakeke, Euskal Herriaz kanpoko interpretazio politiko eta judizialek baldintzatuak.

b) Lan Harremanen Kontseiluak dituen ahalmenez baliatzea, LHEE piskanaka egituratzeko bere baitan sinaturiko Lanbidearteko Akordioaren bitartez. Proposamen honen lehen muga lurraldekoa da, erakunde horren esparrua EAEkoa delako. Horrez gainera, lan-harremanen sistema bat egituratzeko alderdiek duten autonomia kolektiboa handia bada ere, gure ikuspegitik ezin da LHEE -bere izaera jatorrizkoan ulerturik - eta negoziazio kolektiboaren euskal markoa nahastea: honako hau LHEEaren funtsezko zatia da, ordezkazina, baina ez dauka, inondik ere, haren dimentsio osoa. Negoziazio kolektiboaren koordinadak zorrozki baldintzatuak ditu laneko legeriak.

Negoiazio kolektiboaren euskal markoak garantia juridikoak bermatzea ez da aski (areago, Langileen Estatutuaren 84. artikulua gure aldera aldatuta). Estatuko legeriak kontratazioen edo kanporaketan funtsezko elementuak arautzen dituen neurrian, lanbide-arteko akordioen edo itun kolektiboan bitartez kontratu-sistema bat egituratzea oso lan aldrebesa, neketsua da. Lan Harremanetarako Kontseiluan bertan, Plantilak Ordezkatu eta Berritzeko Akordioa -ziurtasun juridikoz - eratzeko unean topatutako zailtasunak ere horren adibide adierazgarria dugu.

c) Lan kontuetan, erabateko lege eskuduntzak exigitzea. Hauxe da LABen jarrera politikoa. Aurreko ataleko gogoetarekin lotua, lan-alorreko harreman indibidual eta kolektiboak osatzen dituzten gaiez legistatzeko eskuduntzaz ari gara, ez lan-negoiazio eta ordezkoaren eskubideei dagozkienez. Lanaldia, soldatak, laneko bermeak, kontratua aldatu, indargabetu eta haustea, izaera bereziko lan-harremanak eta beste alderdi askoren funtsezko edukiak, euskal erakunde nazionalak eginiko lan-legeriaren bidez arautu behar dira.

Alderdien autonomia kolektiboaren eginkizunari gehiegizko balioa aitortzen dieten sektore sindikalek aldarrikaturiko "abstentzionismo legislatibo" horrez beste aldera, euskal botere publikoen protagonismo handia agertuko duen LHEEaren alde dago LAB. Interbentzionismo reglamentistaren alde jardun ordez, hitzarmen edo itun kolektiboa eta legea aplikatzea elkarren osagarri izan daitezen proposatzen dugu, horixe baita metodo egokia lan-harremanen sistema aurrerakoia egituratzeko.

Horrela, enplegu-politika egonkor eta kalitatezkoa garatzeko funtsezko ardatzak finkatzea euskal erakunde nazionalen kontua litzateke. Horrek ez luke sindikalismoaren eginkizuna urrituko edo langileriaren interesen ordezkaritza ahalduko. Alderantziz: sindikatuen autonomiatik, euskal gehiengo sindikala eta bertako indar politiko eta sozial ezkertiarren arteko elkarlanean aurrera egiteko oinarriak finkatzen ditu eskema honek.

### **3.2.3. Babes soziala**

Babes sozialaren alorrean ere gertatu izan dira aldaketak, azken bi Biltzar Nagusien arteko epe honetan. Denetan garrantzitsuena, Toledoko Itunaren aplikazioz, 1997ko pentsioen erreforma izan zen. Horren ondorioz, jubilazio-pentsioen arau-oinarria zehazteko beharrezkoak diren kotizazio-urteak ugaltu egin dira eta horien munta kalkulatzeko eskalak txarrera egin du. INSS erakundeak, bere aldetik, zeharo politika murriztailea egiten du oraindik ere, elbarritasun iraunkorrak halakotzat jotzeari dagokionez.

Ponentzia honen helburua ez da babes sozialaren problematika osoa jorratzea, gogoeta eta proposamen nagusiak LHEEren ikuspegitik kokatzea baizik. Adiera horretan,

hausnarketa geure gizarte-segurantzaren marko propioa lortzeko beharrezkoak diren eskuduntzetara zuzentzea dugu bidezkoa.

Gai hau politikoki subiranotasunezko klabean jorratzeko, bi eskuduntza-maila bereizi behar ditugu, argi eta garbi: arautzaile diren eskuduntzak eta gestio hutsari dagozkionak. Lehenbiziko horiek gauzatzeko botere politiko zabala, subiranotasun osoa eduki behar da eskuan, babes sozialaren alderdi behinenak arautzeko gaitasunari dagozkiolako: aplikazio-alorra edo babesgintza zehaztea, halako edo bestelako prestazioak jaso ahal izateko betebeharrak, horien munta eta iraupena zehaztea eta erregimen juridiko orokorra eratzea, alegia. Gai horiek guztiak gaur regun Estatuak arautzen ditu, Espainiako legesareak horrela xedatua duelako. Alor horretan euskal erakunde autonomikoek ez dute inongo eskumenik.

Autonomien eskuduntzak, gizarte-segurantzaren erregimen ekonomikoa gestio-natze hutsari dagozkio, Estatuaren oinarrizko legeriak baldintzaturik, nolana ere. Erregimen ekonomikoa egituratzen duten arauak xedatzea ere Estatuak erakundeen kontua da. Baina, alor honetan, Gernikako Estatutuak aurreikusirik eskuduntza motzak ere ez dira bete 20 urte honetan. Ederki ikusten da hemen, beste inon baino argiago akaso, autonomi sistema agortu egin dela: autogobernu-tresnatzat ez du inolako baliorik.

Gizarte-segurantzaren erregimen ekonomikoa eta INEMen eskuduntzak osorik transferitzeari uko egiteko Espainiako botere zentralak, Gobernuak eta Epaitegi Konstituzionalak eman duten aitzakia "Kutxa bakarra" izan da. Berez, kontabilitateari dagozkion "kutxa-batasuna" kontzeptua sakralizatu egin dute, elkartasun eta berdintasunezko sasi-argudioak erakutsiz: printzipio jator horiek ez dute zerikusirik gizarte-segurantzaren sistema egituratzeko molde tekniko batekin (kutxa bakarrarekin). Baina Kutxa Bakar hori bera ere auzitan jarri - areago, indargabetu - dute, jubilazio eta kotizazio gabeko elbarritasun-prestazioak (hauek ere Gizarte-Segurantzaren eskukoak) Foru Diputazioak kontzer-tu ekonomiko gisa gestionatzen dituztelako, Kotizazio Gabeko Pentsioei buruzko 26/90 Legea onetsi ondoren. Kotizazio gabeko pentsioen munta kotizaziopeko pentsioena baino askoz ere txikiagoa denez, horien gestioa transferitzeari Estatuak emaniko ezetza erraz ulertzen dugu. Horren guztiaren eraginez, langilearentzat - eta euskal proiektu nazionala- rentzat - funtsezkoa den gai hauetan eskuduntzarik ez dago.

Planteamendu horietatik ondorioak ateraz, LABen proposamena hauxe da: babes sozialari buruzko lege-eskuduntza guzti-guztiak garatuko dituen Gizarte-Segurantzaren Euskal Institutua sortzea, onuradunei behar bezalako prestazio duinak emango dizkien gizarte-segurantzako sistema publikoa egituratzeko. Institutu horrek finantza baliabideak

bildu, gestionatu eta administratzeko eskumena izan beharko luke, kutxa bakar eta autonomoaren printzipioari jarraiki

Proposamen hori beste batekin osatzen da: Enplegu eta Lanbide-Heziketaren Euskal Institutua sortzea, INEM osoa euskal instituzioetara transferitu ondoren. Erakunde horrek enplegua eta prestakuntza osotasunezko ikuspegitik jorratuko lituzke, bai enplegua sustatu eta gestionatzeari dagokionez, bai lanbide-heziketa okupazionalerako bertoko politikari dagokionez ere. Politika pasiboak, langabeziagatiko prestazio ekonomikoak aitortu eta ordaintzea ere, Enplegu eta Lanbide-Heziketaren Euskal Institutuaren kontuak lirateke.

Institutu horien gestioan sindikatuek esku hartu beharko lukete, eragile sozial aktibo diren heinean: horrela sustatuko litzateke Euskal Administrazio Publikoaren demokratizazioa.

#### **3.2.4. Negoziazio Kolektiboa eta LHEE**

LABen iritziz, negoziazio kolektiboak - alderdien autonomia kolektiboaren printzipioaren adierazpena den neurrian - sekulako betekizuna du lan-baldintzen hobekuntzan: ekintza sindikalaren funtsezko tresna da. Hortaz, Euskal Herrian negoziazio kolektiboa egiteko markoa lortzea da amets handia, LHEE egituratzeari begira.

Negoiazio kolektiborako euskal markoaren aldeko apustua egin du LABek, printzipio demokratikoak errespetatzean oin hartuta. Euskal gehiengo sindikalak euskal langileen lan-baldintzak negoziatzeko aukera izan behar du osoko garantia juridikoekin, gaitasun erreibindikatio eta organizatiboa muga bakarra izaki. Biziki antidemokratikoa da Espainiaren menpeko sindikatuek - Euskal Herrian gutxiengo izanik, enpresa eta sektore askotan - indarreko Espainiako legeriak aitortzen dizkien abantaila eta pribilegioez baliatzea beren legea indarrez ezartzeko.

Negoiazio kolektiborako euskal markoaren defentsa egiten dugu, sindikalismo abertzalearen balizko jarrera autarkiko edo intsolidarioetatik zeharo beste aldera. Egiaztapen objektibo hau dugu abiagune: euskal langileen interesak Euskal Herrian hobeto defendatzen dira Euskal Herrikan kanpo baino. Horrelaxe frogatzen dute, izan ere, errealitate sozio-laboralaz (hitzarmen kolektiboen edukiez, bereziki) egindako ikerlanek. Datu adierazgarrietako bat: EAEn itundu den urteko lanaldia 1730 ordukoa den bitartean, Estatu espainiarreko bataz bestekoa 1,767 ordukoa da. Euskal langileen soldata-maila, jakina denez, Estatuko gainontzeko langileena baino dezente altuagoa da.

LABek alor honetan egin duen apustua garbi dago: negoziazio kolektiborako euskal markoa finkatu, zabaldu eta sakontzea. Asmo hau gorpuzteko, fase honetan Langileen Estatutuko 84 artikuluz baliatzea proposatzen dugu: betebeharrak horrek (gehiengo sindikal

eta enpresarialek hala erabakitzen duten denetan) gure esparruan negoziatzeko aukera babesten du.

Baina horrela jokatzeko sekulako zailtasunak daude: lehendabizi, hitzarmen estatala duten langileen kontzientzia (oraindik) eskasagatik, ez dute presioa eragiten hitzarmen horiek Euskal Herrian negoziatzea. Bigarrenik, bide horretan joango liratekeen saiakera serio batzuk (erostexe handien sektorea) urratzen dituzte epaileen erabakiek. Hirugarren mailan, 1997ko lan-erreforman jaso zen "Negoziazio kolektiboari buruzko Akordio Interkonfederal" izenekoak, egundoko eragina du arazoan: Akordio horretan, UGT, CCOO eta CEOEk negoziazio kolektibo artikulatuaren beren eredua egituratzen duten oinarriko printzipioak aipatzen dituzte. Bertan, negoziatu beharreko gaien banaketak zehatza izan behar duela azpimarratzen dute: horrela, gai batzuk alor sektorial estatalean negoziatuko lirateke, eta beste batzuk maila apalagotan (nolanahi ere, Estatuaren zainpean beti). Negoziatzaile espainiarraren asmoa nabarmena da: estatalaren azpiko negoziazio-esparru guztiak haren menpean egon daitezen ituntzea. Baina, sektore batzuetan (eraikuntza, egurra, ostalaritza, garraioa eta metalgintza, azken honetako lanbide-sailkapenari buruzkoa) hitzarmen eta akordio estatalak daudelako, inboluzio zentralistaren saiakera horrek zailtasun handiak topatu ditu bidean. Ondorioz, Langileen Estatutuko 84 artikulua aldatzea eskatzen duten aurreneko ahotsak entzun dira dagoeneko. Esan beharrik ez: erreforma hori gauzatzea euskal sindikalismoaren kontrako eraso latza izango litzateke, Euskal Herrian lan - eta sindikatu - harremanetan ezin igarritzko ondorioak izan litzakeena.

Planteamendu horri aurre egiteko, lehen-lehenik, euskal esparruan ituntzeko Lanbidearteko Akordioak (lanabes konbentzionala) ditugu. Arazo Kolektiboaren Konpontze-Prozesuei, Lanbide-Heziketa Jarraiarri, Enpleguari buruzko Lanbidearteko Akordio eta Osasuna eta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Lanbidearteko Hitzarmena horiek erreferente onak dira. Gainean dugun erronka, berriz, lanaldia murrizteari buruzko akordioa da, baina hau beste kapitulu batean jorratuko dugu.

Marko interkonfederaleko negoziazio kolektiboa, sektore eta enpresetako hitzarmen eta akordioekin osatu beharra dago. Beraz, negoziazio-mailak egokiro antolatu behar dira, euskal langileriaren lan-baldintzak piskanaka hobetzea bideratuko duen hitzarmen kolektiboaren sare trinkoa osatzeko.

Negoziazio kolektiboaren egiturari dagokionez, soldatapeko langile gehientsuak biltzen dituztelarik, gehienbat enpresa txiki eta ertainez osaturiko produkzio-ehuna dugu abiagune. Eskura dauzkagun datuen arabera, 1.997an EAEn zeuden 56.435 enpresetatik 368k bakarririk dituzte 101etik 250 bitarte langile; 107k 251tik 500era bitarte; eta 45 enpresatan dabilta

500 langile baino gehiago. Enpleguaren tertzerizazioa (hirugarren sektorerara pasatzea) areagotu egiten ari da oraindik ere: zerbitzu-sektorean, adibidez, zerbitzu administratiboak eta merkataritza dira enpleguaren gehikuntza handiena izan duten bi azpisektoreak. Industrian, berriz, siderometalurgiak eta metal-transformatuek, oro har, gora egin dute urte hauetan; orain, industria sektoreko enpleguaren %69,5a dauka. Negoziazio kolektiboaren mapa dela eta, euskal esparruan sinatutako hitzarmen kolektiboak eta akordio arautzaileak %82,6 dira; gainerako %17,4ak estatalak dira. Sektore pribatuan, berriz, hitzarmen sektorialak %78,2raino igo dira eta enpresa-hitzarmenak, azkenik, gainontzeko %21,8ra.

Gure lehentasunetako bat, egun, hitzarmen sektorialen alde jardutea da, bai euskal esparru osoan, bai herrialdeka ere: hauexek izan behar dute sektorean sektoreko langile guztien erreferente bakarra. Hitzarmen hauek baliogabetzeak kinka larrian jarriko gintuzke: ahal den tokian negoziatu beharrean, berez negoziatzeko gauza ez diren enpresa txikitako langileak bide-ertzean (hitzarmen estatalean, seguruenik) abandonatuta. Ez dugu enpresa-itun horien balioa auzitan jarri nahi, sektoreko lan-baldintzak hobetzeko baliagarriak dira eta. Honekin beste gauza bat ohartarazi nahi dugu: herrialdeko markotik enpresa handiak ateratzeko ondorio kaltegarria du eta, gainera, marko sektoriala ere ahuldu egiten da.

Azken proposamena, Arazoak Ebazteko Prozedura Estrajudizialei (AEPE = PRECO) eta Nafarroako Lan Epaitegiari dagokiena. Prozedura horiek negoziazio kolektiboaren lanabes laguntzaile gisa sortu dira, negoziazio-prozesu batzuetan erabili beharreko osagarritzat. Horien eginkizuna suspertzeko, egungo AEPEri aldaketaren bat egitea proposatzen dugu, bere funtsezko egitura ukitu gabe. Aldatu beharreko alderdi ugarietako bat hauxe dugu: AEPEk bereganatu behar du lan-arazo kolektiboaren gestio guztia, Lan-alorreko Aginteak adiskidantza administratiboa egiteko dituen eskuduntzak aldatuz; alderdi bakoitzeko %60tik gehiengo osora jaiste adostasuna lortu ahal izateko; eta hitzarmen kolektiboaren negoziazioa blokeatzekotan, derrigorrezko bitartekaritzarako epeak laburtzea. Era berean, AEPEren baitan, gatazka indibidualen ebazpenei buruzko akordioa sinatzeko elkarrizketei berriro heltzea proposatzen dugu. Beste aldetik, UPN eta PSOEn sostenguekin UGT, CCOO eta CENek Nafarroako Lan-alorreko Epaitegian LABen presentzia onartzeari ezetza eman diotenez eta sindikatu horiek sektoreko eta enpresako hitzarmen batzuetan Lan-alorreko Epaitegia onartzeko klausula erabili dutela jakinik, LABek bere sinadura ez dio baldintzatuko klausula hori onartu edo ez onartzeari, negoziazioaren emaitza globalari baizik. Bide horretan barrena, Gatazkak Konpontzeko Nafarroako Organoan geure burua sartzea ahalbidera dezaketen ekimen guztiak egingo ditugu.

### 3.3. Euskal Gune Sozio-Ekonomikoa

E.G.S.E., IV. Biltzar Nagusian genion bezala, funtsezkoa da nazio-erakuntza sendotzeko eta, era berean, ezinbesteko lanabesa, erakuntza-prozesu hori euskal gizarte osoaren mesedetan egin dadin beharrezkoak diren baliabide eta gizarte - zein produkzio - indarrak sortzeko.

Eraiki nahi dugun E.G.S.E. horrek gure inplikazio sindikal, sozial eta instituzionala eskatzen du, sistema ekonomikoaren eraginkortasun soziala helburu nagusi izango duen garapen endogeno eta iraunkorra Euskal Herrian bertan egitura dezagun.

Garapen endogeno eta iraunkorrak esan nahi du, geure errealitate ekonomiko eta sozialetik abiatuta, teknologiaren aurrerapenak asumitzeko aukera eta gaitasunak eduki-tzea, geure balioak eta geure independentzia politiko eta ekonomikoa galdu gabe; horrela jorratuko ditugu, geure subiranotasunetik, elkartasunean eta elkarlanean oinarrituriko nazioarteko harreman berriak.

IV. Biltzar Nagusian erabakitako garapen-eredua, funtsez, berretsi egiten dugu. Halaz ere, martxan doan prozesu politikoaren haritik, "garrantzi erantsia" duten kontuetan bereziki sakondu nahi dugu.

EGSE eraiki ahal izateko, batetik, Europar Batasuna osatzen duten Estatuak bezalaxe eskuduntza-maila izan behar du Euskal Herriak, ezinbestean; bestetik, oraingo Europaren erakuntza-politika ultraliberalaren norabide-aldaketa bizkortzeko herri mugimendu zabal eta indartsua antolatu behar da.

Horretarako plan estrategikoa egin beharra dago: plan honen muga bakarrak, euskal gizarteak gehiengoz harturiko erabakiak izango dira eta euskarriak, LABen iritziz, ondoren aipatzen ditugunak.

#### 3.3.1. Euskal sektore publikoa

Euskal sektore publiko indartsua garatzea ezinbesteko baldintza dugu nazio-erakuntzako lanei ekin eta Euskal Herria lurraldez eta gizartez egituratu ahal izateko. Honek, bistan da, Estatu espainiarreko marko juridiko-politiko konstituzionalaren aurrez aurre ipintzen gaitu. Ez dago nazio-erakuntzarik, bera planifikatzeko estrategiak eta exekutatzeko tresnak lanean jartzen ez badira. Estrategia horren eragilea euskal sektore publikoak izan beharko luke oraintxe.

Euskal Herriko politika ekonomikoa diseinatzeko funtsezko erreferente izan behar du euskal sektore publikoak. Finantza-kapitalaren erabateko hegemoniak etsai ugari ditu, korporazio transnazional handien bitartez, mundu zabaleko herrien ekonomiaren egonkor-

tasunari eta garapen iraunkor eta harmonikoari oztopo gaindiezinak sortzen dizkielako. Jende ugari da herri askotako gobernuari askozaz ere jokaera ausartagoa eskatzen dietenak, deslokalizazio - eta espekulazio - joerak galarazi edo mantsotzeko, gutxienez. Euskal sektore publikoak hauxe izan behar du, horrenbestez, jarduerako lehen erreferentea.

Euskal sektore publikoak errotik aldatu behar du bere barne-egituraketaren estrategia eta euskal gizarte osoaren eskakizunen arabera plangintza estrategikoa egin. Horretan aurrera egiteko, gizartearen partaidetza eta herritarrenganako arreta lehentasunezko helburutzat estrukturalki integratuko dituen sektore publikoaren eredu garden eta demokratikoa eratu behar dugu.

Besteen gizarte-eredu estrategikoa ere zeharo aldatu behar da: beren ardurei saiheste egin ordez, geure baliabideen mobilizazioa indartu behar dugu; sektorearteko oreka egokiarren mesedegarri izango diren politika sektorial eragileak zehazteko, langilearen kualifikazioan eta produktuaren kalitatean oinarrituko den produktibitatea bultzatzeko, sistemaren eraginkortasuna premia sozialen ikuspegitik ebaluatzeko, eta lan-errentak diskriminatuko ez dituen fiskalitatea eta aberastasuna bestela banatuko duen gastu-politika planifikatzeko.

Planteatzen ari garen erakunde-eredua lurraldez integratua izango denez, herrialde, eskualde eta herriei garrantzi handiagoa emango zaie bertan. Politika publikoak eratu eta ebaluatzean eragile sindikal eta sozialen adostutako eta baterako eskuhartzeari ateak zabalduko dizkion ereduak izango da, gizartearen parte hartzean oinarritua. Sektore publikoaren oraingo ereduak administratibista izaki, eredu sozialera pasa behar dugu, hitz batez.

Horrelakorik, ordea, orain arte ez da egin. Behin eta birritan kritikatu izan dugun bezala, Hego Euskal Herri osoko sektore publikoaren gestoreak bat datoz ideia neoliberala funtsezkoekin: merkatuaren eskuetan uzten dute baliabideak izendatzeko ardura, industria eta zerbitzuetan sektore publikoa pribatizatzeko estrategiekin ados daude eta, funtsez, norbaiten kontu bankarioak gizentzeko balio duten desgrabazio fiskal eta subentzioak entregatzen dizkiete enpresarioei.

Iruñea eta Gasteizko Gobernuak lehenbailehen hasi behar dute politika publikoak martxan jartzen eta, bidezkoa bada, euskal enpresa publiko industrialak sortzen, euskal partaidetza edo estatala duten enpresa guztiekin, gutxienez; euskal finantza-sistemaren sorrera sustatzeko, bertako eragilea Euskal Herri-Erakundea izaki; bertoko baliabide naturalak aintzat hartuta, gure gizarte eta lurraldea egituratuko dituen azpiegitura-politika garatzeko; alternatibazko energi politikak bultzatzeko eta teknologiaren berrikuntza bizkortzeko.

Euskal sektore publikoa finkatu ahal izateko bestelako betebeharrak ere ikusten ditugu: euskal markoan, gaitasun normatibo osoa edukitzea eta, gainera, lan baldintzak eta negoziazio kolektiborako beharrezkoak diren lanabesak (sektore publiko horretako langileen Estatutua eta antzekoak, adibidez) erabili ahal izatea: horien helburuak, proposatzen dugun sektore publikoaren ereduaren arabekoak izan behar du, lan-harremanen markoa sektore publikoan ezartzeko.

Euskal administrazio publikoek beren lan-politika propioa egin behar dute, Estatuko funtzio publikotik geroz eta zentralizatuago dauden lokarriak hautsita: sektoreko negoziazio kolektiboa egiteko gaitasun osoa eskuratzea lehentasunezko estrategiatzat asumitu behar dute. Baina, zoritxarrez, ez bata ez bestea asumitu dute orain arte euskal administrazio publikoek.

### **3.3.2. Zerga eta Aurrekontu politika**

Aurreko gogoetak abiagune hartuta, tamalez berretsi behar dugu Iruñea eta Gasteizko Gobernuen urte hauetako politika fiskalak gure proposamenekin bat ez datoze-la eta, areago, aurkakoak direla.

Euskal fiskalitatearen kontra PPren Gobernuak Europar Batasunean zabalduko krisiaz ari ginela gogorki kritikatu genuen moduan, fiskalitate hori hankamotz dago eta, Europar Batasuneko Estatuak bezalaxe eskuduntza fiskalak ez dauzkagun bitartean, euskal fiskalitatea moztu eta judizializatu egingo dute beti.

Ezinbestekoa da, beraz, funtsezko arazoa konpontzea: euskal subiranotasun fiskalaren alde jardun behar dugu, Europako markoan agerpena izan dezan zerga zuzenak, zeharkako zergak, itunpeko zergak, itunez kanpoko zergak, eta zerga berrien inguruan.

Halaz ere, subiranotasun fiskalik ez izate horrek ez ditu Hego Euskal Herriko bi Gobernuak beren arduretatik salbuesten ezta indargabetzen beren eskuduntza fiskalen gestioari egiten diogun kritika erabatekoa ere.

Ultraliberalismoaren sindromepean egiten ari den politika fiskalak baliabide publikoak ito, ongizatea desagertu, ekimen enpresariala lehenetsi (lehentasunezko zat jo) eta presio fiskala arintzea nahi du. Estrategia fiskal horren erruagatik - BPGarekiko - gure presio fiskala Europako batz bestekoaren azpitik dago, errenta altuenentzat eta kapital-errententzat onuragarri da PFEZren azken erreforma, fondo publikoak 50.000 milioi pezeta baino gehiagoz urritu dira eta urteko iruzur fiskala Hego Euskal Herrian 600.000 milioi pezeta ingurukoa da.

Politika fiskalaren norabidea aldatu beharra dago, oinarri-oinarrietatik hasita: beha-

rezkoa den inposizio fiskala euskal gizartearen funtsezko premien arabera planifikatzea; produkzio-ehuna garatzeko beharrezkoa den inbertsioa egitea; enplegua sortzea; aberastasuna gizabidez banatzea; eta produkzio lana sozializatzea.

Errenta guztiek - lanekoak izan edo kapitalekoak izan - proportzio berean lagundu behar dute. Iruzur fiskal enpresariala gaur bertan galarazten hasi beharra dago, baliabideak eta epeak jarrita. Kontu hauek jorratzea ezinbestekoa da, politika fiskalaren norabidealdaketa mesedegarritzat joko badugu. Badira, ordea, gai honetan bestelako erreibindikazioak ere: osasunaz kontrako edo kaltegarri diren jarduerak eragindako kostuak zeharkako fiskalitateak jasotzea; enpresako mozkinen erreinbertsioaren alde jokatzea; ezarpen-egitura errenta apalenen alde aldatzea; eta, premia-premiazko ondasunei BEZik ez ezartzea.

### **3.3.3. Lurralde- eta gizarte-egituraketa**

E.G.S.E. egituratu ahal izateko beste erronketako bat, bai gizarte-ekintzaren alortetik, baita Administrazioetatik ere, politika publikoak aplikatu beharreko barrutia zehaztea da eta, bestetik, jarduera publiko eta pribatuak bidezko estrategia batean ados jartzea.

Proposatzen ari garen lurralde-egituraketa erreala izan dadin, behar-beharrezkoa da jardueren marko geografiko-politikotzat euskal lurraldea hartzea eta, horrenbestez, lurraldeen egituraketa oraingo alderdi juridikotik eta oraingo egitura administratiboetatik haratago iristen dela ulertzea. Beste aldetik, Euskal Herriko hiritarrok geure bizitza, historia, hizkuntza, ohi-turak, harreman sozial eta laboralak, aisialdia eta beste hainbat gauza elkarrekin goza ditza-gun ezinbestekoa den euskarria lurraldea dela onartzea: hori da kontua. Lurraldea ez da elementu geografiko hutsa, Herri garen aldetik, gure errealtatearen euskarria baizik.

Estatu espainiarrak eta frantziarrak gure lurraldearen administrazio politikoaren bidez egiten duten zatiketaren araberrako lurralde-multzoa ezin dugu ulertu, ezin onartu. Lurraldea eta gizartea egituratzeko osotasunezko plana egin behar dugu, biak ezin bereizturik baitaude bat eginak.

Lurraldea eta gizartea egituratzeko strategiaren abiagunea, hortaz, gure nortasun nazionala da eta, horren ondorioz, lurralde-egituraketa horretan hainbat estrategia biltzen dira. Lurraldea eta gizartea batera egituratzeko politikek izan behar dute kanpo-erreferente zehatza, argia, europarra: Europako herri subiranoa da Euskal Herria eta, halakotzat, Europaren eraikuntzan esku hartu nahi du.

Lurralde - eta gizarte - egituraketaren barne-osagai bat, Euskal Herriko lurraldeen bestelako antolamendu baten bitartez definitu beharra dago. Marko lokala hartu dugu abiagune, oinarritzko integrazio sozialaren egitura gisa: integrazio - eta garapen - proiektu.

tua osatzeko bezainbeste tresnaz hornitu beharra dago egitura hori. Jarduteko markoetako bat den neurrian, herrialdea egokitu behar da berezitasun historikoak bere horretan utzita; aldi berean, plangintza egin, elkarlanean jardun eta elkartasunez aritzeko espazio berri bat sortu ere sortu behar dugu, euskal erakunde nazionalaren eskutik.

Nolanahi ere, EGSE egituratu eta, bide batez, euskal sektore publikoa sortzearen ikuspegitik erronka eta premia ugari ditugu gainean. Estatu espainiar eta frantziarrak adierazitako alor juridikoari loturik doan inertzia administratiboa indargabetu behar da. Eskuduntzak eduki edo ez, martxan jarri behar dugun plangintzaren helburuak hauek izango dira, derrigor: euskal lurralde nazional osoa jasotzea, bidezko plangintzak egitea eta hauek operatibo izan daitezen neurri egokiak hartzea.

#### **3.3.4. Politika sektorialak**

Euskal sektore publikotik aurrekontuaren gastu - eta sarrera - kapituluak gestionatze hutsean ezin gara gelditu. Nazio-erakuntzaren proiektuak aginduta planteatzen ari garen helburuak praktikan jartzeko, askozaz ere jarrera aktibo eta globalagoa hartu behar dugu, bi estrategia osagarriren inguruan: eskuhartzeko tresnak eta politika publikoak.

Politika publikoak martxan hasi daitezen, gizartearen eskakizunak atenditzeko premiazkoak diren helburu eta lehentasunak finkatu behar dira lehenbizi, ekonomiaren plangintza zehaztu eta sakonduz; eta politika sektorialak arazo isolatuak izan ez daitezen ahalgintzea, osotasunezko strategiaren osagaiak baitira.

Besteak beste, euskal Administrazioak gaurtik bertatik premiazu behar ditugu industri politika egokitu, nekazaritza eta elikagaien industriaren garapena sustatu, gure produktuen balioespen sozialaren alde jardun, produkzioaren kalitatea hobetu, lurraldea koherentziaz gestionatu, hainbat alorretako (komunikazioa, kultura, zerbitzu sozio-komunitarioak) azpiegiturak hobetu eta, eskualde eta herri zenbait gara ditzaten.

Eskakizun sozialak asebetetzen dituen etxebizitza-politikaren aurrean sektore publikoak ezin du itsuarenak egin. Euskal gizarteak, euskal gazteriak, ezin jasan dezake zigor iraunkorrik, etxebizitzaren prezio izugarria goraka ari den bitartean. Euskal Administrazioek neurri zorrotzak hartu behar dituzte ohiko lur-espekulazioa eta etxebizitza-gabezia ebitatzeko: babespen sozialeko etxebizitzak (publikoak izan, kooperatiba-erregimenekoak izan, alogerakoak izan, hustutako etxebizitzak izan) altxatzeko, udal lurak ugaltu behar dira.

Politika industrialak. Euskal Administrazioek praktikatu duten politika industrialaren norabide nagusia pentsamolde ultraliberalak adierazi du, politika ekonomikoa ulertzen duen modu ber-berean. Hego Euskal Herriko bi Gobernuen estrategia industrialaren eus-

karriak "bèticoak" dira: enpresarioen ekimena lehenestea, sektore publikoa morroin eta osagarri gisa utzita; atzerriko inbertsioari ateak zabaltzea; eta Euskal Herrian bertakotzat har litekeen politika industrialak garatzeko hartu beharko liratekeen neurriak ez hartzea.

Plangintzarik ez izate horren erruagatik era guztietako industria multinazionalak kokatu dira Euskal Herrian, euskal produkzio-ehunean nolako eragina izango zuten ebaluatu gabe eta behartuko zituzten lan-baldintzak kontuan hartu gabe. Euskal Administrazioek eginiko apustuaren ondorioz gure produkzio-ehunak ez du babesik eta hemengo industriaren lehiakortasuna hobetuko lukeen euskal gune ekonomikorik zehaztu gabe dugu, gainera.

Jarduera horrek euskal produkzio-ehun orekagabea utzi digu, kontsumo-ondasunen sektorea larriki jota; oinarri-oinarrizko sektoreak bertan behera utzi dira; berrikuntza eta teknologiaren garapenaren alde ez da egin (90. etako hamarkadan I+D atalean eginiko gastua %1,51 eta %1,24 artean dagoela, Europar Batasuneko bataz bestekoa %1,8an dabil); euskal enpresen %60-%70ek teknologi maila apaleko produktuetan dihardutenez, prezioetan aritu behar izaten dute lehian.

Nabarmen dezagun, era berean, Hego Euskal Herriko Gobernuek praktikatu duten politika: industria eta zerbitzuetako enpresa publikoak pribatizatzea izan da. Politika industrialeko planek ez dute lortu industriako enplegua altxatzerik hamarkada honetan ere.

"Cluster"-etan apoiatzen den lehiakortasun-programak ere - eskuduntza urriek agindutako mugak gora-behera -, ez ditu helburuak zuzen adierazi: taldeak osatzeko egoitasuna eta estrategia, funtsean, esku pribatuetan utzi duenez, askototan (enpleguaren bizkarretik) enpresa birmoldatzeko politikekin batera doaz.

Datu hauek guztiak kezkarri direla ere, kezka nagusia beste hauxe da: langileak eta sindikatuak - oro har - zeharo bazterrean uztea, onetsitako plangintza industrialen diseinuan, gestioan eta ebaluazioan. Gasteiz eta Iruñeko Administrazioek beren politika industrialak enpresario batzuekin bakarrik kontsultatu izan dute (batzuetan, diru-laguntzen truke).

Euskal sindikalistak, oro har, eta LABekoak bereziki, politika industrialak planifikatu eta ebaluatzeko unean parte hartu nahi du; erabakiak hartzean eta partehartze hori zehaztu eta egonkortzeko beharrezkoak diren lanabes instituzionalak eratu nahi ditu; era berean, gure partehartzea derrigorrezkoa dela aldarrikatu nahi du, urte hauetan maiz egin duenez.

Ezinbestekoa da plan industrial bakarra eratzea Euskal Herri osorako: ekimen publikoa eta pribatua dinamika koherentean integratu, geure burua azpiegituz hornitze-ko estrategia propioak eratu, industriaren eta produktuen dibertsifikazioa aztertu, produk-

tuaren kalitatean, langilearen kualifikazioan eta oreka sektorialean inbertituko duena, monokultibo industrialen morrontzatik kanpoko ekonomia garatu ahal izan dezagun.

Enpresa publiko industrialak, funtsezko elementua izan beharko luke merkatua baino, gizarte beharrak eta ekoizpen ereduaren kohexioa izan daitezten nola halako sektore "helduen" existentzia zuzenduko dutenak, hauen bidez sinergia positiboak garatu daitezten egondako birkonbertsio krisi jarraien zehar galdutako enpleguaren zati bat berreskuratu behar dituen sektore industrial batentzat.

Energi politikaren plan nazionala egituratzea agintzen du politika industrialak, hurrengo elementu nagusietan oin hartuta: gaurkoz energia ondasun urria dela kontzientziatzea (beraz, energia aurreztu behar dela sozialki asumitzea); maila nazional zein lokalean, energia sortzeko ahalmenak guztiz aprobetxatzea; eta, gerorako alternatibagisa, energi iturri berriztagarriak bultzatzeko neurriak hartzea.

Finantza-Sistema. Ederki ezagutzen ditugu Europako moneta bakarrak ekarriko dizkigun berrikuntza handiak eta Europar Batasuna osatzen duten Estatuetan banku zentralak aurrerantzean izango duten eginkizuna.

Europa eraikitzeko modu horren kontrako kritika egin dugu behin baino gehiagotan: finantza-kapitalaren hegemoniaren pean moneta-politikak kontrol politikoari ihes egitea, kapitalaren erabateko liberalizazioa eta espekulaziotik sorturiko kapitalaren kontrolik eza errazten ditu eta.

Berriro diogu Europa horrela eraikitzearen aurka gaudela eta, bide batez, moneta-politikari eta kapitalen mugimendu espekulatzaleei kontrol sozial eta politikoak ezarri behar zaizkiela.

Horrenbestez, Euskal Herriak Euskal Banku Publikoa izan dezan eskatzen dugu: finantza-erakunde horrek gai izan beharko luke Europaren egituraketa ekonomikoan bere ahotsez esku hartzeko, Estatuetakoa bitartekaririk gabe, lurralde nazional honetan geure moduko finantza-politika sustatzeko, euskal aurrezkiaren norabidea zuzenduz eta gure ehun ekonomiko-soziala bultzatzeko eskura dauden finantza-tresna guztiak baliatuz.

Finantza-kapitala eta industri kapitala elkarrengandik geroz eta urrutiago egoteak jarri du produkzio-ehun osoa kasik espekulaziozko irabazi errazak lortzeko nahiaren uztarpean: geure industriaren garapenean euskal finantza-erakundeak askoz ere gehiago inplikatzeke neurriak hartu behar direla agintzen digu errealitate horrek.

Testuinguru territorial horretan, Euskal Banku Publikoa edo Euskal Aurrezki Kutxa sortzearen alde (elkartze-politika egokia gauzatzuz, beharrezkoa balitz) aritzeak balio dezake proposatu ditugun helburuetan aurrera egiteko. Baina Hego Euskal Herriko

Aurrezki Kutxen bateratze-prozesua inongo plan estrategikorik gabe egiten ari da, merkatuko eskakizunei bakarrik erantzuteko: kostuak aurreztea, helburu sozialik edo nazio-erakuntzarik kontuan hartu ordez.

Euskal finantza-sistemaren testuinguruan kokatu, lehenago planteatutako helburuetan oinarritu euskal eta - ordezkaritza eta gobernu-organoen egiazko demokratizazioari esker - inplikaturiko sektore guztien partaidetzaz gorpuztu beharra dago euskal kutxen bateratzea.

Lurralde-antolaketa eta azpiegiturak. Lurraldea ordenatu edo antolatzean, gizarte honen geroaldiko garapenaren oinarriak finkatu eta politika sozioekonomikoaren norabide jakin batetik lurraldea zehazten ari dira. Gure ekinbide sindikalean funtsezkoa izan ez den arren, gai horrek berebiziko garrantzia hartu du egungo egoera soziopolitikoan, funtsezko bi arrazoirengatik: lurralde-antolaketa egundoko lanabesa da herri-eredua oinarritik egituratzeko; eta, bestetik, jarduteko ildo estrategikoak oraintxe ari direlako zehazten eta gauzatzen.

Sektore publikoaren eskuhartze-estrategia bezala, lurraldea planifikatzeko premia onartzea, berez, aurrerapausua da. Adiera horretan, Lurraldea Antolatzeko Ildoak, Lurralde-Plan Partzialak eta sektorialak, printzipioz, planifikaziorako tresna eraginkorrak izan litezke, baldin eta lurraldearen antolamendua osatzen duten elementuak ikuspegi integratuago baten arabera beteko balira plan horiek. Ondasun urri bat (lurra) erabiltzean, planen koordinazio koherentea egitean eta Euskal Herriaren egituraketa sozial eta territoriala gorpuztean, sektoreen arteko oreka egokia lortzea izango litzateke helburua. Horretarako, adostasun sozial handia bildu behar da, planak diseinatu eta betetzeari dagokionez.

Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa litzateke, sektore - eta lurralde - planak eta ildo nagusiak eratzean, eragile sozialek esku hartu behar dutela aitortzea. Beldur gara, ordea, behin betirako onesten ari diren planak (Bilbo Handiko Lurralde-Plan Partziala, Abiadura Handiko Trenaren proiektuan oinarriturik dagoen Trenbideen Sektoreko Lurralde-Plana, Araba Erdialderako Lurralde-Plan Partziala, Itoizko Urtegikoa eta beste batzuk) bestelako irizpideekin ez ote diren egin: nazioarteko merkatuaren balizko bilakakeraren araberrako kanpo-eskakizuna gogoan izanik eta ez, ordea, geure premia eta baliabideetan oinarrituriko garapen endogenoa.

Bide-azpiegiturak, bere aldetik, zerbitzu publikoarekin loturiko eginkizun soziala bete behar dute: erabilera polibalentea eta azpisistema guztien (errepidea, trenbidea) plangintza koherentea. Energiaren kontsumo txikiena lehenesten duen erabilera diseinatu behar da, proposamenen garapenean erakunde lokalak inplikatu eta peaje-politikari amaiera emanaz.

Hau dela eta, euskal trenbide-sistemaz hornitzearen aldeko da LAB; horrela, Euskal Herriko garraiobidearen errealitateak abiatuta, sistemaren gestioa eramango lukeen euskal erakunde bakarra sor liteke: gure lurraldea kanpo zein barnera begira egituratzeko beharrezkoa den azpiegitura garatuko lukeena. Era berean, garraiobide horrek bidaiari eta merkantziak eramango lituzke. Ingurugiroan izan lezakeen eragina gizarteak baloratuko luke eta abiadura kontutan hartu beharreko faktorea izanik ere, ez litzateke bideen taxuera baldintzatzeko bezain garrantzitsua.

Geure baliabide naturalen defentsa proiektuan integraturik antolatu behar da lurraldea. Garapen-eredu iraunkor eta endogenoak eskatzen du, gutxienez, baliabide naturalak (lurra, ura, basoak) zaindu eta gizabidez erabiltzea; ekosistema naturalak sortu eta babestea; arrantza-tresnak arraintokien iraupenari egokitzea; eta energia gutxi kontsumitzen duten garraiobide kolektiboak indartzea.

### **3.4. Elkartasuna Euskal Gune Sozio-Ekonomikoan: hurrengo urteetako funtsezko helburua**

Fase politiko honetan Euskal Herrian hasten ari den prozesu eratzailan euskal hiritarrari zor zaizkion eskubide indibidual eta kolektibo guztiak aitortu behar zaizkio; era berean, ezagutu behar zaio komunitate-izaera bera urratu gabe eskubide horiek ezin ezabatuzkoak dituela.

Eskubide zibilak, politikoak, sozialak eta herrien eskubideak, gizakiaren osotasuneko errealitateari kontsustantzialak dira eta premisa nagusia, era berean, gizabanako hori gizartean integratu eta bertan esku har dezan. Eskubide horiek guztiak aitortu behar zaizkio gizakiari eta praktikan jarri ahal izateko modukoak izan behar dute, gainera.

Eskubide horiek - ekonomi eredu depredatzaileak eta estrategia ultraliberalak bazterrean dituztenak, batik bat: eskubide sozialak, alegia - errealitatean bete ahal izateko, tresna juridiko, politiko eta ekonomiko egokiak eduki behar ditugu.

Egun, euskal hiritarrari zor zaizkion eskubide sozial guztiak honetan labur daitezke: era autonomo eta duinean, gizartean norberari dagokion eginkizuna erabat garatu ahal izateko beharrezkoak diren bizi-baldintza duinak izatea. Bizi-baldintza duin horien ordainetan, herritarrak bere lanaren bitartez jardun behar du, gizartea osatu eta hobetzeko.

Esandako eskubideak aitortu eta praktikan jarri ahal izateko, behar-beharrezkoak ditugu gizartearen adostasun eta mobilizazioa eta, areago, baliabideez hornituriko euskal sektore publikoa egituratzea, demokratikoki gestionatua, garden eta deszentralizatua: hori-

xe kokatu behar dugu politika sozial eta ekonomikoen jardueraren erdigunean.

Sistema ekonomikoaren ebaluazio sozialak ezin saihestuzko test gogorra du aurrean, bere jarduera demokratikoa aintzat hartuko bada. Eskubide horiek bermatzeko bezainbeste baliabide eskura izateko, eskubideak berak errealitate bihurtuko dituzten zerga eta aurrekontu politikak jarri behar dira martxan. Politika soziala ez da zuzendu beharreko produkzio-prozesuaren emaitza; alderantziz, sistema ekonomikoak premia sozialak bete ditzan egin behar den plangintzaren funtsezko parte bat da.

### **3.5. Euskal Osasun Sistema**

Urte hauetan ultraliberalismoak gordinkeriaz eraso die osasun-sistema publikoei, OMCren bitartez iragarritako liberalizazioa dela bide; aurrerantzean multinazionalen borroka egingo dute ikerkuntza eta garapena kontrolatzeko, berariaz produktu biologikoen mesedetan: era horretan, merkatuaren arabera mugitzen den merkantzia izango da gure osasuna.

Edozein herritarri zor zaion oinarrizko eskubideetako bat da osasuna. Produkziozko eta produkzioz kanpoko alor ekonomiko-sozialekiko erlazio dinamiko eta jarraia dutenez, osasun-adierazleetara jotzen da maiz herri baten garapen maila ezagutzeko.

Osasuna aipatzean, politika, ekonomia, kultura... aipatzen da. Ikuspegi horretatik, borroka ideologikoko trintxera modukoa da osasuna: mugaz alde batera pentsakera merkantilistaren aldekoak daude; bestera, osasuna pertsonaren funtsezko eskubidetzat eta, dudarik gabe, funtzio publikoaren arduratzat hartzen dugunok.

Doaneko osasun-sistema unibertsalek gainean duten mehatxua ikusirik, euskal zerbitzuak euskal gizartearen benetako premia eta lehentasunen arabera antolatu, gestio-natu eta finantzatzea ahalbideratuko diguten baliabideez hornitu behar dugula agintzen digute, hainbat faktore kontuan izaki: sexua, demografia, ezaugarri soziolinguistikoak, kultura, etab.

Gizarte-segurantza gestionatzeak osasun-asistentziaren finantzaketa egokia garanti-zatu behar du, euskal herritarren osasun-egoerak eskatzen dituen premia eta lehentasun sozialen arabera; era berean, osasun-zerbitzu eta prestazio publiko eta pribatu guztiak zerbitzu horien artean medikuntza tradizionala zein homologaturiko medikuntza alternatiboak sartuko lirateke egokiro koordinatu behar dira. Organismo eta erakunde pribatuetako osasun-atentzioari dagokionez, kasuan kasuko egiaztapen eta homologazio-araua xedatuko litzateke.

LABen aldarrikatzen dugun osasun-eskubidea errealitatean gauzatu behar da, plangintza estrategiko baten bitartez: euskal gizarte zuzen eta solidarioa lortzeko bidean, gizakia hainbat alderdik -biologikoa, sexuala, psikologikoa eta soziala- osaturiko elementzat joko duen plangintza, alegia erabateko osasun-eredua.

Gaixoari, medikuntza tradizional-ofizialean integraturik, homologaturiko alternatibazko batzuetarako sarbidea eskaintzea aztertuko da Osasun Sektoreko enpresa handien interes ekonomikoen aurrean. Aldez aurretik, osasun -alor horien kreditazio- eta ebaluazio-sistema xedatuko da.

Hitz batez, osasun-sistema publikoa bizkarrezurra izaki, euskal osasun-gunea sortu beharra dago: eskakizun guztiak bete ahal izateko, erakundeen eta asistentzi zerbitzuen arteko koordinazio egokia eskainiko duena. Funtsezkoa da, era berean, heziketa jarraia indartzea, sistemaren premia estrategikoa den neurrian, giza baliabideak etengabeko aurrerakuntza zientifiko-teknikoetara egokitzeko.

### 3.6. Euskal Hezkuntza Sistema

Euskal Herria nazio bat da. Eta nazio guztiek bezala eskubide osoa du, subirotasuna oinarrian, bere egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kultural guztiak finkatzeko. Egitura hauen artean, Hezkuntza Sistemak berebiziko garrantzia du herri baten etorkizuna bermatzeko. Hau dela eta, nazio bezala garatu ahal izateko Euskal Herriak ezinbestekoa du hezkuntza sistema propioaren jabe izatea.

Izan ere, Euskal Hezkuntza Sistema, besteak beste, beharrezko dugu: gure herriaren behar ekonomiko, sozial eta kulturei erantzuteko, euskal identitatea ezagutzeko eta birsortzeko, eta biztanle guztiak kohesionatzeko. Jakina, bakar bakarrik kultur identitate trinko eta propio batetik zabal gaitzke besteetara.

Euskal Hezkuntza Sistemaren berezko ezaugarria da euskalduna izatea, eta honek esan nahi du Euskal Herriarentzat dela, alegia, euskal herritar ororentzat; halaber, beronek euskal gizartearen etengabearen birsortzea izan behar du helburu. Hau dela eta, Hezkuntza Sistemak, besteak beste, bi funtzio bete behar ditu: euskararen bitartez, euskal eleantzenak prestatu eta, euskal kulturaren bitartez, gizarteratu eta euskal kulturantzunak hezitu.

LABen ustez, bada garaia gure herrian Euskal Hezkuntzaren Gunea garatzen hasteko. Berau, zeresanik ez, etorkizuneko Eskola Nazionalaren bidean, urrats garrantzitsua izango litzateke.

Ildo horretatik, azken urteetan, Euskal Hezkuntza Sistemaren garapena bultzatzea deza-

keten estrategiak adostu dira zenbait hezkuntza sektoren artean: sindikatuak, guraso elkarteak, erakundeak, irakasleek zein ikasleek hartutako konpromezuak... Sindikatuak oso positiboki baloratzen ditu ekimen hauek.

LABek Hezkuntzari balio eraldatzailea ematen dio. Hau da, errealitatea hobetzeko eta aldatzeko tresna egokitzat jotzen dugu hezkuntza. Zentzu horretan, jarrera aurrerakoi batetik, besteak beste, bi dira ditugun erronkak: hezkuntza sarbidearen unibertsalizatzea eta ezberdintasuna eta aniztasuna aintzat hartzea.

Izan ere, ezartzen diren irizpide selektiboak gero eta gehiago direnean, hezkuntza sarbidean unibertsalizazioaren aldeko aldarrikapena berrestera beharturik gaude. Argi dugu, unibertsalizazioaren esangura ez dela mugatu behar adin zehatz batera, ez eta hezkuntza maila batera. Birziklatze eta gaurkotze aukerek hezkuntza eskeintza iraunkorra izan behar dute.

Giza, kultural, sexu... aldagai direla eta, gizartean dauden ezberdintasun eta aniztasunaren onartzeak balio behar du, hain zuzen ere, bereizkeriak ezabatzeko. Proposamen hauek, LABek "kuño" berriko irakaskutza publikoaren alde egiten duen defentsa eta apostua zehazten dute.

## 4. Ekintza sindikala, euskal gizarte berria eraikitzeko

### 4.1. Sarrera

Gizartea aldatzeko helburuz, ekintza sindikala garatzeko hamaika ahalegin egin izan dira; adiera horretan, enpleguaren, prekaritatearen eta bazterkuntza sozialaren inguruko diskurtsua eta ekintza sindikaleko dinamika batzuk antolatu ditugu guk, justizia sozial eta elkartasunaren aldeko borrokan euskal sindikalismoa aitzindari jarrita. Egindako ahalegina latza izan dela aitortuta ere, bide luzea dugu oraindik egiteko

Planteatzen ari garen aldaketa soziala hurrengo estrategia osagarrien bitartez egituratu behar dugu:

\* Politika sozialak eratu eta ebaluatzeko garaian, euskal sindikalismoak interlokuzio eta interbentzioan erabateko garrantzia izatea. Euskal prozesu eratzailean legislatzeko eskuduntza osoa eta politika horiek gestionatzeko tresnak irabaz ditzagun, geroz eta indartsuago izango den erreibindikazio-estrategia martxan jartzea. Horretarako, premiazkoa da politika sozialeko plan estrategikoa ituntzea: euskal gizartearen egiazko eskakizunak kontuan izanik, prestazio sozialen euskal sistema publikoa antolatuko luke plan horrek.

\* Euskal sindikalismoa Euskal Langile Mugimendu osoaren erreibindikazioak bateratzeko tresna bihurtzea: bai lan munduan egonkor dauden langileen erreibindikazioak, bai laneko prekarietatea, bazterkuntza soziala edo ordaindu gabeko lan soziala eta antzekoak nozitzen dituzten sektoreenak ere.

\* Mugimendu sindikalak eta mugimendu sozialek elkarlanean eta elkar harturik jarduteko moduko esparrua antolatzea: aniztasunetik, gauza izan beharko dugu geure helburuak lor ditzagun proposamen eta mobilizazio bateratuak egiteko.

Estrategia sindikalak behar-beharrezkoa du sindikatuaren egitura guztietan konkrezioa, alor konfederaletik hasi eta sekzio sindikaleraino, sektore eta lurralde markoetan barrena. Kontzientziazio - eta mobilizazio - kanpainak lantoki guzti-guztietan gauzatu eta zehaztu behar dira.

## **4.2. Enplegu osoko gizartea**

### **4.2.1. Lana eta enplegua**

Lanaren kontzeptua era orokorrean erabili ohi da, harremanetan egonik ere, ezberdinak diren hiru kategoriri erreferentzia egiteko: jarduera (aktibitatea), enplegua, eta lana. Halaber, lanaren kontzeptua soldatapeko lan jarduerari soilik lotu ohi da, enpleguari, alegia; era honetaz ez da aintzat hartzen gizartean burutzen diren gainerako lan motak: lan soziala, bolondresa, eta batez ere, ekonomiaren oinarrietako bat den etxeko lana.

Lanaren esangura zabala eta anitza lan merkatuan egiten den jarduerari, hau da, enpleguari, mugatzeak lanaren murrizketa kontzeptuala ezartzen du eta ondorio baztertzailak ditu. Izan ere, lan merkatuan burutzen ez diren zenbait jarduerari etzaie balio sozial-ekonomikorik aitortzen eta enplegua ez den lanean jarduten duten pertsoneri etzaie langile izaera ematen. Lan merkatutik at egiten den lana, Kontabilitate Sistemetan ez sartzeak, jarduera horietan sortzen

den ondasunaren balorea aintzat ez hartzea, eta gizartearen sektore garrantzitsuek egiten duten ekarpen ekonomikoa enoratzea dakartza.

Era berean, jarduera, enplegua eta lanaren esangura lan merkutilizatuan oinarritzea, batez ere, gizonezkoen gehiengoaren lan egoera aztertzeke baliogarria izan daitekeen bitartean, nekez balio dezake emakumezkoena aztertzeke, zeren eta, alde batetik, euskal emakumezkoen gehiengoa lan merkatutik kanpo baitago, eta bestetik, lan merkaturuan diharduenak, gutxiengoak, etxeko lanaren zama baldintzatzailearen pean dago.

Esan bezala, nagusi diren ikuspegi ofizialek gizartearen ekoizpen jardueraren zati bat baino ez dute islatzen: merkatuaren araupean burutzen den lan jarduera. Baina, era beran, aurretik aipatutakoarekin batera, kontuan izan behar dugu ere, lan merkaturaren bereiztu egiten dela ekonomia formalean - ofizialean - non egiten den jarduerak lansariaz gain, babes prestazioak eratoritzen dituen, eta ekonomia ez formalean - murgilduan - non egiten den lana, kontratu barik, soldata baxuenekin eta prestaziorik gabe izaten den. Gainera, azken hau, hustirakuntza basatiena ahalbidetzen duena, gero eta gehiago hedatzen ari da.

#### **4.2.2. Lanaldia banatu eta enplegua sortzeke politikak**

Langabezia da Euskal Herriak duen arazo larriena. Enplegua sortzea, beraz, mugimendu sindikalaren eta LABen eskakizun-ildoetan elementu nagusia da. Botere ekonomikoek eta patronalak eginiko aldarrikapenak gora-behera, ez batzuek ez besteak dute inongo interesik lanpostuak sortzea helburu duen politika ekonomikoa egituratzeko. Areago, langabezia handia horien klase-interesentzat mesedegarria da: fenomeno hori berebiziko tresna indartsua da langilea zigorpean jarri eta bere soldata eskakizunak beheraka arautzeko.

Neoliberalismoaren errezetak - lan-merkatuaren malgutasunean oinarrituak - erruz aplikatu izan dira nonahi baina enplegu egonkor eta kalitatezkoa sortzea dela eta, porrot egin dute eta, gainera, funtsezkoa den kohesio soziala lortzeko ez dira baliagarriak. Ekonomiaren hazkuntzak, berez, bolada onetan arindu egiten du arazoa baina konpondu ez. Horixe gertatu da urte hauetan: hazkuntza ekonomiko ikusgarriak ez du Euskal Herriko langabezia nabarmenki murriztu.

Panorama horren aurrean, LABek behin eta berriro esan du politika ekonomiko, fiskal, laboralaren eta babespen sozialaren norabidea aldatu beharra dagoela. Egoera sozioekonomiko larri honi konponbideak bilatzeko neurri-mordoska bat planteatu du gure sindikatuak, ELAekin batera. Euskal gehiengo sindikala osatzen dugun sindikatu guztiok onartuak ditugun neurri horiek, zuzenak ez ezik, martxan jartzeko modukoak ere badira, enpresa-ete-kin itzelak, sistemaren produktibitatearen gehikuntza latza eta (Europar Batasuneko herrieta-

ko enpresen aldean) Euskal Herriko enpresek dituzten kostu apalagoak kontuan izaki.

Jakina denez, erreibindikazio nagusiak 1997ko uztailean Lan Harremanen Kontseiluan aurkezturiko enplegu-proposamenean sartu ziren. Gehiengo sindikalak erakutsitako proposamen - eta mobilizazio - ahalmenari esker, lorpen batzuk erdietsi ditugu: aparteko lanorduak desagertzeari buruzko akordioa eta plantilak berriro eta ordezkatzeari buruzkoa, esate baterako. Akordio horiek, zeharo operatibo izan daitezzen, negoziazio kolektiboaren bitartez garatu behar dira, horri buruzko kapituluan adierazi dugun bezala. Gerora begira, ordea, lanaldia murriztea da euskal mugimendu sindikalak duen erronka gorria.

Gure enplegu-proposamenaren funtsa lanaldia murriztea da. Enplegua sortzea eta beste helburu axolazko batzuk betetzea elkarren osagarri dira: bizi - eta lan - baldintzak hobetzea, etxeko lanetan gizonezkoek eta emakumeek berdintasunez aritzeko bidean aurrera egitea edo, arriskuak gutxituz, laneko osasuna hobetzea, adibidez. Gai honek gizarte-erduarekin zerikusi zuzena du, noski: lanaldiaren murrizketa aplikatzeko modua egokia bada, etxeko eta etxez kanpoko bizimodua hobetu daiteke, etxeko lanen banaketa berdintasun handiagoz egin daiteke, aisialdia hobeki gozatu eta kultura sakonagotik bizi daitezke.

Lanaldiaren murrizketari ezetza emateko patronalak ematen dituen argudio ofizialak, funtsez, lehenaldikoen errepikatze hutsa dira, lehiakortasunean oin hartutakoak denak ere: zenbat eta lanaldi laburragoa, orduan eta kostu unitario handiago eta enpresen lehiakortasun eskasagoa. Beraz, enplegua desagertzeko mekanismoa litzateke hori (horrela diote beti CEN eta Confebask patronaletako bozeramaileek). Eskema gezurti horrek funtsezko datu bat isilpean utzi du: sistema ekonomikoaren produktibitatea handiagoa izango da aldakuntza teknologiko eta lan-antolamendu hobeari esker; beraz, lanaldia bere horretan mantenduz gero, produkzio bera ateratzeko edo zerbitzu berdinak emateko geroz eta langile gutxiago behar izaten dira. Industrializazioaren hasieratik, borroka sozial latzetan eta langileen larrutik pagatuz, teknologiaren garapenak lanaldia piskanaka laburragoa izatea ekarri du. Ondorioa garbi dago: produktibitatea hobetzetik datozen irabaziak, kapital-errentak ugaltzera bideratu ordez, enplegua sortzeko lanaldia murriztera zuzendu behar dira.

Beste argudioetako bat: ekonomia "nazioartekotzen" ari den honetan, lanaldia laburtzea enpresen lehiakortasuna eragotziko luke, gurean baino lan-kostu dezente txikiagoak eta lan-merkatu "malguagoak" dituztelako beste herri batzuetan. Argudio horren aurrean, globalizazio ekonomikoaren eragina erlatibizatu behar dugu, truke komertzialen %90 inguru Europar Batasuneko Estatuaren artean egiten direlako. Kontuan izan dezagun euskal enpresetako soldatak eta laneko kostu gehien-gehienak Europako batz bestekoa baino

askoz apalagoak direla. Malgutasun/zurruntasunei dagokienez, hemengo behin-behinekotasuna Europako batez bestekoaren hiru halakoa da, Estatu espainiarreko lan-merkatua malguenetako bat delako. Lanaldia, berriz, Europar Batasunaren erdialdeko herrietakoa baino dezente luzeagoa da. Bistan da: lehiakortasunaren faktore nagusiak soldata eskasak eta lanaldi luzeak balira, Alemania ez litzateke orain den potentzia ekonomikoa.

Alor horretan aurrerapausurik ez da eman Estatu espainiarrean. Lanaldiaz negoziatzeko konpromisoari dagokion 1997ko Lan-Erreformaren Akordioak ezerezean geratu dira. Politikaren alorrean, Espainiako Parlamentuan IU alderdia 35 lanorduko astearen aldeko Lege-Ekimen Herritarra ari da tramitatzen: erabat ezinezkoa izango da aurrera ateratzea, Estatuan maioritario diren talde parlamentarioak horren kontra daude eta.

Koiuntura horretan, enplegua sortzeko baliozkoak izan litezkeen lanaldi-murrizketak jorratzean izaniko zailtasun larriak agertu dira negoziazio kolektiboaren balantzean. Alor horretan hitzarmen kolektiboek duten betekizuna gutxietsi gabe, bistan da berebiziko apustua dugula gainean: eskakizun hori betetzeko, patronalarekin luze eta gogor borrokatu beharko dugu. Borroka, gainera, ez da enpresa eta sektoreetara mugatzen: izaera sozial eta politiko nabarmena dauka.

Martxoaren 21ean izaniko erantzun sindikal bortitza gora-behera, patronalak ez du aldatu bere jarrera. Lanaldia lantokiz lantoki negoziatzea nahiago du patronalak: lanorduen balizko murrizketa, horrela, marko horretan bakarrik itunduko litzateke, beti ere soldata eta bestelako lan-baldintzei loturik. Beste aldetik, enpresako balizko akordioek lehiakortasuna eta lan-kostu unitarioen iraupena errespetatu beharko lukete: horrek esan nahi du enpresa-etekinak ukitu ezinekoak direla eta produktibitate-gehikuntzaren ondorioak ez direla enpleguaren sorreran nabaritzen.

Enpresaren planteamendua baztergarria da, erabat: lehendabizi, LABen ikuspegitik onartezinak diren elementu batzuk jasotzen dituelako (ia ordu guztietan lanean aritzeko prest egotea, lanaldiaren banaketa irregularra eta bestelako malgutze-plegu batzuk). Lanaldiaren arauketan eta horrek enpleguarekin duen erlazioan, oso logika desberdinen arabekoak eta, areago, kontrajarririk doazen bi ildo ikusten ditugu. Batetik, malguketaren aldeko apustua: lanaldiaren antolamendu malguagoa, enpresen produkzio-beharren arabera bakarrik egituratzeko joera duena. Bestetik, lanaldiaren banaketa egin nahi duena.

Zail-zaila (areago: ezinezkoa) da, gure ustez, malgutzeko formulak aplikatuz, kontratu berrien bitartez enplegua sortzeko tarterik uztea. Osotasunean urteko lanaldiaren murrizketa gerta litekeen arren, praktikan produkzio-premiei egokitutako kokapenak neutralizatuko luke murrizketa hori. Enplegu gehiago sortzeko helburukoak ez, baizik

enplegua dutenen lanaldia enpresen premiei era egokituagoan antolatzeakoak diren neurri horiek langileak eta enplegatuak hobeto aprobetxatzea bideratuko lukete. Bistan daude, beraz, lanaldia antolatzeako eredu horren aplikazioaren ondorioak: langileen lanaldintzak eta bizimodua okertu egingo lirateke, pertsona horiek lotuago egongo liratekeelako urtean irregularki banatutako 35 orduko lanaldiarekin asteko 40 orduko lanaldi finkoarekin baino.

Enpresa-planteamendu horrekin bat, arestian hainbat akordio sinatu dira. Izenez "enpleguaren aldekoak" badira ere, euskal mugimendu sindikalaren premia eta eskakizunekin ez datoz bat, inondik inora. Hego Euskal Herrian Nafarroakoaz (baita Galizia eta Kataluinakoaz ere) ari gara. Propagandak "35 orduko lanaldia ezartzeko akordioak" zirela zioen arren, ez dira horrelakorik: enplegua sortuz, lanaldia berriro antolatu eta murriztea dela eta, enpresetan adostu daitezkeen itunak apoiatzeko finantza-mekanismoa ezartzen duten akordioak dira horiek (Nafarroari dagokionez, pizgarri fiskalak dira eta Espainiako Gobernuak dagoeneko errekurtsioa jarria du horien kontra). Azpimarra dezagun kontzertazio-akordio horiek ez dutela arautzen lanaldiaren murrizketa bera, negoziazio kolektiboak alor horretan jarduteko beharrezkoak dituen pizgarriak baizik. Horrenbestez, enpresarioak ez du hartzen inolako konpromiso loteslerik. Horrela, hobeto ulertzen dugu CEN pizgarri horien alde agertzea eta Confebaskek LHKan horrelako zerbait sinatzeko prest azaltzea. Nolanahi ere, bide horrek huts egin duela esan dezakegu orain bertan. EAEn, antzeko edukia duen Dekretua dago oraindik indarrean (Ramon Jauregiren Lan-Kontseilaritzak 1996an sustatua) baina oraindik ez da aplikatu.

Gure proposamena. Egungo euskal erakundeen gobernu - edo parlamentu - ekin-tzak ez du eskuduntzarik lanaldia arautzeko; ez eta - noski - lanaldia murrizteari buruzko Legea egiteko. Gauzak horrela izateak, dena den, ez du esan nahi geldirik egon behar dugunik, lan harremanen euskal guneari dagozkion eskuduntza sozio-laboralak noiz jasoko zain. Sektoreko edo enpresako negoziazio kolektiboaren markoa ere ez da eraginkorra - arau orokor bezala - bertatik funtsezko lanaldi murrizketa egiteko. Kontu hau jorratua dugu negoziazio kolektiboari dagokion atalean.

Alderdien autonomia kolektiboaren markoan, Langileen Estatutuko 83. artikuluko Marko-Akordioa edo Lanbidearteko Akordioa negoziatzea da LABen proposamena, oinarritzko ezaugarri hauekin:

a) Produkzio-sektore eta enpresa guztien lanaldiaren murrizketa inplikatu behar du. Enpresak duen jarreraren (negoziazioa lantokiz lantoki egitea) beste alderako planteamendua egin du LABek: marko-akordioan itundutakoa gutxienez aplikatzea eta, bestetik, errei-

bindikazio-egintza ez mugatzea protesta agertzeko indarririk dagoen enpresetara bakarrik.

b) Eraginkortasun normatiboa izan behar du, lanaldi-murrizketa arautzen duen alderdia zuzenean ere jasoko duena. Lanbidearteko Akordioak lanaldia murrizteko eguna finkatuko du, murrizketa horren aplikazioaren erritmoak eta - enpresaren tamainaren arabera, beharrezkoa balitz - denboran barrenako graduazioa zehaztuz.

c) Lanbideartean finkatutako neurriak nola garatu eta zehaztu behar diren, sektore eta enpresetako negoziazio kolektibora jakinarazi behar dute: esparru honetan hitzartu beharko da lanaldiaren antolamenduari dagokion guztia eta, batez ere, kontratu berriei buruzko konpromisoak. Hitz gutxitan, negoziazio-prozesua hainbat mailatan egituratu behar da, Marko-Akordia den euskarriaren gaineratik, nolana ere.

d) Enpresak laguntzeko, Administrazio Publikoek emango dituzten pizgarri ekonomikoak arautzeko oinarriak finkatu behar dira, lanaldiaren murrizketaren eta antolamendu berriaren ondoriozko enpleguaren sorrera politikoki eta ekonomikoki babestuz.

Euskal botere publikoek, nolana ere, ezin saihestu dezakete enplegu-politikan duten ardura, hau da, ezin dira mugatu patronala eta sindikatuen artean aurretiaz finkatutako akordioen aplikazioa ekonomikoki saritzera. Enplegu-emaile den aldetik, bere enplegatuentzat 35 lanorduko jardunaldia indarrean jartzea exigitzen diogu Administrazio Publikoari, neurri hori sektore pribatuan eredu eta pizgarri izan dadin.

#### **4.2.3. Enplegu Batzorde Lokalak**

Enplegu batzorde lokalak, enplegua sortu eta herri mailako garapen politikak zehazteko lanabes egokiak dira: udal zerbitzu sozialak ugaltzea, naturaren zaintza, kultura - edo kirol - azpiegiturak, energia alternatiboak eta beste askori ateak zabaltzeko.

Helburu horiek lortzeko nahitaezkoa da enplegu-batzorde lokalari udal aurrekontuan atal bat eskaintzea, goian esandako alorretan ekimen publikoak, sozialak eta kooperatiboak sortu eta martxan jarri ahal izateko.

Jarduerari dagokionez, batzordeok ezin dira alderdi politikoen kontrolpeko udalaren luzapen hutsa izan, gure ustez: aitzitik, gizarteak eta sindikatuek eskuhartzea, eta bazterkuntza sozial eta langabeziaren ondorioak larriki nozitzen dituztenekin etengabe harremanetan egotea ezinbestekoa da.

Beharrezkoa da, beraz, enplegu-batzorde lokaletan gure eskuhartzea koordinatzea eta, bide batez, batzorde horiek bizkortzeko moduko gogoeta eta jarduteko planak martxan jartzea.

### 4.3. Enplegu egonkor eta kalitadeduna

Gizarte batek nolako politika ekonomikoa aukeratu duen zehazki adierazten dute lan-indarraren balorazioak eta egonkortasunak: lan-baldintzen eta soldata urrien desregulazioaren bitarteko ekonomia lehiakorra edo, bestela, aniztasunean, produktuaren kalitatean eta lan-indarraren kualifikazioan oinarritutako ekonomia.

Lan-prekarietatearen kontrako borroka eta, horrenbestez, lan-indarraren kualifikazioa eta egonkortasuna eskatzea ez da erreibindikazio sindikal hutsa: alderantziz, nazioartean euskal produkzio-eredu kohesionatu eta egonkorragoa gorpuzteko aukerarik errealistena da.

Sistema kapitalistaren obsesioa (ahalik eta lasterren etekin handiena ateratzea) atzean utzirik, egungo abagunean sozialki eraginkorra izango den ekonomi ereduak ekarri behar dugu: bertan, plantatzen dugun produkzio-ereduaren aitzindari izango den sektore publiko ahaltsuak eta jarduera pribatuak elkarrekin bizi beharko dute.

Lanaldiaren murrizketa eta berrantolamendua enpleguaren prekarietatea mantentzean edo lan baldintzen okertzean oinarritzea ere gaitzetsi egiten dugu. Hori ezin da justifikatu, ezta lanpostuak sortzeko promes enpresarialaren truke ere. Gure helburua argi eta garbi dago: enplegu egonkorra sortzeko politika eragileak, lan-indarra kualifikatzea eta lana zein aberastasuna banatzea.

#### 4.3.1. Lanbide Heziketa

LABen ikuspegitik, titulu baliagarri edo alferrikakoak banatzen dituzten erakundeek antolatutako birziklaia hutsa baino askozaz ere gehiago da lanbide-heziketa. Euskal produkzio-ehuna garatzeko, lan-harremanak demokratizatzeke eta prekarietate eta bazterkuntza sozialaren kontra borrokatzeke, funtsezko balio erantsia den aldetik, lanbide heziketaren izaera estrategikoa azpimarratzen dugu LABen.

Beraz, lanbide heziketaren euskal plana eratzea eskatzen dugu: eragile sozial eta sindikalekin negoziatuko den plan horrek Euskal Herrian Lanbide Heziketa arautzeko baliabideez eta atalen arteko kohesioez hornitu behar gaitu.

Lanbide heziketa jarraian eta sistemaren helburu diren neurrian, lanpostuak mantentzea, lanbide promozioa sustatzea, aukeren berdintasuna, lan harremanak eta produkzio ehuna euskalduntzea eta Heziketa Jarraia sindikalizatzea exigitzen ditugu.

Helburu horiek hurrengoan bitartez gauzatu behar dira:

\* EAerako Lanbidearteko Akordioan adierazi ziren helburuak lortzea ahalbidertuko duten heziketa-politikak aplikatu eta bestelako bitartekoak baliatzea. Era berean,

Nafarroan Lanbide-Heziketa Jarraia garatuko duten akordioak hartzeko agertoki aproposa Nafarroan bertan antola dezagun beste bultzada sindikal bat ematea.

\* Lanpostuarekin eta lanbidearekin bat etorriko den eta bertan euskarri izango duen eskakizunaren araberrako prestakuntza.

\* Adierazitako helburuak lortzea erraztuko duten tresnak eskuratzea: zentroen homologazioa eta diagnostikoa, besteak beste. Zeinahi heziketa-planek ezinbesteko oinarritzat hartu behar lukeela, diagnostikoak bermatuko du eskakizunen araberrako prestakuntza izatea; zentroak homologatzeari esker, berriz, prestakuntza horren kalitatea garantizatu ahal izango da.

\* Aukeren berdintasuna eskakizun testimonial izatetik egiazko praktika bihurtu beharra dago. Horretarako, lan-munduan gertatzen diren hamaikatxo diskriminazio-egoe-rak (sexuagatik, hizkuntzagatik, adinagatik, etab) gainditzeko heziketa-estrategiak xedatzea premiazkoa dugu.

EAEko Lanbide-Heziketaren Planarekin erabat konforme ez gauden arren, LABen ikuspuntutik elementu onuragarriak ditu Plan horrek, goian esandako tresnak finkatzeko (Lanbide Heziketako hiru azpisistemak integratzea edota lanbide kualifikazioen sistema eta behategia martxan jartzea, adibidez); horrek, langileek parte hartzen duten prestakuntzazko egintzak aintzat eta halakotzat hartzea ondorioztatuko du eta, era berean, Heziketa Jarraian esku hartzeko pizgarri gisa balioko du.

Lanbide-Heziketa Jarraiaren sindikalizazioa dugu lan-plangintzan garatu beharreko beste helburuetako bat. Bide horretan urrats batzuk eman baditugu ere (halaxe egiaztatzen dute kontsultek), lanean segi behar dugu, LHJaren planifikazioan eta ebaluazioan langileak gehiago inplika daitezten.

Atal honi bukaera emateko, EAEn Hobetuz agertu izana onuragarritzat jotzen dugu eta LHJan erreferente bakarra izaten jarrai dezan espero dugu: bestelako eduki eta estrategiak izango dituen, hementxe zehaztu den moduan, eta gure esparruan Forcem-ekin koinzidituko ez duena, hain zuzen ere. Bistan da UGT eta CCOOen estrategia planteamenduhonez beste alderakoa dela, Confebask akordioaren alde dagoela baina Forcemek bezalatsu funtzionatzea gustatuko litzaiokeela, eta EAEko Administrazioaren jarrera nahasiegi eta ambiguoegia dela, Hobetuzen finkatze-prozesuaren fase honi ez dagokiona.

#### **4.3.2. Lan Osasuna**

Gure IV. Biltzar Nagusiaren ondorio gisa, LABen Lan Osasun eta Ekologiaren Gabinetea sortu genuen, lanpostuetan gure osasunaren alde jarduten hasteko helburuarekin. Lau urte pasata, Sindikatuan lan osasunari dagozkion arazoan jorraketa dezente igo

dela pentsatzen dugu.

Azken bi Biltzar Nagusien arteko aldi honetan lan baldintzen hondamen nabaria gertatu da. Hondamen horretan eragin handia dute kontratazioko prekarietateak, produktzioaren deszentralizazioak, esplotazioaren ugalketak eta lan erritmoek.

Lantegietako osasunaren bilakaera negatibo horrez beste aldera, bizi - eta lan - baldintza hobeen eskakizunean sekula bezain indartsu ari dira langileak, ekintza sindikalari, prestakuntzari eta biziarekin ordaindu diren laneko istripuen ondoriozko mobilizazio eta salaketei esker.

Lan osasunaren arazoa larria da, ordea: Biltzar Nagusi honetan ere beste bultzada bat eman behar zaio ekintza sindikalari, lan baldintza duinak garantizatu ahal izateko. Gure estrategia honetan aurrerapausuak eginez, martxan jarritako prebentzio-planen jarraipena egin beharko dugu, eta martxan jarri ez direnak salatu; siniestrabilitatea dela eta, mobilizazio - eta salaketa - dinamikak bizkortu; eta higiene, ergonomia eta lan-antolamenduari dagozkion arrisku eta erasoak atzeman eta horien kontra gogor jardun.

Lan osasunaren estrategian ditugun berehalako helburuak hurrengoak dira, beraz:

Erakunde osoak eztabaidatutako ildo estrategiko bat ezartzea erakunde mailan, sindikatuak maila publiko eta instituzionealean izango duen eskuartzea definitzeko.

Horri esker, euren Osasuna defendatzeko interesa gure sindikatuarekin identifikatuko dute langileek.

\* OSALAN EAEn eta I.N.S.L. Nafarroan garatzea eta, Hego Euskal Herriko lan osasun alorreko jarduerak koordinatzeko estrategia eratzea.

\* Euskal markoan Lan Osasunaren Fundazioa sortzea, jaio berri den fundazio estatalak dauzkan eskuduntza guztiak izango dituen edo, bestela, OSALAN eta I.N.S.L. an eskuduntza horiek integratzea.

\* LABeko tresna sindikal eta teknikoak egokitzea, gure eskuhartze-estrukturen, delegatuen eta afiliatuen ekintza sindikala asesoratzeko.

\* Lan osasunaz arduratzeko eredu propioa sustatzea: horren ardatz nagusia prebentzioan oinarritutako osasun sistema publiko, bakar, integrala izango da, enpresan jarduteko ahalmena izango duena.

\* Lan Harremanen Euskal Gunea, lan osasunaosatzen duten alderdi guztiak sustatu, kontrolatu eta zigortzeko, eta legeztatzeko ahalmen osoaz hornitzea.

## **4.4. Euskal gizartearen elkartasunezko eredia**

### **4.4.1. Aberastasun banaketa. Soldata soziala**

Harreman merkantiletik kanpoko jarduera sozial baliagarriak (etxeke lanak, adibidez) kontuan hartu beharrekoak dira, lan banaketaz aritzean. Lana eta enplegua nahasteak emakume gehienek morrontza bere horretan mantentzeko balio du eta, gainera, egiazko arazoa enfokatzea galarazi egiten digu: lan banaketa bera bai, baina produktu sozialaren banaketa da benetako muina.

Lan banaketa eskatzen dugun bezala, aberastasun banaketa ere exigitzen dugu. Banaketa hori zuzena izan dadin, kapital errentak zamatzeko neurri fiskalak hartu behar dira. Oraingo kezka larriena ez da aberastasuna sortzea, justiziaz banatzea baizik.

Garapen ereduak, lanaldiaren murrizketa errazteaz gainera, gizarteko kideari (bestelako diru-sarrerarik ez badu ere) duintasunez bizi ahal izateko moduko soldata edo ordainketa unibertsala garantizatu behar dio.

Soldata sozialak, enplegua sortu eta lana banatzeko estrategiaren osagarri den aldetik, bazterturiko pertsonen kohesio soziala sortu eta soldatapeko pertsona eta patronalaren arteko indar-erlazioa aldatzen laguntzen du, aberastasun banakuntza ekitatiboago baten mesedetan. Lan prekarietatearen kontrako borrokan tresna eraginkorra da eta, logika ekonomikoaren aurrean, logika sozial eta politikoa indartzen du.

Enplegu ordaindua izaterik ez dagoenean, bizimodu duina garantizatuko duen diru-sarrera edukitzeko eskubide indibidual den neurrian, soldata soziala edo oinarrizko errenta jasotzearen aldeko jarrera du LABek.

Era berean, EAEko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan Eskubide Sozialen Karta onestearen aldeko gara; horretarako aurrekontu-atalak zabaltzearen aldeko; eskubide horren sujetuak zehaztearen aldeko; lanbidearteko gutxieneko soldata (LGS = SMI) baino txikiagoak inondik ere izango ez diren muntak zehaztearen aldeko; eta ondo-riozko zerga-politika moldatzearen aldeko gara LABen.

Proposamen hauek negoziatzeak ez du salbo uzten euskal Administrazioa: premia larriz neurriak hartu behar dituzte hauek, Hego Euskal Herrian babes sozialari eskaintzen zaion (BPGaren %7a baino gutxiago) kopurua Europako batz bestekora hurbiltzeko.

Euskal markoan politika sozial eraginkorra aplikatzeko beharrezkoak diren legez-tatzeko eskuduntza osoa eta baliabideak exigitu behar dituzte euskal erakundeek.

Egiten dugun proposamena praktikan jarri ahal izateko behar-beharrezkoa da mobilizazio sozial handia eragitea, soldata soziala lortzea galarazten duten erresistentzia politiko eta instituzionalei aurre egiteko. Dena den, argi eduki behar dugu prestazio hori

ez dela bazterkuntzaren betirako prezioa. Prestazio sozialen euskal sistema publiko baten osagaietako bat izan behar du soldata sozialak, eta herritar guztiek dute hori jasotzeko eskubidea.

#### 4.4.2. Prestazio eta zerbitzu sozialak

Herrialde garatuenetan, babes sozialaren parte dira gizarte-segurantzako sistematik. Babes sozialaren barnean daude: osasun-asistentzia, soldataren ordezkotako prestazio ekonomikoak, langabeziagatiko prestazioak, zerbitzu sozialak, familia, ezinduen, zaharren eta sistema kapitalistak bazterturiko beste sektore batzuen babesa.

Gizarte-segurantzak banakuntza unibertsaleko sistema izan behar du, publikoa, erabat demokratikoa eta partaidetzakoa. Prestazioen unibertsalizazioa eta zerbitzu sozialak garantizatuko dituen euskal gizarte-segurantzaren sistema egituratzearekin batera, erreforma fiskal aurrerakoa eta gastu publiko redistributiboaren banakuntza jarri behar dira martxan.

Babes publiko hori (BPGrekin konparatuta) Europar Batasuneko herrialdeetako batz bestekoa baino dezente apalagoa da Hego Euskal Herrian. Ondorioz, gastu sozialari dagokionez, Europar Batasuneko batz bestekora iristeko, babes sozialaren aurrekontuetako atalak 7 puntutan igo behar dira, premia larriz igo ere. Babes sozialaren finantziarioa ugalduta beharra dago, bertako prestazio ekonomiko, sanitario eta sozialen kopurua eta kalitatea hobek izan daitezkeen.

Oraingoa ez bezalako finantziario-eredua lortu beharra dago. Aspaldi honetan (1995eko Toledoko Itunaz geroztik, batik bat), babes sozialeko sistemaren finantziario-iturriak bereiztearen aldeko tesia indartzen ari da: horren arabera, kotizaziozko prestazioak langileen eta enpresarioen kotizazioekin ordaintzen diren bitartean, kotizazio gabeko babesgintza (osasun-asistentzia, zerbitzu sozialak, kotizazio gabeko pentsioak, gutxienean osagarriak eta seme-alabengatiko asignazioak) aurrekontu orokorretatik finantziatzen da. Eskema horren sakoneko jarrerarekin LAB ez dator bat. Bi finantzabideak bata bestetik bereizteak elkartasuna mugatzen du kotizatu gabeko alorrera, zergen bitartez finantziatzen den horretara. Kotizazioz bitartekoa, berriz, kotizazio sozialekin bakarrik finantziatu beharra dago, nahitaez. Horrelaxe ulertzen dira Gizarte Segurantzaren "defizit" haren iruzurrezko argudioaren oinarriak.

Gaur egun kotizazio sozialak eszedentarioak dira, egia da hori; baina, lan-merkatuan eragina duten biztanleri piramidearen eta bestelako aldakinen bilakaera ikusita, baliteke aurki kotizazio horiek aski ez izatea. Esan dugun finantza-bereizketaren printzipioa onartuko balitz,

gaur jaso nahi izan ez ditugun aurrekontu-transferentzia horiek bihar eskatzeko legitimitate politiko eta moralik ez genuke izango. Patronala eta botere ekonomikoak hasi dira kotizazioen murrizketa latza exigitzen, argudio xelebrea erakutsiz (oraingo margena nahikoa da eta, kotizazioen munta jaitsi ahala, enplegu gehiago sortuko da) eta murrizketa horren aldeko iritzia sortuz. Baina, dakigula, murrizketaren ondorio bakarra, enpresen lan kostuak jaitea eta irabaziak areagotzea litzateke.

Ezagutzen dugun finantziario-ereduak - lana faktorearen erabileraren gaineko kotizazioetan oinarritua, eta lanekuaren intentsitatea zigortzen duena - aberastasuna bestela banatzeko balio ez badu (abertasun birbanatzaile ez bada), enpresek sorturiko balio erantsitik hasita kotizazio batean oinarrituko den eredia lortu beharko dugu, zerga-zama edo karga inpositiboa erabilitako produkzio-balore guztien artean banatu dadin.

Elkartasun sozialaren alde gaudela eta babes sozialaren sistema osotasunezko ikuspegitik begiratuta, beharrezko balitz, kotizaziozko pentsioak zerga orokorretatik ordaintzeko unean eragozpenik ez da topatu behar. Modu berean, behar bezainbeste edo soberako kotizazio sozial dagoela, kotizatu gabeko atala ere horiekin finantziatu ahal izan dadin.

Euskal sistema publikoak benetako babes soziala garantizatu behar du eta, gainera, gestioan sindikatuek eta herritarrek parte har dezaten exigitu behar du, bai jarduteko irizpideak eta aurrekontuak finkatzeko unean, bai exekuzioa benetan kontrolatzeko garaian ere.

Zuzeneko zerbitzu sozialak ugaltu eta hobetu egin behar dira: prekaritate eta bazterkuntza sozialaren ondorio larrienak nozitu ez ezik, bazterkuntza geroz eta gordinago jasaten ari diren kolektiboei (pensionistak, ezinduak, gazteak, etorkinak, emakumeak, etab.) zuzendutako integrazio sozialeko programa eraginkorrak garatuz; desmaila indibidualeko egoerak konpontzeko - baina desmaila bere horretan mantentzen duten - egintza indibidualetan oinarritutako politika sozialetik, berdintasuna eta elkartasuna indartuko duen politika sozialera pasatzeko oinarriak finkatuko dituzten zerbitzu sozialak, alegia.

#### **4.4.3. Giza bazterketa eta Ekintza Sindikala**

Ideologia neoliberalak ahalegindu da ideia kurioso bat zabaltzen: enplegurik ez duen pertsona, nozitzen duen bazterketaren erruduna da. Bazterketa, ordea, ez da aukera pertsonal baten ondorioa: balio eskala, gizarte antolakuntza eta sistemak indarrez ezarritako produkzio erlazio jakin batzuen eraginez sortzen da, diru-metaketa logika aberastasun banaketaren gainetik hobesten denean.

Pertsona lan merkatutik kanpo geratzean isolaturik ere gelditzen da, harremanak

urritu egiten ditu eta motibazio gutxiago ditu, azkenean zergatik eta zertarako bizi den erantzuten ez asmatzeraino iritsita. Gizartearekin zuen lokarririk sendoena (ordaindutako lana) desagertzean, gizarte horrexek beste alor kolektibo askotan ere parte hartzeko gaitasuna ukatzen dio langabetuari; beraz, pertsona baldintzaturik dago, bere partehartzean eta bere erreibindikazio gaitasunean.

Egoera horretan, antolatzeke aukerak urritu egiten zaizkie gizarteko talderik ahulen eta zigortuenei, batik bat: asistentzi zerbitzuen morroi gelditzen dira, bizirik irautea lehen helburua dute eta. Beste pertsonak kolaboratu nahi ez izatearren eta pertsona hori produkzio sistemari egokitu ezin izatearren, bazterturiko gizaki horiengan defentsarik eta gaitasunik ezaren sentazioa nagusitzen da, piskanaka; egoera horren bukaeran morrontza dago beti.

Bazterkeriaren kontrako borrokak, herritar guztiok parte hartzea agintzen digu, bazterturiko pertsonak gizartean integratzea lortzeko; halaz ere, elementurik garrantzitsuen beste bat izango da: baztertutako gizaki horrek parte hartu behar du bere buruaren bergizarteratze-prozesuaren zehaztapenean eta garapenean, ezinbestez.

Beste alde batetik, LAB-Langabetuak arloa antolatzean bizi izan dugun eskarmen-tua ikusirik, ondorio garbi bat atera dugu: hasieran, arlo horren sorreran sentitu genituen asmo eta gogoak ez zirela oso zehatzak eta, beharrezko antolamenduari dagozkion ekin-tza sindikaleko kontuengatik eta bestelako arazo objetiboengatik, ez dugula asmatu.

Horrenbestez, LABetik hurrengo planteatzen dugu: bazterturiko pertsonen kolektiboaren partehartzea eta kapazitazioa garatzea; giza bazterketaren kontrako borroka, lehen mailako estrategia sindikaltzat asumitzea; eta, hirugarrenik, bazterturik dauden, prekarizatuta dabiltzan eta lan merkatuarekin harreman egonkorra duten langileek osatuko duten erreibindikazio espazio zabala sortzea.

Ahaleginak egin behar ditugu bazterturiko pertsonak kalitatezko zerbitzuak jasotzeko eskubidea dutela kontziente izan daitezen; horri buruzko erantzunak exigitu eta jasotzeko aukera izan dezaten eta, noski, behar bezala antolatzeke premiazkoa den konfidantza eta nortasunaren jabe izan daitezen. Kontuan hartu behar dugu bazterturiko pertsonak osatzen dituzten talde guztiak ez direla homogeenak eta, beraz, kasuan kasuko berezitasunak jorratu behar ditugula.

Helburu horiek lortzeko hurrengo hiru eskuhartze-atalak aurkeztuko ditugu:

- Adin, sexu, arraza, jatorri eta sexu-orientazioagatiko diskriminazioaren kontra borrokan ari diren mugimendu sozialekin estrategiak koordinatu behar ditugu. Gizarte honetan horren ahortzi eta presente dugun inmigranteen problematikari dagokionez, Sindikatuak erantzuna emateko gauza izan behar du. Gizarte honetan horren ahortzi eta

presente dugun inmigranteen problematikari dagokionez, Sindikatuak erantzuna emateko gauza izan behar du.

- Gure dinamika sindikal konfederalean, sektorialean, territorialean eta lantokikoan, lan-prekarietatearen, gehiegizko lanaldien, azpikontratazioen, ABLEen eta abarren kontrako erreibindikazioak jasotzea, eta lan baldintza horiek nozitzen dituzten pertsonak gure ohiko marko organizatiboetan integratzea.

- Ekintza sozial eta sindikaleko estrategia homogeinizatzea bazterketa munduko gure afiliazioarekin; horretarako, egokienak diren antolamendu tresnak eskuratu eta erabili behar ditugu.

## 5. Ekintza Sindikalaren eredua

### 5.1. Ezaugarri orokorrak

Gure estrategia sindikalaren funtsezko ezaugarriak aurreko kapituluetan agertu ditugu. Helburu horiek erdiesteko, hurrengo urteetan LABen ekintza sindikalaren eredua zehaztuko duten oinarritzko elementuak adieraziko ditugu ondoren.

Alor honetan ditugun asmoak hitz gutxitan bildu beharko bagenitu, gure ekintza sindikalaren ereduaren oinarrian elkarren osagarri diren hiru estrategia daudela esango genuke.

**Ekintza sindikal erreibindikatzalea.** Ez dugu onartzen, ez orain dugun garapen ekonomikoaren eredua, ezta -kapitalak aginduta - lan indarra merkantzia huts bezala tratatzea ere. Aberastasuna banatzeko mekanismoa justiziaz kontrakoa da. Onartezina da sindikalismoa euskal langileengan eragina duten funtsezko erabakietatik kanpo uztea. Horregatik da gure ekintza sindikala ERREIBINDIKATZAILEA: ezarritako ordenua hankaz gora jartzea, gauzen egoera hau errutik aldatzea du helburu, euskal langile mugimenduen interesak tinko defendatzeko; mobilizazioa eta proposamena negoziazioarekin tartekatatu eta osatzeko egokia izango da gure eredua.

**Ekintza sindikal solidarioa,** hitzaren esanahi sakonean. Euskal Langile Mugimendu osoak nozitzen duen prekariedade eta bazterkuntza sozialaren aurka, solidarioa; prekariedade eta bazterkuntza soziala, mugimendu sindikala mugiezin uzteko patronalak erabiltzen dituen armak direlako. Aparteko lanorduen, azpikontratazioaren, sexu -edo adin - arrazoiengatiko diskriminazioaren kontra eta aberastasuna banatu eta enplegua sortzeko politika aktiboen alde borrokatzean, lantokiz lantoki, negoziazio kolektibo sektorialean eta jarduera konfederaletan gorpuzten da elkartasun hori.

**Ekintza sindikal oinarrikoa.** Estrategia konfederala ezinbestekoa bada ere, ondo dakigu ekintza sindikalaren etorkizuna geure ekintza sindikala lantokiraino iritsi eta bertan sustatzean datza, fabrikan bertan ere indartsu izan gaitezen. Marxen jarrera hura ere asumitzen dugu: enpresan ez dira merkantziak bakarrik produzitzen: langileak ere ugaltu eta hezitzen dira eta esplotazio-baldintzak perpetuatu egiten dira.

Propaganda kanpainetan esaten dugunaren eta lantokian egin behar dugunaren

arteko inplikazio koherentea lortzeko ahalegin handia eskatzen du ekintza sindikalak. Eskatzen dugun aldaketa ez da egingo oinarriko sindikalismorik gabe, gure estrategia sindikala landu, osatu eta ebaluazioan afiliatuak inplikatu gabe, prekarietatearen, emakumeek eta gazteek lanpostua hartzeko jasaten duten diskriminazioaren eta lan-baldintzen, aparte-ko lanorduen edota azpikontratazioaren kontrako estrategia zehatzak planifikatu gabe.

Gure ekintza sindikal oinarriko beste egitura Herri Biltzarra da, lantokitik harago zabaltzen dena eta jarduera sindikalari osotasuna ematen diona. Langileak, bai lan merkatuan daudenak zein kanpo daudenak, hala egonkorrak nola aldi batekoak, azken finean egun langileria zatikatuta dagoen talde guztiak bizi diren herrietan eta eskualdeetan bertan ekintza sindikala garatzeak gure helburu soziopolitikoei sinisgarritasuna eta erakargarritasuna emango dizkie, garai hauetan bizi garen egoerarekin kritikoak diren giza taldeak antolatzen ditugarik.

Planteatzen ari garen ekintza sindikala lortzeko, tresna egokiak eskuratu beharko ditugu.

Sindikatuak, euskal langileen zerbitzurako tresna. Askotan egin izan ditugu honelako gogoetak eta gure balorazioa antzekoa izan da beti: erakundea bera ez da helburua, euskal langile mugimenduaren zerbitzurako tresna baizik.

Euskal langileen interesak defendatzea da Sindikatu honen helburu nagusia. Horrek eskatzen du sindikatuaren egiturak eta afiliatu eta lantokien arteko harreman jarrai eta planifikatua eratzea; afiliatuen kopurua ugaltzea; eta formakuntza eta aholkularitza sindikaleko politika egokia garatzea.

Sindikatuak, lan-harremanak demokratizatzeko tresna. Aurreko Biltzar Nagusian genion demokraziak sekula ez duela zeharkatu enpresako atea eta lantokien barruan langileen esplotazioa sistematizatu egiten dela. Geure ereduan ez dugu amore eman, ez dugu nahi gauzek horrela segitzetik: gure jarrera tinko eta erreibindikatzailari eutsita, ekintza sindikalak enpresaren funtsezko erabakien (estrategia enpresarialak, kontratazio politika, etekinen banaketa eta lan baldintzak, besteak beste) berri jaso eta horietan esku hartzeko, informazioa eskatu, bildu, eta partaide jokatu behar dugula planteatzen dugu.

Bistan denez, esplotazio huts eta gordinean, lan indarraren deskualifikazioan, lan harremanen desregulazioan, lan segurantziaz ezean edo sindikatuen kontrako pertsekuzioan oinarritutako enpresa panorama honetan ezin bete daiteke gure ekintza sindikalaren erreibindikazio hori.

Egunoa - enpresaren antolamendua enpresarioaren eskuetan bakarrik uztean oinarritua - baino askozaz ere zuzenagoa, integratuagoa, partaidetza handiagokoa izango den eredu berriaren egituraketa bideratzeko, Euskal Herrian lan harremanen aldaketa

bultzatzeko, prest gaude.

Formakuntza sindikala, kualifikaziora iristeko estrategia. Bistan da ekintza sindikal hori praktikan jarriko bada, gure Sindikatuak militanteak prestatu eta trebatzeko plan estrategikoa antolatu behar duela; militante horien eskakizunei erantzuna emango dien prestakuntza planifikatu behar du. Baina plan horren oinarrian, afiliatu guzti-guztiek gogoia ipini behar dute.

Erresistentzi Kutxa: borroka eta erresistentziako elkartasunezko estrategia. Ponentzia honetan zehar planteatzen dugun ekintza sindikalaren erredua errealitatean gorputzeko, alor konfederalean, sektorialean eta enpresan bertan presio sindikala eta estrategia konfederala tartekatu eta bata bestearekin osatzea nahitaezkoa izango dugu. Estrategia hori planifikatu eta presio-helburuak aukeratu beharko ditugu: kontu horretan, LABen erresistentzi kutxa sortzea lagungarri izan liteke. Egin beharreko proposamen hau ez da historikoki gatazka zehatzetan era bateratuan kaltetuekin elkartasun ekonomikoa eskatzeko xedearekin sortu eta bultzatu ditugun erresistentzi kutxekin kontraesankorra izango.

Horrela bada, gure estrategia sindikala indartzeko lanabes den aldetik, LABeko Erresistentzi Kutxari buruzko proposamen zehatza egiteko egokitasuna aztertuko dugu.

## **5.2. Euskal Langile Mugimendua egituratzeko ekintza sindikala**

Estrategia sindikal bakarrean, kolektibo isolatuetan sakabanaturik - baita, askotan, elkarren aurka - dauden langileak bildu eta egituratzea da LABen ekintza sindikalaren helburuetako bat. Lan-merkatuan duten kontratu-harremanaren bidez elkarrengandik apartatutako langileak, langabetuak, sasi-autonomoak, kooperatibistak, pentsionistak... talde adierazgarri horiei LABek erantzuna eman behar die, denek bateginik ekintza sindikalean esku har dezaten.

Euskal Langile Mugimenduaren batasuna egituratzeko osotasunezko strategiaren bitartez, sektorean sektoreko erreibindikazio zehatzak biltzeko topagunea izan behar du LABek, eskakizun horiek bere eginez eta beharrezkoak diren antolamenduzko tresnak ezarrita. Aurreko Biltzar Nagusian Gazte, Emakume eta Langabetuen arloak martxan jartzea erabaki genuen moduan, oraingo honetan LAB Pentsiodunak antolatzea deliberatu dugu, herri-tar horien eskakizunak gure estrategia sindikalaren barnean sartzeko.

Helburu horrexekin, hamaikatxo sasi-autonomo sortzeko motiboa den lan-prekarietateari erantzuna eman behar dio LABek. Prekarietatea eta bazterkuntza soziala galarazten ahalegintzen garen kemen berarekin eragotzi behar dugu lan-azpikategoria horren ugalka-

ta, bai alor konfederaletik, bai enpresa eta lantokietatik, baita inmigrante kolektiboari ere.

Ohiko lan merkatuarekin loturarik ez duten langile autonomoek osatutako sektore horren gainerako zatiari buruz ere gogoeta egin beharra dago gure ekintza sindikaletik, sektore horretako langileekin eta gune horretan sortzen ari diren erakundeekin topaketak egin eta erreibindikazio estrategiak koordina ditzagun.

### **5.3. Negoziazio Kolektiboa, estrategia**

Lan baldintzak kolektiboki erregulatu, beste eskubide batzuek lortu, langile guztien arteko elkartasuna sendotu, partehartzeko gaitasuna indartu eta - afiliatuak ugalduz eta ordezkariak finkatuz - sindikatua bera bizkortzeko, lanabes nagusi eta ordezkariak ditugu hitzarmen kolektiboak: hauek dira (hauek izan behar dute, hobe esateko) soldatapeko langilearen egiazko erreferentzia hainbat kontutan: lanaldia, soldata, lan osasuna, lanbide kalifikazioa eta beste askotan. Lan eskubideak zabaltzeko tresna dira, hitz batez, eskubide horien edukia handitu eta hobetzeko.

Negoiazio kolektiboaren alorrean eragina duten neoliberalismoaren politika ekonomiko, sozial eta laboralen aplikazioaren ondoriozko joerei dagokienez, hurrengoak azpimarratuko ditugu: garantia sozial eta laboralak murrizteko presioa egitea; produkzio ehu-nean aldaketak egitea; produkzioa deszentralizatzea eta zerbitzuak pribatizatzea; azpikontratazioa eta zerbitzu-enpresak ugaltzea; lana antolatzeko sistema berriak indarrean jartzea; eta lan harremanak indibidualizatzea.

Erreibindikazioaren helburuak. Asteko lanaldia 35 ordura murriztea. Kontu hau ponentzia honetako 3.3 atalean jorratu dugunez, besterik ez dugu errepikatuko orain. Gogora dezagun hemen lan jardunaldiaren banaketa arretaz jorratu behar dutela itun eta hitzarmen kolektiboek, lan egutegiaren bitartez ordutegia, egunean eta astean ohiko jardunaldiaren gehieneko iraupena, eta lanaldien arteko edo lanaldi bertako atsedenaldiak finkatuko direlarik.

Lanaldia murriztea aipatzen dugunean, egiazko lan-jardunaldiaz ari gara, ez lanaldi formalaz. Kontua da lanorduen murrizketa benetakoa izatea, aparteko lanorduak ugaldugabe. Garrantzi handiko eskakizuna dugu hau. Jarrera teorikoak eta lantokietako errealitate praktikoen arteko kontraesanek sarri lausotzen duten arazo korapilatsu honi aurre egiteko baditugu Lan Harremanen Kontseiluan 1999ko urtarrilaren 15ean aparteko lanorduak desagertzeaz sinatu zen Akordioa eta antzeko beste Akordio bat, geroago Nafarroako Enpleguaren aldeko Akordiora gehitu zena.

Akordio Interkonfederalaren ahalmena faktore bat baino gehiagok baldintzatuko dute: sekzio sindikalek eta enpresa-batzordeek eragiten duten presioa, koherentzia sindikala, hitzarmen eta itunen negoziazioa lantzean agertzen dugun ziurtasun eta zuzentasuna eta, esan beharrik ez, patronalaren erresistentzia.

Beste sindikatu batzuekin batera, aparteko lanorduak desagertzeari buruzko akordioaren aplikazioa bizkortu du LABek hainbat hitzarmen kolektibo eta enpresa-akordiotan. Norabide horretan segi behar dugu, lantokian aparteko lanorduak gutxituz eta gutxituz, ordu bakar bat sartzen ez dela egiaztatu arte.

Soldaten eros-ahalmena hobetzea. Ekonomiak lehiakortasunik ez izatearen erruak soldatei leporatzen dizkien (eta, ondorioz, soldatak ez igotzea gomendatzen duen) eraso ideologiko neoliberalaren aurka, soldatak eros-ahalmena berreskuratu eta hobetu behar duela aldarrikatuko dugu LABen, soldatarik apalenez eta emakumeak alor honetan ere nozitzen duen diskriminazioaz bereziki arduratuz.

Ezin dugu onartzerik erru guztiak berriro soldatek ordaintzea. Negoziatio kolektiboan hitzartu beharreko soldata-politikan ere, sorturiko aberastasun banaketa zuzenago eta ekitatiboagoa egin dadin exigitzen dugu. Aldarrikapen hau, Europako sindikaturik indartsuenen soldata-erreibindikazioekin bat dator. Europako sektore-sindikaturik garrantzitsuena den Alemaniako IG-Metall izenekoak, 2,4 milioi langilerengan eragina duten 1999ko soldata-negoziatioetan %6,5eko igoera eskatu du (Alemaniako kontsumorako prezioen indizea baino ia 6 puntu handiagoa, alegia).

Soldaten atalean ezin utz dezakegu aztertu gabe aspaldikotasun-osagarriaren tratamendua; negoziatio kolektiboko punturik eztabaidatu eta liskartsuenetako bat horixe baita. 1994ko lan-erreformaz geroztik, patronala osagarri hori beheratzeko edo, areago, kentzeko proposamena egiten ari da, era beligerantean gainera. Sasi-elkartasunezko argudio zakarrak baliatuz, lan kostuak merkatzea nahi du patronalak, inolako kontrapartidarik eskaini gabe. Planteamendu hori hankaz gora botatzeko, LABek ateak zabalik utziko dizkio gai horren negoziatioari baina, hori bai, funtsezko oinarri batetik: soldata-masaren barnean antzinakotasun osoa mantentzea, soldata egitura oreka handiagoz eratzeko formula alternatiboak itunduz.

Nabarmen dezagun, azkenik, arras kaltegarria den fenomeno bat, langileria barreiatu, sakabanatu egiten duena: kontratazio berrietan gertatzen den lan baldintzen (bereziki, soldataren) diskriminazioa da hori. Hasiera batean langile berriek nozitzen zuten desberdinkeriazko tratamendua abantaila sozial batzuetatik kanpo uztea bakarrik bazen ere, orain patronalaren jarrera "ausartagoa" da: aurrerantzean kontratatatu beharre-

ko langileek lehenagotik plantilan daudenek baino soldata txikiagoa jasotzea proposatzen du, enplegu sorrera aitzakia erabiliz. Areago, proposamen horiek askotxotan sindikatuen babes aurrizten dute: inoiz edo behin, sartu berri diren langileei bakar-bakarrik aplikatu beharreko lan maila eta kategoriak sortu izan dituzte iruzur gordinez, juridikoki legez kanpokoa eta sindikalismoaren ikuspegitik tamalezkoa den itunari arrosa kolorez makilatzeke. Patronalaren horrelako maniobren zain egon beharko, erne, zelatan, elkartasunezko ekintza sindikalaz beste aldera doazen tranpazko neurri horien aurrean.

1999ko urtarrilean Lan-Harremanen Kontseiluan (LHK) izenpetu zen Plantilak Ordeztu eta Berritzeari buruzko Lanbidearteko Akordioa (eta horren osagarri den Apirilko Batzorde Paritarioaren Akordioa, txanda-kontratua ere jaso zuena) bultzatu beharra dago, nahitaez.

Gai horiei buruz LHKan izenpetu ziren Akordioen aplikazioa sustatuko du LABek, eta sektoreetako hitzarmenen eta, batez ere, enpresetako akordioen bitartez horietako betebeharrak garatuko ditu. Ordezkatze eta txanda hartzeari buruzko mekanismoa martxan jartzea, azken finean, eragindako langile eta enpresarioen nahiaren kontua dela kontuan izanik, plantilak berritze-prozesua izaera kolektiboaz jantzi beharra dago, ezinbestez. Alor honetan, LHKko Akordioak hitzez hitz aplikatuak izan daitezzen exigitzeak egundoko garrantzia du, horien edukia desnaturalizatzeko eta kontratu estatala ezartzeko enpresarioek egin dituzten saioak salatuz eta indargabetuz. Jakina denez, txanda-kontratuak legezko egituraketan - aldaketa sakonak izan ditu EAEn, LHKaren baitan integratu eta egokitu egin delako. Hitzartutakoa beteko dela garantizatu behar dugu, beraz.

Txandakako jardueran dabilen langileari, berriz, behin-behineko txanda-kontratua automatikoki bihurtuko zaio muga gabeko txanda-kontratu, aurrenekoaren indarraldia amaitzean. Bestetik, denbora osorako zerbitzuak emango ditu, eta ez denbora-zati batekoak, legezko arauak ahalbideratzen duen bezala. Ordezkatuari edo ordezkaritari dagokionez, enpresatik behin betirako irtengo dela eta, era berean, bere soldata garbiaren %85etik 100era bitarteko errenta (beti ere, eguneratua) jasoko duela bermatzeko mekanismoak jarriko dira. Kontuan izan dezagun horrek guztiak aginduko diola enpresari osagarri ekonomiko handi bat bere poltsikotik ezartzea, alde aurretik jubilatutako langilearen kotizazioa laburra izan denean. Modu berean, ordezkatuak kalera joateko baldintzen homogeneizazioa kolektiboki erabaki beharko da, diskriminaziorik (agian, klientelismo sindikalaren ondorioz) gerta ez dadin. Azkenik, kontratatu berriek tratamendu berdina izango dutela bermatu behar dugu, soldata eskala bikoitzak, lauhoitzak etab. arbuiauz (Esteban Orbegozo, S.A. enpresan gertatu da horrelako bat).

Kontratazioa. Lan prekarietatearen kontrako borroka. Langileriaren desegituraketan eta klase horren sektore batzuen - batez ere, emakume eta gazteen - gainesplotazioan eragin handi-handia izan duen faktoreetako bat da prekarietatea. Esana dagoenez, lan harremanen funtsezko alderdietako bat kontratazio politika da eta, beste aldetik, negoziazio kolektiboak betetzen duen eginkizuna, Estatuko lege-arauen uztarpean doa beti.

997ko lan erreformaren osagai nagusia izan zen Enpleguaren Egonkortasunaren aldeko Akordio Interkonfederalaz geroztik, kontratazioa arautzeko beste marko bat ezarri da indarrean. CC.OO. eta UGT sindikatuak (Akordio hartan indarrean finkatutako langilekanporaketaren errazte eta merkatzean izan zuten ardura larriaz jabeturik, noski), PPko Gobernuarekin batera, prekarietatearen kontrako borrokan erabaki hark dituen ontasunak hedatzeko propaganda-kanpainari ekin diote. Muga gabeko kontratuak - estatistika hutsetik ikusita - ugaltu direla egia bada ere, gogoan izan dezagun behin-behinekotasunak aldaketarik gabe bere horretan segitzen duela ere. Arautegi berriak ez du balio enplegu finkoa sortzeko, ekonomiaren gorakada honetan plantilak egonkor bihurtzeko baizik: adiera horretan, hein handi batean iruzurrezkoak ziren behin-behineko kontratuak muga gabeko bihurtzen ari dira.

Nolanahi ere, panorama beltz horrek ez digu itxaropena galarazi behar. Ekintza sindikalak, beste eragile sozial batzuen - gazte-mugimendua, batez ere - ekimenekin batera, denak eta bi eman behar ditu prekarietatearen aurkako borrokan. Eta negoziazio kolektiboak ere norabide horretan bultzatu behar du. Erronka nagusia, behin-behineko kontratuak muga gabe bihurtzea da. Patronala kinka larriari jarri behar dugu: hitzarmen kolektiboetan eta enpresako itunetan, ahal diren langile gehienak kontratatu edo finko bihurtzaten behartu behar dugu enpresarioa. Horretarako, bidezkoa balitz, behin-behineko eta mugagabeko langileen arteko proportzionaltasun zehatz bat jarri dezakegu, erreferentzia gisa. Administrazio Publikoei dagokiela, kontratuen aldakuntza hori erraz eragin dezakete: obren edo zerbitzu-eskaintzen enkantera aurkezten diren enpresei (nahikoa ez den plantila finkorik ez badute) zigorra ezarriz edo muga gabeko kontratazio-kopuru bat egin dezan exigituz. Dena den, Administrazioaren zerbitzuan dabilen pertsonalaren behin-behinekotasuna murriztea ezin geroratzeko eskakizuna dugu.

Aipamen berezia merezi du, kontratu egonkorra dela eta, patronalak - Adegik, gehienbat - behin eta berriro egiten duen eskariak. Lan kontratuak amaitzeko zergatiak erabat ezabatzea (horrela, enpresarioaren gogoaren arabera iraungo luke kontratuak, inongo kontrol judizial edo administratiborik gabe) lana prekarizatzea helburu duen mekanismo horri aurre egingo dio beti LABek.

Azpikontataturiko eta "zerbitzu-enpresa" izenekoetako pertsonalaren lan-baldintzak negoziazio kolektiboaren bitartez bideratzen ahaleginduko gara. Horretarako, hitzarmenak behartu behar du azpikontata egin duen enpresak edo zerbitzu-enpresak, akordioan finkatutako gutxieneko lan-baldintzak aplikatu ditzan (bertan hitzarmen kolektiboa ez badago indarrean). Bestetik, langileen legez kontrako lagapenik gerta ez dadin erne egongo gara, fenomeno hau maiz antzean gertatzen delako horrelako enpresetan. Bidezkoa denean, Lan-Agintaritzak esku har dezan exigituko dugu.

Negoiazio-estrategia eta negoziazio kolektiboaren barne-dinamika. Negoiazio kolektiboaren barne-dinamika hankaz gora eta buruz behera jarri behar dugu. Negoiazio kolektiboaren inertziak astintzeko beharra sarri aipatu izan dugu. Horren aurrean, erreze-ta bakarria dugu: geure erakundea indartu eta lan-metodoak hobetzea. Dinamika sindikala bat-batean antolatzen zeneko garaiak pasata, afiliatuak egiteko politika bizkorra eginez, sektore-egitura sendo eta errotuak sortu eta finkatzeko unea dugu hauxe. Hitzarmen eta itun kolektiboaren negoziazioan funtsezko eginkizuna betetzen dute sekzio eta sektore sindikalek, eta ez alferrik.

LABen egiturek negoziazio kolektiboaren prestakuntza arreta bereziaz zainduko dute, sindikatuarteko plataforma eta bilerak egitean ahalegin guzti-guztiak bildu gabe. Beharrezkoa da, batez ere, kasuan kasuko langileekin lehenagotik zuzeneko harremanak landu eta beraien kezkak jasota, eginiko lana sakon eta arreta biziz jorratzea, langile horiek negoziazio kolektiboa beraiena den zerbait bezala bizi dezaten, beren burua benetako protagonista senti dezaten, ez liberatu sindikalen gestio egoki edo desegokiaren emaitzen hartzaile huts bezala.

118

Negoiazio kolektiboaren prestakuntza egokia bezain funtsezkoa dugu jarraipena egitea. Kontua ez da hitzarmen ona negoziatzea bakarrik: goitik behera den-dena betetzea lortu beharra dago. Horrez gainera, lorturiko emaitzak ebaluatu, hasierako plataformaren edukiaren aldean nolako aurrerapen edo atzerapenak egin diren erakutsi, patronala tematu den gaiak nabarmendu, dinamika sindikalaren zuzentasuna ebaluatu eta gure antolamendu-osasuna aztertzeke balioko duen balantzea egin beharra dago. Gero, noski, beharrezko eta bidezkoak diren ondorio guztiak atera beharko ditugu.

Negoiazio kolektiboa udazken aldera - hitzarmenen indarraldia amaitu aurretik - hasi beharra dagoela uste du mugimendu sindikalak; LAB ere bat dator iritzi horrekin, helburu handi bat lortzeko: patronalak nola edo hala lortu nahi duen atzerapenaren, langileen ondoriozko etsipenaren, eta "egiazko zerbait" (soldataren igoera, generalean) bermatzeko obsesioaren eraginez, plataformetako funtsezko kontu batzuk baztertutik ez uztea.

Estrategiako elementu den aldetik, hitzarmen kolektiboen denbora-mugak razionalizatzeak ere garrantzi handia du, herrialdez herrialdeko hitzarmen sektorialen iraupe-  
nak eta enpresako hitzarmen eta itunenak egokituz, erantzun-fronte homogenoa egitura  
dezagun. Horri loturik, hortxe dugu hitzarmen kolektiboen iraupenaren problematika.  
Kezkatsu ikusten dugu hitzarmen eta itun gehienek urte bat baino gehiago irauten dutela:  
batzuetan neurrigabe luzatzen dira, bost urtera arte ere. Harik eta larriagoa da hori, epe  
luze horietarako ituntzen diren gaiak ekintza sindikalaren funtsezko ardatzak direnean  
(lanaldia, esate baterako). Dagokigun partez, autokritika zorrotza egiten dugu LABen, inon-  
go dudarik gabe. Negoziazio kolektiboa suspertzeko planteamenduak, edozein dela ere,  
kontu horrekin talka egiten du, are eta gehiago patronalari maila guztietatik (konfedera-  
le-tik, sektoriale-tik eta enpresatik) erantzun egituratua eman nahi diogun honetan. Beraz, itun  
eta hitzarmen hauek indarraldi laburra izan behar dute, gure ikuspegitik: urtebetekoa, ahal  
dela. Bestela, negoziazio kolektiboak ahalmen handia galduko luke.

Negoiazioetan dabilen sektore bakoitzaren egoera xehekapenez ezagutzeko  
beharra ere azpimarratzekoa dugu: garrantzi handia du horren radiografia zorrotza egite-  
ak, funtsezko enpresak (negoiazio-mahaiko patronalaren aulkian erabateko betekizuna  
dutenak) zein diren zehazteko: dudarik gabe, gure eskuhartze sindikalak hariz eta zorro-  
tzagoa izan behar du enpresa horietan. Horregatik komeni da energia biltzea patronalaren  
puntu ahulenetan.

Aurreko gogoetak eginik, panorama soziolaboralean -ultraliberalismoak eginiko  
malgutzeari buruzko proposamenak eta sindikalismo espainiarraren jarrera paktista ikusi-  
rik - mobilizazioak eta enfrentamendu-estrategiak egundoko garrantzia dauka orain.  
Errealitatean baino itxuraz eraginkorrago diren eduki eskaseko akordioetan oinarritutako  
kontzertazio-praktiken kontra agertu behar du beti LABek, bere filosofia sindikalari jarrai-  
ki. Negoziazio-esparru bakoitzean nolako indar-erlazio dagoen ikusi behar dugu lehenda-  
bizi, noski, ahalik eta erantzun sendoena proposatu eta emateko helburuarekin: batik bat,  
gure proposamenak bideragarriagoak diren erreferentziazko hitzarmenetan. Nolanahi ere,  
negoiazio kolektiboen osotasunean erreferentziazko hitzarmen horiek duten eragin ekar-  
lea izan behar dugu gogoan beti.

Bestetik, arazo kolektiboak konpontzeko mekanismoen bidez, negoziazioak institu-  
zionalizatzea helburu duen "negoiazio kolektibo iraunkorra" auzitan jartzen du LABek.  
Balizko kasu batzuetan (blokeo luzeak gainditzea dela eta, gehienbat) PRECOk eta antze-  
ko erakundeek bete dezaketen eginkizun mesedegarria aintzat hartuta ere, negoziazio  
kolektiboan sortzen diren arazoen konponketa prozedura horietara bidaltzea gaitzesteko

moduko jokaera da, inondik inora; are gehiago, ia sistemaz gertatzen bada, lan-baldintzak teorian "eredu kooperatibo" antzeko zerbait ulertzen direlako. Beraz, arazoak konpontzeko formula orokor bezala derrigorrezko arbitrajea erabiltzearen kontra eta, sektore eta enpresetan, erreibindikazioen ordezkotza gisa, bitartekaritza hasiera-hasieratik erabiltzearen kontra gaude.

## **5-4. Ekintza sindikala genero ikuspuntutik**

### **5-4-1.- Gizarte eredu ez patriarkala lortzeko ekintza sindikala**

Euskal Herria libre, sozialista eta ez sexistaren eraikuntzan aurrera egin dezagun sindikalgintzatik lan egin behar dugu, euskal emakume langileen zapalketa ahalbidetzen duen gizarte eredu kapitalista-patriarkala gainditzeko.

LABek burutzen duen ekintza sindikalak genero ikuspuntua barnera dezan esparru ideologikoan zein instrumentalean jardutea eskatzen du. Beste era batez esanda, egun, emakumezkoen menpekotasun ekonomikoa eta soziala iraunerazteko antolatuta dauden lan merkatua, etxeko lana, eta giza babesa era ezberdinez antolatzea ezinbesteko da aukera berdintasuna errealitate izan dadin. Halaber, lan eremu bakoitzean ematen diren bazterkeria egoera anitzak azalarazteko eta desagertzeko neurriak garatzea beharrezkoa da.

### **5-4-2.- Sindikalgintzaren zeregina**

Sindikalgintzak berebiziko zeregina du itxurakeria alboratu eta egiazko eraldaketak bultzatzea. Hau da, euskal emakume langileen zapalketa azalarazi eta ezabatzen joan dadin hamaika txostenetan jasota dagoena plangintza zehatzen bidez gauzatu beharra dago. Besteak beste, ekimenek honako jardunbide hauek izan behar dituzte irizpide:

- Emakumezkoen menpekotasun ekonomiko eta soziala ezartzen duen sexuen araberako lan banaketa desagertu dadin estrategiak bideratzea.

- Emakume eta gizonen arteko harremanak, sozialak zein laboralak, era berdinkidean eman daitezkeen neurriak oldartzea.

- Emakumezko langileen ekarpenak, bai gizarte baloreen esparruan, bai egite eraren esparruan aintzat hartuak, balioztatuak eta barneratuak izan daitezkeen bitartekoak jartzea.

### **5-4-3.- Sexu-genero zapalketa egoeraren azterketa lan munduan.**

#### **Ezaugarri nagusiak**

Sexuaren araberako lan banaketa gizarte eredu baztertzaileren sortzailea da

beronek dikotomia sortarazi du lan merkantilizatua eta ez merkantilizatuaren artean; bi lan kategoriekin batera, besteak beste, bi giza talde bereizten dira, hots, gizonezkoena eta emakumezkoena, legeriaren ikuspegi formaletik eskubide berdinen jabe, baina errealitatean, bizimodu, enplegu eta babes espektatiba ezberdinekin. Sexuaren araberrako lan banaketa gizarte eredu baztertzailearen zutabea da eta gizarte alor guztietan ondorio baztertzaileak ezarri eta birproduzitzen ditu: esparru ekonomikoan, laborean, sozialean, kulturean...

Emakumezkoen sarbidea lan merkatu ofizialean nekez eta era diskriminatuaz ari da gauzatzen; lehenik eta behin, lan merkatuaren izaera, egitura eta arauak gizonezkoen enplegua lehenesteko egina daudelako; bigarrenik, familia guneetan emakume eta gizonen ardura eta eskuhartzea etxeko lan eta zainketa jardueretan, maila zeharo ezberdinetan gauzatzen delako; eta hirugarrenik, kapitalarentzat emakumezko langileak koste sozial eta ekonomiko gutxiko erreserba boltsa direlako.

Lan merkatua eta sexu zapalketa.- Lan merkatuari sexu zapalketaren ikuspuntutik begiratzen badiogu, euskal emakume langileen ezaugarri nagusiak esklusioa eta bazterkeria direla nabaria da. Izan ere, Hego Euskal Herriko emakumezkoen gehiengoa lan merkaturtik at dago, inaktibotzat edo langabetutzat jotzen dira. Hala ere, haietariko gehienek etxeko lanean eta zainketa arduretan dihardute. Atal honetan berariazko arreta dute etxeko enplegatuak eta etxez etxeko asistentziazkoak, lana ezkutupean egiten duten guztiez gainera.

Esklusioaren soslaia.- Etxeko lana, lan ikustezina dela salatu ohi da; izan ere, ez da estatistiketan agertzen, ez da Barne Produktu Gordinean kontabilizatzen (BPGren %50aren inguruan kokatzen da) eta sistema ekonomikoaren oinarriko osagaia izan arren gai marginala, pribatua eta emakumezkoena, berezkoa bezala kontsideratu eta aztertu ohi da.

Etxeko lanaren ikustezintasuna ez da mugatzen emakumezkoek beren etxeetan egin ohi duten lanari; etxetik kanpora ateratzen den jarduera denean ere, ikustezina izaten jarraitu ohi du, baina, orduan, lan murgildua da. Kapitalak lan murgildua helburu bikoitzaz erabiltzen du, mozkin tasak berreskuratzeko eta langileriarekiko kontrola areagotzeko lan-gabeziaren koste soziala gutxituz. Erabat prekarioa den lan murgilduaren izenaren azpian jarduera anitza eta langile mota asko biltzen dira, gehiengoa emakumezkoak.

Argi dago euskal langileriak jasaten duen klase hustirakuntzan eta, zehazki, lan problematika orokorraren barruan emakume langileena espezifikoa dela eta berebiziko larritasuna duela. Halaber, egoera hau izkutuan mantentzearen erantzule zuzenak, botere politiko-ekonomikoak badira ere, sindikalgintzak beroni ematen dion onespén pasiboa desgertu beharra dago.

Lan merkatu ofizialean dihardutenak.- Lan merkatuaren egitura guztiz segregatuta dago sexuaren arabera. Honek sortarazten dituen lan baldintza baztertzailak, berezko oztopoak dira emakumezkoen presentzia lan merkatuan areago dadin.

Segregazioa eta bazterkeriaren adierazleak anitzak dira. Emakumezkoak gehien-  
goa dira etxeko lan asistentzialaren jarraipena diren lanbide eta lanpostuetan (sozialki zein ekonomikoki gutxien baloratuak); aitzitik, maskulintzat jotzen diren lanbide eta lanpostuetatik kanpo uzten dira. Era berean, kontrataziorik prekarioenak eta kategoriarik baxuenak emakumezkoek atxikitzen zaizkie, baita ere, sexu jazarpena, soldatarik kaxkarrenak, promoziorako aukera gutxi, giza eta lan babesik murrizena, eta kaleratzeko lehentasuna. Aurrekoaz gain, emakumezkoek lanaldi bikoitza deritzonari aurre egiten diote; hau da, lan-tokiko lana eta etxeko lana baterakide egin ditzatela bultzatzen da. Hauxe dugu lanaldi partzialeko kontratuen xedea (kontratazio mota oso segregatua), hain zuzen ere.

Neoliberalismoa bortizki ari da astintzen euskal langileriak borrokari esker eskuratu zituen hainbat lorpen. Langabezia eta prekarietatea neurririk gabe hedatzen ari dira; honekin batera, lan baldintzak txartu eta hobekuntza sozialak atzera doaz. Hau dela eta, gero eta gehiago dira gain-esplotazioa eta babesik eza pairatzen dituzten sektoreak. Hauen artean emakumezkoak dira egoerarik larrienak jasaten dituztenak: miseriazko pentsioz bizi direnak eta seme-alaben ardura dutenak pobrezia feminizazioaren adierazleak ditugu; era berean, emakume gazteek pairatzen dituzten langabeziak eta prekarietateak alarmagarriak dira guztiz.

Emakumezkoen eta gizonezkoen lan egoera eta babes egoera ez dira, berdinak. Sindikalgintzak ezberdintasun hau aintzat hartu behar du, nahitaez, euskal langileriaren eskubideen defentsaren alde jardun nahi badu, eta ez soilik gizonezko langileen alde.

#### **5-4-4.- Sexu-genero diskriminazioari aurre egiteko Ekintza Sindikala**

Emakumezko langileen lan eta babes egoera, gizonezko langileen kasuan ez bezala, lan merkatuko jarduerak, etxeko jarduerak eta bien arteko interrelazioak esanguratu eta baldintzatu egiten dute.

Euskal emakumezko langileen diskriminazioa eta giza bazterketa egoerari aurre egiteko, besteak beste, hiru jardunbide nagusi elkarrekin lotu beharra dago: lehenik, lan merkatuan sartzeko eta aritzeko estrategiak hedatzea; bigarrenik, etxeko lana eta ardurak bizikideen artean elkar banatzeko eta gizarteratzeko baldintzak jartzeko eta giza zerbitzuak sortzea; eta hirugarrenik, giza babes-prestazio duinak eta propioak bermatzeko neurriak eta baliabiadeak ahalbidetzea.

Hiru eremu hauetaz egindako azterketa, azaldutako beharrak eta proposamenak anitzak dira; aitzitik, oso gutxi dira gauzatzera ailegutzen direnak. Patriarkadoa sistema kapitalistaren osagaia da, baina langileriarengan ere indarrez errotuta dago. Konplizitate horretatik uler daiteke neurriak bideratzeko izaten diren eragozpenak.

Lan ildoak.- Lana eta ondasuna banatu! Baina, era berdintsuan guztien artean, hots, emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Aldarrikapen honetan sustatzen da LABek, gizarte sektore anitzekin batera, bultzatzen duen enplegu eta giza babesaren aldeko proposamena. Egitasmoak baldintzak eta neurriak planteatzen ditu langileriak nozitzen duen dualizazioa gainditzeko joan dadin eta euskal gizarte libreago eta solidarioagoa gara daitekeen.

Enplegua sortuko duen lanaldi murrizpena (35ordu) eta soldata soziala ezinbesteko neurriak dira eskusioari aurre egiteko. Baina, hauek eraginkorrak suerta daitezen kon-tuan eduki behar da eskusioaren osagai nagusia emakumezkoak direla.

Eite hau, nahitaez, oinarrian egon behar du bideratuko diren estrategietan: etxeko lanaren ardurak konpartitua izan dadin neurriak ezartzea eta lanpostuak eskuratzeaz aparte, lan-baldintza baztertzailerik egon ez dadin bermeak jartzea; halaber, prekarietatea mugatu eta desagertarazteko urratsak finkatzea. Aurrekoarekin batera, lanposturik ez duten emakumezkoen berezko eskubidea aitortu behar zaie oinarriko errenta, edo prestazioen osagarria jaso dezaten.

Enpresa itunek, negoziazio kolektiboak, akordio interprofesionalek, eskuduntza politiko-ekonomikoak eskuratzeak... tresna izan behar dute euskal emakume langileen egoera zapaldua gainditzeko.

## 5.5. Gazteria eta ekintza sindikala

Euskal gizarteak nozitzen dituen lan prekarietate eta bazterkuntza sozialik gordi-nenak euskal gazteriak pairatzen, jasaten, ditu: horrek galarazten dio gazteari bizi-proiekturik soilena ere egitea.

Eskuhartze sindikalean enpleguaren eta babes sozialaren aldeko politikak errei-bindikatzeari eman zaion lehentasuna eta bizi-baldintzei buruzko eztabaidak gazteriaren-gan hartu duen nagusitasuna ez dira bilakatu gazteen egoeraren hobekuntza nabarmenik; halaz ere, lan merkatuaren gainbeherari buelta ematen eta aldaketa estrukturalak lortzen hasteko baldintzak sortzen ari dira.

Prekarietate forma berriek, soldaten diskriminazioak, gehiegizko lanaldiek eta beste faktore batzuek, honez gero gaindituzat ematen genuen esplotazioa suspertu dute

berriro, biktima euskal gazteria izaki. Produkzio gaitasuna alferrik galduta, langileen belaunaldi berriak esplotazioan eta deskualifikazio profesionalean zigortzen dituen sistema ekonomikoa onartezina da, hori Euskal Herriko geroaldi sozioekonomikoa baldintzapean jartzea delako. Sistemak, bere tresna guztien laguntzarekin, eredu neoliberalak egokia duen moduan prestatzen ari da gazteria. Etorkizuna da auzitan dagoena: guk bezain garbi dauka sistemak.

Eskubiderik gabeko langileen eredia egonkor eta "normal" bilakatzen ari da; honek, gazteria lan-baldintza ezin okerragoekin zigortzeaz gainera, sindikatuen presioari, alderdien arteko negoziazioari eta Euskal Langile Mugimenduaren batasunari irabazitako lan-erregulazioa desegiten ari da.

Gazteriari ezartzen zaizkion lan baldintzek, langileen esplotazioa areagotu ez ezik, prekarietatearen eta esplotazioaren kontra Euskal Langile Mugimendu osoaren erantzun koordinatua ematea ere galarazten dute.

Gazteriarekin hartu dugun konpromisoaren funtsezkoa, gizarte-eredu berria ekartzeko apustua dugu. LABen eskaintza argi eta garbi dago: justizia sozialean oinarritutako Euskal Herria eraikitzeko proiektu politiko-sindikala dugu geure kapital nagusia. Horretarako, egungo errealitatea gainditzeko proposamen eta alternatiba zehatzak eskaintzen ditugu, langileriak etorkizun hobea izan dezan. Adiera horretan, eraso ideologikoa gazteriaren baitan sakondu eta areagotu behar dugu.

Euskal Gune Sozioekonomiko eta LHEE apustuekin bat dator euskal gazteria, geure politika ekonomiko eta laborala garatzeko tresna egokiak baitira biak ere. Horrez gainera, gure alternatiba ekonomiko eta laboralaren definizioan aitzina egiten dugun modu berean, alor sozialean ere aurrera egin behar dugu. Ekimen gaitasuna aberastu behar dugu, proposamen eta alternatibak eskainiz. Oraingo eredu honek ez ditu asebetetzen gazteriaren premiak, ez ditu bermatzen oinarritzko eskubideak, ez ditu aukerak eskaintzen horietara iristeko.

Eskubide horien defentsarako ekintza agresiboagoa bultzatuko dugu LABen, euskal langile gaztearen eskakizunak gure ekintza sindikaleko lehentasunezko kontu bihurtuz. Horrenbestez, gure apustuak agintzen digu gazteria borroka sindikalean inplikatu behar dugula; eta, nola ez, bazterkeriaren, prekarietatearen, diskriminazioaren eta azpikontratazioaren kontrako ekimenak lantokian bertan, eskualdean, sektorean eta alor konfederalean martxan jarri behar ditugula.

Etxebizitza, ikasleen eskubideak eta gazteriak gizartean esku hartzea dira LABek bultzatu beharreko alderdiak, bai diskurtsoan, bai ekimenen bitartez. Urte hauetan gauza-

tu diren dinamika sozio-politiko eta sindikalek, Sindikatuaren legitimitatea eta intziditzeko gaitasuna indarberritu dute; beraz, bide honetan aurrera jarraitu behar dugu.

Enplegua sortzeak ardatz nagusia izan behar du: enplegua sortzen da benetan, gure iritziz, mugagabea denean. Langabeziaren kontra premiazkoa dugun alternatiba ez da, inondik ere, kontratuekin atzera eta aurrera ibiltzea. Lan merkatuaren etengabeko hondamendiaren aurka, eskatzen dugun neurria enplegu finkoa da, duintasunezko enpleguak funtsezko bereizgarria horixe baitu, finkotasuna.

Lanaldia murriztearen, 35 lanorduko astearen eta aparteko lanorduak suntsitzearen osagarria, prekarietatearen kontrako ekintza sindikal eraginkorra izango da. Azken urte hauetan izaniko dinamikek, neurri hauen inguruan indarrak metatzeko egokieran kokatu gaituzte, aresti arte jarduera sindikaletik aparte zebiltzan sektore batzuk (gazteria, besteak beste) suspertu izanaren ondorioz.

Gazteriaren bizi - eta lan - baldintzak funtsez hobetu ditzaketen eskakizunen inguruko borrokan, borroka sindikalak berebiziko garrantzia du, euskal langileriaren geroaldira begira. Alor horretan, soldata soziala, lanaldiaren murrizketa, jubilazio aurreratua, gehiegizko lanaldiak desagertzea, ABLEak eta azpikontratazioa errotik ezabatzea, behin-behinekotasuna funtsez murriztea eta ezkutupeko ekonomia desagertzea mobilizazio estrategia iraunkorrek ditu LABek, euskal gazteria langilearen erreferente den neurrian.

Enpresan norberak duen behin-behinekotasun eta etorkizun segururik ezaren ondorioz, langileriaren antolamendu-gune klasikoetatik gazteria urrutiratzen ari dela egiaztatzen bada ere, erronka horren euskarri sendoa izan behar dute sekzio sindikalek, LAB Gazteak-ek eta Herri Biltzarrek.

## 5.6. Ekonomia soziala

Gure erakundeak urte hauetan bizi izaniko eskarmentuak adierazten digunez, ekonomia soziala merkatuko ekonomia sozialerantz erortzen ari da: honetan, alor sozialaren adierazleek baino indar handiagoa merkatuak du eta gauzak honela izateak, jakina, laneko harreman eta baldintzen okertzean berehalako eragina du.

Kooperatiba-munduak garatzen duen planifikazioari esker, enpresa kapitalistak baino askozaz ere jarduera kohesionatuagoa bidera dezake. Horrez gainera, bere sorburuaren eta enpresa-gorpuzkeraren arabera, bere (kasu honetan, Euskal Herriaren) ingurune geografiko eta politikoaren garapen ekonomikoarekin topaguneak sortu eta antolatzeko gauza da eta, bestetik, produkzio-inbertsiora enpresa-mozkin gehiago bideratzeko aukera du.

Honainokoa onuragarri badugu ere, tinko eta sendo kritikatu behar dugu kooperatiben eta elkarte laboraletan berezko estrategia sindikalik ez izateak, honek enpresa kapitalistan bezalatsuko lan-harreman hierarkikoak ugaltzea ekarri baitu; areago, ekonomiako sektore kapitalista tradizionalako langileenak bezalakoak - askotan, okerragoak - diren lan-baldintzak zabaltzen ari dira. Errealitate horrek, kooperatiben eta elkarte anonimo laboralen markoan gure eskuhartzea jorratzeko beharra planteatzen digu, hurrengo helburu nagusien arabera:

\* Beste zeinahi lantoki publiko nahiz pribatutan dauzkan oinarrizko ezaugarriekin, LABen sekzio sindikala elkarte kooperatiboetan sortu eta garatzea. Horrek eskatzen du afiliazioa biziartzea, gainontzeko langileekiko komunikazioa suspertzea, eta enpresako ekintza sindikala ekintza sindikaleko estrategia orokorretan txertatzea, lanaldia murrizteari, aparteko lanorduak eta azpikontratazioak desagertzeari, aukeren berdintasuna lortzeari, laneko osasunari eta beste askori dagokionez.

Ekonomia sozialak duen dimentsioa dela eta, bertan gure eskuhartze sindikala hedatzeko premiazko plangintza zehatza egitea proposatzen dugu, plangintzaren helburua eskuhartzen lehentasunak, garapen organizatiboa eta ekintza sindikala bermatzeko beharrezkoak diren tresna eraginkorrak zehaztea izango da.

LABek eskatzen duena ez da kooperatiben barne-ordezkaritzako oraingo organoak aldatzea, baizik horiexen bitartez planteatzen ari garen estrategia sindikala gauzatzea. Kooperatibak berezkoak dituen alderdi onuragarri horiek - aipatu berri ditugunak, besteak beste: planifikazioa, ingurunearekin identifikatzea, erreinbertsioa, etab. - enpresa horiek eta elkarte anonimo laboralek bertan behera utzitako elementuak dira, gehienetan, tamalez.

## **5.7. Ekintza sindikala eta euskararen normalizazioa**

Lan munduko euskararen zabalpen eta erabilera -berebiziko garrantzia ez duten eta indukzio-eragin nabarmena sortarazten ez duten salbuespen ezagunak izan ezik - testimonialismoaren ilunpetan amildurik daude oraino. Testimonialismo hori gainditu beharra dago, bestelako eragile sindikal, ekonomiko eta instituzionalen inplikazioa sustatuko duten plan eta ekimenak martxan jarritz. Gaur gaurkoz, zoritxarrez, lantoki gehienetan euskarak ateak itxita topatzen ditu.

Euskal Herria egurastu duten haize sozio-politiko berriek euskara gizartean indar handiagoz ezartzeko konpromiso berriak sortu ditu aspaldi honetan. Kontseilu-ren jarduerak ("Bai Euskarari"), euskal gizarte osoan euskara normalizatzeko ahaleginetan enpresario, era-

gile ekonomiko eta sindikatuen konpromisoa - zeharo fenomeno berria izaki - hartu izanak, lantokietan euskarari dagozkion ekimen-kate planifikatu baten abiagune izan behar du.

Hortaz, LABen ekintza sindikalean, geure lan sindikala egiten dugun alorretan euskararen hizkuntza normalizazioari erabateko bultzada eman nahi diogu V. Biltzar Nagusi honetan.

Jardun beharreko hainbat fronte ikusten ditugu: horietan guztietan, berariazko estrategia zehatzak finkatu nahi ditugu. Aurreko orrietan, Euskal Gune Sozio-Ekonomikoaren aldeko gure apustuaren izaera zehaztu ondoren, garapen iraunkorraren eredia dela eta, Gune hori egituratzeak daukan garrantzia azpimarratu dugu. Esan gabe doa, EGSE hori finkatuko bada, euskal nortasuna finkatuko duten harreman sozialak ezinbestekoak ditugula.

Gure nortasunaren bereizgarriak indartu eta - nazio-eraikuntzaren proiektua ilusioz eta giza baliabideez hornitzeko - beharrezkoak diren sinergia sozialak sortzeko funtsezko elementua dugu euskara.

Ikuspegi ekonomikotik bertatik ere, euskararen erabilera normalizatzea gure produkzio-ehunaren eta gure harreman sozial eta laboralen balio erantsizat jo behar dugu: horrek aginduta, estrategia zehatzak praktikan jarri behar ditugu, gure hizkuntza errealitatean ipintzeko.

Produkzio harremanen markoan euskararen plan estrategikoa egin beharra dago, ezinbestez - Kontseilu erakundearen plan estrategikoarekin sintonian -: erakunde sindikalek eta enpresariak kontsentsuatuko lukete eta Administrazio Publikoek lehentasuna eman beharko liokete plan horri.

Lan-esparruan euskararen erabilera normalizatzeko politikak planifikatu, gestionatu eta ebaluatzeko organo hirukoitz bat -Administrazioek, enpresarioek eta sindikatuek osatua - sortu beharra dago. Honen helburua, Euskal Herri osoko departamentuarterko, sektorearterko eta herrialdearterko ekimenak eta baliabideak bertan koordinatzeko.

Plan estrategiko horrek jaso beharko ditu jendea euskalduntzeko eta euskararen erabilera indartzeko jarduera zehatzak, Lanbide Heziketa Jarraiera - Hobetuz-en bidez EAEn eta INEMen bidez Nafarroan - bideratutako fondoan bitartez.

Euskararen erabilera normalizatzeko, LABen ekintza sindikalaren ardatz eta tresna EUSLAB programa estrategikoa izango da. Lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko EUSLAB programaren LANEUS (lanean euskeraz) atala izango da ekintza sindikalaren gida, halaber. Euskalduntze-prozesua - bertan langileek emaniko denborak, horrenbestez - lanpostuak sortu eta mantentzeko finantzatu eta baliatu behar dira.

## 6. Ekintza sindikalaren batasuna

Ekintza batasuna langileen funtsezko tresna da, LABen ikuspuntutik, patronalarekin eta botere publikoekin edukiak eta estrategiak jorratzeko eta, nola ez, indarrak metatzeko. Bestela esateko, ekintza batasuna kapitalizat hartu beharra dago, baldin eta bera bultzatzeko eta adierazitako lorpenak erdiesteko moduko estrategien eta edukien gaintetik baldin badoa.

Enpresaren markoan, esparru funtzional horretan beste erakunde sindikalek hartzen dituzten konpromisoen eta sintoniaren arabera helduko diogu ekintza batasunari. Ekintza konfederaleko batasunari dagokionez, LABek Euskal Herri osoa hartzen du esparrutzat. Izan ere, esparru horretan edukiera errebindikatzailleak eta mobilizazio estrategiaren inguruan bat etor gaitezke beste sindikatu batzurekin

Horrenbestez, LABek aldarrikatzen eta bultzatzen duen ekintza sindikaleko batasuna ez da itxia, ez da irizpide eskusibisten arabera planteatua: irekia da, zabalik dago, gure Biltzar Nagusian zehazten ditugun estrategia eta eredu sindikalekiko koherentziaren arabera.

Azken urte hauetako eskarmentuak eta egungo errealitateak agindurik, ELAren dugun ekintza batasuna - ESK, STEE, EHNE eta HIRU erakundeekin batasunez jarduteko prest gaudela gogoan izaki -, Hego Euskal Herriko sindikatuen arteko elkarlanaren erdigune funtsezkoa da.

Euskal Herriak bizi duen egoera soziopolitikoan (nazioaren eraikuntza prozesua zabalik dagoela) LAB eta ELAren inguruan mamitu den ekintza sindikalaren batasunak erabateko eginkizuna betetzen du. Martxan doan proiektu nazionala edukiz hornitu behar du sindikalismoak, gizarte gehiengo aurrerakoi eta ezkerzalea osatzen lagundu behar du eta, nola ez, Euskal Herriaren subiranotasunera eramango gaituen prozesu demokratikoa bultzatzeko, daukan protagonismoa asumitu behar du. ELAren batasunean eta elkartasunean jardutea, parametro hauetan, ondasun estrategikoa du Euskal Langile Mugimenduak.

LHEE eta EGSE lortzeak izaera errebindikatibo funtsezkoa du, hurrengo urteetara begira. Beraz, euskal gehiengo sindikala osatzen dugun erakundeen arteko ekintza sindikalaren batasuna lortzeak harik eta garrantzi handiagoa, interlokuzio-gaitasun handiagoa

eta mobilizazio-ahalmen handiagoa irabaztea ezinbestekoa da, LHEE eta EGSE errealitate izan daitezen.

Bestetik, 35 lanorduko astearen eta soldata sozialaren inguruan azken bi urte haue-  
tan aurrera eraman dugun jarduera konfederalak, patronalarekiko enfrentamendua area-  
gotzea eskatzen digu. Enfrentamendu horren aitzindaria, LAB, ELA, ESK, STEE, EHNE eta  
HIRUK osatzen duten euskal gehiengo sindikalak izan behar du.

Alor konfederalako erreibindikazio batzuetan aurrerapausuak eman ondoren,  
ELArekiko ekintza batasunak hutsune eta kontraesan askotxo agertzen ditu oraindik lantokietan, bertan jarrera sindikalak oso elkarren kontra segitzen dutelako.

# PARTE-HARTZEA BULTZATUZ ERAGINKORTASUN BIDEAN

## SARRERA

1. GAURKO EGOERA. ANTOLAKUNTZAREN AGERPENA
  - 1.1. Langileriaren baitako errealitate desberdinak
  - 1.2. Errealitate horren bilakaera
  - 1.3. Parte hartzeko bideak
  - 1.4. LAB, antolamenduan erreferentea
2. ANTOLAMENDUA: BALANTZEA
  - 2.1. Gogoeta orokorrak
  - 2.2. Antolamenduaren garapena: alderdi kritiko batzuk
  - 2.3. Antolamenduaren garapena: beste alderdi batzuk
3. HELBURUAK ETA ERRONKAK
4. EREDUAK, EGITURAK
  - 4.1. Gogoeta orokorrak ereduaz
  - 4.2. Koadro sindikalen ezaugarriak, gure ereduaren arabera
5. ZUZENDARITZA-ORGANO KONFEDERALAK
  - 5.1. Biltzar Nagusia
    - 5.1.1. Eginkizunak
    - 5.1.2. Biltzar Nagusiaren osaketa
  - 5.2. Biltzar Nazionala
    - 5.2.1. Eginkizunak
    - 5.2.2. Biltzar Nazionalaren osaketa
  - 5.3. Komite Nazionala
    - 5.3.1. Eginkizunak
    - 5.3.2. Komite Nazionalaren osaketa
    - 5.3.3. Komite Nazionalaren hautaketa
  - 5.4. Komite Exekutiboa
    - 5.4.1. Eginkizunak
    - 5.4.2. Komite Exekutiboaren osaketa
6. EGITURAK, EGINKIZUNAK ETA OSAKETA
  - 6.1. Lurralde egitura: eginkizunak
    - 6.1.1. Herrialde eta Eskualdeak
    - 6.1.2. Eskualdeko Idazkaritza
      - 6.1.2.1. Eginkizunak
      - 6.1.2.2. Eskualdeko Idazkaritzaren osaketa
    - 6.1.3. Herri Biltzarrak
      - 6.1.3.1. Eginkizunak
      - 6.1.3.2. Herri Biltzarraren osaketa
      - 6.1.3.3. Herri Afiliatuen asanblada
    - 6.1.4. Eskualdeko Afiliatuen Asanblada.
      - 6.1.4.1. Eginkizunak
  - 6.2. Sektore Egitura: eginkizun eta zereginak
    - 6.2.1. Eginkizunak
    - 6.2.2. Sektore Egituren osaketa
      - 6.2.2.1. Sektoreko Biltzar Nagusia
      - 6.2.2.2. Sektoreko Komite Nazionala
      - 6.2.2.3. Sektoreko Komite Exekutiboa
      - 6.2.2.4. Sektoreko Eskualdeko Idazkaritza
      - 6.2.2.5. Sektoreko Eskualdeko Afiliatuen Asanblada
      - 6.2.2.6. Sektoreko Eskualdeko Ordezkarien Batzarra
    - 6.2.3. Sektoreak osatzeko irizpideak
    - 6.2.4. Sekzio Sindikala
  - 6.3. Eskuhartze-Arloak
    - 6.3.1. Egiturak, eginkizunak eta osaketa
      - 6.3.1.1. Asanblada Nazionala-Biltzar Nazionala
      - 6.3.1.2. Komite Exekutiboa
  - 6.4. Delegatuen Asanbladak
7. IDAZKARITZAK ETA KABINETAK: GOGOETA
8. KONTU OROKORRAK
  - 8.1. Afiliazio politika
  - 8.2. Hauteskunde Sindikalak
  - 8.3. Gestio Administratiboa, Ekonomiko-finantziaria eta Ondare Sindikala
  - 8.4. Barne-euskalduntzea
  - 8.5. Aldizkako argitalpen konfederalak
9. LABen ESTATUTUAK

# SARRERA

Eztabaidan jarri dugun Antolamenduari buruzko ponentzia hau, ezinbestean, ildo politikoa eta ekinbide sindikala aztergai hartuta, V. Biltzar Nagusi honetan aurkeztu eta ezbaian ipini ditugun bi ponentzietan zehaztutako gogoeta, erronka eta partehartzeko ardatzen ondorio logikoa besterik ez da. Ponentzia honen helburua, beraz, geure buruari ezarri dizkiogun zereginen aurrean erantzun eraginkorra emango duen antolakuntza eredu sortu eta moldatzea da.

Aurreko Biltzarretan bezala, ponentzia hau egiteko unean ez gara hutsetik hasi: 1999ko apirilko Biltzar Nazionalean antolamenduaren garapenari buruzko xedapenekin burutuko dugun eztabaida hau, hurrengo Biltzar Nagusian zehatzago eta sakonago agertuko den erreferenziunea da.

Euskal Herriko egungo errealitate politiko, sozial eta ekonomikoen premiei erantzun egokia emango dieten partehartze eta zuzendaritzazko egiturez geure burua hornitzeari eta barne-antolamenduko kontuei berebiziko arreta eskaini behar diegu: tamalez, gaur arte eta Sindikatuaren bestelako lehentasunek aginduta, ezinezkoa izan da hauek behar bezain sakon lantzea.

Barne-demokraziako bideak suspertzeari eta afiliatuek Sindikatuaren martxaz arduratzeko agertzen duten kezkarri ere erantzun egokia eman nahi die ponentzia honek, nola ez.

Langileriaren baitan bizi diren errealitate desberdinek eta, bestetik, LABek errealitate horien erreferente bihurtzeko nahiak, IV. Biltzar Nagusian antolamendu-atal berriak irekitzea ekarri zuten. Orain egin beharreko balantzea eta gogoetaz gainera, duela lau urte hasitako norabide horretan aurrera egitea izango dugu lehentasun nagusietako bat.

Esan dezagun, bidenabar, ponentzia honetan adierazi dugun antolamendu-ereduaren zehaztapena eta garapena gogoeta ireki eta dinamikotzat hartu behar dugula hurrengo lau urteotan. Aldatu nahi dugun errealitatea eta erdietsi beharreko helburu hoberenaren arteko oreka adieraziko dute bide itxaropentsu honetan aplikatuko ditugun erritmoak.

# 1. GAURKO EGOERA: ANTOLAKUNTZAREN AGERPENA

## 1.1. Langileriaren baitako errealitate desberdinak

Neoliberalismoak bultzatutako desantolakuntza ekonomiko eta sozialak, korrante horrexek sustatu eta garatu duen klase-sujetua txikitzean, birrintzean, izan du agerpena. Langileria osatzen duten pertsonen era askotako problema eta lehentasunak dituzte.

Denetik dugu egungo panoraman: langabezian dauden langileak, sasi-autonomoak, pentsionistak, pluriempleatu, gizarte ekonomian diharduten langileak, etab. Areago, lan-merkatuan bertan, kontratu-motaren eta lan-baldintzen arabera ere bereiziak gertatzen dira langileak. Gauzak horrela izateak indibidualismoa eta korporatibismo errebindikatiboa bultzatzen du eta langileriak bere-bereak dituen balore bikain batzuk —elkartasuna, berdintasuna, esate baterako— galdu egiten dira.

Klase-sujetua zatitzearen bitartez beste zerbait ere oztopatu nahi dute: langileak antolatu eta patronalari zein boteredun politiko-ekonomikoei erantzunik ematea alegia, sindikalismoaren indarrak neurri handi batean ahulduz.

Azken urteotan gizartean gorpuzten ari den eraldaketa horrek, langileriaren itxuraketa berriak eta berorren ondorioek zera eragin behar dute: klase sindikalgintzaren antolaketa ereduak eta eskuhartzerako ildoen interpretazio zuzena.

## 1.2. Errealitate horien bilakaera

Langabezia, prekarietate eta bazterkuntza soziala —kopuruz, bederen— ez da bizi-ki aldatu edo, bestela esateko, goraka omen zetorren ziklo ekonomiko horren eraginak (enpresen eta banketxeen etekinek markak hautsi dituzte) ez dira nabaritu gizartean: langabezian dauden 180.000 pertsona horien "beste errealitate soziala", lan-merkatuko here-naren prekarietatea, pobreziaren ertzean bizi diren milaka familiak etab. Dualtasun soziala geroz eta latzago bilakatzen ari da oraindik ere.

Aipamen berezia merezi du oraintsu hamaika enpresatan gertatzen ari den belau-naldi-berritzea, aldakuntza horren ondoren, 20-30 urteko pertsona gazteak ditugu lantokietan, inongo eskarmentu sindikalik gabeak. Sindikatuek -LAB Gazteak-ek, bereziki-erronka dute langile-sektore horretaraino iristea.

Euskal gazteria eta emakume langilea, oro har, politika sozio-ekonomikoen ondoriozko desoreka latzak larrutik pagatzen ari dira.

Euskal sindikalismoak -LABek bereziki- erantzun sindikal eta soziala globalizatzeko bidean aurrerapausu handiak eman ditu, aspalditik aldarrikatzen genituen lan eta aberastasunaren banaketa-kontzeptuak erreibindikazio moduan garatu baititu. Soldata soziala eta 35 lanorduko astea eskatzeari esker, erreibindikazio-alorrean langileria osoa biltzen duen fronte sindikal eta soziala antolatu ahal izan dugu, gainera.

### **1.3. Parte hartzeko bideak**

Goian adierazitako joera eta jarrerak (klase-sujetua zatitzea, gizartea desantolatzeta, klase-sindikalismoan korporatibismozko tejoak agertzea etab.), partehartze eta militantziaren krisia eragin dute.

Antolamenduaren ikuspegitik, langileria osoarengana (enplegu finkoa dutenak, gizarte ekonomiako enpresetan dihardutenak, langabezia daudenak, prekarietatez ari direnak, lan-merkatutik at dabilzanak etab.) gerturatzea erraztuko duten osotasunezko planteamenduak egin behar ditu LABek. Horretarako, Sindikatuak berez daukan artekari sozialaren eginkizuna balio berriaz jantziko duen erreferentzialtasuna berreskuratu behar du.

Afiliatu guztientzako informazioa jaso, kontsulta egin, eztabaidan aritu eta partehartzeko bideak indartu behar ditugu. Bere nortasunaren oinarriak barne-demokrazia eta partehartzea dituen erakundeak, afiliatuen batzarrak lurralde eta sektoreka bizkortzeko gauza izan behar du, proiektu sindikal hau egia bihurtzeko prest dauden herritar horien guztien topagune izan daitezen.

### **1.4. LAB, antolamenduan erreferentzia**

Gizartearen aldaketa lortzeko bidean aurrera goazela, eguneroko lanean eta norberaren ezaugarrien arabera aportazioak egiten dituzten langile-multzo horien lan-dinamikak eta antolamendu-markoak bizkortzeko unean agertzen diren zailtasunak LABen ere

nozitzen ditugu, jakina.

Langileriaren antolamendurako tresna izan nahi dugulako, langileak antola daitezen eta parte har dezaten bideak eskaini behar ditu LABek. Sindikatu honetan lanean jarduteko tokia dute errealitate guztiek.

Azken lau urteotan izaniko eskarmentua abiagune egokia izango dugu: gure antolamendu-eredua indartuko duten antolakuntza-egiturak sortu eta sendotzean aurrera egiteko balio izan behar du Biltzar nagusi honek.

Ardura eta erreferentzialtasun handiko eragileetako bat LAB sindikatua izaki, egungo koiuntura politikoa onuragarria da, gure proiektuaren inguruan beste pertsona batzuk ere ilusioz eta itxaropenez gerturatu, hasi eta parte har dezaten.

## 2. ANTOLAMENDUA: BALANTZEA

### 2.1. Gogoeta orokorrak

Antolamenduaren garapenari dagokionez, apustu mordoska egin genuen IV. Biltzarrean, gora-behera handi eta desmaila latzekin zehaztu eta garatu direnak. Egindakoaz, oro har, ezin harro egon gaitezke.

Alde batetik, gauza ugari egin dira eta, euskal gizartearen osoan, Sindikatuaren eraginak eta erreferentzialtasunak gora egin dute; baina, bestetik —autokritika konstruktiboa eginez—, antolamenduaren erritmo eta lehentasunak ez dira izan egokienak, Sindikatuaren partehartze - eta zabaltze - alorretan ditugun premiak asetzeko.

Gure egitura guztiak azpiegiturez eta giza baliabideez hornitzea zela eta, Sindikatuak lau urte hauetan eginiko ahalegina (ordezkaritzan eta afiliazioan gehikuntzak gertatu diren arren) ez dugu antolamenduaren garapen egokiarekin behar bezain ongi osatu.

Erakunde honen bestelako premia edota lehentasunez arduratzearen ondorioz, barne-antolamenduarekin zerikusi zuzena duten garrantzi handiko alderdi batzuk ez ditu-

gu merezi bezala zaindu. Ordezkaritzan, afiliatuen kopuruan, azpiegituretan eta giza baliabideetan izan dugun hazkuntzak barruti honetan gogoeta egin eta zerbait egitera garatzea, ezinbestean.

Ponentziako atal honetan luzatzea ez da gure helburua. IV. Biltzar Nagusitik ondorioztatutako antolamendua martxan jartzeko zailtasunak 1999ko apirileko Biltzar Nazionalean aski sakonetik aztertu genituen. Bide beretik, V. Biltzar Nagusian aurkeztu beharreko gestio-txostenean ere kontu hau sakonki jorratu beharko da.2.- BALANCE ORGANIZATIVO

## **2.2. Antolamenduaren garapena: alderdi kritiko batzuk**

Duela lau urte, Areak sortu, sektore berriak sortu eta garatu, eta Herri Biltzarrak bizkortzearen aldeko apustu berri indartsua egin genuen. Balantzeak argi eta garbi erakusten digunez, antolamendu-lanaren lehentasunak ez ditugu behar bezain zehazki adierazi. Lortu dugun garapena gora-beheratsu eta eskasa izan da, gure premiak kontuan izanik.

Gure aurreko ponentziaren planteamendu teorikoan argi asko agertzen zen Sindikatuarentzat sekzio sindikalek duten garrantziaren handia. Sekzio sindikalekin egin beharreko lana eta izan beharreko harremanak, oro har, ez ditugu aski bultzatu, bizkortu.

Azken urteotako lan-dinamika sozio-politiko eta sindikalek (eskuhartze sindikal sektorial eta konfederala, hauteskunde sindikalak, kanpaina nazionalak eta, gehiegitan, hori guztiaren plangintza eta prebisio egokia egin ez izana) behar bezalako antolamendu egokia erdiestea eragotzi digute.

Gainera etorri zaigun lanaren itzelari esker, langileriarengan erreferentzialtasun eta legitimitatea irabazi dugunez, proiektua finkatu egin dugu. Baina, beste aldetik, antolamenduaren ikuspegitik, hori ez da nabarmenegi agertu gizartearengan. Bestela esatearren, antolamendua dela eta, gure lan-dinamikei etekin urria atera diegu.

Lan-plangintza "errealistak" egiteko premia egiaztatzen dugu, beraz, antolamenduaren garapenari dagozkion helburuak finkatuz. Plan horiek ebaluatzeko modukoak - eta, beharrezkoa balitz, egiturek egokitzeko modukoak - izan behar dute.

Nolanahi ere, Sindikatuak produkzio-munduan lortu duen barneratze-mailaz ezin egon gaitezke harro. Ederki dakigu prekarietatean eta bazterkuntzan bizi diren langile askok eta askok sindikalismoa ez dutela baleko erreferentzia. Sindikalismoa - LAB, bereziki - alor ideologikoan eta diskurtsiboan erreferente bada ere, antolakuntza mailan ez da horrelakorik. Erronka berri horien aurrean eragin ahal izateko, lan-plangintza eraginkorrez

hornitu behar dugu geure burua.

Biltzarren arteko epearen balantzeari eskainitako zati honetan agertzen diren gogoetek ez gaituzte eraman behar jarrera defentsibora edo gure balizko ezgaitasuna aitortzera. Honekin ez dugu IV. Biltzar Nagusian taxaturiko eredu auzitan jartzerik nahi; baina, hori bai (izaniko hankasartze eta antzemaniko akatsetatik ikasiz, metatu dugun eskarmentuak horretarako aukera ematen digu eta), egin beharreko antolamendu-aldaketak txosten honetantxe proposatu behar ditugu.

### **2.3. Antolamenduaren garapena: beste alderdi batzuk**

Aurreko Biltzarretik indarrean jarri zen antolamendu-ereduaren arabera, Sindikatuaren lanak egiteko bitarteko egokiez egiturak hornitzeko helburuz, ahalegin ekonomiko gaitzak egin ditu erakunde honek. Egoitza-sarea hazi, azpiegiturak ugaltu eta aurrerakuntza teknologikoak gaurkotu egin ditugu. Horretaz gainera, Sindikatuarekin harreman laboral ordaindua duten pertsonen kopurua ere gehitu egin da.

Inbertsio-mordo hori, ez dezagun ahaztu, geure finantza-bitartekoekin egin behar izan dugu. Edonork ederki dakien bezala, dirulaguntzak eta ondare sindikala banatzeko unean LABek diskriminazio gordina (gaur arindu bada ere) jasan izan du historikoki.

Afiliazio-politikari dagokionez, egiaztatzen ari ginen nolabaiteko gelditze-joera gaitza lortu genuen arren, urtero-urtero afiliazio-gehikuntza erregularizatu egin da, oso maila egokian erregularizatu ere. Aldi berean, afiliazioaren gestioan hobekuntzak egin ditugu. Beraz, lan-ildo horretan aurrera egin behar dugula adierazten digu horrek guztiak.

Sindikatu honek gizartean lortu duen agerpen eta barneratzearen adierazle garbiak dira hauteskunde sindikaletako emaitzak. Ponentzia hau idazten ari garen unean, Hego Euskal Herriko ordezkartzaren %15,35 du LABek. Baskongadetan %16,16 dugula, hirugarren indar sindikal gertatu gara aurreneko aldiz eta Nafarroan %13ra iritsi gara. Datu hauetatik enpresa-batzordeei dagozkienak baloratzen baditugu, Hego Euskal Herrian LABek %16,57 erdietsi duela ikusiko dugu. Adiera honetan egin ditugun hausnarketa eta balorazioetan, LABen potentzialitatea oraindik oso handia dela ondorioztatu da maiz antzean.

Berrito ere jo behar dugu 1999ko apirileko Biltzar Nazionalera, antolamenduaren garapenari dagokionez: Sindikatuaren sektorializazioan eman dugun aurrerapausua nabarmena da.

### 3. HELBURUAK ETA ERRONKAK

Gure afiliatu guztiekin komunikazio estuago eta handiagoa bultzatzeari, Sindikatuaren dinamika guztietan partehartzea erraztuko duten mekanismoak sustatzeari eta antzeko helburuei esker, jakina, gure proiektu sindikalean sinetsi eta lanean diharduten pertsonen kopurua egunetik egunera handiagoa izango da.

Horrela bada, Sindikatua zabaltzearen helburuak lortu ahal izateko, erakunde honen kanpo-proiektzioa handitzea ahalbideratuko digun dinamika bizkortu behar dugu. Erreferentzialtasuna egunez egun irabaziz doan sindikatuak ezin du bere burua mugatu barne-antolamenduaren garapena bakarrik eginez: Sindikatuaren ateak zabaldu eta euskal gizarte osoari ezagutarazi behar diogu.

Egoera sindikal eta politikoari eraginkortasunez erantzuteko, antolamendu-egitura arinez hornitu behar dugu geure burua; horretarako behar-beharrezkoa da gure gaurko ereduaren antolamendua egokitzean bete-betean asmatzea. Nazio eraikuntzan eta gizarte aldakuntzan aurrera egiteko asmoa duten herritar guztiak erreferentzi-marko batekin identifikatu behar dute. Marko horixe dugu LAB, dudarik gabe.

Oinarrizko premisa baten gainean, antolamendu-eredu bat finka dezagun: sindikatu konfederala da LAB; bere baitan eta elementu osagarri eta elkarlotuak diren aldetik, erakunde horren berriazko errealitatean jarduten duten sektoreei loturiko egiturak ditu; bestetik, lurraldez lurralde antolaturiko egiturak daude: hauetan integratzen dira langileriaren gainontzeko errealitateak, hala nola gazteria, emakumearen problematika, etab. Era horretan, gure eskuhartzea osotasunezko ikuspegitik dago zuzendua.

Gure ereduaren norabide horren ondorioz, etorkizunera begira bi erronka sustatu behar ditugu, nagusiki. Sekzio sindikala (ikuspuntu sektorialetik) eta herri mailako egitura, hau da, Herri Biltzarra, (lurralde eta osotasunezko ikuspegitik), funtsezko euskarriak ditugu geure eskuhartze politiko sindikalean; horiek behar bezala aktibaturik eta dinamizaturik ez ditugun neurrian, antolamenduaren garapena mugatuta edo geldiarazita egongo da.

Goian aipatu dugun antolamenduaren hazkuntza horren ondorioz, Sindikatuak beste egoitza berri batzuk eta zerbitzu zabalago eta kalitate hobegokoak eskaini ahal izango ditu. Alderdi hori zaindu eta hobetu behar dugu, baina kontsulta, aholkularitza juri-

diko edo ekonomikoa, premia desberdinen aurreko gestio - edo tramitazio - mota bereziak eskaintzea sustatu beharreko errealitate dugu gaur bertan.

1992ko Biltzar Nagusiak LABen sektorializazioaren hasiera ekarri zuen eta 1996koak eskuhartze-areetara zabaltzea ahalbideratu zuen. Oraingo Bostgarren Biltzar Nagusi honetan, Ekintza Sindikalaren ponentzian eginiko gogoeten eta aurreko ataletan esandakoaren arabera, sindikalismo sozialaren bidez nekez irits gintezkeen sektoreekin konektatzen saiatu behar dugu.

Sartuak garen fase berri honetan, gure erakundearen izaera konfederalak horixe adierazten du, egitura guztiek elkarrekin erlazionatu behar dutela. Langileariaren problematika eta errealitateetatik gertueneko markoetan (Eskualdeko Idazkaritza, Herri Biltzar eta Sekzio Sindikaletan, alegia) antolakuntza egokia osatzea izango dugu erronka.

## 4. EREDUAK ETA EGITURAK

### 4.1. Gogoeta orokorrak ereduaz

Hemen proposatzen dugun antolamendu-ereduak elementu berri garrantzitsuak agertzen ditu: Sindikatuaren garapenari begira, hori erronka handia da guretzat. Antolamenduaren garapenaz 1999ko apirilko Biltzar Nazionalako eztabaida eta xedapenetan sorburua duen proposamen teorikoa dugu orain abiagune: behar bezalako erritmo eta orekak aplikatzen asmatuz gero, egokiro soluzionatzen ere asmatu beharko dugu.

Ponentziako 3. atalean planteatu dugun bezala, militanteek eta afiliatuek Sindikatuaren dinamiketan inplikazio handiagoa izan dezaten bila gabiltzala, gaur egun Herrialdeko egiturek nolako eraginkortasuna duten gogoeta egitera iritsi gara. Sindikatuaren antolamenduan garrantzi handiko eginkizuna bete duten arren, gerora begira aukeratu ditugun helburuek eskualde - eta herri-mailako -egiturak indartzea aholkatzen digute.

Bi Biltzarren arteko epean zehar, etengabe eta era irekian, onetsitako ereduaren

garapen eta egokitzapenaz gogoeta egin behar (izan) dugu. Erantzun azkarrekoak izanik, detektatzen ditugun disfuntzioen aurrean biziki erreakzionatu eta, bietako bat, zuzentzeko neurriak jarri edo unean uneko egokitzapenak egin beharko ditugu. Aldakuntzak egin behar izatekotan kontua ez da lau urtez itxoitea, hobeki funtzionatzeko aldakuntza horiek egitea baizik, beharrezkoak direla etsi-etsian sinesten badugu.

Sindikatuaren egitura guztiak eta horien dinamizazioaren ardura daukaten pertso-  
nek ebaluazioa eta balantzea "pasa" beharko dute, kasuan kasuko markoan onetsitako hel-  
buru eta planen arabera. Horregatik, egitura horietako bakoitzak bete behar dituen egin-  
kizunak argi eta garbi zehazteak sekulako garrantzia izango du.

5. Biltzar Nagusia ondoren, 6 hilabeteko epean, ardura eta estruktura konfederalak  
lan plangintzak, hauen epeak eta ebaluatze sistemekin batera, diseinatu, eztabadaitu eta  
onartzeari ekingo diote. Antolakuntza Idazkariak abian jartzea dinamizatu eta koordinake-  
tari ekingo dio.

Horren arabera, egitura eta zuzendaritza-organo guzti-guztiek bereganatu behar  
dituzten zereginak karakterizatu eta zehazteak, Sindikatuaren dinamika transmititzeko  
unean, arintasunez esku hartzea eta zuzendaritza legitimitatez aritzea bermatuko digu.

Beherago, modu berezian, gure antolamendu-eredua gorpuzten duten bi zatien  
(herrialdekakoa, eta area eta sektorekakoa) zehaztapena azalduko dugu. Lehian aritu gabe  
(elkarren osagarri gisa baizik) bi zati horien arteko antolaketa, oreka eta koordinazioari  
esker, antolamendu-garapen hobezina lortzeko aukera izango dugu.

## **4.2. Koadro sindikalen ezaugarriak, gure ereduaren arabera**

Afiliazio-egitura denetan, eskaintza-maila eta arduren arabera, gure antolamendu-  
eredua militantzian eta aportazioan dago oinarritua. Geroz eta ugariago bihurtzen ari den  
giza kapital militanteaz aparte, gure bereizgarriak dituen erakunde batek, afiliatu guztien-  
tzat erreferente izango diren koadro sindikalak eduki behar ditu.

Eskaintza handiagoa eman dezaketen koadro sindikal berriak integratzeko pre-  
mia sindikatuaren hazkuntzari estu-estu loturik doa beti, ezinbestean. Premia hori,  
ordea, ezin dezakegu bete ordainketa ekonomikoaz hornituriko liberazioa onartu duten  
pertsonekin bakarrik: alde batetik, gure baliabide ekonomikoak urri-urriak direlako;  
bestetik, geure burua funtzionarizatzeko edota burokratizatzeke arriskutan egongo  
ginatekeelako.

Horrenbestez, planteatu daitezkeen premiei erantzunak emateko balio duten formu-

lak bilatu beharra daukagu. Baliabide berriak eskuratzeko bideak izan daitezke (izan behar dute) ordu sindikalen metaketa eta ordu horien kredituaren bidezko liberazioak. Horrela izan dadin, eragina izango duen sail sindikalarekin kontsulta aurrebaldintza da.

Beraz, giza baliabide guztiak Sindikatuaren kapital dira. Horrela ulertzeak ez ezik, horrela asumitzeko prest egoteak berebiziko garrantzia du. Beste liberatu batzuk hartzeko beharraz ari garen aldi berean, Sindikatuan ditugun giza baliabideak optimiza-tzea eta bakoitzari aproposen dagokion arduran kokatzea behar-beharrezkoa da.

Gure koadro sindikalei buruzko hausnarketaren ildotik eta horietan delegatu sindikalek duten garrantzia ikusita, langileak - zor zaion eskubidea baita - har ditzakeen ordu sindikalen erabilera sakonetik aztertu behar da. Ordu sindikalak metatzea, pertsona bakoitzak dituen ordu sindikalak eta liberazioak, norberari dagokion estruktura sektorial zein lurraldekoan informatuak eta jorratuak izan beharko dira.

Gure koadro sindikal guztiak - norberari egokitu zaion arduraren eta erantzun behar duen neurriaren arabera - heziketa ideologiko eta tekniko aproposen bitartez trebatu behar dira. Berariazko gaietan eguneratzea eta birziklatzea ezinbesteko elementuak ditu koadroak. Behar bezala zuzendu eta planifikatutako barne-heziketa politiko eta sindikalari esker, gero eta eraginkortasun handiagoko erantzunak eman ahal izango ditugu.

## 5. ZUZENDARITZA-ORGANO KONFEDERALAK

### 5.1. Biltzar Nagusia

Sindikatuako zuzendaritza-organo gorena da hau. Hurrengo atalean aipatzen diren eginkizunez gainera, LABen Estatutuen gaurkotzea jorratzean, zeregin horiek bestela zehaztu edo zabaldu egin ahal izango dira.

### **5.1.1. Eginkizunak**

- Sindikatuaren jarduerako ildo orokorrak adierazi eta onestea.
- Komite Exekutiboa hautatzea
- Estatutuetan xedatua dagoen bezala, Sektoreko Idazkariak eta Eskualdeko Idazkariak hautatu eta berrestea.
- Estatutuak onetsi edo aldatzea.

### **5.1.2. Biltzar Nagusiaren osaketa**

Biltzar Nagusia bostehun kidek osatuko dute. Ordezkar horien hautaketa Eskualdeko Afiliatuen Asanbladetan egingo dira, tokian tokiko afiliatuen kopuruaren arabera. Biltzar Nagusiko eskubide osoko kide izango dira, era berean, Komite Nazionalako kideak.

## **5.2. Biltzar Nazionala**

Hurrengo atalean aipatzen diren eginkizunez gainera, LABen Estatutuen gaurkotzea jorratzean, zeregin horiek bestela zehaztu edo zabaldu egin ahal izango dira.

### **5.2.1. Eginkizunak**

- Biltzar Nagusiaren arteko epean, hauxe da zuzendaritza-organo gorena. Halakotzat, Biltzar Nagusiaren eginkizunak bere egingo ditu, biltzarren artean.
- Biltzar Nagusiak hala agindurik, organo hau izango da Biltzar horretan harturiko xedapenak bete daitezen bermatuko duena.
- Zuzendaritza-organo honek hartu beharko ditu Biltzar Nagusian jorratu ez diren gaietarako erabakiak baldin eta, daukaten garrantzia dela medio, gainerako zuzendaritza-organoen eskuduntza gainditzen baldin badute.
- Komite Nazionalaren proposamenez, greba orokorretarako deialdiak zein bat egiteak, eta LAB zuzenean eragiten duten nazional mailako mobilizazioetarako deialdiak onartu edo arbuiatzea. Baldintza tekniko zein denborazkoak ahalbidetzen duenean, azken erabakia hartu aurretik, Komite Nazionalak edo Komite Exekutiboak bestela, gure jarrera azalduaz gidoi bat igorriko du sindikatuko esturkturara aldeztu aurretik.
- Komite Nazionalak proposaturik, Komite Exekutiboko kide guztiak hautatu, izendatu edo kargugabetu ahal izango du Biltzar Nazionalak.
- Komite Nazionalak proposaturik, Eskualdeko Idazkariak hautatu, izendatu edo

kargugabetu ahal izango du Biltzar Nazionalak.

- Sektoreko Komite Nazionaleri proposatu ahal izango die bertako Sektoreko Idazkaria ordezkatzeari.

- Lurralde eta sektore egiturek onetsiz gero, Sektore eta Eskualdeen osaketa zabaldu, murriztu edo aldatu ahal izango du.

- Bidezko arrazoiak edo antolamendu-alorreko premiak direla medio, Komite Exekutiboko kideen kopurua (bi kiderekin, gehienez ere) eta Komite Nazionalena (lau kiderekin, gehienez ere) zabaldu ahal izango du.

- Organo honen eskuduntzakoa da Biltzar Nagusirako deialdia egitea. Idazkariak y Eskualdeko Idazkariak.

- Funtzionamendurako barne araudi bat izango du.

### 5.2.2. Biltzar Nazionalaren osaketa

Ehun eta hogeiki kidek (ehun eta hogeita bostek, gehienez ere) osatuko dute Biltzar Nazionala, hurrengo eran:

- \* Komite Nazionala: 39 kide.

- \* Eskualdeen ordezkariak: 34 kide. Eskualde bakoitzeko bina kide. Salbuespenak dira Errioxa-Arabako Bailarak-Arabako Mendialdea eta Sakana-Larraun, hauek bana hautatuko dutelarik eta bestetik, Donostia-Hernani eta Bilbo zeinak 3 hautatuko dituzte, afiliazioa oinarritzat harturik.

- \* Eskuhartze-area bakoitza - Emakume arloa, Gazte arloa etab -: bina ordezkari. Ordezkari hauek arloak hautatuko ditu.

- \* Sektoreen ordezkariak: 43 kide. Sektore bakoitzak bina kide izendatuko ditu. Gainontzekoak, 43ak osatu arte, bertan afiliaturik dauden lagun-kopuruaren arabera izango da.

- \* Komite Exekutiboko kide ez diren arduradun nazionalen artean, bost kideraino hautatu ahal izango ditu Komite Nazionalak, Biltzar Nazionalako eskubide osoko kide izan daitezen.

- \* Biltzar Nazionalako kidearen izaera nominala da. Eta bera osatzen duten kideek jakin behar dute bertara biltzea nahitaezkoa dela eta lehentasunezkoa, gainera, bestelako bileraren batekin kointzidituz gero.

### 5.3. Komite Nazionala

Hurrengo atalean aipatzen diren eginkizunez gainera, LABen Estatutuen gaurkotzea jorratzean, zeregin horiek bestela zehaztu edo zabaldu egin ahal izango dira.

### 5.3.1. Eginkizunak

- Goiko organoek harturiko erabakiak bete daitezen bermatzea.
  - Koiuntura politiko eta sozialei buruz gogoeta egin eta klabeak ematea, bai Sindikatuko militante eta afiliatu guztiei, bai euskal gizarte osoari ere.
  - Gobernuen politika ekonomiko, industrial eta sozialak gertutik jarraitzea.
  - Komite Nazionalako arduradunen urteko lan-plangintzak egin daitezen bermatzea. Era berean, plan horien balantzea eta ebaluazioa egitea.
  - Sindikatuaren urteko aurrekontu ekonomikoa onestea. Era berean, Sindikatuaren egoera ekonomikoa gertutik jarraitzea, balantzea eta emaitza-kontuen bitartez beharrezkoa den zuhertasunarekin, datu hauen inguruko informazioa helaraziz afiliazioari ohizkoak diren bideetatik. Era berean, urteko kuotaren munta onestea.
  - Organoaren lanabes izango diren neurrian, lan-batzordeak sortzea; hauen erritmoak, eginkizunak eta epeak adieraztea.
- Ohizko Biltzar Nazionala deitu, edota ezohizkoa.
- Errealitate berrien arabera, Komite Exekutiboaren (bi kidez, gehienez ere) eta Komite Nazionalaren (lau kidez, gehienez ere) zabalkuntza Biltzar Nazionalari proposatzea.
  - Komite Nazionalako kide guztien hautaketa, izendapena edo kargugabetzea Biltzar Nazionalari proposatzea.
  - Era guztietako instantzien aurrean, Sindikatuaren ordezkaritza ofiziala agertzea.

### 5.3.2.- Komite Nazionalaren osaketa

40 kidek osatuko dute Komite Nazionala, hurrengo eran:

-Idazkari Konfederalak (13):

- \* Idazkari Nagusia
- \* Ekintza Sindikala eta Politika Sozialerako Idazkaria
- \* Negoziazio Kolektiborako Idazkaria
- \* Komunikazio Idazkaria
- \* Finantzak, Azpiegiturak eta Gizabaliabideetako Idazkaria
- \* Gai Ekonomikoetarako Idazkaria
- \* Gai Juridikoetarako Idazkaria
- \* Emakume arloko Idazkaria
- \* Gazte arloko Idazkaria
- \* Nazioarteko Harremanetarako Idazkaria
- \* Hezkuntza Idazkaria

\* Barne Koordinaziorako Idazkaria

\* Antolakuntza Idazkaria

- Sektoreetako Idazkariak (10):

\* Eraikuntza, Zurgintza, Beira, Zeramika etab.

\* Kimikak, Energia, Oihalgintza, Papergintza, Arte Grafikoak etab.

\* Metalgintza

\* Merkataritza, Ostalaritza, Garbiketa,

\* Garraio, Telekomunikazioak.

\* Finantza (Banka, Aurrezki Kutzak eta Aseguruak)

\* Irakaskuntza (Publikoa, Pribatua, Ikastolak)

\* Osasungintza (Publikoa, Pribatua...)

\* Administrazio Publikoak (Udalekoa, Autonomikoa, Estatukoa, Posta etab.)

\* Itsasoa. (Arrantza, Merkataritza, etab.)

- Eskualdeetako Idazkariak (17):

\* Aiara. (A)

\* Errioxa-Arabako Bailarak-Arabako Mendialdea. (A)

\* Gasteiz-Lautada. (A)

\* Bilbo. (B)

\* Busturialdea-Lea. (B)

\* Durangaldea. (B)

\* Ezkerraldea-Enkarterria. (B)

\* Hego Uribe-Arratia. (B)

\* Eskumaldea. (B)

\* Debaldea. (G)

\* Donostia-Hernani. (G)

\* Kosta-Urola. (G)

\* Oarso-Bidasoa. (G)

\* Tolosa-Goierrri. (G)

\* Erribera-Erdialdea (N)

\* Iruñea-Iruntzu-Baztan. (N)

\* Sakana-Larraun. (N)

### 5.3.3. Idazkari Konfederalen eginkizunak

Hurrengo atalean aipatzen diren eginkizunez gainera, LABen Estatutuen gaurkotzea jorratzean, zeregin horiek bestela zehaztu edo zabaldu egin ahal izango dira.

#### \* IDAZKARI NAGUSIA

- Sindikatuaren ordezkari gorena izatea, barne zein kanpo esparruetan.
- Sindikatuaren bozeramaile-lanetan aritzea.
- Estrategia eta ekimen konfederalak aginduta, lan-dinamika eta planak bete daite zen zaintzea. Halaber, helburu hori lortzeko bidezko jotzen dituen ekimenak Komite Exekutiboari proposatzea.
- Bere eginkizunak bete ditzaten arduradun konfederalak ahalordetzea.

#### \* EKINTZA SINDIKALA ETA POLITIKA SOZIALERAKO IDAZKARIA

- Ekintza sindikalean daukan ardurari dagokienez, zuzendaritza-organoek harturiko erabakiak bete eta betearaztea.
- Eskuhartze sindikal eta sozial konfederala, Sektoreetako, Eskualdeetako eta Arloetako Idazkariekin koordinatzea.
- Bere ardurari dagozkion kanpaina nazionalak koordinatzea.
- Lan Osasuna eta Ingurugiroa koordinatu eta gertutik jarraitzea
- Politika sozialaren alorrean, antolamenduaren garapenean jardutea: ILPk sustatzea, LAB pentsionistak, emigrazioa, etab.

#### \* NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO IDAZKARIA

- Sektoreetako Idazkariekin eskuhartze-ildo konfederalak koordinatu eta garatzea.
- Erakunde instituzionaletan, enpleguari dagozkion kontuetan Sindikatuaren ordezkarietza agertzea.
- Negoziazio Kolektiboan kohesioa eta hobekuntzak lortzeko, sektoreetako arduradunekin mintegiak eta bestelako lan-bilerak antolatu eta eragitea.

#### \* KOMUNIKAZIO IDAZKARIA

- Langile, hedabide eta gizarte osoarenganako sindikatuaren komunikazio egoki eta efikaza bermatzea.
- Sindikatuaren prentsa bulegoaz arduratzea.
- Nazio, lurralde zein sektore mailan, propaganda eta publizitate beharri zehar

erantzutea.

- Komunikazio helburuak kontutan harturik, beharrezkoak diren euskarrien diseinua eta elaborazioa bideratzea.
- Kanpaina eta ekitaldien alderdi komunikatiboaz arduratzea.
- Sindikatuaren argitalpen guztien gestioa eta jarraipena egitea.
- Sindikatuaren irudi korporatiboaz arduratzea.
- Idazkari Nagusiaren delegazioz, bozeramaile-lanetan aritzea.

#### \* FINANTZAK, AZPIEGITURAK ETA GIZA BALIABIDEETAKO IDAZKARIA

- Sindikatuaren ekonomia gestionatzea: aurrekontuak, balantzeak, kontabilitatea, gestio-planak etab.
- Sindikatuaren azpiegiturak gestionatzea: tokiak, altzariak, ondare sindikala, inbertsio-plana, inbentarioak etab.
- Afiliazioari dagozkion kontuak gestionatzea: kontrola, afiliazio-politika, kuotak, etab.
- Giza baliabidei dagozkien kontuak gestionatzea: kontratazioa, soldata eta dietak, jubilazioak, etab.
- Martxan dagoen informatika-sistema gaurkoturik mantentzea eta bera erabiltzen duten langileen gaitasuna bermatzea.

#### \* GAI EKONOMIKOETARAKO IDAZKARIA

- Egoera sozio-ekonomikoari buruzko txostenak egitea.
- Arduradun konfederalak eta sektorialeak eskatzen dizkioten txostenak egitea.
- Erakunde instituzional sozio-ekonomikoetan Sindikatuaren ordezkaritza agertzea.

#### \* GAI JURIDIKOETARAKO IDAZKARIA

- Arduradun konfederalak eta sektorialeak eskatzen dizkioten txostenak egitea.
- Gobernu eta erakundeek onesten dituzten lege, dekretu, arau eta antzekoak gertutik jarraitzea eta horiei buruzko balorazioak egitea sindikatuko estruktura ezberdinentzako.
- Aholkularitza juridikoa antolatzea: kontsultak, minutak, informatizazioa, harpidetzak, etab.

#### \* EMAKUME ARLOKO IDAZKARIA

- Arlo honetako Idazkaritzaren garapenaz arduratuko da.
- Eskuhartze-ildoak, sexu femeninoaren ikuspegitik proposatu eta sustatuko ditu.

- Bere alorreko erakundeekiko harremanez arduratuko da.

\* GAZTE ARLOKO IDAZKARIA

- Gazte arloko Idazkaritzaren antolamendua garatzeaz arduratuko da.
- Gazteriari zuzendutako eskuhartze-ildoak proposatu eta sustatuko ditu.
- Gazte-erakundeekiko harremanez arduratuko da.

\* NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO IDAZKARIA

- Nazioarteko alorrari dagokion guztiaz arduratuko da.
- Nazioarteko harremanez eta egindako jardueraz txostenak egitea, zuzendaritza-  
organoek eskura izan ditzaten.
- LABen ordezkari izango da nazioarteko foro guztietan

\* HEZKUNTZA IDAZKARIA

- Barne - zein kanpo - prestakuntzaz eta trebakuntzaz arduratuko da.
- Ipar-Hegoa Fundazioko arduraduna izango da
- Prestakuntza - eta trebakuntza - kontuen gaineko foro instituzionaletan,  
Sindikatuaren ordezkari izango da.

\* BARNE KOORDINAZIORAKO IDAZKARIA

- Komite Nazionalaren eta Exekutiboaren bilerak antolatu eta bizkortzea.
- Hauteskunde Sindikalekin zerikusia duten kontu guztiak jorratzea.
- Sindikatuaren euskalduntze-prozesua koordinatzea.
- Sindikatuaren Ipar Euskal Herriko harremanak sustatuko ditu.

\* ANTOLAKUNTZA IDAZKARIA

- Sindikatuaren antolamendua sustatu eta ebaluatuko du.
- Lurralde - eta sektore - planak kontrolatu eta ebaluatzea.
- Lan-planen eta antolamenduaren ezaugarrien arabera, giza baliabideak  
baloratzea.
- Hezkuntza-alorreko premiak planteatuko ditu, gerora Hezkuntza Nazionalera  
igortzeko.

Nahikoa azaletik bada ere, ardura bakoitzari dagokionez aipatu ditugun

eginkizunez gainera (Estatutuei buruzko eztabaidan sakonago jorratuko ditugunak), beste zeregin batzuk ere denek bereganatzeko modukoak dira, hala nola:

- Bidezkoztat jotzen dituen ekimen guztiak zuzendaritza-organoei proposatzea.
- Nor bere ardurari dagozkion kontuetan, Sindikatuaren ordezkaritza agertzea.
- Nor bere eginkizunen barnean, bozeramaile aritzea.
- Urteko jarduera-planak egin eta ebaluatzea.

Biltzar Nagusiaren ondoren, arduradun bakoitzak lan-plana aurkeztuko dio Komite Nazionalari, honek onetsi dezan; horrekin batera, proiektua ongi garatzeko beharrezkoak dituen baliabideak ere agertuko ditu.

Egiten den lan plangintza bakoitzak argi utzi beharko du nor bereganatzen dituen ardura konfederalak herrialdeko estrukturak desagertu eta gero. Aipatutako arduren bereganatzea, gai, kasu eta momentuen arabera, herrialdeko bakoitzeko pertsona zehatzen ekarpenarekin osatuko da.

#### **5.3.4. Komite Nazionalaren hautaketa**

Idazkari Konfederal Nazionalen hautaketa, 1999ko urrian egin zen Biltzar Nazionalak onetsitako arautegiaren arabera egingo da.

Biltzar Nagusia egiten ari denean, Sektoreko Idazkari direnak Biltzar Nagusi horrekin berretsiko ditu. Bi Biltzar Nagusiren artean Sektoreko Idazkari edozein sektoretan beste norbait hautatuko balitz Biltzar Nazionalak berretsiko du.

Eskualdeko Idazkariak Biltzar Nagusiak hautatuko ditu ateratzen den Idazkaritza Nazionalaren proposamenez. Aldez aurretik Eskualdeko Afiliatuen Asanbladaren kontsentsoa izango du, bestela, Eskualdeko Idazkaritzarena.

### **5.4. Komite Exekutiboa**

Hurrengo atalean aipatzen diren eginkizunez gainera, LABen Estatutuen gaurkotzea jorratzean, zeregin horiek bestela zehaztu edo zabaldu egin ahal izango dira.

#### **5.4.1. Eginkizunak**

- Komite Nazionala dinamizatzea eta behar bezala jardun dezan zaintzea.
- Goiko organoen erabaki eta xedapenak bete daitezzen bermatzea. Komite Nazionalak onetsitako oinarritzko erabaki eta xedapenak martxan jarriko direla bermatzea.

- Komite Nazionalak erabaki bezala, arduradunen lan-dinamika eta planak bete daitezzen zaintzea.

- Organoaren ustez, Sindikatuarentzat interesgarri izan daitezkeen ekimen eta sugerentziak Komite Nazionalari proposatzea.

- Arduradun konfederal guzti-guztiekin harreman estu eta erraza segurtatzea. Horretarako, organo honen bileretan arduradun horiek pertsonalki ager daitezzen ahalegiak egingo dira, bakoitzak dituen ardurei buruzko kontuak jorratzen direnean. Ideia honek iragankorki Herrialdeko idazkariaren pertsonentzat ere balio du.

- Eguneko gai-zerrendak prestatzea, bileren martxa egokitzea, bertara kideak azaltzea, kideek egindako proposamenak (gerora jorratuak izan daitezzen) jasotzea eta Komite Nazionalaren bileretako aktak jaso eta erabiltzea ere izango dira Komite Exekutiboaren eginkizunak.

- Komite Nazionalaren delegazioz, era guztietako kontuetan eta instantzien aurrean, Sindikatuaren ordezkariak agertzea.

#### **5.4.2. Komite Exekutiboaren osaketa**

Agindutako zereginen arabera, organo hau hurrengo arduradunek osatuko dute:

- \* Idazkari Nagusia
- \* Ekintza Sindikala eta Politika Sozialerako Idazkaria
- \* Negoziazio Kolektiborako Idazkaria
- \* Komunikazio Idazkaria
- \* Finantzak, Azpiegiturak eta Gizabaliabideetako Idazkaria
- \* Idazkaritza Ekonomikoko Idazkaria
- \* Idazkaritza Juridikoko Idazkaria
- \* Emakume arloko Idazkaria
- \* Gazte arloko Idazkaria
- \* Nazioarteko Harremanetarako Idazkaria
- \* Hezkuntza Idazkaria
- \* Barne Koordinaziorako Idazkaria
- \* Antolakuntza Idazkaria

## 6. EGITURAK, EGINKIZUNAK ETA OSAKETA

### 6.1. Lurralde-egitura: eginkizunak

Egitura honi dagozkion eginkizunak munta handiagoa hartuz doaz. LABek langile-riaren gainerako segmentuei eskaintzen dizkien antolamendu-markoekin batera (eskuhartze-areak, adibidez), gure sektore-garapeneko errealitateak lurralde-maila eta marko guztietan agertuko dira.

Sindikatuak sustaturiko dinamika guztiak (bai politikoak, bai sindikalak) integratu beharko ditu lurralde-egitura territorialak, lan-plangintza egokiak eginez. Era berean, marko bakoitzeko errealitatearen arabera, sektoreetako dinamikak osatzeko moduko ekimenak xedatzea.

Herrialdeetako Idazkaritzak eta Biltzarrak - Sindikatuan eginkizun garrantzizkoa bete duten arren - gaur egun "izaera ertaineko" egiturak dira, ekarpen eta operatibitate urrikoak Sindikatuaren jardueran, gure iritziz.

Hala ere, kasu zehatzetan eta erabakitzeke ahalmenik gabe bada ere, ez dugu estruktura eredu hau erabiltzea baztertzen, Komite Nazionala edo Komite Exekutiboaren gainbegiraketarekin.

Alderantziz ordea, eskualdeko egituraren antolatu beharko du Sindikatuak bere ekarpena goi eta behe aldera begira, zuzendaritza nazionalako egiturarekin zuzenean konektatuz eta sektore, sekzio sindikal eta Herri Biltzarretara begira Sindikatuaren eskuhartzea eta garapena planifikatuz.

#### 6.1.1. Herrialde eta Eskualdeak

Eskualde-mailako egitura osatzearen aldeko apustua zela eta, aurreko Biltzarrean onetsi ziren irizpideek indarrean segitzen dute. Lau urte hauetan metaturiko eskarmentuak, halaz ere, eskualdeen egungo banaketa egokitu beharra dagoela erakutsi digu. Sailkapen edo banaketa berria martxan jartzean, gure ereduan berebiziko garrantzi katalizatzailea izango duen egitura hori hobeki operatibizatzea nahi genuke, hurrengo eran:

Komarkalizazio honek hainbat zonetan aldaketa garrantzitsuak erakarriko dituela argi dago, pazientzia askorekin jorratu beharko direnak. Ildo honi jarraiki, ritmoak errealtate bakoitzaren arabekoak izan beharko dira, dagokion eskualdeak eta, Antolakuntza Arduradunaren bidez, Komite Nazionalak aztertu eta jarraipena egingo dute. Dena dela, 2001 urtea amaitu aurretik egon beharko luke komarkalizazioa erabat garatua eta martxan.

ARABA: Aiara; Errioxa-Arabako Bailarak-Arabako Mendialdea; eta Gasteiz-Lautada.

BIZKAIA: Bilbo; Busturialdea-Lea; Durangaldea; Eskumaldea; Ezkerraldea-Enkarterria; eta Hego Uribe-Arratia.

GIPUZKOA: Debaldea; Donostia-Hernani; Kosta-Urola; Oarso-Bidasoa; eta Tolosa-Goierni.

NAFARROA: Erribera-Erdialdea; Iruñea-Iruntzu-Baztan; eta Sakana-Larraun.

Banaketa honetan, Sindikatua Euskal Herri osora zabaltzen ari dela izan beharko genuke kontutan. LAB Ipar Euskal Herrian sortuko balitz, bertako antolamenduak nolako ezaugarriak izan beharko lituzkeen erabakitzea Biltzar Nazionalaren esku geratuko litzateke.

Biltzar Nazionalak, halaber, Komite Nazionalaren proposamenaz eta eragindako egitura guztien onespenerekin, goian azaltzen diren eskualde horiek elkartu edo bildu ahal izango du.

Herrialdeko egitura desagertu izanaren ondorioz sortu dugun egituraketa berri honetan hiriburuek nolako garrantzia duten ere gogoan izan behar dugu. Gure dinamika eta harremanetako alderdi batzuetan, herrialde-mailako erreferente bihurtuko dira. Sindikatu, erakunde, instituzio eta abarrekiko harremanak, gonbidapenak, e.a.

Zentzu honetan, errealtate instituzional ezberdinak, Nafarroakoa azpimarratuko genuke, eta gure errealtate propio zein lortutako esperientziak, Herrialdeko Idazkariaren ardurak iragankorki mantentzea egokitzat hartzera garamatza. Komite Nazionala edo Komite Exekutiboak zehaztuko dute aipatutako arduradunaren eskuhartzea.

### **6.1.2. Eskualdeko Idazkaritza**

Egitura hau indartzea izango dugu, Biltzar honetatik aurrera, antolamendu-alorreko erronka handienetako bat. Horretarako, organo horren erreferentzialtasun eta legitimitatea dezente hobetu beharra dago Sindikatuan bertan. Eskualde guzti-guztietan helburuak zuzen planifikatu eta zehazteak berebiziko garrantzia izango du, gerora behar bezala garatuko badira.

Tarteko edo bitarteko egitura honek Sindikatuaren eragileetako bat izan behar du

etorkizunean. Helburu hori lortzeko, apustua zehazki erakusten duten bi elementu azalduko ditugu: batetik, eskualdeko idazkariak Komite Nazionalako kide izan eta bertan parte hartu beharko dute; bestetik, eskualdean dauden sektoreetako idazkariak eta arloek eskualde horretako idazkaritzan esku hartu behar dute.

## 6.1.2.1. Eginkizunak

- Bere osaketa halakoa izaki, zuzendaritza nazionalari ekarpenak egiteko funtsezko euskarria da.
- Maila nazionalen sorturiko lan-dinamika eta jarraibideak organo honen markoan garatzea.
- Berezkoa duen jarduera-esparruko errealitate ekonomiko, politiko eta sozialen arabera, lan-proposamen eta plan bereziak egitea.
- Eskualdean, ordezkariak eta artekaritza politiko, sozial eta instituzionalean aritzea.
- Bai afiliazioan, bai hauteskunde sindikaletan, behar bezain garatuak ez dauden sektoreetan Sindikatua zabaltzea.
- Eskualdean, lan-alorren garapena sustatzea (gazteak, emakumeak).
- Sektorearen garapenean parte hartzea, sekzio sindikaletan sustapenean eta dinamiketan elkarlanean arituz.
- Tokian tokiko errealitate eta premien arabera, Herri Biltzarrak sortzea.
- Organo horiek sustatu eta benetako edukiz betetzea, jarraipena egitean.
- Eskualdeko egoitza sindikalen jarduera hobereana bizkortu eta segurtatzea
- Asanblada eta Herri Biltzarren ekarpen eta iritziak jasotzea.

## 6.1.2.2. Eskualdeko Idazkaritzaren osaketa

Osaketa zorrotz-zorrotza izan behar du: bertan, arduradun bakoitzak eginkizun zehatzak beteko ditu. Behin-behingoan eta egitura lokala eta sektoreak behar bezala garatu arte, jarduera ez geldiaraztearren, organo horietan bereganatu beharko dituzten ardurak eratu ahal izango ditugu.

- Eskualdeko Idazkaria.
- Aholkularitza juridikoko arduraduna.
- Sektoreetako ordezkariak.
- Gazte arloko ordezkaria.
- Emakume arloko ordezkaria.
- Herri Biltzarretako arduradunak.

Herri Biltzarrak nola gorpuztu, tokian tokiko Sindikatuaren eskuhartze- eta antolamendu-errealitateen arabera planteatuko da.

Herrialde bakoitzeko Idazkari Teknikoa, bere aportazioa eraginkorren gertatuko den Eskualdeko Idazkaritzan integratuko da.

### **6.1.3. Herri Biltzarrak**

#### 6.1.3.1. Eginkizunak

Atal honetan planteatzen dugun helburuetako bat, gure eskuhartze sozio-politikoa garatzeko baldintza hoberenak sortzen diren tokira gure Sindikatua ahalik eta gehien gerturatzea da. Herri Biltzarren sorrera eta geroagoko dinamika, beraz, marko lokal horren osaketa eta ezaugarri ekonomiko, politiko eta sozialekin hertsiki lotuta dago.

Marko horretatik garatzen dugu osotasunezko eskuhartzea, hau da, lantokietatik harago ere zabaltzen dena. Herri Biltzarraren zeregina, beraz, argi dago: problematika ekonomiko, laboral, sozial eta politikoak era naturalean bateratzen diren tokian, arazo horiexei erantzuna emateko gai izango den egitura antolatua dagoela erakutsi behar du LABek.

LABeko Herri Biltzarra halako tokian egoteak adierazi nahi du Sindikatuaren existentzia bertatik barreiatzen dela herri horretako gizartera. Herri Biltzarraren eginkizun nagusietako bat Sindikatua alor guztietara zabaltzea izango da, produkzio-ehuna nolakoa den, gizartea nola osatuta dagoen, lan-egoerak zein gora-beherak dituen etab, gertu-gertutik ezagutzuz:

- Inguruneko produkzio-ehuna, gizarte-osagaia eta lan-egoera ezagutu eta aztertzea.
- Sindikatua esparru guztietan zabaltzea.
- Marko horretatik, afiliatuen asanbladak sustatzea, afiliazio guztiekiko harremanak areagotu eta sindikatuaren dinamikan parte hartzea sustatzeko.

#### 6.1.3.2. Herri Biltzarraren osaketa

Marko lokaleko errealitatearen arabera eta egitura honen izaerari dagokion bezalaxe, Herri Biltzar bakoitzak bere osaketa inguruko errealitateari egokituko dio. Hona hemen, nolana ere osatzen ahalegindu behar dugun gutxieneko lantaldea:

- Herri Biltzarreko arduraduna. (Ekintza Sindikala eta Antolakuntza).
- Sindikatuaren zabalkuntzaren arduraduna.
- Gazte arloko ordezkaria.
- Emakume arloko ordezkaria.

- Garrantzi handieneko Sekzio Sindikalen ordezkariak.
- Hainbat Foro eta Plataformatan LABen izenean parte hartzen dutenak.

### **6.1.3.3. Herriko afiliatuen asanblada**

Cuando existan condiciones y para potenciar la participación de la afiliación.

Sus funciones serán:

- Velar por el cumplimiento en el pueblo de las decisiones que tome el Biltzar Nagusia y los órganos de dirección.
- Aprobar y evaluar los planes de trabajo que corresponden al pueblo.

### **6.1.4. Eskualdeko Afiliatuen Asanblada**

#### 6.1.4.1. Eginkizunak

- Biltzar Nagusiak eta zuzendaritza-organoek harturiko erabakiak eskualdean bete daitezen zaintzea.
- Biltzar Nagusiak edo Biltzar Nazionalak hala proposaturik, Eskualdeko Idazkaritza izendatzea.
- Biltzar Nazionalerako, Eskualdeko ordezkariak berrestea.
- Eskualdeari dagozkion urteko lan-planak onetsi eta ebaluatzea.
- Biltzar Nagusia joango diren ordezkariak hautatzea.
- Arazo zehatz zein orokorreari buruz dituen ikuspegia eztabaidan jorratu eta egiturei jakinazartea.

## **6.2. Sektoreko Egitura**

Sektoreko egituraren funtzionaltasuna zerbaitek zehazten du, bereziki: egitura horixe dugu lantokietan esku hartzeko tresna. Sekzio sindikalaren markotik hasi eta maila nazionaleraino, berezko garapena du egitura horrek. Bertan bi faktore batzen dira: batetik, dagokion sektorean bere eskuhartzea operatibizatzeke autonomia (hainbat mailatan partehartze osagarriari esker aberastuta) eta, bestetik, gure ereduaren ardatz territoriala.

### **6.2.1. Eginkizunak**

- Sektoreari, bere zereginak betetzeko beharrezkoa duen egitura (sindikaletik hasita, maila nazionaleraino) ematea. Atal honetan kontuan har dezagun, sektore bakoitza berezia denez, egiturak osatzeko unean ezin ditugula zorrotzegiak aplikatu.

- Egitura horren lan-planen artean, ikuspegi politiko, ekonomiko eta sozialetik Sindikatuak garatzen dituen lan-dinamika guztiak txertatzea.

- Sexu femeninoaren eta gazteriaren ikuspegitik egindako proposamenak onartu eta bere lan-plangintzan txertatzea.

- Politika sektorialari dagokionez, jarraipena egin eta proposamenak eskaintzea.

- Bere jarduera-marko osoan ekintza sindikala, negoziazio kolektiboa, konfliktibitate osoa asumitzea.

- Sekzio sindikalak sortu, garatu eta gertutik jarraitzea, 50 langile edo gehiago dituzten enpresetan.

- Dagokion Herri Biltzarrean, sekzio sindikaleko ordezkari batek (delegatu sindikalak, alegia) esku har dezan bultzatzea.

- Sektorean, Sindikatua zabaltzeko planaz, afiliazio-politikaz eta hauteskunde sindikalez arduratzea.

Sektoreko eskuhartzea zehazten duten apunte hauek praktikan gauzatu beharko dira, kasu bakoitzeko errealitateak agindutako modu eta neurrian.

### **6.2.2. Sektore Egituren osaketa**

Biltzar Nagusia eta Sektoreko Komite Nazionalari dagozkion ataletan ezarritakoa salbu, hemen isladatutako osakera orientatiboa da, behinbetikoa, sektoreko errealitate, behar eta eskualdetan duten garapen mailaren arabera ezarri beharko da.

#### 6.2.2.1. Sektoreko Biltzar Nagusia

Hau da sektoreko organo gorena eta, aldi berean, erabaki konfederalak asumituta, eskuhartzeko jarraibideak egokitze arduraduna. Afiliazioa izango du organo honek beti ordezkartzaren oinarria, lurraldeen arteko oreka mantenduz. Sektoreko Biltzar Nagusiko kideak Biltzar Nagusia osatzen dutenak baino gutxiago izango dira nahitaez, eta sektore bakoitzak duen ezarpen edo agerpenaren arabera hautatuko dira.

#### 6.2.2.2. Sektoreko Komite Nazionala

Zuzendaritza-organo hau Sektoreko Biltzar Nagusiak hautatuko du eta sektorekoan antolamendua eta eskuhartzea garatzeaz arduratuko da.

Sektoreko Idazkaria Komite Nazionalean eta Sektoreko Eskualdeko ordezkariak Eskualdeko Idazkaritzan agertzeari esker, sektorean osoko eskuhartzea gauzatzeko beharrezkoa den giltzetako bat eskuan dauka organo honek.

Errealitatea, agerpena eta egin beharreko lanak kontuan izaki, organo hau hurrengo eran osatuko da:

- Sektoreko Komite Exekutiboko kideak
- Sektoreko Eskualdeetako Ordezkariak.

#### 6.2.2.3. Sektoreko Komite Exekutiboa

- Sektoreko Idazkari Nagusia.
- Azpisektoreetako arduradunak.
- Sektoreko Negoziazio Kolektiborako arduraduna.
- Sektoreko Antolakuntza
- Osoko beste ardura batzuk

#### 6.2.2.4. Sektoreko Eskualdeko Idazkaritza

- Eskualdeko arduraduna.
- Sektoreko arduradun lokalak.
- Sektorearen iritziz, enpresa erreferentzialetako ordezkariak
- Azpisektoreetako Eskualdeko Arduradunak

#### 6.2.2.5 Sektoreko Eskualdeko Afiliatuen Asanblada

Eskualdeko afiliatuek osatzen dute, esparru honek sektore dinamikan afiliazioaren eskuhar-tzea handitzea du helburu eta ordutegi eta egutegi egokian egingo dira deialdiak, beti ere, ahalik ete lagun gehiago esku har dezan. Ordezkari sindikalen presentzia ezinbestekoa da bertan.

6.2.2.6. Sektoreko Eskualdeko Ordezkarien Batzarra eskualdeko sektoreko ordezkariak osatzen dute, esparru honetan afiliazioak ateak zabalik ditu.

### **6.2.3. Sektoreak osatzeko irizpideak**

Lau urteotan metaturiko eskarmentuak, sektoreetan gauzatutako antolamendugarapen eskasak eta 1999ko apirilko Biltzar Nazionalaz geroztik gure antolamendu-eremuan sartu genituen norabide berriek aginduta, egungo sektoreen banakuntza hoberenarekin, gogoeta sakon egin behar dugu.

Orain planteatzen dugun aldaketaren bitartez - jarduera ekonomiko bakoitza sektore jakin batean kokatzea, alegia - sektore guztien antolamenduaren garapenean eragin-

kortasun handiagoa irabazi nahi dugu. Aurrerantzean, sektoreak hurrengoak lirateke:

- \* Eraikuntza, Zurgintza, Beira, Zeramika etab.
- \* Kimikak, Energia, Oihalgintza, Papergintza, Arte Grafikoak etab.
- \* Metalgintza
- \* Merkataritza, Ostalaritza eta Garbiketa
- \* Garraio, Telekomunikazioak
- \* Finantza (Banka, Aurrezki Kutzak eta Aseguruak)
- \* Irakaskuntza (Publikoa, Pribatua, Ikastolak)
- \* Osasungintza (Publikoa, Pribatua,...)
- \* Administrazio Publikoak (Udalekoa, Autonomikoa, Estatukoa, Posta etab.)
- \* Itsasoa (Arrantza, Merkataritza, etab.)

#### **6.2.4. Sekzio Sindikala**

Gure antolamendu-ereduaren egiturak zehaztu ondoren, sekzio sindikalari buruzko hausnarketa egitea komeni da. Eredu honetan, "sektoretasuna" eta "lurraldetasuna" gune horretantxe elkartzen dira, sekzio sindikalean, alegia. Sekzio Sindikala, sektorearen sorburu dela ahaztu gabe, Herri Biltzarretako partaide ere denez, eguneroko jardueran esku hartzeko osoko perspektiba hartzen du.

Hortaz, egitura biziduna izan behar du sekzio sindikalak: bai, lantoki jakin bateko problematika zehatzei eskuhartze sindikalez erantzunak emateko unean, baita baina Sindikatuaren osoko dinamiketan afiliatuen partehartzea bizkortzeko tresna den neurrian ere. Horretarako, Sekzio Sindikalari, batzutan, ematen zaion karakterizazio puntuala, mugatua eta instrumentala bertan behera utzi behar dugu. Sekzio Sindikalari dagokion osoko protagonismoa berreskura dezan dinamika berritzailean murgildu beharrean gaude.

Lanabes horren bitartez helarazi behar dizkie LABek bere proposamenak lanpostua duten langileei. Horretarako, batzuetan hautematen dugun gehiegizko delegazionismo kezkarriari bidebatez aurre egiteko, ezinbestekoa dugu gure ereduko maila hori alderdi guztietatik aktibatzea.

Sekzio Sindikala lantokiko afiliatu guztiek osatzen dute. Sektorearen norabide orokorren arabera, Afiliatuen Asanbladan eztabaida egin eta erabakiak hartuz moldatuko da organo honen barne-jarduera. Halaz ere, Sekzio Sindikal bakoitzak bere ordezkaria hautatu beharko du, bai barne-alorreko eraginetarako, baita egitura lokaletan eskuhartzeari dagokionez.

Datozen lau urteotarako helburu hartuko dugu, 50 langile baino gehiago izanik, %10eko afiliazioa gutxienez dugun enpresetan, Sekzio Sindikala sortzea edota funtzio-namendua hobetzea. Helburu handia bada ere, eskura daukagu erdieste, behar diren neurriak hartzen baditugu.

Ekonomia sozialeko langileei buruz, ekintza sindikaleko ponentzian egindako hausnarketak direla eta, gure jardueraren helburuak zehazten ditugu: kooperatibetan sail sindikalen garapena, tamaina eta elkartzeko izaeraren arabera; sail sindikal hauek estruktura sektorial zein lurraldekoan txertatzea; sindikatuak beharrezkoa den aholkularitza bermatzea, esparru estatutario zein laboralean; beharrezkoa denean, ekonomia sozial osoa hartuko luken kooperatiba ezberdinetako afiliazioak batera jorratzea gertaera ezberdinak, kongresuak, asanblada orokorrak..., eta, bukatzeko, harreman konfederalak izan Kooperatiba Federazioekin gure ekintza sindikala bultzatzeko.

### **6.3. Eskuhartze-arloak**

Antolamenduaren ikuspegitik egin dugu arloen karakterizazioa, langileriaren egungo zatiketa-egoerari dagokion bezalaxe. Emakume langilearen kasuan, gogora dezagun, sustrai estrukturalak ditu zatiketa horrek.

Sexuen arabera diskriminazioa gainditzeko jarduteak sexua delako aldakina aintzat hartuko duen jardura sindikala sustatzea agintzen digu. Gizartean emakumeak nozitzen duen zapalkuntzak gure erakundean, gure pentsakeran eta jardueran ere agertzen dela gogoan izan behar dugu. Horri aurre egiteko, ezinbestekoa da Sindikatuaren jardueran, antolakuntzan, harremanetan eta ekinaldietan gogoetako eta egokitzapenak zehaztu eta indartzea.

Antolamendu-ereduak zituen erroka eta apustuei zegokienez, elementu nagusieta-ko bat izan zen hau duela lau urte. Arloak eduki eta bultzatzeko behar gorria ikusten dugu gaur ere, horiei esker Sindikatuak osotasunezko ikuspegitik esku hartu dezan.

Lan-munduan sartzeko bestelako zailtasunak ere (edota egoera duinean, emakume eta gazteriaren kasuetan bezala) dituen biztanleriaren parte jakin baten aurrean, arloak berebiziko garrantzia duela ikusten dugu, baina ezin gaitzke mugatu horietara bakarrik.

Gure moduko langileak diren arren, egoera berezian (jubilatuta eta pentsionistak, autonomoak, e.a.) dauden sektore batzuei ere erantzun egokia emango dieten bestelako eskuhartze-areak ere garatzen ahalegindu beharko dugu aurrerantzean.

"Eskuhartzeko marko" bezala definitzen diren arloak funtsez lurralde-markoan

daude kokaturik baina, bakoitzaren ezaugarriak kontuan izaki, sektoreetan edo gainontze-ko egituretan ere kokatu ahal izango dira.

### **6.3.1. Egiturak: eginkizunak eta osaketa**

"Eskuhartzeko markoak" direlako, hain zuzen ere, Sindikatuaren beste egituretako planteamendu ber-berak mimetikoki aplikatzeari ihes egin behar diogu. Sindikatuaren barne eta kanpo aldera ahal den modurik hoberenean eskuhartzeko, bere burua marko egokiez hornitzeko gauza da: horixe du ahalmen handia.

Orientabide gisa, hurrengoek osatzea proposatzen dugu:

#### 6.3.1.1. Asanblada Nazionala - Biltzar Nazionala

- Komite Exekutiboa
- Lurralde edo sektore-markoetan parte hartzen duten pertsonak.

Organo honen eginkizunetako bat, lan-plana onestea da. Urtean bi aldiz bilduko da, gutxienez: batean, lan-plana onesteko eta, bestean, burututako jardueren balantzea egiteko.

#### 6.3.1.2. Komite Exekutiboa

Arloaren garapen eta finkapenaren arabera, Komite Exekutiboa ipiniko litzateke, hurrengoek osatua:

- Arloko Idazkaria
- Arduradun Nazionalak
- Eskualdeetako arduradunak

## **6.4. Delekatuen Asanbladak**


Herri zein eskualdeko delegatuen asanbladetan, enpresako gure ordezkari guztiek partehartzaile sentitu eta halakotzat jokatu behar dute.

Delegatuen egungo asanblada asko, informazioa igortzeko tramite huts edo mobilizazio-tresna huts izaten dira, baina horrelako dinamikak zuzendu behar ditugu: deialdiak egiteko garaian zorrotasun handiagoa agertu behar dugu, asanbladara den-denak joan daitezen interesa piztu behar dugu denengan. Asanblada ez baita, inondik ere, ordezkari-  
ren batek bisitatzen duen enpresa-koordinakunderik.

Asanblada horien maiztasunean eta edukietan oin harturik, Sindikatuak egiten dituen gogoeta guztiak garaiz igor ditzagun moduko markoa finkatuko dugu; horrela, lantokietan hobeki eskuhartzeko klabeak eskaini ahal izango dizkiegu delegatuei, osotasu-

nezko ikuspegitik.

Marko hau ez dugu ikuspegi baztertzaitetik ikusi behar eta, era berean, ez dugu ulertu behar sektore bakoitzak bere delegatuekin, bere politika sektorialean eta kasuan kasuko problematika zehatzen arabera garatu behar dituen berariazko dinamikentzat eragozpena izango denik.



# U. BILTZAR NAGUSIAK HAUTATURIKO KOMITE NAZIONALEKO KIDEAK

## **Komite exekutiboa**

IDAZKARI NAGUSIA: Rafa Diez Usabiaga

EKINTZA SINDIKALA ETA POLITIKA SOZIALERAKO IDAZKARIA: Txomin Lorca Alcala

NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO IDAZKARIA: Jose Luis Rezabal Zurutuza

KOMUNIKAZIO IDAZKARIA: Jesus M. Ariznabarreta Zubero

FINANTZAK, AZPIEGITURAK, GIZABALIABIDEETAKO IDAZKARIA: Felix Lopez Torres

GAI EKONOMIKOETARAKO IDAZKARIA: Rafa Izquierdo Sanchez

GAI JURIDIKOETARAKO IDAZKARIA: Mari Paz Garcia Ortega

EMAKUME ARLOKO IDAZKARIA: Itziar Lopategi Basterretxea

GAZTE ARLOKO IDAZKARIA: Ainhoa Etxaide Amorrortu

NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO IDAZKARIA: Jesus Gete Olarra

HEZKUNTZA IDAZKARIA: Juan Angel Arrea Zorrilla

BARNE KOORDINAZIORAKO IDAZKARIA: Jabi Garnika Andueza

ANTOLAKUNTZA IDAZKARIA: Santos Indakoetxea Arangoa

## **Sektoreetako idazkari nazionalak**

ERAIKUNTZA, ZURGINTZA, BEIRA eta ZERAMIKA: Juantxo Latasa Getaria

KIMIKA, ENERGIA, OIHALGINTZA, PAPERGINTZA eta ARTE GRAF: Marijo Romero Martinez

METALGINTZA: Angel Mateos Parra

MERKATARITZA, OSTALARITZA eta GARBIKETAK: Olatz Arozena Isasa

GARRAIOAK, TELEKOMUNIKAZIOAK : Carlos Ginea Plaza

FINANTZAK (BANKA, AURREZKI KUTXAK eta ASEGURUAK): Josean Urkiola Cuni

IRAKASKUNTZA (PUBLIKOA, PRIBATUA, IKASTOLAK): Iñaki Gonzalez Murua

OSASUNGINTZA (PUBLIKOA, PRIBATUA, GIZARTE ASISTENTZIA): Nekane Erauskin Otegi

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK (UDALEKOA, AUTONOMIKOA, ESTATUKOA, POSTAK):  
Juanjo Aranburu Rojas

## **Eskualdeetako idazkariak**

### ARABA

AIARA: Irene Isusi Odiaga

GASTEIZ-LAUTADA: Jabi Elorriaga Preciado

ERRIOXA-BAILARAK-MENDIALDEA: Jose Antonio Garrido Garrido

### BIZKAIA

BILBO: Lola Gomez Perez

BUSTURIALDEA-LEA ARTIBAI: Jon Iñaki Alkorta Gandiaga

DURANGALDEA: Aitziber Zallo Kamara

EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK: Felipe Henales Madrazo

HEGO URIBE-ARRATIA: Josu Bilbao Beotegi

IPAR URIBE-TXORIHERRI: Fernando Saenz Ruiz

**PARTE-HARTZEA BULTZATUZ ERAGINKORTASUN BIDEAN**

## GIPUZKOA

DEBALDEA-LEINTZ: Alberto Elgoro-Iribe Uribari

DONOSTIA-HERNANI: Iker Rokandio Etxeberria

KOSTA-UROLA: Patxi Altzibar Sorazu

OARSO-BIDASOA: Jon Solagurenbeaskoa Betelu

TOLOSALDEA-GOIERRI: Mari Mugika Ezkurra

## NAFARROA

ERRIBERA-ERDIALDEA: Oskar Olleta Etxeberria

IRUÑEA-IRUNTZU-BAZTAN: Santi Lorente Bona

SAKANA-LARRAUN: Josune Senar Lasa

## 7. IDAZKARITZAK ETA KABINETEAK: GOGOETA

Aurreko Biltzarrean hainbat idazkaritza, kabinete eta aparatuz hornitu genuen geure burua. Horri dagokionez, lau urte hauetako eskarmentuak erakutsi digunez, egitura horien akats edo hutsuneak betetzeko ziren eta, gehiegitan tamalez, lana koordinatu behar zuten egiturekin konektatzera ere ez dira iritsi.

Orain planteatzen ari garen egituraketa berri honek, gure ustez, idazkaritzak bitartekari izaki, organo horien eginkizunik gehientsuenak errealitate bihurtzea ahalbideratzen du. Dena den, premien arabera, berariazko lan-batzordeak sortzeko atak zabalik izango ditugu aurrerantzean ere

Hala ere, eta Ekintza Sindikaleko ponentzian Lan Osasuna eta Ingurugiroari buruz egindako hausnarketak kontutan izanik, beharrezkoa da jarduera sindikalaren esparru honi antolakuntza mailako garapena ematea, sindikatuko egitura guztietan behar ainako jorraketa eta garrantzia ematea bermatzeko. Hau dela eta, hurrengoa proposatzen da:

Biltzar Nazionalean Lan Osasuna eta Ingurugiroaren arduradun nazionala egotea, zuzendaritza berriari, gehienez bi urteko epean, ardura hau Komite Nazionalean sartzea eskatzen diogularik.

Aipatutako beharrei erantzun eta egun Lan Osasuna eta Ingurugiroko Gabinetek duen egituraketa gainditzeko, estruktura sektorial eta eskualdetan egokia izan behar duen ardura sortzen da. Ardura hau Eskualdeko Idazkaritzan eta Sektoreko Komite Nazionalean parte hartuko du, honetarako izendatzea litzake hoberena, horrela ez izanez gero, Eskualdeko edo Sektoreko Idazkaria izango litzateke.

## 8- KONTU OROKORRAK

Nork bere gainean duen arduraz bere lan-plana egin beharko du, jakina, baina horretaz gainera, Sindikatuko egitura eta organo guztiei dagozkien alderdi batzuetaz txosten honetan orokorki aipatzea beharrezkoa dela ikusten dugu.

### 8.1- Afiliazio politika

Gure Sindikatuan eguneroko zereginen artean etengabe eta dinamikoki integratu behar dugun funtsezko kontua da herritarrak afiliatzeko premia. Sindikatuak, etengabe gora eta goraka ari den arren, bide horretan segitzeko sekulako potentzialitateak ditu.

Langilerian sindikatu batek nolako intzidentzia edo eragina duen neurtzeko parametroetako bat - ez bakarra, beraz - afiliatuen kopurua da. Euskal Herriaren askapen sozial eta nazionalarekin konpromisoa harturiko sindikatua den neurrian, LABen oinarri soziala sendotzea, indar-metaketaren prozesuari ekarpenak egitea da.

LABen jarrera-autonomiaren ardatzetako bat independentzia ekonomikoa da: horrela izan da beti eta horrela izango da aurrerantzean ere, hau da, afiliatuek ordaintzen duten kuotekin finantzatuko du Sindikatu honek bere burua.

Balore handiko ondare horrek etorkizunean ere horrela jarrai dezan, geroaldian bestelako morrontza ekonomiko edo diru-iturriren batek mendean hartu ez gaitzan, afiliazio-politika aktiba praktikatzan segitu behar dugu.

LAB ardura eta erreferentzialtasun handiko eragile aktibo duen koiuntura honetan, Euskal Herrian oraintxe finkatzen ari den gehiengo berri horren zati handi batentzat ere sindikatua, "Sindikatu", izan behar dugu.

LAB Sindikatuan itxaropen eta konfidantza sindikal eta politikoa gorde duten sektore horiexengan eragin behar dugu egitura guztietatik: aurrerapausua egin eta afilia daitezzen animatu behar ditugu.

Hitz gutxitan, afiliazioa ugaltzeari esker sindikatuaren zabalkuntza errealitate bihurtzen ari gara. Ondo eratuako lanari esker eta afiliatuak sortzeko premia barneratzearen bitartez, gure ordezkari eta agerpenak adierazten duen logikaren harian jarriko dute gure Sindikatua.

## **8.2- Hauteskunde Sindikalak**

Egun indarrean dagoen etengabeko zenbaketa sistema horrek tentsionamendua eta hauteskunde sindikalen inguruan lana egoki dezagun eskatzen digu.

Lortu dugun ordezkari bera ere sindikatu baten agerpenaren neurgailu da. Ikuspegi horretatik esan dezakegu LAB orain herria hobekien ordezkatzan duen sindikatu-tuetako bat dela; areago, portzentaia horiek gora egitea espero dugula.

Esperientziak frogatu izan digunez, lau urtez behin hauteskunde sindikalik gehientsuak egitean, prozesu trinko-trinkoa gertatzen bada ere, lana ez da inondik ere hor bukatzen.

Atal honetan ere gogoratu behar dugu egiteko lana handia dugula oraindik. Sindikatuaren egiturek beren lan-planetan hauteskunde sindikalak tartekatu behar dituzte: ez bakarrik indarreko aktak gertutik jarraitzea; enpresa sortu berri asko dago eta enpresa askotan ere ez dira hauteskundeak egin.

Atal honi amaiera emateko, lan zentruetan sindikatua ordezkatzan duten delegatuek eduki beharreko ezaugarri buruz barne eztabaida bat ematearen beharra aipatu nahi genuke. Garai egokiena, 2002 urtearen bukaera aldera izango diren hauteskunde sindikalak prestatzeko lan plangintzen eztabaida izan daiteke.

### **8.3- Gestio administratiboa, ekonomiko-finantziaria eta Ondare Sindikal Metatua**

Egunez egun Sindikatua tamaina handiagoa hartzen ari da, urtero gestionatzen ditugun baliabideak gora doaz, Sindikatuaren ondarea sendotzen ari da etab. Horrek denak, Komite Nazionalak - organo hori baita horrelako gaien martxa zuzenaz arduratzen dena - behar bezala funtziona dezan, gestio-maila egokia hartu behar du.

Kontu ekonomiko-finantziarietan geure burua' perspektiba estrategikoaz jantzi behar dugu, unean unean hartu behar ditugun erabakiek Sindikatuaren etorkizuna baldintzapean ipin ez dezaten.

Administrazio-lana (pertsonekiko gestioa, kontabilitate-prozesuak etab.) izugarri ugaltu dira Sindikatuaren. Arduradun guztiok horretaz jabeturik, lagundu egin behar dugu, alor horretan ere gestio ona egin dezagun denon artean.

Horrelako eginkizunak betetzen ari da aspalditik Sindikatuko lantalde bat, baina horrek ez du esan nahi besteek eginkizun horietan inplikatu behar ez dutenik.

Gastuen kontrol, sarreraren gehikuntza, eta antzeko politikei dagozkien funtzionatze-ko metodoez Zuzendaritza Nazionalak finkatzen dituen irizpideak egiturek eta arduradunek ongi hartu, ulertu eta betetzen lagundu beharko dute.

Ezin dugu atal hau, sindikatuaren nominan dauden pertsonekin dagoen harreman ekonomikoari buruz jardun gabe. Gai honi dagokionez, 5. Biltzar Nagusi honetatik aterako den Komite Nazionalak kotizazio zein soldatetan erdi mailako konbenio sektorial batekin piskanako homologaziorako plan ekonomikoa onartu eta martxan jarriko du.

Atal honetan, Ondare Sindikal Metatuari (OSM) buruzko aipamena egin beharra dago. OSM erakunde sindikalei lagatzeari buruzko Legea 1986an plazaratu zenetik gure Sindikatuak ondare-kontu horietan nozitu izan duen diskriminazio latzak bere horretan segitzen du gaur egun.

Egoera batzuk desblokeatzen ari diren arren, beste sindikatuen (horietako batzuek gure bano ordezkariak urriagoa dutenak) aldean behintzat, berdintasuneko tratamendutik urrutituta gaude oraindik.

Zor zaigun OSMaz gozatzea ahalbideratuko diguten gestioetan sakontzen segitu behar dugu. Negoziazio-estrategia eta presio-neurriak elkarrekin batera praktikatzea beharrezkoa izango da agian, horrela LABentzat mesedegarriak liratekeen soluzioak azkarago badatoz.

## 8.4- Barne-euskalduntzea

Sindikatuaren barne-euskalduntzeari dagokionez, Biltzar Nagusien arteko epeak bi fase izan ditu. Lehendabizikoak, moteltzea eta plagintzarik gabetia nabarmenak zituen bereizgarri nagusiak, benetan panorama kezkarria agertuz. Bigarrenean, berriz, berriazko lana eratu eta martxan jarriarik, plangintza zorrotza egin da eta LABen barne-dinamika egunean baino egunean euskaldunago izan dadin proiektua finkatu da.

EUSLAB proiektu estrategikoa, SINEUS planean garatzen delarik, indar eta ziurtasunez garatu beharra dago eta, horretarako, erakundeak tentsionamendu etengabe eta eraginkorra nozitzea ezinbestekoa da.

SINEUS programan, kargu hartuko duen Zuzendaritzak gutxieneko konpromiso jakin batzuk hartu beharko ditu:

-Komite Exekutiboaren osaketak euskaraz funtzionatu ahal izatea garantizatu beharko du.

Komite Nazionala erabat euskalduntzeko konpromisoan hurrengo Biltzar Nagusia baino lehen Komite Nazionalaren osaketak euskaraz funtzionatzeko gai izan beharko du.

- Hedapen nazionalen Sindikatuak egingo dituen kanpo-komunikazioak (prentsa-oharrak, prentsaurreak, etab.) euskara-espainolez, euskara-frantsesez edo, areago, batzuetan euskaraz bakarrik egin beharko ditu.

## 8.5. Aldizkako argitalpen konfederalak

Ponentzia osoan zehar nabarmendu dugu euskal langileriaren erreferente bilakatu nahi duen sindikalismoarentzat informazioak duen garrantzi handia.

Gaur arte eta sektore - edo lurralde - egituren eta arloen argitalpenez kanpo, Iraultzen izan dugu eskura koadro, afiliatu eta bestelako langile guztion informazio-premiak asetzeko bide bakarra.

Afiliatuak informatu eta elkarrekin komunikatzeko kazetaritzazko produktua den neurrian, Iraultzen sendotzea benetako lorpena da; baina lorpen horren kalitatea eta eragina - barnera zein kanpora begira - hobetu behar dugu.

Iraultzen aldizkariarekin batera, komunikazio-tresna guztiak dagozkien lekuetan kokatu eta ordenatu behar ditu gure Sindikatuak, eraginkortasuna eta esfortzuak zehazki baloratuz. Ikuspegi horretatik, gaur egungo produktu batzuen bidezko razionalizazioari, Sindikatuko koadroen premiei erantzuna emango dieten produktu berriak kontrajarri behar zaizkie.

## 9. LABen ESTATUTUAK

LABen egungo Estatutuen testuak sakonetik aztertu eta gaurkotu behar dira. V. Biltzar Nagusi hauxe izango dugu horri buruzko erabakiak hartzeko une egokia.

Gure erakundearen Estatutuek izan behar duten garrantzia dela medio, horiek eztaba-  
datu eta lantzeko prozesua Biltzar Nagusi batetik kanpo egin behar dela iruditzen zaigu. Beraz,  
hemen aurkezten dugun metodologia ezaugarri horri bete-betean dagokiola uste dugu.

- Komite Nazionalak Estatutuen Zirriborroa idazteko berariazko batzordea izenda-  
tuko du.

- Batzorde hori Komite Nazionaleko kideek osatuko dute; bertako pertsona baten  
eskuetan utziko da ardura. Jardueraren martxa ona Komite Exekutiboak zainduko du.

Estatutu berri hauek 2001eko Maiatzak 1erako onartuak egon behar dira. Horrela  
izan dadin, Komite Nazionala egutegia egingo du kontutan edukiaz, eztabaida prozesuari  
dagokionez, kongresuko ponentziaren izaera izango duela.

Estatutuen onespina Biltzar Nagusiari dagokio. Hau dela eta, 5. Biltzar Nagusia  
honetarako hautatuak izan diren ordezkariak, aipatutako epeetan, Estatuten behinbetiko  
onespina emateko deituak daude.

Komite Nazionalak proposaturiko zirriborroa aurkeztu ondoren, jakina, afiliatu guz-  
tiek ekarpenak eta emendakinak egin ahal izan ditzaten, eztabaida-prozesua irekiko dela  
bermatu behar da. Fase hori zabal-zabala izango litzateke, biltzar-fasearen antzekoa.

Estatutu berriek hurrengo alderdiak jaso beharko dituzte, gutxienez:

- LABen nortasuna
- Afiliatuen eskubide eta betebeharrak indibidual eta kolektiboak
- Sindikatuaren organigrama
- Zuzendaritza-organo konfederalak. Eginkizunak
- Biltzar Nazionalaren eta Biltzar Nagusiaren Araudiak.
- Sindikatua eta bertako nominan dauden liberatuen arteko harremanak
- Koadro eta militanteen elkarrezintasunak: arau orokorra.
- Disziplina Batzordea.
- Berme Batzordea.